# Tutorearentzako ideiak

Patxi Sanjuán

# Tutorearentzako ideiak

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

| | |
|---|---|
| Izenburua: | Tutorearentzako ideiak |
| Egilea: | Patxi Sanjuán |
| Azala: | Asís Bastida |
| Argitaratzailea: | Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua. |
| Fotokonposizioa: | PRETEXTO. Estafeta, 60 - 31001 Iruña |
| Inprimatzailea: | Ona Industria Gráfica |
| Lege gordailua: | NA 2.210-2003 |
| I.S.B.N.: | 84-235-2431-0 |

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza Departamentua

---

Sustatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Toki Administrazioko Departamentua
Navas de Tolosa K., 21
Telefonoa: (848) 42 71 21
Faxa: 848 42 71 23
31002 Iruña
Posta elektronikoa: publi01@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es

# Aurkibidea


Dokumentuan erabiltzen diren siglak ........ 11

Sarrera eta liburua erabiltzeko ideiak ........ 13

TUTORETZA PLANA.
PROPOSAMENA

I. Sarrera ........ 19

II. Orientazioaren eta tutoretzaren abiapuntua eta lehentasunak ........ 23

III. Egituraren eta jokaeraren zehaztapenak ........ 27
1. Tutoretzarako koordinazio departamentua ........ 27
2. Tutoreak ........ 29
3. Irakasleen bilera horizontalak ........ 30
4. Ikasleekiko tutoretza saioak ........ 32
5. Familiekiko harremanak ........ 38
6. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea (KPB) ........ 42

IV. Tutoretza-planaren helburuak. Helburu orokorrak. DBHrakoak. Batxilergorakoak ........ 43
1. Helburu orokorrak ........ 43
2. DBHrako helburuak ........ 44
3. Batxilergorako helburuak ........ 47

V. DBHrako tutoretzaren alorrak ........ 49
1. Ikasleen integrazioa ........ 49
2. Ikasketen orientazioa ........ 51
3. Irakaskuntza eta ikaskuntzaren arteko egokitzapena ........ 52
4. Ikasketa teknikak. Prozedurazko edukiak ........ 54
5. Aniztasuna ........ 54

VI. Bestelakoak ........ 55

VII. Ebaluazioa eta ebaluazio psikopedagogikoa ........ 59
1. Hasierako ebaluazioa ........ 60
2. Ebaluaziorako prozesua ........ 63

3. Promoziorako irizpideak ..... 65
4. DBHko titulua emateko irizpideak ..... 67
5. Gutxienezko edukiak ..... 68
6. Nola ulertu bi herenak irakasle taldean ..... 69
7. Ebaluazio psikopedagogikoa egiteko prozedura ..... 70
VIII. EGOKITZAPEN CURRICULARRAK. TUTOREARENTZAKO MATERIALA ..... 73
IX. PROZESU BIDERATZAILEAK ..... 79
1. Dibertsifikazioa ..... 79
2. Curriculum egokituko unitatea ..... 81
3. Lanbide hastapeneko programak ..... 83
X. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK ..... 85
XI. TUTOREEN LANA ERRAZTEKO ZENTROKO ERABAKIAK ..... 87
1. Lehen zikloko irakasle bilkuretan hartu beharreko erabakiak ..... 88
2. Bigarren zikloko irakasle bilkuretan hartu beharreko erabakiak ..... 88
3. Klaustroak eta eskola kontseiluak hartutako akordioak ..... 88
XII. IKASKETEN ORIENTAZIOA (IKASMAILA BAKOITZERAKO ZEHAZTUA) ..... 89
XIII. EKINTZEN EGUTEGIA. DBH ETA BATXILERGORAKO ..... 95
XIV. TUTORETZA PLANA ONARTU BAINO LEHEN GARATU BEHARREKO PROZEDURA ... 109
XV. IRADOKIZUNAK BIDERATZEKO ORRIA ..... 111

EREDU BATZUK
GAI MULTZOKA

A. AUTOESTIMA, AUTOKONTZEPTUA, FIDAGARRITASUNA LANTZEKO ..... 115
A1. Benetakoa izatea ..... 117
A2. Autokontzeptua lantzeko ..... 122
A3. Gurasoen aurrean fidagarriak izan nahian ..... 131
A4. Adoleszentzia. Abiapuntua ..... 133
B. IKASLEEKIN BALORAZIOAK EGITEKO MATERIALAK ..... 137
B1. Laugarren mailan egindako orientazio programa baloratzen dugu .... 139
B2. Tutoretza ebaluatzeko materiala ..... 141
B3. Ikasturtea baloratzen dugu ..... 144
B4. Ikasturtea baloratzen dugu. Bigarren eredua ..... 147
B5. Tutoreek tutoretza ebaluatzeko inkestatxoa ..... 149
B6. Tutoretza irakasleekin baloratzen ..... 152
C. EBALUAZIOA IKASLEEKIN PRESTATZEN DUGUNEAN ..... 157
C1. Lehen ebaluazioa aztertzen ikasle taldearekin ..... 159
C2. Orain arte egindakoa baloratzeko tresna ..... 164
C3. Ebaluazioa ikasleekin prestatzen dugu. Tresna erraza ..... 166
C4. Ebaluazioa prestatzeko ikasleentzako galdetegia ..... 169
C5. Ikasleek irakaslearen lana baloratu dezaten. Inkestatxoa ..... 172
C6. Bigarren ebaluazioa prestatzen dugu. Ikasleekin egiteko ariketa ... 174
C7. Gure lana ebaluatzeko ..... 177
C8. Aurrebaluazioa mailaz maila. Galdesortak ..... 179

D. ELKAR EZAGUTZEKO ARIKETAK ........ 189
D1. Elkar ezagutzeko ariketak ........ 191
D2. Aurkezpenak: elkar ezagutzeko jarduerak ........ 193

E. ELKARRIZKETAK EGITEKO PAUTAK ........ 195
E1. Elkarrizketak egiteko pautak ........ 197
E2. 16 urte betetzen dutenekin elkarrizketa egiteko ideiak ........ 201
E3. Gurasoekin elkarrizketak egiteko gomendioak ........ 203

F. FAMILIEKIN HARREMANAK ........ 207
F1. Familiaren egoera ........ 209
F2. Ikasleen orientazioa ........ 215
F3. Gurasoak deitzeko ereduak ........ 218

G. IKAS OHITURAK ........ 221
G1. Lan eta ikas ohiturak ........ 223
G2. Ikas ohiturak ........ 224
G3. Ikas ohiturak ........ 228
G4. Irakasle taldeak ikaste teknikak eta ohiturak modu bateratuan lantzeko proposamena ........ 235
G5. Ikas prozesoak ........ 238
G6. Sararen historia ........ 243
G7. Ikasteknikei buruzko saioa ........ 246

H. IKASLE IZATEAREN LANA ........ 249
H1. Zintzotasuna ........ 251
H2. Ikasle izatearen lana ........ 256
H3. Erabakien ondorioak ........ 260
H4. Ikasle bezala dauzkadan hutsuneak aztertuz ........ 264
H5. Baloreak. Etorkizunari begira dauzkadan baloreak ........ 272
H6. Kikoren historia ........ 279
H7. Asignatura gogokoenak ........ 282
H8. Jakintzagai gogokoenak ........ 284
H9. Nere kalifikazioen gaineko hausnarketa ........ 285
H10. Nola erabaki ........ 287
H11. Gizarte harremanak. Lagunak ........ 290

I. IKASTURTEAREN HASIERAN EGIN DITZAKEGUN GAUZAK ........ 293
I1. Ikasturteko lehenengo eguna ........ 295
I2. Ikasleentzako inkestak ........ 301
I3. Klaseko logotipoa ........ 318
I4. Ikasleak matrikula egin behar dutenean jakintzagaiei buruzko informazioa ........ 319
I5. Ikasturtea ongi hasteko ariketak ........ 321
I6. Inbentario egiteko pauta ........ 325
I7. Klaseko araudia egiteko pauta ........ 328
I8. Tutoretza planaren aurkezpena ........ 329
I9. Ikasleek beraien ordutegi pertsonala egiteko pauta ........ 332
I10. Ikasturtea hasia dagoenean ikaslegoa nola dagoen ikusteko saioa 335

J. ORDEZKARIAK ........ 339
J1. Ordezkariak hautatzeko ........ 341

K. PROBLEMAK AZTERTZEKO MATERIALAK .......... 349
K1. Problemak aztertzeko materiala .......... 351
K2. Gelan arazoak daudenerako .......... 355
K3. Gelako jokaera aztertzeko tresna erraza .......... 360
K4. Lagunarteko arazoak .......... 363
K5. Gure taldeak hobetu nahi du. Nik hobetu nahi dut .......... 365

L. SOZIOGRAMAK .......... 371
L1. Soziograma eredu batzuk .......... 373

M. IKASLE BATEN PROMOZIOA EDO TITULAZIOA ERABAKI BEHAR DENERAKO PENTSATZEKO TRESNA .......... 379
M1. Tresna .......... 381

N. ORIENTAZIO PLANA AURKEZTEKO IDEIAK .......... 397
N1. Tresna .......... 399

Ñ. EBALUAZIORAKO DOKUMENTUAK .......... 405
Ñ1. Oharrak jartzeko maindirea eta argibideak .......... 407
Ñ2. DBH. Hasierako ebaluazioa .......... 410
Ñ3. Dibertsifikazioa aholkatzen hasi baino lehen. Uca aholkatzen hasi baino lehen .......... 414
Ñ4. Intitutura etorri behar duen ikasleari buruz irakasleen artean solas egiteko txostena .......... 416
Ñ5. Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Gelako txostena .......... 419
Ñ6. Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak.ikaslearen ebaluazio txostena .......... 421
Ñ7. Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Aurrebaluazioaren txostena .......... 423
Ñ8. Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Gelako txostena .......... 425
Ñ9. Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Akta eredua .......... 427

O. OROTARIK .......... 429
O1. Askatasuna eta errespetua .......... 431
O2. Erlaxazioa .......... 435
O3. Presioen gaineko hausnarketa .......... 439
O4. Kontzientzia hartzen dut neure kontsumoaz .......... 442
O5. Eztabaidarako esaldiak. (3. Munduko egoera) .......... 444
O6. Irakasleengandik tutorearengana .......... 447
O7. Adimen anitzak. Galdetegia .......... 449

P. DBHKO TITULUAREKIN BATEAN ORIENTAZIO KONTSEILUA. EREDUAK .......... 459
P1. Ereduak .......... 461

Q. EGOKITZAPENAK .......... 465
Q1. Egokitzapena egin baino lehen pausu batzuk. Hausnarketa .......... 467
Q2. Pertsonak anitzak gara. Ikasle ezberdinekin lan egitea .......... 469
Q3. Arloko egokitzapena egiteko txosten eredua .......... 472
Q4. Komuneko egokitzapena egiteko txosten eredua .......... 476

# Dokumentuan erabiltzen diren siglak

| | |
|---|---|
| BA | Barne araudia. |
| CEU | Curriculum egokituko unitatea. |
| EC | Egokitzapen curricularra. |
| GHA | Garapen hurbileko alorra. |
| HPB | Hezkuntza premia bereziak. |
| IEO | Ikastetxeko erreglamendu organikoa. |
| IPC | Ikastetxeko proiektu curricularra. |
| KPB | Koordinazio pedagogikorako batzordea. |
| LHP | Lanbide hastapeneko programa. |
| OD | Orientazio departamentua. |
| PT | Pedagogia terapeutikoko irakaslea. |
| TKD | Tutoretzarako koordinazio departamentua. |
| TD | Tutoretza departamentua. |

# Sarrera eta liburua erabiltzeko ideiak

## Tutoretza koordinatzen duen departamentuari

Orain aurkezten dizugun material honek badakartza egilearen beraren ekarriak, baita Nafarroako orientatzaileek esku artean izan dituzten eta erabili dituzten hainbat lan ere. Kasuren batean zaila da oroitzea material zatia nondik datorren ere. Zenbait jardueratan seguraski antzemango dituzue zeuek egindako lan zatiak. Hainbat urtez ideiak eta proposamenak konpartitu ditugu, hori ederki badakizue, beti ere D ereduko institutuetako tutoretza hobetzeko asmoz. Material gutxi-gutxi genuen, eta horren ondorioz, norberak bere beharren arabera materiala sortzea izan zen bidea.

Makina bat fitxa eta jarduera daude, eta hauetako dezente Askatasuna eta Biurdana institutuetan erabili egin dira, izan ere, askotan fitxen eta jardueren ideiak bertan sortu dira, honengatik ikastetxe hauetako tutoreei eskerrik beroena.

Aurkezpenak ez du erabatekoa izan nahi, eta ez du, halaber, bere jarduera amaitutzat ematen. Ideien iturri izatea du helburu, bai departamentuarentzat, bai tutore bakoitzarentzat. Lan honen azpian dagoen ideia da tutoreak programatu behar duela, eta batik bat, tutoretza plana bere taldearen errealitatera egokitu behar duela. Ez da komenigarria irakasleari esatea zer eta nola egin behar duen.

Azkenik, gure helburua ez da maila teorikoan ezer ekartzea, baizik eta, handinahikerian erori gabe, iradokizun sorta bat zeuenganatzea. Gure iradokizunak, zirriborro gisa bada ere, erabiltzen badituzue, orduan gure lana ontzat emango dugu.

Honako web helbide honetan, word formatuan estunragai duzue material hauguzkia, haudik hartu, gauzak kendu, jarri, zabaldu edo nahi bezala aldatu ahal izateko:
http://www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/novedades.php

Ongi iruditzen bazaizue, etor daitezkeen lanei begira, ideiak ekartzen jarrai dezakegu. Proposamenak ondoko helbidera bidal ditzakezue:
psanjuav@pnte.cfnavarra.es

## Tutorearen eginkizunak. Proposatutakoen artean egin daitezkeen ariketak

### Ikasleekin

| *Tutorearen eginkizunak* | *Tutorearen jarduerak* | *Erabil daitezkeen ereduak* |
|---|---|---|
| Ikasleak ikastetxean integratu daitezen erraztea, baita euren dinamika erraztea ere. | Harrera jarduerak antolatu eta egin. | I |
| | Tutoretzak zertarako balio duen azaldu. | I8, N1 |
| Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak pertsonalak izan daitezen lagundu. Ikasleen ikaskuntza prozesuei erabateko jarraipena egin, zailtasunak eta premia bereziak antzemateko, hezkuntza erantzun egokiak antolatzeko, eta beharrezkoa bada, aholkularitza eta laguntza egokiak eskatzeko. | Ikasle bakoitzaren egoera ikastetxean eta ingurunean ezagutu. | D1, D2, L1, E1, E2, E3 |
| | Eskolan integra daitezen laguntzeko esku hartu. | E1, K |
| | Ikaskuntzaren gainean lan egin. | C1, C2, C3, C5, C7, E1, E2, G, H |
| Nork bere bokazioa sasoitzeko prozesuak erraztu. Nork bere hezkuntza eta lanbidea orientatzeko prozesuak erraztu. | Ikasleak bere burua ezagutu dezan erraztu, eta berdin jokatu autoestimuarekin, eskolako porrotak edo bestelako porrotak autoestimu hori gutxiesten dutenean. | A, D, E, G6, H, K4, K5, L1 |
| | Ikasle bakoitzak dituen gaitasunak, interesak eta motibazioak sakonago ezagutu, euren hezkuntza eta lanbide etorkizunari begira erabakiak har ditzaten laguntzeko. | A1, A2, A3, A4, C6, C7, C2, E1, G, H |
| | Hezkuntza eta lanbide ibilbide bakoitzak dituen abantailak eta desabantailak aztertu ikasleekin batera, eta kontuan hartu horietatik zein egokitzen diren hobeto euren ahalmenetara eta lehentasunetara, zer lortura duten elkarren artean, eta zer etorkizun duten lan munduan. | H7, H8, H9, H10 |
| Taldeak duen barne dinamika ezagutu eta, beharrezkoa balitz, dinamika hori berregiteko, esku hartu. | Ikasle taldeak, bai ikastetxean, bai bere gizarte, kultur eta natur ingurunean, jarrera partehartzailea izan dezan sustatu. | L1, E1, H1, H6, H11, I10, O1, O3, O5, C, K |
| | Ikasle taldeak bere premiak, itxaropenak, arazoak eta zailtasunak plantea ditzan ziztatu, eta gauza bera egin, haiek beraiek konponbideak eta ekintza ildoak proposatzeko antola daitezen. | B, C, D, K, H1, H2, H4, H5, H6, H11, L1, O3 |
| | Ikaslekin bilerak egin, ebaluaketa saioak prestatzeko, eta berauetatik ateratako emaitzak komentatzeko eta erabakiak hartzeko. | B, C, H, I, K |
| | Ikasleen elkarbizitzan, integrazioan eta ikastetxeko eta inguruneko bizitzan (ordezkariak hautatu, festak eta txangoak, kultur jarduerak…) parte-hartzea bultzatzen dituzten jarduerak sustatu eta koordinatu. | J1 |

## Irakasleekin

| *Tutorearen eginkizunak* | *Tutorearen jarduerak* | *Erabil daitezkeen ereduak* |
|---|---|---|
| Ebaluazio prozesua koordinatu. | Aurreko urteetako txostenak erabiliz eta elkarrizketak eta galdeketak baliatuz, ikasle bakoitzari buruzko informazioa bildu, norberaren eskola-aurrekariak eta egoera pertsonala, familiarra eta soziala jakiteko. | I, E, Ñ |
| | Ebaluaketa saioak prestatu, koordinatu eta moderatu. | Ñ |
| | Ikasleen gainean erabilgarriak izan daitezkeen informazio guztiak irakasleei transmititu, horiek baliatuz euren irakaslana eta ebaluazio eta orientazio lana hobeto egin dezaten. | Ñ |
| Promozioaz eta titulazioaz hartu beharreko erabakiak koordinatu. | | M1 |
| Ikasle taldeari eta batik bat aniztasun neurri bereziak behar dituzten ikasleei egokitzen zaizkien programazioak koordinatu. | Curriculumak egokitzeko prozesua koordinatu. | Q |
| | Hezkuntzako taldearekin adostu ea tutoretza plana zehaztu behar den bere ikasle taldean. | |
| Tutoretza koordinatzeko departamentuaren markoan, eta gainerako tutoreekin batera, ekintza ildo komunak ahalbidetu. | | |

## Familiarekin

| *Tutorearen eginkizunak* | *Tutorearen jarduerak* | *Erabil daitezkeen ereduak* |
|---|---|---|
| Familiarekin harreman onak izan daitezen lagundu. | Ikasturtearen hasieran gurasoak bildu. | E3, F |
| Gurasoak inplikatu euren seme-alaben ikaskuntza eta orientazioa laguntzeko jardueretan. | Hainbat orientazio jarduera (profesionalen hitzaldiak, lantokietarako bisitak…) egiteko laguntza eskatu. | |
| Gurasoei informazioa eman euren seme-alaben hezkuntzari buruzko hainbat alderdiri buruz. | Otsailean orientazioari buruzko hitzaldia gurasoei eman. | |
| | Ikasle bakoitzaren gurasoekin elkarrizketa indibiduala izan. | E3. F |

## Tutoretzaren ildoak. Egin daitezkeen ariketak

| *Ildoa* | *Ideiak* | *Iradokizunak* |
|---|---|---|
| Pentsatzen irakatsi. | Arlo guztietan egin behar da. Pentsatzeko estrategia nagusiak ikastea da helburu. Arlo bakoitzak badu berezko sistema bat eta berezko prozedurak. Prozedura hauek eduki gisa lantzen dira arlo bakoitzean. | C1, C3, C5, C6, E1, G1, G2, G3, G4, G5, G6, G7, H2, H3, H4, H7, H8, H9, O3 |
| Pertsona izaten irakatsi. Nortasuna garatzen irakatsi. | Nork bere buruaz eta bere nortasunaz irudi ona izatea izango litzateke helburu.<br>Nortasunaren erabateko garapena bilatu. | A, B5, B6, C2, C5, C6, D, E1, H1, H2, H3, H4, H5, H6, H10, H11, I2+E1, I9, I10, K4, K5, O1, O3, O4, O5, O6 |
| Ingurune batekiko lotura izaten irakatsi. | Askatasuna eta autonomia, gizarte arauei lotuak. | A1, A3, C2, C4, C6, D, E1,H1, H2, H3, H4, H5, H6, H10, H11, I3, I7, J1, K, O1, O3, O4, O5 |
| Elkarbizitzen irakatsi. Sozializazioa. | Komunikazioa, lankidetza, indarreko arauak errespetatu, pertsonak eta ideiak errespetatu, entzuten ikasi, ezetz esaten ikasi... | A3, A4, C3, C4, D, E1, H1, H2, H3, H11, I3, I7, I10, J1, K1, K2, K3, K4, K5, O1, O3, O4, O5 |
| Elkartasunean bizitzen eta lagunartekoa izaten irakatsi. | Aurreko laukian esandakoaren aldean, honek aurrerapauso kualitatiboa suposatzen du, zeren eta errespetatzea ezezik, inplikatzea ere baitakar. Elkartasunean bizitzea ez da bakarrik beste pertsonak errespetatzea eta estimatzea, baizik eta pertsona horiek dituzten premiak eta bizigogoak ulertzea. | Id. |
| Independentzia eta elkartasuna koordinatzen irakatsi. | Ondoko bikoteak bateratzen ikasi: Autonomia/Elkarlana, emantzipazioa/zoriontasuna, autonomia/elkartasuna, independentzia/lankidetza, arauei lotu/ekimen askea. | A2, H6, H2, H3, H10, H11, I3, J1, K, O1, O3, O5 |
| Gizartean onartutako moduan eta moraltasunez jokatzen irakatsi. | Honek badu kutsu etiko bat; portaera ona da giza duintasunarekin bat datorrenean. Elkarbizitzen irakastea eta pertsona izaten irakastea hezkuntzaren alderdi funtsezkoak dira. | Id. |
| Ingurunera egokitzen irakatsi. | Zenbait kasutan honek suposatuko du hainbat liluraren aurrean (kontsumoa, helburuak nola nahi lortu...), nork bere burua defendatzea.<br>Ikastetxeak ikasleei horreterako gaitasunak gararazi behar dizkie, hots, bereizteko, aurreikusteko, juzgatzeko eta aukeratzeko gaitasuna izan dezaten. | Id. |
| Erabakiak hartzen irakatsi. | Gauzak erabakitzen, gauzak erabakiz ikasten da. Gauzak erabakitzeko, trebetasun batzuk behar dira, eta konpromiso gaitasun baten jabe izatea ere bai. Ikastetxeak, ahal den neurrian, ez ditu ikasleak babestu behar euren ekintzek ekar ditzaketen ondorioetatik. Irakasleek ikasleak orientatu behar dituzte, ez bakarrik euren ikasketak edo karrerak zuzen bideratzeko, baizik eta hautatuko eta egingo dituzten jardueretan zentzu pertsonal bat jar dezaten. | Proposatutako hainbat jarduerak badute zerikusia gai honekin. H3, H10, G6, A3 |

# Tutoretza-Plana.
# Proposamena

# I. Sarrera

Gaur egun irakaskuntzaren helburuak, edukiak eta jarduerak anitzak dira. Edukien artean ikasle bakoitzaren edo ikasle-gelaren jarraipena, diziplina, ikasketa teknikak, ikasketa eta lanbide-orientazioa, talde-gelaren parte-hartze jarrerak bultzatzea, talde dinamika, gurasoekiko bilerak, elkarrizketa pertsonalak, bilera horizontalen koordinaketa... azpimarratzekoak dira.

LOGSEk orientabideari eta tutoretzari eman behar zaion tratamendua 60. artikuluan laburbiltzen du: “Ikaslearen tutoretza eta orientazioa irakaskuntza lanaren osagai izanen dira”. Beste era batera esanda, irakaslea, ezagutza-emaile izateaz gain, benetako hezitzailea izanen da, hezkuntza osoaren ikuspuntu batetik pertsonaren alderdi fisikoa, afektiboa, soziala eta intelektuala kontuan hartuko dituena. Curriculumak, planteamendu honekin batera, ikasleengan garatu beharreko helburuak –gaitasun gisa azalduak– ekartzen ditu eta, horiek lortzeko, edukietan sartzen ditu bai kontzeptuak, bai prozedurak, eta bai jarrerak ere, ikuspuntu globalizatzaile bat erakutsiz.

Orientazioa heziketa prozesu bezala ikusten dugu gure ikastetxean. Irakasle guztiak arduradunak izateaz gain, koordinatzaile bat izendatzen dugu irakasle-taldearen lana aurrera atera dadin; beraz tutorea tutoretza lanaren koordinatzailea dela erran dezakegu. Halaber bitartekaria da, alegia gurasoak, ingurua, ikastetxea eta ikasleak harremanetan jartzen dituena.

Esperientziak erraten digunez, pertsona batek programatzen duena ez du besteak aurrera eraman behar, beraz programatzea eta aurrera eramatea irakasleen lana da. Lan honetan orientatzaileak eta tutoretzarako koordinazio departamentuak (aurrerantzean TKD edo tutoretza-departamentua) irakasleei lagunduko diete. Zenbait kasutan laguntza handia behar izanen da, beste batzuetan ez hain handia. Ardatza bezala, TKDk DBHko ekintza-bilduma prestatua izanen du laguntza gisa. Tutore bakoitzak ikusi beharko du nolako beharra duen eta zer-nolako erabilpena egiten duen.

Irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuak egokitzen lagundu behar ditu tutoretza ekintza-plan honek.

Proiektu curricularreko beste edozein atalekin gertatzen den bezala, dokumentu honetan aldaketak sartzen dira urtean zehar. Horrela, denon artean, Tutoretza-plana aberats dezakegu.

Behin onartuz gero, aldaketak edota iradokizunak proposamen bihurtzen dira datorren urterako. Irakasleen artean suertatzen diren ideia guztiak Tutoretza Departamentuari bideratuko zaizkio. Tutoretza Departamentuak iradokizun guztiak baloratuko ditu. Gero KPBri proposatuko dizkio beharrezkoak diren aldaketak.

Urtero berrikusiko dira ekintzen egutegiak eta urtero programatu ahal izanen ditugu, beharren arabera.

Azken bi kapituluetan, tutoretza planaz aparte, baina gaiarekin zuzenean lotuta, bi dokumentu ageri dira: *Tutoretza plana onartu baino lehen garatu beharreko prozedura* (15. kapitulua) eta *Iradokizunak bideratzeko orria* (16. kapitulua).

## Tutorearen betebeharrak eta eginkizunak

Bigarren Hezkuntzako Institutuen erregelamendu organikoak bere 52. artikuluan esaten duenaren arabera, ondoko hauek dira, besteak beste, tutoreen eginkizunak:

a) Tutoretza-planaren eta Hezkuntza Orientabidearen garapenean parte hartzea, Tutoretzarako Koordinazio Departamentuaren jarraibideak betez.
b) Ikasleek hezkuntza eta lanbide mailan dituzten ahalbideei buruzko orientabideak eta aholkuak ematea. Horren barnean dago aukerako ikasgaiak hautatzen laguntzea ere.
c) Ikasleen interesak ezagutzea eta taldean zein eskolako bizimoduan integrazioa bideratzea eta haiengan parte hartzeko jarrerak bultzatzea.
d) Bere taldeko ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea eta ebaluazio-saioak antolatzea eta bertan buru izatea.
e) Taldeko irakasleen hezkuntza lana koordinatzea. Horretarako, tutorea programazioa eta irakaslana Curriculum Proiektura eta Ikastetxeko Urteko Programazio Orokorrera egokitzeaz arduratuko da.
f) Tutoretzarako Koordinazio Departamentuak deitutako bileretan parte hartzea eta ikasketa-burutzak ezarritako moduan laguntzea.
g) Ikasleekin aldizkako bilerak edukitzea, taldeka edo bakarka.
h) Haren ardurapeko ikasleen ikasketa-dokumentazioa betetzea.
i) Ikasleen arazo eta kezkak bideratu eta, gainerako irakasleekin eta Zuzendaritza Taldearekin batera, sortzen diren arazoetan bitartekari lana betetzea.
j) Taldeko guraso, irakasle eta ikasleei irakaskuntzako jarduera eta ikasketen errendimenduari buruzko informazioa ematea. Familiei bertaratze hutsegiteen berri ematea, bai eta haiekin behar diren bilerak egitea ere.
k) Irakasleen eta gurasoen artean hezkuntza arloko lankidetza bultzatzea.

Beste aldetik, "*Orientación y tutoría*" Nafarroako Gobernuko kaxa gorrietako dokumentuetan ageri diren tutoreen eginkizunak ere kontuan hartzekoak dira. Bertan, aholku hauek ematen dira:

a) Ikasle bakoitza bere taldean eta eskola-jardueretan integratzeko laguntza eman eta haiengan parte-hartze jarrerak indartzea.
b) Irakasteko eta ikasteko prozedurak barneratzen (pertsonalizatzen) laguntzea.
c) Ikasleek ikasteko izanen dituzten arazo orokorrei eta espezifikoei kasu egin eta, ahal den neurrian, aurre ematea, curriculumaren egokitzapen pertsonalak prestatzeko.
d) Orientazio Departamentuarekin batera curriculumaren egokitzapenak prestatzen eta premiak dituzten ikasleei laguntza berezia ematen laguntzea.
e) Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea.
f) Irakasle eta gurasoen arteko heziketa-elkarlanari laguntzea.

Bestalde, Nafarroako Gobernuko 638/96 ebazpenak aniztasunaren trataerari buruz tutoreei ematen dien lana ere kontuan hartu behar dugu. Ebaluazio psikopedagogikoa egin behar denean; ikusi Aniztasuna tratatzeko plana delako dokumentua.

Tutoreak, klasean egiten duen bezala, tutoretza egiterakoan, bere estiloa izaten du (beti ere lana ziurtatuz), beraz ez litzateke ideia ona izanen tutoreari lana nola egin behar duen agintzea. Hau kontuan hartuz, tutoreak astean behin elkartuko dira tutoretzaren jarraipena egiteko.

## Aniztasuna

Aniztasunaren kontzeptu berean aldaketak ditugu, eta aniztasunaren trataeran ere bai. Tutoretzak aniztasunari erantzuna emateko bideak izan behar ditu. Tutoretzaren inguruko egintza-plan honek anitzak diren ikasleekin lana ongi egin dezagun lagundu nahi du.

# II. Orientazioaren eta tutoretzaren abiapuntua eta lehentasunak

## Abiapuntua

Institutuak bertze batzuen artean helburu hauek ditu:

- Homogeneoa ez den irakaskuntza bultzatzea. Ikasle bakoitzak dituen gaitasunak garatzeko irakaskuntza egokitua bultzatzea.
- Ikastetxeko bizitzan parte hartzea erraztea, ikas-prozesutik bertatik hasi eta eskolaz kanpoko jarduperetan parte hartzeraino.

Horretarako, esparru guztietan ondokoak eskatuko dira:

- Familien laguntza.
- Tutoretzarako Koordinazio Departamentuak ematen duen etengabeko laguntza eta aholkua.
- Ikastetxeko Tutoretzarako Koordinazio Departamentuaren eta tutoreen arteko elkarlana. Ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz, egokia den tutoretza burutzen, baita ahal den emaitzarik hoberenak lortzen saiatu ere.
- Taldekatze malgua eta heterogeneoa ezarri, ikasle bakoitzak bere garapenik handiena erdietsi ahal izateko, bai egiten duen ahaleginari eta baita pertsona berdinen arteko irakaskuntzari eta irakasleen ezinbesteko lanari esker ere.

a) *Tutoretza eta orientazio-eremu* honetan hezkuntzaren izaera pertsonalizatuarekin erlazionaturiko DBHko curriculumaren alderdiak landuko dira, era indibidual eta integratzailean.

LOGSEk ezartzen duen curriculumari jarraiki, orientabidean hurrengo hauek hartuko dute parte:

- Ikastetxeko irakasle guztiek
- Ikastalde bakoitzeko tutoreek.
- Tutoretzarako Koordinazio Departamentuak.
- Zuzendaritza taldeak.

Nahiz eta orientazioaren erantzuleak irakasle guztiak izan, ikastaldeez arduratuko diren irakasleen aniztasuna, hezkuntza helburuak eta zentroen funtzionamendu konplexua kontuan hartuz, irakasle-tutorearen lana behar beharrezkoa izanen da.

b) *Tutoreak*:

- Ikastalde bakoitzak bere tutorea izanen du. Irakasle honek arloko erantzukizunak izateaz gain, talde horretarako tutore lana burutuko du formalki eta instituzionalki, eta bere taldeko ikasleen jarraipenaz bereziki arduratuko da. Bere ikasleak ezagutu behar ditu bakoitzari laguntza eta aholkuak eskaintzeko.
- DBHn tutoretza eta orientabide-jarduera batzuk eskola ordutegiaren barruan jarriko dira, astean “tutoretzarako ordu” bat gordez.
- Tutoreek burutu behar dituzten eginkizunak eta lanak ikasle, irakasle eta familiei zuzenduak izanen dira.
- Tutore lana errazteko Tutoretza-plana urtero ezagutaraziko da, bereziki tutore guztiei zuzenduta. Zentroko Tutoretzarako Koordinazio Departamentua arduratuko da horretaz irakasle guztien laguntzarekin.

c) *Nola programatu tutoretza?* Tutoretza-departamentuak gutxienezko edukiak finkatzen ditu ikasturtearen hasieran.

Tutoretzarako Koordinazio Departamentuan plangintza zehaztuko da, baina aintzat hartuz hortik aparte tutore bakoitzak autonomia duela bai metodologian, bai gai berriak beharren arabera bideratzeko. Komenigarria da gai guztiak tutoreen bileratan aipatzea eta koordinatzea.

Plangintza eta jardueren lanketa Tutoretzarako Koordinazio Departamentuaren eskuetan uzten badira, irakasleek ez dituzte beren lantzat hartuko; berentzat esanguratsua ez den zerbait balitz bezala ikusiko lukete. Irakasleak kalitatezko hizkeran “prozesuen jabeak” izan behar dira. Irakasleak ez dira betearazle hutsak izan behar, beraiek diseinatu behar baitituzte.

Tutoretza-planak gutxienezko jarduerak zehaztuko ditu, tutore bakoitzak edo maila bakoitzeko tutore taldeak gainontzekoak erabakiko ditu.

*Laburbilduz, Tutoretza-planak ez ditu jarduerak osotara zehaztu beharrik, lan hau tutore bakoitzak edo maila bakoitzeko tutoreen artean egin beharrekoa baita.*

## Lehentasunak

Ikastetxe bakoitzean Tutoretza-plana osatzean, hurrengo sail hauei emanen diegu lehentasuna (Ikastetxe bakoitzak bereak).

- *Ikasleen jarraipen pertsonalizatuari*. Elkarrizketak bideratuko ditugu. Helburu gisa, ikasle guztiek behar diren elkarrizketak izanen dituzte tutorearekin Tutoreak ongi ezagutuko ditu bere ikasle guztiak.

- *Ikastaldea errekurtso pedagogikoa dela pentsa dezakegu. Hau dela-eta.*
  - *Ikastaldeak lan eta harreman balio baikor batzuen inguruan indartzeari.*
  - *Taldearen jokaera baikorra izateari.*
- *Ikasleen ikasketaren ebaluazio irizpideei*. Ikasle bakoitzaren egoera, ezaugarriak eta hezkuntza behar bereziak hartuko ditugu kontuan.
- *Ebaluazio saioak antolatzen eta arautzen dituzten irizpide egokiak bideratzeari.*
- *Irakasle-taldeko koordinazioari.*
- *Irakasle-taldea indartzeari.*
- *Harrera jardueren plangintzari*, ikasleak zentroan egokitzen eta parte hartzen errazten dituztenei, batez ere, beste hezkuntza mailetatik edo beste ikastetxeetatik datozenean.
- *Lanbide eta ikasketen orientazio-jardueren plangintzari*, ikasleei eskola eta lanbide mailetan laguntzen dietenean eta, bereziki, aukera edo espezialitate ezberdinen artean erabaki behar denean.
- *Gurasoekin izaten ditugun harremanak indartu eta elkarlanean sakontzeari*. Honek garrantzi handia dauka DBHn.
- *Tutoretza-departamentua eta tutoreen arteko koordinazioa indartzeari.*
- *Tutoreen autonomiari.*
- *Tutoreak izendatzeko irizpideei.*

# III. Egituraren eta jokaeraren zehaztapenak

## 1. Tutoretzarako koordinazio departamentua (153/99 Foru Dekretuak Agintzen Duenaren Arabera)

### Eginkizunak

a) Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak ezarri norabideen arabera, Orientazio Akademikoko Planaren eta Tutoretza-planaren proposamenak egitea eta, ondoren, eztabaidarako, Batzorde horretara igortzea, geroago prestatzeko eta etapako Curriculum Proiektuan sartzeko.

b) Orientazio Akademikoko Plana eta Tutoretza-plana antolatzen eta garatzen ikasketa-buruarekin batera lankidetzan aritzea.

c) Ikasketen orientazioa egitea, bereziki ziklo, etapa edo ikastetxe aldaketetan, irakaskuntza, prestakuntza eta lanbide mailako aukerak hautatzeko.

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean, ikaslearen etorkizun akademiko eta profesionalaren inguruan prestatu behar den kontseilu orientatzailea idazten laguntzea.

e) Familiei aholkuak ematea eta ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza programak prestatzen laguntzea.

Ikasketa-buruak bere gain hartuko du Tutoretzarako Koordinazio Departamentuko Burutza.

### Osaera

Tutoretzarako Koordinazio Departamentuko kideak hauexek izanen dira:

a) Ikasketa-burua.

b) Ikastetxeko orientatzailea.

c) DBHko lehenengo zikloko irakasle-tutore bat.

d) DBHko 3. mailako irakasle-tutore bat.
e) DBHko 4. mailako irakasle-tutore bat. (153/99 Foru Dekretuak bigarren ziklorako irakasle bakar bat aipatzen du)
f) Batxilergoko irakasle-tutore bat.

Departamentuko partaidea izateko, kurtso hasierako klaustroan tutoreei beren burua aurkezteko aukera eman beharko zaie. Boluntariorik ez badago, izendapenak zuzendaritzak eginen ditu. komenigarria da gutxienez bi urterako izendatzea.

Departamentua astean behin bilduko da. Ordu hori ez da eskola-ordutzat joko, osagarria baizik.

**Bilerak**

Tutoretzarako Koordinazio *Departamentuko burua* ikasketa-burua izanen da. Hauek dira bere eginkizunak (153/99):

- Tutoretzarako Koordinazio Departamentuko jardueren plana eta ikasturteko azken oroitza-txostena idaztea.
- Tutoretzarako Koordinazio Departamentuari esleitu zaizkion eginkizun guztien ardura hartzea eta departamentu horren jarduerak zuzendu eta koordinatzea.
- KPBri Orientazio Akademiko eta Profesionalen Planaren eta Tutoretza-planaren proposamenak igortzea eztabaidatzeko, geroago prestatzeko eta etapako Curriculum proiektuan sartzeko.
- Tutoretzarako Koordinazio Departamentuko jarduera-plana betetzen dela zaintzea.
- Tutoretzarako Koordinazio Departamentuko bilerak antolatu, haietara joateko deia egitea eta horietan buru izatea.

*Orientatzailea* Departamentu honetako partaidea da. Hauexek dira bere eginkizunak: (153/99)

- Tutoretza-plana, Orientazio Akademiko eta Profesionalaren plana eta aniztasunari erantzuteko plana prestatzen eta ezartzen laguntzea, eta plan horietan esleitzen dizkieten zereginak euren gain hartzea.

*Tutore koordinatzaileen eginkizunak*

- Tutore taldeak koordinatzea.
- TKDko bileratan proposatzen dena gauzatzeko, proposamenak tutoreen bileretara eramatea.
- TKDra tutoreek planteatzen dutena eramatea.

Ikasketa-burua edota Orientatzailea tutoreen bileretara joan daitezke.

## 2. Tutoreak

### Ordutegia

| | |
|---|---|
| Eskola-orduak: | 16 arlokoak.<br>1 taldearen tutoretzarako.<br>1 ikasleekin banakako elkarrizketak egiteko. |
| Ordu osagarriak: | 2 asteazken arratsaldekoak.<br>1 mintegi bilera.<br>1 gurasoekin elkarrizketak egiteko.<br>1 tutore bilerarako.<br>1 tutoretzak dakartzan eginbehar burokratikoak egiteko.<br>1 zainketak, eskola kontseilua etab. |
| Jaiak berreskuratzea: | 1 tutoretzaren eginkizunetarako (erabil daiteke). |
| *Guztira*: | 26 |

### Izendapena

Ikastetxe gehienetan departamentu didaktiko bakoitzak, duen ordu kopurua kontuan hartuz, erabakitzen du nor izanen den tutore. Mintegiak erabaki hau hartzeko aukera izateak ez du zentzu handirik baldin eta zera kontuan hartzen badugu: mintegiak ez du koordinazio horizontalaz erabakitzen, bertikalaz baizik. Tutoretza departamentuak, irakasleen ordutegiak ez diren beste irizpideak erabiliz, erabaki beharko luke

Askotan tutoretza azken momentuan izendatu diren irakasle berrientzako gelditzen da. Honekin batera, tutoreak urte batetik bestera behar baino gehiago aldatzen dira.

Irakasle berri batek tutoretza bat hartzen duenean, ikastetxeko ohiturak, programak, lankideak, ikasleak, egiteko moduak... ikasten dituen arte denbora luze joaten da. Tutore hauen errotazioa oso handia baldin bada, arras zaila da urte batetik bestera ikasleen jarraipen pertsonalizatuan kohesio fin bat lortzea eta, modu berean, epe ertaineko proiektu bat martxan jartzea.

Arazo hau neurri batean gutxitzeko, tutoreak izendatzeko irizpide batzuk finkatu behar dira. Hona hemen adibide batzuk:

1. Tutoreak lau ordu edo gehiago ematea talde horretan. Edo, arlo bat baino gehiago ematea.
2. Zentroan irakasle berria ez izatea.
3. Maila bereko tutore taldean, oreka izatea tutoretzan esperientzia duten eta ez dutenen artean.
4. Taldean tutorea bi urtez izatea, edo gutxienez ikasleak ezagutzea. Hirugarrenean aldatu eta tutoretza lana utzi. Nahi balu, gutxienez urte beterako uzteko aukera izan beharko luke.

5. Nahi izatea. Irakasle batzuek tutoretza lana gustukoa dute. Horixe da lana ongi egiteko faktore garrantzitsu bat.
6. Talde osoa duten irakasleak.
7. Erabakia mintegien eskuetan ez gelditzea.
8. Irakasleek daukaten prestakuntza eta nortasuna.

Beste aldetik, taldeetako irakasleen banaketa egiterakoan, irizpide hau hartu beharko genuke kontuan: irakasle esperientziadun eta esperientziarik gabeen arteko oreka gordetzea. Mintegien eskuetan gelditzen bada, zaila da, hagitz, hau lortzea.

### Tutoreen koordinazio saioak

Tutoretza lantzeko astean behin burutuko dira tutoreen bilkurak. Bilera hauetara orientatzailea edota ikasketa-burua joan daitezke beharrezkoa denean:

– Lehen zikloko tutoreak: ________________________________
– Hirugarren mailako tutoreak: ___________________________
– Laugarren mailako tutoreak: ____________________________
– Batxilergoko 1. eta 2. mailan bilerak hilabetean behin, gutxi gorabehera, eginen dira, eta gai espezifiko bat dagoenean. Tutore guztiak biltzea posible izateko, datak ikastetxeko egutegian erabakita utziko dira kurtso hasieran.

## 3. Irakasleen bilera horizontalak

Tutoreak, lana ongi garatzeko, taldeko beste irakasleekin harremanetan egon behar du. Tutoretza irakasle-taldearen eginkizuna izanen da, formalki, tutorearen irudia mantenduko den arren.

*Irakasle-taldearen betebeharrak hauexek izanen dira*:

– Ikasle talde bakoitzaren lan arazoak aztertu.
– Aniztasuna lantzeko egin behar diren plangintzak osatu.
– Ebaluazioa bideratzea eta era komunean lana prestatzea. (Kalifikazioak jartzeko prozesua zehaztea ikasketa-buruaren lana da).
– Modu bateratuan landu behar diren gaien programak adostu (zeharkako gaiak barne).
– Ebaluazioaren ondorioz hartu beharreko neurriak aztertu, adostu eta praktikan jarri.

Lan Plana irailean antolatuko da zuzendariak proposatuko duen dokumentua abiapuntutzat hartuz. Hona hemen lan planerako proposamena:

**Egitura:**

– Tenporalizazioa.
  - Elkartzeko egun finkoak.
  - Elkartzeko aukerak.
  - Noiz elkartuko gara irailean? Tutoreak izendaturik ez badaude, nork hartuko du koordinatzailearen ardura?
– Eginkizunen banaketa.
– Plangintzaren jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak.
– Arazoak gertatzen direnean, horiek bideratzeko irizpideak.
– Dokumentazioa non egonen den. Non elkartuko diren taldeak.

**Gaiak**: *Bi ideia hauen arabera aukeratuko dira*

– Atzemandako lehenengo premiak.
– Prebentzio programak (arazoak ez agertzea da soluziobiderik hoberena).
  - Aniztasuna tratatzeko plangintza ezagutu eta talde zehatzean nola bideratu.
  - Ikasle taldeko lan eta harreman-mailak aztertu eta hobetzeko bideak.
  - Tutoretza ekintzak proposatu eta zehaztu.
  - Ateraldiak. Zenbat izanen ditugu urtean zehar? Nortzuek antolatuko dituzte? Nortzuk joanen dira ikasleekin?
  - Nola bideratuko dugu informazio trukea?
  - Egokitzapen komunak dauzkaten ikasle ezagunak.
  - Gurasoekiko harremanak.
  - Zeharkako gaiak. Nola gauzatzen ditugu talde zehatz batean.
  - Ikaste teknikak eta ohiturak.
  - Azterketen egutegiak.
  - Lanen aurkezpenak. Nola eskatuko dizkiegu ikasleei?
  - Epeak.
  - Irakasle berriak baldin badaude, zer-nolako laguntza behar dute? Aztertu, galdetu eta ematen hasi.
  - Baterako arauak elkarri ezagutzera eman, elkarrekin finkatu. Gelako funtzionamendua.
  - Materialaren erabilpena.
  - ...

Akordioak adostasunez lortzea komenigarria da, baita akta idaztea eta irakasle guztiei banatzea ere.

Irakasle-taldeak irailean, klaseak hasi baino lehen, elkartzen hasten da. Goiz bat finkatuko da hau egin ahal izateko. Ikasturtea hasi bezain laster, beste bilera bat antolatuko da, lehendabizikoaren jarraipena izanen dena.

Bilerak kurtsoka eginen dira. Dena den lehen zikloko irakasle-talde osoa elkartuko da.

Irakasle-taldea da ikastaldeko arduraduna, irakasle bakoitzak bere aldetik eta besteekin kontatu gabe lan egiten badu, ikastaldea ez da joan daiteken bezain ongi joanen. Irizpide bateratuak ezinbestekoak dira. Ikastetxeetan arazoa dagoenean elkartzeko joera daukate irakasle-taldeek. Kontuan har dezagun arazoei aurre egiteko modurik egokiena prebentzioa dela. Adostasuna lortzea garrantzitsua da. Hau dela-eta, irakasle-taldeak maiz askotan elkartu beharko luke.

Tutoreak edozein unetan dei dezake irakasle-taldea.

Zenbait ikastetxetan irakasle-taldea bizpahiru kurtsotako irakasleek osatzen dute. Afera honek elkartzeko eta koordinatzeko aukerak murrizten ditu.

Beste aldetik, aukerako jakintzagaiak direla-eta irakasle-taldeak handiegiak bihurtzen dira. Hau bideratzeko hauxe litzateke bidea: ahal den neurrian, mintegi bateko irakasle bat baino gehiago ez egotea ikastalde batean. Adibideak: Etika eta HJA laugarren mailan. HIA eta Giza Trebetasunak lehen zikloan. Lanbiderako Prestakuntza eta Teknologia 4. mailan. Matematika eta Matematika tailerra, lehen zikloan. Matematika eta Informatika...

Hau bideratzea zaila da Hizkuntzetan, Matematikan (A eta B, 4. mailan...); dena den, alde batetik, ikastaldearekin ahal den denbora gehiena egotea, eta, bestetik, gelatik ahalik eta irakasle gutxien pasatzea litzateke egokiena.

## 4. Ikasleekiko tutoretza saioak

### Ikaslearen jarraipen indibiduala

Astean tutoreak eskola-ordu bat dauka elkarrizketak egiteko eta haien bidez jarraipen lana bideratu ahal izateko; urtean zehar 35 ordu.

Indibidualizazioa dugu ikasleen arteko desberdintasunak onartzeko modua; bakoitzari heldutasuna lortzeko eginen duen ibilbidea azaltzeko modua eskainiko diogu eta horrek ikasle bakoitzari arreta berezia eskaintzea eskatuko du.

Ikasle guztien arteko desberdintasunak onartu behar ditugu, beraz:

- Hezkuntza-premia desberdinei erantzun desberdina emanen zaie.
- Kultur aniztasuna kontuan hartuko da.
- Premia dutenen aldeko diskriminazio positiboa eginen da.

Ikasleek, Institutuan sartzen direnean, jakinen dute zein den beren tutorea eta tutore honekin solasaldiak izanen dituzte, bai taldeka, bai bakarka.

Hala ere, ikasleak edozein irakasle aukera dezake zer edo zer kontsultatu nahi duenean. Ikasleren batek irakasle bati zerbait galdetu edota eskatu egiten dionean, aukeratutako irakasle honek laguntza emanen dio eta horren jarraipena eginen du. Dena den kontuan hartu behar dugu ikasleek gutxitan egiten dituztela horrelako eskaerak, beraz, guk aurrea eta neurriak hartu beharko ditugu ikasleen jarraipena behar den bezala antolatu eta bideratzeko.

### a) *Elkarrizketak*

Elkarrizketa-sistema antolatzea gomendatzen zaie tutoreei. Posible den neurrian ikasle guztiekin bakarka harturik hitz eginen du tutoreak, batez ere ebaluazioa bukatzen denean, emaitzen berri ematea gomendatzen baita. Ikasleei zein aldaketa egin behar dituzten jakinaraziko diegu. Halaber, bilera hauetan, beren kezkak, ikasteko dauzkaten zailtasunak, ikasteko darabilten sistema… adieraziko dizkigute. Horrelako informazioa lortu ondoren, guk laguntzeko ideiak izanen ditugu.

Beharrezkoa denean, edozein irakaslek ikaslea klase ordutan deitzea izanen du bakarkako elkarrizketa egiteko. Gauza berbera egin dezake orientatzaileak edota ikasketa-buruak ere. Dena den, hau egitea beharrezkoa denean, kontuz ibili behar dugu klasetik ateratzeagatik ikasleak ahalik eta gutxien gal dezan. Beti ere elkarrizketa egin duen profesionalak (irakasle, ikasketa-buru edota orientatzailea) hutsunea justifikatuko du agiri baten bidez; bertan eguna eta ordua agertuko dira edota ikaslea ikasgelara profesionalak eramanen du. Orientatzaileak ikaslearen tutoreari elkarrizketaren berri emanen dio, hitzez edota idatziz.

Tutoretzarako Koordinazio Departamentuak tutoreei elkarrizketa horiek prestatzen lagunduko die, hala behar badute.

Tutorea eta orientatzailea ados jarriko dira ikasleren bat orientatzailearengana bidali baino lehen. Komenigarria da tutoreak ikaslearekin aurretik hitz egitea. Inoiz ez dugu ikasle bat orientatzailearengana bidaliko zigor gisa.

### b) *Orientatzailearengana ikasle bat bideratu behar dugunean.*

Tutorearen iritziz komenigarria denean orientatzaileak ikasle bat ikustea, jarraian ageri den bezalako fitxa beteko du eta orientatzaileari emanen dio:

Ikaslearen izena: ______________________________________________
Tutorearen izena: ______________________________________________
Ikasturtea eta atala: ___________________________________________
Gaurko data: __________________________________________________

Orientatzaileak ikustea eskatzen dut.
Irakasle-taldeak ematen dituen arrazoiak: ____________________
Irakasle-taldeak daukan hipotesia: ________________________
Gurasoek ematen dituzten arrazoiak: _______________________
Beste zerbait: ________________________________________
Zein ordutan elkartzen ahal da tutorea orientatzailearekin? ______
Beste dokumenturik ekarri du tutoreak? Hemen aipatu: __________
Sinadura eta data.

Hona hemen beste eredu bat; honetan ideiak ageri dira, horrela tutoreak edo irakasleak errazago bete dezake. (Ideia: Sanduzelai ikastetxeko laguntza unitatea)

**Orientazio departamentua. Esku-hartze txostena**

Ikaslearen izena: ________________________ Data: ____________________________________

Ikasturtea: ______________________________ Eskaria egiten duen irakaslea: ______________

| *Eskaeraren zioa* | *Kezkagarriena une honetan. Hona hemen ideia batzuk* |
|---|---|
| **Hizkuntza arloa**<br><br>*Bere hizkuntza maila gutxi gorabehera maila honetan kokatuko genuke:* | ❏ Ahozko ulermena eta adierazpena. Artikulazioa, intonazioa, erritmoa.<br>❏ Harremanetarako hizkuntzaren erabilpena.<br>❏ Gaitasuna hizkuntzetan. Interferentziak.<br>❏ Irakurketa. Abiadura. Intonazioa. Erritmoa. Ulermena.<br>❏ Gogoa.<br>❏ Idatzizko adierazpena.<br>• Sintaxia eta hiztegia. Aberatsa, egokia.<br>• Ideien antolakuntza.<br>• Betebehar ortografikoak.<br>• Aurkezpena.<br>❏ Hitzezko oroimena.<br>❏ Sormena.<br>❏ Ulermena.<br>❏ ... |
| **Matematika arloa**<br><br>*Arlo honetan bere maila gutxi gorabehera hau izanen litzateke:* | ❏ Ulermen orokorra.<br>❏ Arrazonamendu logikoa.<br>❏ Oinarrizko kontzeptuak.<br>❏ Neurri tresnak eta unitateak.<br>❏ Zenbakikuntza.<br>❏ Eragiketa matematikoak<br>• Mekanikoki eta aplikatua.<br>• Buru-kalkulua.<br>❏ Emaitza zuzenaren estimazioa.<br>❏ Erabilpena.<br>❏ Jarrera.<br>❏ ... |
| **Beste jakintzagaiak (Aipatu)** | ❏ Edukiak.<br>❏ Jokaera. |
| **Gustukoena. Gaitasunak. Interesak** | |
| **Jarrera. Emozioak. Harremanak** | *Iraupena, intentsitatea eta desegokitasun-maila*<br>❏ Antsietatea. Sufrimendua. Angustia.<br>❏ Autokontzeptua + / -<br>❏ Autonomia/Mendetasuna/ Liderra<br>❏ Integrazioa taldean/Isolamendua. Autokontrola/Aise haserretzen da.<br>❏ Desafio egiten duena, probokatzailea, borrokazalea, lehiakorra, erasotzailea.<br>❏ Atentzioa etengabe deitzen du. Zirika.<br>❏ Lasaia/Urduri, mugitua.<br>❏ Oldarkorra/Erreflexiboa / Aktiboa, pasiboa, apatikoa, geldoa/ Otzana.<br>❏ Ziurra/Ez ziurra, izutua.<br>❏ Iraunkorra/Aldakorra. Gorabeheratsua.<br>❏ Beldurrak, fobiak.<br>❏ Somatizazioak maiz. Sentikorra.<br>❏ Pentsamendu errepikatuak.<br>❏ Fantasiak. Errealitatetik kanpo. |

| | |
|---|---|
| **Ikasteko estiloa** | ❏ Lanaren aurrean, beti uste du ezin duela, ezta saiatu ere / bidea bilatzen du.<br>❏ Erraztasuna/Zailtasuna arreta eta kontzentrazioa mantentzeko.<br>❏ Arreta galtzen du: kanpoko gauzekin/ barnekoekin.<br>❏ Jarraibideak zuzendu beharra: bai/ez..<br>❏ Estrategia okerrari jarraitzen dio ohartuta ere/aldatu edo galdetzen du.<br>❏ Aise etsitzen du / Tinko aurrera.<br>❏ Berehalakoan hasten da, pentsatu gabe/Hasi baino lehen pentsatu.<br>❏ Bidea planifikatzen du / "Entsaio-errore" moduan.<br>❏ Buruz ikasten du/ ulertzen saiatzen da.<br>❏ Mamia bereizten du/ez.<br>❏ Orokortasuna sumatzen du/Gauza konkretuak bakarrik.<br>❏ Lana errepasatzen du/egiaztatu ez.<br>❏ Dakienarekin lotzen du berria/Ez.<br>❏ Lanean hobeki bakarrik/taldean...<br>❏ Erritmo egokia lan bakoitzean/Ez, kontrolik eza: motelegi edo azkarregi.<br>❏ Ohituta, etxerako lanak, materialak<br>❏ Motibazioa. Gogoa. Itxaropenak. |
| **Beste datuak: familia, ingurua, osasuna etab**. | ❏ Asistentzia eza eta arrazoia.<br>❏ Arazo fisikoak. Ikus-entzunezkoa. Tika. Nekea, indarrik ez. Desnutrizioa.<br>❏ Eritasunak edo istripuak eta kalteak. Gertakizun traumatikoak.<br>❏ Janari edo lo arazoak. Botikak.<br>❏ Familia harremanak, gizarte-ingurua, emozionala eta kulturala.<br>❏ Tratu txarrak. Babes handiegia.<br>❏ Psikopatologia familian.<br>❏ Garbitasuna.<br>❏ Aldaketa aipagarriak berriki.<br>❏ Eskolaz kanpoko jarduerak.<br>❏ Zaletasunak. |
| **Ikasturte honetan edo aurrekoetan hartutako neurriak eta ondorioa.** | ❏ Elkarrizketa gurasoekin. Hitzarmenak<br>❏ Irakasle-taldearen erabakiak. Jarraipen estua gelan, atentzio hurbila, lekuz edo taldez aldatzea. Aldaketa metodologikoak.<br>❏ Errefortzuak zenbait arlotan.<br>❏ Egokitzapen curricularrak.<br>❏ Laguntza PT. Laguntza logopeda.<br>❏ Kurtsoa errepikatu.<br>❏ Ikastetxeaz kanpoko laguntza: curricularra, psikopedagogiakoa etab. |

c) *Jarraipen fitxak. (Ikaslearen erregistroa)*

Ikasle guztiek beren jarraipen fitxa izanen dute eta bertan gordeko da ikaslearen informazio formala eta informala. Gertakizun adierazgarri guztiak idatziko ditu tutoreak. Fitxa hauek tutoreak bilduko ditu eta tutoretza-departamentuko gelan artxibo batean egonen dira. Ikaslea taldez aldatzen denean, tutoreak tutore berriari karpetaren ardura pasako dio. Ikasturtearen bukaeran tutoreak karpeta garbituko du, bertatik esanguratsua ez den informazioa baztertuz eta bertan gelditzen dena ordenatuz.

Orientatzailearekin egon den edota aniztasunaren trataerako neurriren bat jaso duen ikasleari jarraipen berezia egiteko beste espediente bat irekiko zaio. Orientatzailearen esku geratuko da berau.

d) *Dokumentazioaren trantsizioa*

Oharra: Konfidentzialitatea mantendu behar dugula kontuan hartu behar dugu.

– Beste ikastetxe batetik dator: Elkarrizketak edota ikastetxeek daukaten eredua edo sistema erabiliko dituzte. Ñ4 dokumentua erabil dezakegu.
– Kurtsoz aldatzen da: Tutoretza gelan geldituko da informazio esanguratsua.
– DBH egiten ari den bitartean, ikastetxe honetatik alde egiten du: Erregistroaren laburpena bidaliko diegu. Ñ4 dokumentua erabil dezakegu. Azken urteko tutorea arduratuko da horretaz.

e) *Aurreko urteko gainditu gabeko jakintzagaiak (gainditu beharrekoak)*

Tutoreak gaiak zintzilik dauzkaten ikasleen jarraipen berezia eginen du; dena den, mintegi-buruaren eginbeharra azpimarratu behar dugu: “Ikasgairen bat zintzilik gelditu zaien ikasleentzat errekuperazio jarduerak antolatu eta zuzendu; hartarako Departamentuko beste kideen laguntza izanen dute” (398/95 Foru Agindua, V. eranskina, 2.1.D). Ikasturtearen hasieran tutoreari honen berri bidaliko zaio idazkaritzatik.

Ikasle batzuk DBHko 1. ziklotik bigarren ziklora edota 3. mailatik 4. mailara pasa dira zenbait urritasunekin. Mintegi bakoitzak ikasle hauei bideratuko zaien laguntza antolatu behar du irakasleen ordutegian. Erdibanatzea egiterakoan, hori ere kontuan hartuko da.

Ikastetxe batzuetan 1. edota 1. eta 2. ebaluaketetan arloa gainditzen badute, aurreko kurtsoetan gainditu gabe geratutakoa gainditutzat emanen zaie. Beste ikastetxeetan, aldiz, azterketa bereziak egiten dituzte. Beste kasuetan

edozein unetan gaindi ditzakete ikasleek aurreko urtean gainditu gabekoak. Ikasleek horren berri lehenengo egunean izan behar dute. Ikasturte bukaerako ebaluazio saioan arloko irakasleak aurkeztuko ditu aurreko maila edo zikloko arlo gainditu gabeen emaitzak. Akta osagarri batean jasoko da.

Arazo bat izan dezakegu eta hauxe da: urte honetan iaz gainditu gabe gelditu den gaia ematen ez denean. Horrelakoetan ardura mintegi-buruarena da.

**Hauek dira urte honetan zailtasunekin pasa diren ikasleen zenbakiak**

| 3. *mailan daudenak* | *Gazt.* | *Eusk.* | *Ing.* | *Mat.* | *Giz* | *G.H.* | *Nat.* | *Pl* | *Tk* | *Mus* | *HJA* | *HIA* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez zuten gainditu<br>Egokitzapenekin gainditu zuten | | | | | | | | | | | | |
| 4. *mailan daudenak* | | | | | | | | | | | | |
| Ez zuten gainditu<br>Egokitzapenekin gainditu zuten | | | | | | | | | | | | |

### f) *Aurre-ebaluazioa*

Ikasturtearen hasieran aurre-ebaluazioa egiten da. Aurre-ebaluazio honetan zailtasunak dauzkaten ikasleez hitz eginen da, bereziki. Prozedura 7. puntuan zehazten dugu (bi ikastetxe).

### g) *Hezkuntza premia berezikoen tutoretza*

Adimen elbarritasuna dela-eta, hezkuntza premia berezia daukaten ikasleen tutoretza tutorearen eta pedagogia terapeutikoko irakaslearen artean eramanen da. (133/98 FD). Jakina denez, kasu hauetan ez dira promozio irizpide arruntak aplikatzen.

## Ikasle taldearekin eginen diren tutoretza saioak

DBHn astero eskola-ordu bat egonen da talde-tutoretza egiteko, eta horretarako Lan Plan espezifikoa eginen da.

Beste mailetan (Batx., ZZFF...) talde-tutoretza puntualki eginen da, egutegia zehaztu gabe. Aurreikuspen gisa, hilabetean behin egiten da, beste arloetatik, txandaka, ordu bat kenduz. Institutu batzuetan ez da plan espezifikorik egiten; beste batzuetan, aldiz, bai. Ikasle hauei ikasketen orientazioa bermatu behar zaie.

"Orientación y tutoría" Nafarroako Gobernuko kaxa gorrietako liburuak eduki bloke hauek dauzka:

- Pentsatzen irakastea.
- Pertsona izaten irakastea.
- Elkarrekin bizitzen irakastea.
- Ongi portatzen irakastea.
- Erabakiak hartzen irakastea.

Tutoretzako gai multzo hauek hiru helburu nagusitan oinarrituko ditu gure Lan Planak:

1. Ikasleak taldearen barruan sartzen erraztea eta haiengan partehartze jarrerak sustatzea.
2. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak pertsonalizatzea eta haien jarraipena bultzatzea.
3. Beren etorkizunerako (eskola eta lanbide mailan) erabakiak hartzeko gaitasuna erraztea.

Helburu hauek ez dira bakarrik talde-tutoretzan landu behar, eremu guztietan baizik: Talde-tutoretzan; ikasle bakoitzarekin, gurasoekin eta irakasle-taldearekin.

Ikasleei tutoretza-plana aurkeztuko diegu ikasturtearen hasieran. Hau egiteko dokumentua I8 izan daiteke.

## 5. Familiekiko harremanak

Gurasoekin harreman baikorrak izatea nahi dugu. Hezkuntzak eskola-komunitatearen partaide guztien lan komuna izan behar du.

### Gelako bilerak

Kurtso hasieran gurasoen bilerak antolatuko ditugu.

Helburuak:

- Kurtsoko helburu orokorrak azaltzea.
- Institutuko egiturak eta antolakuntza aurkeztea.
- Irakasleak eta arloak aurkeztea

Arduraduna: Zuzendaritza.

Nola antolatuko ditugun:

- Banatuko dugun materialean zera agertuko da:
  - Informazio orokorra. Jakintzagaiak. Irakasleak. Ordutegia. Egutegia. Ikasleen ezaugarriak...
  - Ikastetxeko funtzionamendua.
  - Arloen zehaztasunak (Departamentu bakoitzak prestatuko ditu).

Arloko informazioa, gurasoentzat. Eredu orokorra. Irizpidea: gurasoek ulertu behar dute; beraz, hizkuntza zaindu behar dugu. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzi behar dugu. Gehienez orrialde bat hizkuntza bakoitzeko.

Ikasturtea: ____________________

Jakintzagaia: ____________________

Irakaslea/k: ____________________

Jakintzagaiaren ezaugarriak: ____________________

Gai multzoak: Noizko espero da bukatzea bloke bakoitza.

Metodologia: ____________________

Ebaluatzeko sistema: ____________________

Etxean egin beharreko lanak: ____________________

Zer eskatzen die gurasoei. Nola laguntzen ahal dute beraiek.

– Bilerak kurtsoka antolatuko dira. Bertara irakasle guztiak joanen dira. Lehenengo zatian irakasleek beren burua aurkeztuko dute. Ondoren tutorea eta bere ikasleen gurasoak ikastaldearen gelara joanen dira. Bertan gurasoek galderak eginen dituzte eta tutoreak beste zehaztapenak emanen ditu.

### Orientazio hitzaldiak

Otsailean eginen dira.

– Helburua: beste batzuen artean, ikasketa orientazioari buruzkoak.
– Arduraduna: Tutoretzarako Koordinazio Departamentua.
– Tutoreek eramanen dute aurrera TKD, zuzendaritza eta orientatzailearen laguntzarekin.

Hitzaldi hauek eginen dira:

– DBH3.
– DBH4.
– BATX1.
– BATX2.

Zalantzak dauzkagu ea komenigarria ote den BATX2. mailako gurasoak deitzea. Ikasleak hona ailegatzen direnean, beren eskuetan dago erabakiak hartzeko aukera. Noizbait hartu behar ditugu heldutzat. Bestalde, kontuan hartu behar dugu ikasle batzuk adinez nagusi direla.

### Otsailean beste bilera orokor batzuk antolatzen ahal dira

Ikasleriaren martxaz arituko gara bertan eta.

### Bakarkako elkarrizketak

Tutore bakoitzak ordu bat izanen du bere egutegian ikasle bakoitzaren gurasoekin harremanak izateko. Kurtso hasieran tutoreak ordu hori ezagutaraziko die gurasoei.

Gurasoek orientatzailearekin egon nahi dutenean, tutorearen bitartez eskatuko dute ordua. Beraiek tutorearen bitartez egin nahi ez badute, telefonoz dei dezakete. Berarekin geldituko da orientatzailea ordu jakin batean.

Institutuak ikasle baten gurasoak deitzen dituenean, biok (aita eta ama) etortzea gomendatzen da. Bikotea bananduta badago, Institutuak ikaslearen zaintza daukanari bidaliko dio deia. Informazioa biei bidaliko zaie beraiek horrela eskatzen badute.

Senar-emazteen arteko bereizketak dakartzan gatazketan, ikasleari buruzko informazioa epailearen aginduz bakarrik emanen da.

Institutuak gurasoen parte-hartzea eskatzen du bereziki.

### Hutsegiteak

Hutsegiteen kontrola tutorearen esku dago. Ikastetxeak informatikaren bidez lagunduko dio tutoreari.

Ikasleek egindako hutsegiteei buruzko informazioa gurasoei bidaliko zaie.

Kontrola ikastaldi guztietan eginen da eta astea (beste ikastetxeetan eguna) amaitzean, administrazio bulegoan utziko da aste (egun) horretako partea.

Ebaluazio bakoitzean hutsegiteen berri etxera bidaliko da.

Bai familia, bai ikasle beraren laguntza eta partehartzea eskatuko da kurtso hasieran, gero arazorik gerta ez dadin.

Afera honekin, ikasle batek arazoak dauzkanean, jarraipen zuzenagoa egin beharko zaio

### Gurasoentzako hitzaldiak

Bilera hauek ikastetxeko ikasle guztien gurasoentzat antolatuko dira. Ez dira urtero antolatuko. Gurasoen elkartearekin planifikatuko dira. Hona hemen institutu bateko eredua.

## Gurasoekin izanen diren hitzaldien plana

DBH1.
- Institutuan sartu. Orientatzailea. Tutorea.
- Nola lagundu gure seme-alabei ikasketetan. Nola jaso kalifikazioak. Orientatzailea. Ikasketa-burua.
- Guraso eta seme-alaben arteko harremanak. Guraso Elkarteak antolatzen du.

DBH2.
- Autoestimua. Orientatzailea.
- Elikadura. Osasun Zentroa. Guraso Elkarteak antolatzen du.

DBH3.
- Erabakiak hartzen. Orientatzailea.
- Orientazioa. Tutoreak. Orientatzailea. Zuzendaritza. Tutoreek antolatzen dute.
- Drogak. Guraso Elkarteak antolatzen du.

DBH4.
- Erabakiak hartzen. Orientatzaileak.
- Orientazioa. Tutoreak. Orientatzailea. Zuzendaritza. Tutoreek antolatzen dute.
- Nerabeen sexualitatea. Guraso Elkarteak antolatzen du.

*Batxilergoa:*
- Orientazioa. Tutoreek antolatzen dute. TKDk laguntzen du.

*Ondoko hitzaldi hauek ere eman daitezke.*
Guraso elkartearekin adostu behar.
- Eskola-arrakasta eta porrota.
- Kirola eta bizitza.
- ...

## Guraso elkarteak

Guraso-eskola antolatzen badu, gure laguntza izanen du.

Gurasoek beste ekintzak antolatzen badituzte, laguntza orientatzaileari eska diezaiokete.

## 6. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea (KPB)

Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoak agintzen duenaren arabera, KPBk, tutoretzarekin batera, honako eginkizun hauek ditu:

– Klaustroak aurkeztutako irizpideetatik abiatuta, hezkuntza orientabiderako plana eta tutoretzarakoa egiteko artezpide nagusiak ezartzea. (Osatzea Tutoretzarako Koordinazio Departamentuaren ardurapean egonen da).
– Tutoretza-planak eztabaidatu eta departamentuetara igortzea.
– Irakasle guztien iritziak eta egindako proposamenak mintegiz mintegi jasotzea.

# IV. Tutoretza-planaren helburuak. Helburu orokorrak. DBH-rakoak. Batxilergorakoak

## 1. Helburu orokorrak

Ondoko hauek kontuan harturik:

- Pertsona konkretu batzuk hezten ditugula.
- Pertsona bere orokortasunean (eta ez arlo kognitiboan bakarrik) hezten lagundu behar dugula.
- Tutoretza ez dela eginkizun puntuala, etapan zehar eraman beharreko prozesua baizik eta oinarrizko osagai bat baizik. Tutoretza planifikatu egiten da ikastetxean egiten diren beste gauza guztiak bezala.
- Tutoretzak hezkuntzako helburu berberak dauzkala. Bai tutoretzak eta baita hezkuntzak ere ikaslearen garapen orokorra lortu nahi dutela erran dezakegu.
- Tutoretzak, hezkuntzari dagokion bezala, geletan daukagun aniztasunari erantzun behar diola, aniztasun pertsonal eta sozialari, hain zuzen ere.
- Tutoretzaren arduradunak tutorea eta arloetako irakasleak direla. Tutoretzako helburu eta eduki gehienak arloen bidez beteko direla.

Hauek dira Institutuak tutoretza planarekin iritsi nahi dituen helburuak:

1. Irakaskuntza pertsonalizatzen lagundu; pertsona bere orokortasunean harturik eta ez arlo akademikoan bakarrik.
2. Ikasleek ikaste prozesuan dituzten beharrei erantzuna eman, egokipen curricularrak eta metodologi neurrien bidez. Tutoretzaren bidez metodologia, eduki edota helburu batzuk egokitzen saiatuko gara, baldin eta beharrezkoa bada. Tutoretzak ikasleei eta irakasleei beren errendimendua hobetzen laguntzen die. Tutoretzak ikasleen behar bereziei antz ematen laguntzen du, baita ikasleak premiazkoak dituen neurriak ezartzen ere. Detekzioaz eta erantzunaz hitz egiterakoan, bai ikaskuntza eta baita irakaskuntza arloa ere garrantzitsuak direla esan nahi dugu eta arazoren bat gertatzen denean, biak diagnostikatu eta tratatu behar dira
3. Hezkuntzaren alderdi orientagarriak nabarmendu, ikasleak bizi diren inguru konkretua kontuan hartuz eta etorkizunari begira. Hau batxilergoan zailagoa bada ere, tutoretza-plan honen bidez, irakaskuntza eta ikaskuntza egokitzen saiatzen gara.
4. Garapen pertsonalaren prozesuetan laguntza eman, ikasleak bere identitate eta balio, sistema propioa gara ditzan. Bide honetan garrantzia ematen diogu izpiritu kritikoari eta informazioa aukeratzeari, ikasleak bere irizpideak izan ditzan.
5. Ikasketa zailtasunei aurre egin, posible den neurrian ager ez daitezen; zailtasun hauek agertzen direnean, zailagoa baita moldatzen.
6. Institutuko hezkuntza komunitatean gauden pertsona guztien elkarrekintza.
7. Osasunerako hezkuntza egokia eskaini, ikasleak osasun aztura egokiak izan ditzan.
8. Institutuko instalakuntzetatik abiatuz, ikasleek ingurugiroa errespeta dezatela. Beraz, materiala ere errespeta dezatela.
9. Ikasleari dagozkion erabaki hartzeak erraztu, (taldeka zein bakarka).
10. Ikastaldeek kohesio-elementuak izan ditzaten lagundu.
11. Gatazkak elkarrekin eta tartekaritza erabiliz moldatu ditzaten lagundu.

## 2. DBHrako helburuak

1. *Ikasleak zentroan egokitzea*. Halaber, institutua ere ikasleei ongi egokitzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Ez da bakarrik ikaslearen lana, eskolaren lana ere badela erran dezakegu. Ikasle guztiak desberdinak dira; nortasuna, interesak, ahalmenak, balioak, ikaste sistemak, egoera familiarrak... desberdinak dauzkate. Institutuak diren bezala hartzen ditu eta, posible den neurrian, bere laguntza propioa ematen die. Hasierako ebaluazioak ikasleak ezagutzen lagunduko digu.

2. *Eskola komunitateko partaide guztien artean elkarlanerako giroa lortzea* (gurasoak, irakasleak, ikasleak...).

3. *Institutuko arauak ezagutu eta errespetatzea*. Ikastetxeko Barne Arautegia ezagutuko dute ikasleek lehen mailara etortzen direnean.

4. *Ikasleak bere buruarekiko irudi egokia lortzea*. “Gauza naiz hau egiteko” sentsazioa landuko dugu.

5. *Ikastetxeko dinamikan parte hartzea*, nahiz taldeko, nahiz institutuko partaideak direla kontura daitezen eta barnera dezaten.

6. *Pertsonen desberdintasunak ezagutu, baloratu eta errespetatzea*. Beste ikaskideen iritziak errespetatuz, nork bereak adieraz ditzan.

7. *Euskaraz hitz egitea* ahal den guztietan eta egoera gehienetan.

8. *Sexuen arteko desberdintasunak ezagutu eta errespetatzea*, jarrera sexistak baztertuz.

9. *Denboraren antolamendua*. Ordutegiak eta lana egiteko sistemak erabili, ikasketa errazten duten azturak lor ditzaten. Halaber, denboraren antolaketa hau baliagarria izanen zaigu beren aisia ongi aprobetxa dezaten. Ikas teknikak ezagut, menpera eta erabil ditzaten. Ikas azturak sortu eta garatzeko.

10. *Ikasleek beren etorkizunari buruzko erabakiak hartzen has daitezen*. Erabaki hauek beren ahalmenak eta interesak kontuan izanda har ditzaten. Erabakiak hartu behar dituzte lehen momentutik; erabaki baten aurrean jartzen ditugunean, beraien heldutasuna eta ahalmenak kontuan hartu behar ditugu. Erabakiz ikasiko dute erabakiak hartzen.

11. *Hezkuntza sistema ezagutzea*.

12. *Beste pertsonekin harreman onak izatea, baita trebetasun sozialak ere*.

## Helburuen lehentasuna mailaka

### *DBH. 1. Maila*

- Ikaslearen moldaketa eta integrazioa areagotzea talde-gelan eta ikastetxean.
- Eskola-eskakizun berrien aurrean ikaslearen erantzuna emateko gaitasuna areagotzea, egokiak diren bideak eskainiz:
  - Lan intelektualerako estrategiak eta ohiturak berrikusi.
  - “Ikasle izatea”-ren papera onartu (erantzukizuna, motibazioa, eskola eta lanbide-interesak...).
- Euskara plana bultzatzea.

### *DBH. 2. Maila*

- Ikaslea zentroan egokitu dadila: Institutuaren organizazioa eta arauak ezagutu eta errespetatzea.

- Ikastetxeko ordezkaritza areagotzea, erakundeetan ikaslearen partaidetza indartuz.
- Ikasketetan erantzukizuna eta motibazioa indartu eta eskola-eskakizunei egokitzeko neurriak aztertzea.
- Promoziozko irizpideak kontuan hartuz, ikasketen garapena berrikustea.
- Euskara plana bultzatzea.

*DBH. 3. Maila*

- Ikasle berriak (etortzen badira) zentroan egokitzea.
- Institutuaren organizazioa, arauak.... ezagutu eta errespetatzea.
- Pertsonen desberdintasunak ezagutu eta errespetatzea. Beste pertsonen iritzia errespetatu eta nork bereak adieraztera bultzatzea.
- Ikasleak bere buruarekiko irudi egokia lor dezan: autoestimua, autonomia... lantzea.
- Aukerako gaiak ongi ezagutu eta aztertzea, hurrengo ikasketen garapena ongi bideratzeko.
- Promozio irizpideak kontuan hartuz, ikasketen garapena berrikustea.
- Euskara plana bultzatzea.

*DBH. 4. Maila*

Kontuan hartuz ikasleek ikasturte honetan derrigorrezko etapa bukatzen dutela ondoko hauek ikusten ditugu garrantzitsu:

- Osasuna.

  Helburu nagusi bezala, osasun heziketaren barnean helburu hau izanen dugu: sexu-bizitza osasuntsua izateko prestatzea. Ikastetxeak gaia zeharka lantzen du; ikasturte honetan itxiko da programa.
- Aukerak egitea.

  Ikasturtearen bukaeran orientazio-aholkua eman behar zaie ikasleei. Hau ez dugu gauza puntual bezala ikusi behar, prozesu bezala baizik. Afera honetan irakasle guztiok hartu behar dugu parte. Tutoretza departamentuak 4. mailako irakasle guztiei eta bereziki irakasle tutoreei laguntza emanen die orientazio eginkizunean. Tutoretzan landuko den arren, irakasle guztiok ikasleek gure gaia atsegin duten jakin arazi behar diegu. Beren burua ezagut dezaten, elkarrizketak eta ariketak egiten ditugu. Gure mintegiak ematen dituen gai guztiei buruzko informazioa eman behar diegu ikasleei.
- Ikasle bakoitzaren beharrei laguntza ematea, beren errealitate pertsonalari egokitzen saiatuz.

– Ikastetxeko ordezkaritza-erakundeetan ikasleen partaidetza indartzea.
– Euskara plana bultzatzea.

Orientazio-kontseilua emateko ereduak P atalean daude.

## 3. Batxilergorako helburuak

Kontuan hartzekoa da 43/98 Foru Aginduan agertzen den artikulua:

> Hamargarrena: “Ikastetxeak eta irakasle-tutoreek orientabideak emanen dizkiete ikasleei aukerako irakasgaiak hautatzerakoan, eta horretarako behar diren jarraibideak sartu beharko dituzte Batxilergo etapako Curriculum proiektuaren hezkuntza orientabiderako eta tutoretza-planetan”.

### Helburuen lehentasuna mailaka

*Batxilergoko 1. Maila*

– Ikasleen autonomia indartzea.
– Geroko aukeren aurrean, orientazioa eskaintzea, ikas alternatibak kontuan hartuz.
– Banakako tutore-orientazioa egitea, ikasle bakoitzaren beharrak kontuan harturik.
– Euskara plana bultzatzea.

*Batxilergoko 2. Maila*

– Ikasleen autonomia errespetatzea.
– Eskola eta lanbide-orientazioa eskaintzea etapa aldaketari begira (Unibertsitateko ikasketak; lan mundua; goi mailako zikloak).
– Ikaslea selektibitate frogarako edota selekziorako prestatzea (ebaluazio zehapenak, gai burokratikoak...).
– Ikasle bakoitzaren beharrei laguntza ematea, bere errealitate pertsonalari egokitzen saiatuz.
– Euskara plana bultzatzea.

# V. DBHrako tutoretzaren alorrak

Alor hauetaz guztiez idazten ari garenean, erran dugun bezala, irakasle izatea tutore izatea dela kontuan hartzen dugu.

## 1. Ikasleen integrazioa

**Edukiak eta beharrak**

- Ikaslearen sozializazioan lagundu.
- Ikaslea taldearen barruan sartzen erraztu eta harengan parte hartze jarrerak sustatu.
- Taldean bizi:
  - Elkarrekin ezagutuz.
  - Elkarrekin dauzkaten helburuak lor ditzaten.
  - Elkarrekin ongi bizi daitezen.
- Ikastetxean bizi:
  - Ikastetxea ezagut dezaten eta bertako martxan parte har dezaten.
  - Ikasteko konpromisoak.
- Ezberdintasuna aberatsa dela jakin eta onar dezaten.
- Ezberdintasunean bizi daitezen.
- Lanerako eta elkarbizitzarako giro ona eta *euskalduna* lortu.

**Jarduerak**

| *Arlo guztietan* | *Tutoretza* | *Ikaskeak Bakarka* | *Gurasoekin* | *Irakasle -taldearen lana* |
|---|---|---|---|---|
| – Harrera egunak.<br>– Taldean bizi daitezen eta lan egin dezaten lagundu.<br>– Arlo bakoitzean ikasteko konpromisoa hartu.<br>– Taldean antola-tzeko arauak.<br>– Ikasleek beren burua ezagut eta onar dezaten lagundu.<br>– Kanpaldiak.<br>– Aste zuriak.<br>– Ikasketa-bidaiak.<br>– Ikasketa-txangoak.<br>– Tartekaritza, gatazken aurrean.<br>– Jarrerak, edukiak diren aldetik, programatu, landu eta ebaluatu. | – Harrera egunak.<br>– Elkar ezagutzeko ariketak.<br>– Ikasturtean zehar ikasteko konpromisoa har dezaten lagundu.<br>– Taldean antolatzeko arauak.<br>– Ikasturteko helburuak lortzeko, antolatzen lagundu.<br>– Ikastetxea ezagutu eta bertan ongi bizi daitezen lagundu.<br>– Harreman pertsonalak zuzentzeko arauak aipatu eta landu.<br>– IHP, IPC, BA eta abarri buruzko informazioa eta hausnarketa.<br>– Aniztasuna tratatzeko plangintzaz azalpena eta parte hartzea.<br>– Taldearen martxa aztertzeko eta hobetzeko proposamenak.<br>– Ordezkariak aukeratu eta beraiekin lan egin.<br>– Batzarrak: ordezkarien batzarretan parte hartu.<br>– Eskola-kontseilua.<br>– Tartekaritza, gatazken aurrean.<br>– Ikastetxeko festa prestatu. | – HPBak dauzkaten ikasleei taldean sartzeko baliabideak lor ditzaten lagundu.<br>– Taldean sartzeko edota curriculumean segitzeko arazo pertsonalen ebaluazioa eta erantzuna.<br>– Tartekaritza, gatazken aurrean. | – IHP, IPC, Tutoretza, aniztasuna, arautegia, etab.i buruzko informazioa eman.<br>– Ikasleei buruzko informazioa bildu. | – Alor bakoitzari buruzko informazioa eskaini.<br>– Adostasunez erabaki ikasleek nola, noiz eta zer landu behar duten etxean.<br>– Taldean sartzeko ikasleek izan ditzaketen arazoak atzeman eta aztertu.<br>– Taldearen arabera zer–nolako jarrerak, balioak eta antolaketa bultzatu behar duen irakasle-taldeak erabaki behar du adostasunez. |

## 2. Ikasteten orientazioa

**Edukiak eta beharrak**

- Ikasleen etorkizunerako (eskola eta lanbide-mailan) erabakiak hartzeko gaitasuna lor dezaten erraztu.
- Ikaslearen sexuak ez dezala baldintzatu bere etorkizuna, aukerak egin ahal izatea beraien sexua kontuan hartu gabe.
- Aukerako gaiak hautatzea beren ahalmen eta interesen arabera.
- Bere burua ezagutu eta onartzea.
- Erabakiak hartzeko trebetasunak lortzea.
- Ikasleengan plangintzarako jarrerak garatu.

**Jarduerak**

| *Arlo guztietan* | *Tutoretza* | *Ikaskeak Bakarka* | *Gurasoekin* | *Irakasle -taldearen lana* |
|---|---|---|---|---|
| – Aurre-ebaluazioa.<br>– Aukerako jakintzagaiei buruzko informazioa eman, zentzua, edukiak eta abar.<br>– Erabakiak hartzeko prozesuetan trebatu.<br>– Eztabaidak eta debateak<br>– Elkarrizketak.<br>– Ikasleek egindako aukeraketaren baten ondorioaz ez babestu.<br>– Datak eta klasean izandako erabakiak ahal den neurrian mantendu.<br>– Lan proiekturako plangintza egiten lagundu.<br>– Ahalik eta erabaki gehien har ditzaten.<br>– Orientazioa klasean daudenean ere garrantzitsua da. Ikasleek ikasi behar dute gai konkretuak atsegin dituzten edo ez. Honetan ere irakaslea da laguntzailea. | – Aurre-ebaluazioa.<br>– Erabakiak hartzen ikasteko ariketak.<br>– Eztabaidak: akordioak lor ditzaten eta nola lortzen diren ikas dezaten.<br>– Arazoak konpontzeko estrategietan ikasleak entrenatu.<br>– Ziklo edota etapa bukaeran zer datorkien adierazi.<br>– Sasi erabakiak hartzeko ariketak.<br>– ... | – Aurre-ebaluazioa.<br>– Erabakirik ezin hartuz dauden ikasleei laguntza eman.<br>– Ikasle guztiekin honi buruzko solasaldiak maiz eduki.<br>– Elkarrizketak. | – Aurre-ebaluazioa.<br>– Aukerakotasunari buruzko informazioa eskaini.<br>– Plangintzarako jarrera bultzatzeko ideiak eskaini.<br>– Hitzaldiak taldeka eta solasaldiak bakarka edota taldeka. | – Aurre-ebaluazioa.<br>– Eduki bezala, har dezagun erabakiak hartzeko prozesua eta trebetasuna.<br>– Mintegi bakoitzean egindakoa kontuan hartuz, aukerei buruzko informazioa prestatu.<br>– Lan-proiektuak nola egin behar duten ikasleek irakasle-taldean prestatu.<br>– Hau guztia nola landu behar den arlo bakoitzean irakasle-taldean prestatu. |

## 3. Irakaskuntza eta ikaskuntzaren arteko egokitzapena

Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen pertsonalizazioa eta honen jarraipena bultzatu.

**Edukiak eta beharrak**

- Gelako programazioa ezagutu eta koordinatu (ikasleak eta irakasleak).
- Hasierako ebaluazioa.
- Etengabeko ebaluazioa.
- Taldeko martxa aztertu eta hori hobetzeko helburu orokorrak landu (zikloa, etapa...).
- Edozein momentutan ikasleari buruzko funtsezkoa den informazioa eduki.
- Etapan zehar garrantzizko informazioa bilatu.
- 12-16 urteko gazteak ezagutu.
- Irakasteko metodoak aztertu eta, behar den neurrian, aldatu edota ikasle konkretu batzuei bideratuta egokitu.
- Irakasle-taldean adostasuna lortu garapen hurbileko esparruan lan egiteko.
- Egokitzapen curricularrak egin.
- Jakintzagaiak gainditu gabe dauzkaten ikasleen jarraipena.

**Jarduerak**

| *Arlo guztietan* | *Tutoretza* | *Ikaskeak Bakarka* | *Gurasoekin* | *Irakasle -taldearen lana* |
|---|---|---|---|---|
| – Nola ikasi eta nola antolatu ikasteko.<br>– Ikasketen plangintza pertsonala egin dezaten.<br>– Arazoak konpontzeko proiektuak martxan jartzeko, baita ikaskideei laguntza emateko, ikasleen partaidetza ere.<br>– Jarraipen zuzena.<br>– Irakasle bakoitzak bere jarduerak bere ikasleekin ebaluatu.<br>– Lan-giroa hobetzeko, konpromisoak bilatu eta lortu. | – Denboraren antolaketa eta jarraipena.<br>– Informazio osagarria eskuratu hasierako ebaluaziorako.<br>– Ebaluazio-saioak prestatu.<br>– Arazoak konpontzeko proiektuak martxan jartzeko, baita ikaskideei laguntza emateko, ikasleen partaidetza ere.<br>– Adin honetako arazo eta prozesuei buruz hitz egitea.<br>– Tutoretza ekintzak baloratu ikasleekin.<br>– Lan eta lagun-giro onak lortzeko ariketak.<br>– Konpromisoak lortu. | – Denboraren antolaketa eta jarraipen indibiduala.<br>– Informazio osagarria eskuratu hasierako ebaluaziorako.<br>– Ikasketen plangintza pertsonala.<br>– Ikasleen usteak, iritziak, beharrak, arazoak, aurrerapenak, etab. ezagutu eta ezagutarazi.<br>– Ikasleari dagozkion erabakia eta informazioa eman.<br>– Etapan zehar ikasleari buruzko informazioa jasotzeko fitxa prestatu eta erabili.<br>– Arazoak gertatzekotan aztertu eta aterabideak proposatu. | – Beren seme-alabek denboraren antolaketa egin dezaten laguntzeko informazioa eman.<br>– Informazio osagarria eskuratu hasierako ebaluaziorako.<br>– Ikasturteari buruzko informazioa.<br>– Ikaslearen lan pertsonalari buruzko informazioa eman.<br>– Familiaren usteak, beharrak etab. jaso.<br>– Beren seme-alabei buruzko informazioa jaso eta eskaini, haien kolaborazioa eta adostasuna bilatuz.<br>– Buletinak eta txostenak.<br>– Zenbait hitzaldi. | – Denbora antola dezaten nola lagunduko diegun aldez aurretik prestatu behar da.<br>– Ebaluazio-saioak prestatu behar ditugu. Tutoreak koordinatzen ditu.<br>– Programazioaren berri elkarri eman.<br>– Taldearen hasierako ebaluazioa egin eta aniztasuna tratatzeko erabakiak hartu.<br>– Programazioaren arteko ezadostasunak konpondu.<br>– Ikasleei buruzko informazioa gaurkotua eskaini eta jaso.<br>– Ebaluazio-saioak.<br>– Egokipen curricularra egin behar denean, prozesua segitu behar dugu.<br>– Arau bateratuak finkatu, aurrera eraman eta ebaluatu. |

## 4. Ikasketa teknikak. Prozedurazko edukiak

Arlo bakoitzak izan ditzake bereak, beraz, arlo bakoitzako departamentu didaktikoak programatuak ditu arloko proiektu curricularrean. Dena den, hemen aipatzea komenigarria deritzogu. KPBk adostasun batetara iritsi beharko duela. Arlo bakoitzean landuko direla Teknikak eta prozedurazko edukiak eta tutoretza saioetan hau antolatzen lagunduko zaiela ikasleei. Beraz, ikasketa teknikak arlo bakoitzeko Curriculumean barneraturik daudela eta esplizitatu behar ditugu.

Tutoretzan bakarrik lantzea ez deritzogu bide egokia denik. Zein izanen litzateke tutoretza orduan lan egiteko beharra? Lehen aipatu dugun bezala denbora antolatzen laguntzea eta abar, beraz, ikas azturak landu.

**Jarduerak**

| *Arlo guztietan* | *Tutoretza* | *Ikaskeak Bakarka* | *Gurasoekin* | *Irakasle -taldearen lana* |
|---|---|---|---|---|
| – Nola ikasi eta nola antolatu ikasteko erakutsi.<br>– Ikasketen plangintza pertsonala egin dezaten.<br>– Prozedurazko edukiak programatu, landu eta ebaluatu.<br>– Agenda. | – Nola antolatu denbora.<br>– Ikasketen plangintza pertsonala egin dezaten.<br>– Disziplina, norberaren buruari eskatzeko eta lan egiteko.<br>– Norberaren denboraren antolakuntza: eguna, astea, hilabetea, urtea.<br>– Agenda<br>– Azterketak nola prestatzen dira. | – Ikasle guztien plana ikusi eta beharrezkoa bada zuzendu, berarekin komentatu eta zer nolako aldaketak sartu beharko dituen iradoki.<br>– Zailtasuna dutenekin jarraipen eraginkorragoa egin.<br>– Agenda. | – Haien laguntza eskatu ikasleak nola ikasten duen jakiteko eta beharrezkoa bada aldaketak sar ditzaten iradoki.<br>– Agenda. | – Adostasuna lortu maila guzti hauetan:<br>• Zenbat lana.<br>• Zer nolako lana.<br>• Nola antolatzen lagundu.<br>• Materialea.<br>• Klaseko antolaketa.<br>• Ordutegia.<br>• Zer nolako teknika une bakoitzean.<br>• Agenda.<br>• Etab. |

## 5. Aniztasuna eta orientazioa

Beste dokumentu batean, aurrerago, tutoreak behar dituen oinarrizko gauzak sartzen ditugu. Ikus Jarraipena, irakastaldea, ebaluazioa, egokitzapenak, etab.

# VI. Bestelakoak

## Zeharkako gaiak

Eskolak garantizatu beharreko alorrak dira. Honek ez du erran nahi jakintzagai guztiek landu behar dituztenik. Askotan zentzugabekeria izanen litzateke.

Adibide gisa sexu hezkuntza sartzen dugu hemen. Tutoretza saioen bidez aldez aurretik landu gabe gelditu diren alorrak ikusiz, itxi egin dezakegu gaitegia.

### Adibidea. Sexu heziketa

Ikastetxeak sexu hezkuntza bermatu behar du. Zeharkako gaia da. Beraz eskola osoak bermatu beharreko gauza da.

#### *Helburuak*

*Sexualitatea eta erantzukizuna lotu.*

*Norberaren gorputza ezagutu, baloratu eta onartu:*
- Gorputz-irudi erreala ezagutu eta onartu.
- Norberaren burua onartu eta hobetzeko bidean jarri (autoestimua).
- Nerabezaroan ematen diren aldaketak ezagutu eta ulertu.
- Anatomia eta fisiologiaren oinarriak ikasi.
- Ugaltzeko gure ahalmenaz jabetu eta honek suposatzen duen erantzukizun-maila onartu.
- Ugalketa ez gertatzeko neurriak ezagutu.
- Harremanak izateko eta sentimenduak adierazteko ahalmenak hobetu.
- Maitasuna eta atsegina eman eta jasotzeko ahalmena garatu.

*Gizona edo emakumea izatearen garrantziaz ohartu eta onartu:*
- Rol sozialak gure gizarteak historian zehar landutakoak direla ohartu eta askoz ere malguagoak izan beharko liratekeela konturatu.
- Norbera den bezala azaldu eta adierazteko ahalmena hobetu; gizakiok ditugun ahalmen potentzial guztiak garatzeko, maskulinotasun eta emetasun eredu hertsiak aurkeztu gabe.
- Sexu orientazio ezberdinak daudela jakin eta Norberarena ezagutu eta onartzeko bidean jarri.

*Sexualitatearen ikusmolde ludikoa, desinhibitua eta amultsua lortu*:

- Denok ezberdinak garela jakin, eta ezberdinak garen heinean, zaletasun, gogo eta nahi ezberdinak ditugula ere bai.
- Gure gustuak, gogoak eta nahiak adierazten ikasi, eta besteenak errespetatzen ere bai.
- Norberaren sexualitatea era ezberdinean bizi behar du, gurea onartu eta besteena errespetatu.
- Mugak, bizitzaren arlo guztietan bezala, besteei zor diegun errespetuan daude. Ikasi ezin diogula inori ezer inposatu, eta, halaber, ezin dugula inor gure gogo edo nahiaren arabera manipulatu, ezta erabili ere.

*Sexu harremanen arriskuak eta hauek saihesteko jarri behar diren neurriak ikasi.*

## *Edukiak*

*Sexualitatea eta nerabezaroa:*

a) Sexudunak gara. Sexua, sexualitatea eta erotismoa.
b) Nerabezaroan gertatzen diren aldaketak. Ezaugarri nagusiak.
c) Gorputz-irudia eta autoestimua.
d) Sentimenduak. Maiteminduta egotea.
e) Gizakion erantzun sexuala.
f) Kitzikapen sexuala eta berau nola bideratu.
g) Masturbazioa.
h) Anatomia eta fisiologia.

*Sexualitatea eta gizartea.*

a) Nola bizi izan da sexualitatea historian zehar. Jarrera erotofiliko eta erotofobikoak.
b) “Rolak” gure gizartean.
c) Homosexualitatea gure gizartean.

*Ama eta aitatasun arduratsuak*:

a) Amatasun eta aitatasun potentziala. Emankorrak gara.
b) Ugalketa, haurdunaldia, erditzea.

*Ni eta besteak.*

a) Neska mutilen harremanak.
b) Familia barruko harremanak.
c) Eskolan ematen diren harremanak.
d) Nahi dudana azaltzen ikasi eta besteen erantzunak eta gogoak errespetatzen ikasi. Ezetzak esaten eta jasotzen ikasi.

*Haurdunaldia saihesteko neurriak.*

a) Antisorgailuak.
b) Neurri naturalak.

*HIESa eta sexu bidezko gaixotasunak*

a) Kutsatzeko bideak eta arriskuak.
b) Prebentzio neurriak.
c) Elkarbizitza horrelako gaixotasunak dituzten pertsonekin.

**Institutu batean departamentu-buru guztiei galdetu zitzaien ea nola lantzen zen gaia. Hona hemen erantzunak**

| *Gaiaren zenboakia* | *Gaia* | *DBH1* | *DBH2* | *DBH3* | *DBH4* | *BATX1* | *BATX2* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ***Sexualitatea eta nerabezaroa*** | | | | | | |
| | Sexudunak gara. Sexua, sexualitatea eta erotismoa. | C | C | KC | HC | C | C |
| | Nerabezaroan gertatzen diren aldaketak. Ezaugarri nagusiak. | HK | | K | H | K | |
| | Gorputz-irudia eta autoestimua. | HGC | GFC | GFC | HGFZC | GC | C |
| | Sentimenduak. Maiteminduta egotea. | | F | F | F | EH | |
| | Gizakion erantzun sexuala. | | | K | | KEH | |
| | Kitzikapen sexuala eta berau nola bideratu. | | | | | H | |
| | Masturbazioa. | | | KF | F | HGK | |
| | Anatomia eta fisiologia. | K | | K | | K | |
| | ***Sexualitatea eta gizartea*** | | | | | | |
| | Nola bizi izan da sexualitatea historian zehar. Jarrera erotofiliko eta erotofobikoak. | | | F | FC | HC | |
| | "Rolak" gure gizartean | C | HC | C | HZC | EC | C |
| | Heterosexualitatea eta homosexualitatea gure gizartean. | | F | K | F | EH | C |
| | Komunikabideak eta sexualitatea. | | | | | EHC | C |
| | ***Ama eta aitatasun arduratsuak*** | | | K | | | |
| | Amatasun eta aitatasun potentziala. Emankorrak gara. | | | | | KH | |
| | Ugalketa, haurdunaldia eta erditzea. | K | Z | Z | | KH | |
| | Zerbitzuak, COFES, Gazteentzako programa... | | | K | | KH | |
| | ***Ni eta besteak*** | I | I | I | I | | |
| | Neska-mutilen arteko harremanak. | C | EHC | EHFC | EHFC | EHC | C |
| | Famili barruko harremanak. | | | F | HF | HC | C |
| | Eskolan lantzen diren harremanak. | G | G | GFC | GF | G | |
| | Nahi dudana azaltzen ikasi eta besteen erantzunak eta gogoak errespetatzen ikasi. Ezetzak esaten eta jasotzen ikasi. | GF | GF | GFZK | GFZ | GZ | |
| | ***Haurdunaldia saihesteko neurriak*** | K | | K | | H | |
| | Antisorgailuak. | | | ZK | | HK | |
| | Neurri naturalak. | | | K | Z | HK | |
| | ***HIESa eta sexu bidezko gaixotasunak*.** | | | K | H | HK | |
| | Kutsatzeko bideak eta arriskuak | | F | FK | HF | H | |
| | Prebentzio neurriak | | F | FK | HF | H | |
| | Elkarbizitza honelako gaixotasunak dituzten pertsonekin | | | K | | H | |
| | Beste gaiak (aipatu) | | | | | | |

E: Erlijioa; H: HIA; G: Gorputz Hezkuntza; F: Frantsesa; I: Ingelesa; Z: Gizarte; K: Natur Zientziak; C: Gaztelania.

Badaramagu zenbait urte gai hauek guztiak arloetan sartu nahian. Poliki-poliki sartzen ari dira eta gai hau zeharkako gai gisa ari gara ematen. Dena den, tutoretza-plan honetan sartzeak bere orokortasunean ematea dauka helburu. Orobat, zaila da arloetan sartzea. Beraz pentsatu beharko dugu ea merezi ote duen ikastaro bezala ematea. Halaber nork eman beharko lukeen erabaki beharko genuke.

Tutoretza departamentuak Filosofia departamentuarekin batera COFES delako zerbitzua ezagutzera eramanen ditu 4. mailako ikasleak. 4. mailan programa itxi eginen da eta, nolabait, ziurtatu behar dugu gutxienezko edukiak emanak direla ikastetxean.

# VII. Ebaluazioa eta ebaluazio psikopedagogikoa

Ebaluazioa “Egokitze-tresna” dela kontuan hartu behar dugu. Irakaskuntza eta ikaskuntza ongi egoki daitezen laguntzen duen tresna, hain zuzen ere.

Ikasleek zer eskatzen diegun jakitea garrantzitsua da, beraz irakasle guztiok jakinarazi behar diegu ikasleei zer den eskatuko dieguna. Komenigarria da une honetan Departamentu-buruaren eginbeharra gogoratzea:

> “Departamentu-buruaren eginkizunak hauxek dira: (...) Ikasleei jakinaraztea Departamentuko arlo, materia eta moduluak, bereziki helburuak, eska daitezkeen gutxienezkoak eta ebaluazio irizpideak” (Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa).

*DBHko* ebaluazioari buruz kontuan hartu behar dugu 515/94 Foru Agindua, honen sarreran agertzen dira ebaluazioaren ezaugarri nagusiak. Bere bigarren atalean nola izanen den ebaluazio prozesua, nork eta nola eraman behar duen aurrera eta zer-nolako dokumentuetan erabili behar diren aipatzen da.

*Batxilergokoa* etapa konprentsiboa ez izan arren, ikastetxeetan ikasleenak ez diren alderdi batzuk gertatzen direla kontuan hartu behar dugu.

Halaber, 638/1996 Foru Ebazpenak bere 11. puntuan erraten duena aipatu behar dugu: (Aniztasunari buruz ari da ebazpena, zailtasunak dauzkaten ikasleak gogoan, hartu beharreko neurriez, hain zuzen ere).

> “(...) Aurreko punturen batean zehazturiko neurriren bat behar duten ikasleen ebaluazioa, horientzat programaturiko helburu eta edukien arabera eginen da. Ebaluazio aktetan adierazi beharko da curriculumaren egokitzapen adierazgarririk egin ote zaien; egindako egokitzapenak curriculum arruntetik gehiegi urruntzen ez badira, Hezkuntza-errefortzua (HE) izan duela adieraziko da aktan”.

## 1. Hasierako ebaluazioa

Hona hemen Institutu batean egiten dena.

**Aurre-ebaluazioa**

Ebaluazioa prozesu bat bezala kontsideratuz eta etiketatze tentazioan erori gabe, aurrebaluazioa taldearen eta ikasleen funtzionamendua ezagutzeko balioko zaigu, bai eta erabakiak hartzeko euskarri bat izateko ere.

Curriculum Proiektuan jasotzen den bezala, "Aurre-ebaluazioaren helburua, irakaskuntza eta ikaskuntzaren arteko prozesuan, ikasleen ezaugarri eta ezaguerekin egokitzeko informazioaren bilketa da".

Aurre-ebaluazioak bi gauza eskatzen dizkigu:
– Arloetako helburuak ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen estimazio bat egitea.
– Ikaslearen errendimendurako, nortasuna garatzeko eta gizarteratzeko aipagarriak diren oharrak jasotzea.

Denbora gutxi pasa denez gero, ezin izanen dugu ikasle bakoitzarentzat txosten zehatzik egin, baina bai nolakozko eta gutxi gorazkoa, ikasleak bizitzen ari diren errealitateari buruzkoa, eta gure eguneroko lana berrorientatzeko balio dezakeena.

Dudarik gabe lan honek datuak biltzea darama, eta honetarako bidea izan daiteke:
– *Ikaslearen erregistroa*: Ikaslearen erregistroan aurretiko informazioa bilduta dago (Tutoretza-gelako artxibategian dago)
– *Departamentuan*: departamentu mailan, arloko irakasleen artean aurretiko informazio trukaketa egin behar dugu.
– *Gelan*: Irakasleek ikasgelan ikasleen balorapena eginen dute.

**Helburuak**
– Ikaslearen errendimendurako, nortasuna garatzeko eta gizarteratzeko aipagarriak diren oharrak eskuratzea.
– Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan behar diren oinarrizko edukiak aztertzea.
– Gutxieneko eduki horiek kontuan hartuz, gure helburuak eta metodologia berrikustea.
– Irakasleek eta ikasleek egin dezatela lehendabiziko balorazio bat taldegelarekiko moldaketari buruz, eta, bidezkoa bada, familiei jakinarazi.

**Datuak biltzeko fasea**

1. Irakasle bakoitzak beteko du:
   – Arazoak izan dituzten ikasleentzat (beste ikasleei ez diegu eginen):
     • Tutoretza gelan jarriko den maindirean idatziko duzue:
       – Balorazio Orokorra: GU.
       – Proposatzen den Hezkuntza-neurria:
         • ER: Errefortzua.
         • EC: Egokitzapen curricularra.

*Ñ6 dokumentua*: Tutoreari emanen diogu. Departamentu bakoitzak aurre-ebaluazioa egiteko beste txostenak erabiltzen ditu. Txosten hau Ñ6 dokumentuarekin batera emanen diogu tutoreari.

*Ñ5 dokumentua*. Taldearen txostena. Tutoreari emanen diogu.

2. Tutoreak beteko du *Ñ7 dokumentua*. Ikasle bakoitzaren txostena da. Honetan grapatuko ditu (Ñ6) txosten guztiak. Tutoretza-gelan dagoen karpetan sartuko ditu.

**Epeak**

Batxilergoa
DBH4
DBH3
DBH2
DBH1

**Irakasleekin aurre-ebaluazio saioa**

Tutoreak aurre-ebaluazio saiorako gidoi bat prestatuko du. Hona hemen eredua:

- Arazoen azterketa:
  - Hautatu zailtasunak dituzten ikasleak.
  - Banan-banan, ikasle bakoitzaren balorazioa arloka egin: gaitasun orokorrak, bakoitzaren egoera, arloan, egokitzapen curricularrak baloratu.
  - Talde mailan arazoak direnean:
    - Errendimenduak.
    - Portaerak.
    - Zergatiak eta irtenbideak.
- Erabaki beharreko neurriak:
  - Curriculum-neurriak.
  - Antolakuntza-neurriak:
    - Errefortzuak behar izatekotan, non: gela barruan ala kanpoan.
    - Taldekatzearen berrikuspena.
- Ikasketako laguntzak eta neurrien antolaketa (Egokitzapenak arloetan...)
- Taldeko balorazioa: Irakasleek eta talde bakoitzak entregatutako datuak, iritziak eta hausnarketak kontuan hartuz eginen da. Komenigarria izanen litzateke tutoreak, aldez aurretik, txostena idatzita edukitzea irakasleen artean banatzeko.
- Datu adierazgarrien azterketa.
- Akta bete; akordioak bertan jasoko dira. Tutoreak egiten du eta ikasketa-burutzara eramaten du.

**Ikasleekin talde-tutoretza saioak**

Aurre-ebaluazio saiora ikasleen iritziak eraman ditzakegu. Hauek jasotzeko I10 dokumentua erabil dezakegu (badira beste batzuk ere).

Aurre-ebaluazio saioan hitz egindako alderik nabarienak, gelan, taldeari informatu eta komentatuko zaizkio:

– Arlo bakoitzeko irakasleak egindako ebaluazioa.
– Aztertu ondoren, taldearen inkestaren ebaluazioa (kohesioa, jarrera, errendimendua, puntualitatea...) komentatzen ahal da.

**Familiekin elkarrizketak**

Beharrezkoa denean, arazoak dituzten ikasleen gurasoekin elkarrizketa eginen da, hau egin ahal izateko Ñ6 eta Ñ7 dokumentuak erabiliko ditu.

**Aurre-ebaluazio saioetako egutegia**

Antzeko dokumentuak erabiliz, beste institutu batean, Askatasunan, honela antolatzen zuten aurre-ebaluazio saioa (97-98):

1. Taldeari buruzko informazioa. (15' gutxi gorabehera)
   Gure programazioa aldatu behar izan dugu?
   Lan ohiturak, giroa, jarrerak, portaera, harremanak... deskribatu eta baloratu.
   Aurreko alderdietan hobetzeko, irakasleei egiten dizkiegun proposamenak.
2. Talde horretan laguntza bereziak jaso beharko lituzketen ikasleak.
   Puntu hau aztertzen hasteko, lagungarria litzateke tutoreak jasotako laburpena aurkeztea.
   Gero, banan-banan, proposatzen diren laguntza motak aztertuko ditugu: errefortzu espezifikoak, programaren egokitzapenak edo bestelakoak.
3. Gainontzeko ikasleen informazioa (aipagarriena bakarrik)
4. Laguntzen antolaketa.
   Egokitzapena edota errefortzu espezifikoak egiteko PT irakaslearen laguntza edo/eta arloen arteko koordinazioaren beharra ikustekotan, inplikaturiko irakasleen bilera finkatuko da beste egun baterako. Horretan, irakasleek laguntzaren diseinua eta antolaketa erabakiko dute.

Hasierako ebaluazioko saioetan erabakiko dira egokitzapen curricularrak.

## 2. Ebaluaziorako prozesua

Ikasleek egiten duten guztia ebaluatu behar dugu. Hau egin ahal izateko, ikaslearen abiapuntua eta curriculuma hartzen ditugu kontuan. Ikaslea nondik datorren eta noraino ailegatu den. Zer eman dezakeen eta zer eman duen. *Ebaluazioaren ondorioz, neurri zuzentzaileak sartu behar ez baditugu, ebaluazioak ez du zentzurik*. Non dago akatsa? Zertan hobetu behar dugu? Ez dugu ebaluazioa eta kalifikazioa nahasi behar. Kalifikazioa, ebaluazio baten ondorioz, neurri administratiboa besterik ez da.

Ikasleak egiten edota lortzen duena neurtzen badugu, ebaluazioa osatu gabeko zerbait bihurtzen dugu. Guk egindako lana geuk baloratu behar dugu. Gure egiteko moduak ere baloratu, hobetzeko. Honako galderak egitea ez litzateke gaizki egonen.

- Zeri eman diot garrantzia?
- Ikasleek badakite zer den jakin behar dutena?
- Ikasleen Garapen hurbileko esparruan sartu naiz?
- Nire metodologiak ikasleen motibazioa pizten du? Nire metodologia anitza da?
- Ikastaldeak bere partaideen lana bultzatzen du?
- Ordutegiak baldintzatzen du?
- Noiz joko ditut kalifikazioak ontzat? Non kokatzen dut onarpen-maila eskasia? Non dago onar dezakedan gutxiegien (gainditu gabe-en) portzentaia?
- Jarritako frogak eta azterketak ongi jarriak izan dira? Neurtu nahi zutena neurtu dute?

Alderdi administratiboa. Hona hemen institutuan egin daiteken eredua:

## Eredua

| | *Zer* | *Nork* | *Noiz* | *Norentzat/Nori* |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Zuzendariak egutegia proposatzen du | Zuzendariak | Aurreko ekainean | Klaustroarentzat |
| 2 | Egutegia onartzen du. | Klaustroak | Ekainean | |
| 3 | Prozesua jakinarazten du. | Ik. Buruak | 0-15 | Irakasleei. |
| 4 | Prozesua erakutsi. | Ik. Buruak. | 0-15 | Irakasle berriei. |
| 5 | Ikasle taldearekin hiruhilekoan egindakoa ebaluatzen dugu. Tutoretza orduan. | Tutoreak | 0-7 | |
| 6 | Aurreko bileraren emaitzak bildu eta idatzi egiten dute. | Ikasleen ordezkariek (ardura tutorearena) | 0-7 | |
| 7 | Maindirea bete..<br>Taldeko txostena bete.<br>Banakako txostenak bete | Irakasleek. | 0-4 | Tutorearentzat. |
| 8 | Maindireak eramaten ditu. | Ik. Buruak. | 0-4 | Idazkaritza teknikoarentzat. |
| 9 | Maindireak ongi idatziak ematen dizkiete. | Idazkari teknikoek. | 0-3 | Tutoreei. |
| 10 | Irakasle-taldeko bilera prestatzen du. Dokumentu hauetaz baliatzen da: Maindirea. Taldearen txostena. Banakako txostenak. Irakasleek emandako beste informazioak. Zein ikaslez hitz eginen duten erabakitzen du. | Tutoreak. | 0-2 | |
| 11 | Ebaluazio-bilera. Prozesua: | Bilera honen ardura tutorearena da. | 0 | |
| | a) Ikasleen ordezkariek taldearen iritziak ematen dituzte (6. pausoko dokumentuan oinarritzen dira). | Ikasle ordezkariak. Ardura tutorearena da. 5 minutu. | 0 | |
| | b) Taldearen gaineko iritziak eta balorapenak egiten dituzte ikasleen ordezkarien aurrean. | Irakasleek. 5 minutu. | 0 | |
| | c) Taldea hobetzeko proposamenak eta konpromisoak. | Irakasleek. Ikasleen ordezkariek. | 0 | |
| | d) Apuntatu egiten dira. | Tutoreak. Ikasleen ordezkariek. | 0 | Ikastaldearentzat. |
| | e) Ikasleen ordezkariek bilera uzten dute. | | | |
| | f) Ikasle bakoitzaz hitz egiten hasten da. | Irakasleek. | 0 | |
| | g) Irakasleek idatzitakoa komentatzen du. | Tutoreak | 0 | |

| | *Zer* | *Nork* | *Noiz* | *Norentzat/Nori* |
|---|---|---|---|---|
| | h) Ikasleen kalifikazioak eta oharrak finkatzen dituzte. | Irakasleek | 0 | |
| | i) Neurriren bat hartu behar da? (Zein, noiz, norentzat, nork?). Horrela bada, aktan idatzi behar da. Ondoren, ikasleen karpetan idatziko du. | Irakasleek. Tutoreak idazten du. | 0 | |
| | j) Gurasoentzako oharrak proposatu eta informazioa ematen du. | Tutoreak | 0 | |
| | k) Talde osoaren egokitzapenak egin behar dira? | Tutoreak galdetzen du. | 0 | |
| | l) Ikasle batez gehiago hitz egin behar bada (bateratze-egokitzapena egiteko adibidez), beste egunerako gelditzen da. (0+7 gehienez). | 0 | | |
| | m) Dokumentazioa bukatzen da. Bere tokira eramaten du. Zuzenketak idazkaritzara. Egokitzapenak O. Departamentura. Gurasoentzako oharrak idazkaritzara... | Tutoreak | 0<br>0+1 | Idazkariarentzat. Odentzat. |
| | n) Taldearentzat hartu beharreko neurriak finkatu egiten dituzte (egunean bertan ezinezkoa bada, beste bilera bat finkatzen da. Gehienez 0 +7) | Irakasleek. Tutoreak idatzi eta kopia banatuko die irakaskideei. | 0<br>0+1 | Irakasle guztiei kopia bana. |
| 12 | Buletinak inprimatzen dituzte. | Idazkari teknikoek. | 0+1 | Tutoreentzat. |
| 13 | Buletinak errepasatu eta sinatu egiten ditu. | Tutoreak | 0+1 | |
| 14 | Buletinak banatzen ditu. | Tutoreak | 0+2 | Ikasleei. |
| 15 | Buletinen egiaztapenak hartzen ditu. | Tutoreak | 0+5 | |
| 16 | Ikasleekin elkarrizketak egiten ditu. | Tutoreak | 0+1... | |
| 17 | Taldearekin hitz egiten dute. Bileran errandakoaren berri ematen diete. Konpromiso berriak. | Ikasleen ordezkariek (arduraduna tutorea). | 0+7 | |
| 18 | Neurriak hartzeko denborarik izan ez bada, beste bilera bat antolatzen da. | Arduraduna tutorea. | | |

## 3. Promoziorako irizpideak

Hona hemen ideia batzuk ikaslearen promozioa erabakitzeko. Atxikitako dokumentuetan, erabaki hauek hartzeko beste laguntzak agertzen dira. Begiratu M1 dokumentua.

Ikasle bat zikloan urte bat baino gehiago egoteko, irakasle-taldeak argi eta garbi zera hau ikusi behar du: neurri horrekin hobeki joanen dela ikaslea. Bere ikasketa prozesurako neurri hori mesedegarriagoa izanen dela bere ikas-

kideekin segitzea baino. Irakasle-taldea horretaz ziur ez badago, ikaslea promozionatuko dugu. Mailaz pasako da, behar dituen laguntzak bertan emanen dizkiogu. Ideia hau ikastetxe batek hartu zuen DBH ezartzen hasi zenean. Gero ideia osatuz joan zen:

| *Baldintza* | *Promozioa* | *Gero* |
|---|---|---|
| 1. Jakintzagai guztiak gainditu ditu. | Promozio arrunta. | |
| 2. Jakintzagai bat edo bi ez ditu gainditu. | Promozio arrunta.<br>89/96 Foru Agindua. | Laguntza eman behar gainditu ez dituen jakintzagaietan. Gainditzen dituenean, espedientean apuntatu behar da. Laguntza urte honetako irakasleak emanen dio. |
| 3. Ziklo edo kurtsoko hezkuntza-helburuak bere osotasunean iritsi ditu | Promozioa. | |
| 4. Ziklo edo kurtsoko hezkuntza-helburuak bere osotasunean iritsi ditu, baina hutsune batzuk ageri ditu. | Promozioa. | Hutsune hauetaz informazio idatzia gelditu behar du ekainean. Urrian jakinarazi behar zaio irakasle-talde berriari. |
| 5. Hiru arlo edo gehiago ez ditu gainditu. | | |
| 5.1. “Helburu orokorretan sartutako gaitasunekin alderatuta, ikasleak duen heldutasuna” nahikoa dela pentsa dezakegu. | Promozioa | Informazioa idatzi ekainean. Urrian informazioa pasa. Behar duen laguntza emanen zaio. |
| 5.2. Ikasleak ez ditu lortzen helburu orokorretan ageri diren gaitasunak. Kasu hauetan, gauza hauen guztien inguruko hausnarketa eginen dugu:<br>5.2.1. Geratzen bada, hobe joanen da? Promozionatzen bada, hobe joanen da? Zein egoeratan ikasiko du gehiago. Zein egoeratan garatuko ditu hobe bere ahalmenak?<br>5.2.2. Bere autoestimua, autonomia, egokitzapenerako zer izanen da egokiena? Promozionatzea? Geratzea?<br>5.2.3. Bere ikaskideekin lehen izan dituen harremanak nolakoak izan dira, onak ala ez hain onak? Lagun berriak egitea? Lehenagoko lagun-taldearekin segitzea?<br>5.2.4. Zer da gurasoek erraten dutena? Zer da ikasleak erraten duena? | 89/96 Foru Aginduak esaten duenaren arabera, irakasle-taldeak erabakiko du kasuz kasu, komenigarriagoa zer den kontuan hartuz. Halaber, baliabideak eta beste baldintzak ere kontuan hartuko ditugu. | |

Beste ideiak: DBH 2. maila errepikatu badu, ez du komeni 3. maila errepikatzea. Ezohiko neurriak behin funtzionatu ez badu, zergatik aplikatu berriz?

Irakasle-taldeak errepikatu beharra ikusten badu, hobe lehenbailehen egitea.

Ikasleak izandako egokitzapenak eta errefortzuak izan duten eragina ere kontuan eduki behar dugu.

Prozesua abiarazteko, irakasle batek proposa dezake edo proposatu behar du. Beste ideia izanen litzateke kasu guztiekin prozesua gauzatzea.

Ikaskideak konparatzea ez da komenigarria, beti izanen baitira “bidegabeak”.

## 4. DBHko titulua emateko irizpideak

Hona hemen ideia batzuk. Ikastetxe bakoitzak dauzka bereak. Beti bezala gure lehendabiziko galdera zera izan behar da: nola lagundu gehiago ikasleari? Batzuetan pentsatu egin da titulua denei ematea komeni dela. Beste batzuetan, aldiz, ez. Ikasle batzuek jarraitzen ahal dute Erdi Mailako Heziketa Zikloetan (EMHZ) problemarik gabe, beste batzuk, aldiz, ez dira EMHZ ateratzeko gauza. Hauei titulu eman izateak galarazten die LHP batean sartzea. Irakasle-taldeak oso ongi baloratu behar ditu egoera guztiak. Egia esan, hemen agertzen diren ideiak laguntzeko balio dezakete, baina zaila izanen da beti ongi aplikatzea. Batzuetan irizpideak erabat itxiak izan behar direla erran izan dugu. Gure ustez, irakasle-taldeak ongi daki ikaslea zer egiteko gauza den, hau dela-eta irizpideak irekiak uztea mesedegarriagoa izanen da.

| *Egoera* | *Baldintza* | *Erabakia* |
|---|---|---|
| 1. Jakintzagai guztiak gaindituak | Egokitzapen curricularrik gabe. | Titulua modu arruntean. Orientazio irekia. |
| 2. Jakintzagai bat edo bi gainditu gabe. Besteak gaindituak. | Egokitzapenik gabe. | Titulua modu arruntean. Orientazio itxia edota irekia. |
| 3. Hiru jakintzagai edo gehiago gainditu gabe. | Helburu orokorrak gaindituak dauzkala iruditzen zaigu. Oinarrizko ahalmenak garatuak dauzkala iruditzen zaigu. | Titulua. Orientazio itxia. |
| 4. Berdin. | Egokitzapenak izan ditu edo ez. Ez dugu espero gehiago eginen duenik. Ez ditu helburuetan agertzen diren ahalmenak bere osotasunean garatu, baina erran dezakegu prozesuan dagoela. DBHn aurrerapenak izan ditu. | |
| 4.1. Berdin. | Gauza da EMHZ egiteko. | Titulua. Orientazio oso itxia. |
Gauza on bat ikasi zuen, ez zuen hau edo hori izan nahi, ezta besteak baino gehiago izateaz edo ez izateaz kezkatu ere... garrantzizkoena, benetan garrantzizkoena *Bera izatean zetzan*. Eta hori lortzeko, bere burua besteekin alderatu beharrik ez zeukan, ezta besteekin norgehiagoka ibili ere; jatorrena izan, besterik ez. Ez zuen inor imitatu beharrik. Bere nortasunak indartzen joan behar zuen.

Bere muxikak, adibidez, ez ziren beste zuhaitzek ematen zituztenak baino txarragoak, ezberdinak baizik, bereak ziren. Ez zuen ezkutatzeko

edo besteek ez ikusteko gogorik inoiz sentitu. Bere jarrera eta besteekiko harremana ere aldatu zuen. Berekiko tinko zegoen, edozein lekutara joan eta edonorekin hitz egiteko prest zegoen. Besteekin hitz eginez gauza berriak ikasten zituela ohartu zen. Eta are garrantzitsuagoa, besteek entzuten ziotela eta bere iritziak aintzat hartzen zituztela ohartu zen eta horrek poza sorrarazi zion.

Ordurako ez zion zirkinik egiten bihotzak eta eztarria ere ez zitzaion korapilatzen, norbait hurbiltzen zitzaionean, ez zen lotsatzen, ezta zurbiltzen ere. Emeki-emeki esaten ziotena entzun egiten zuen, lasai pentsatu eta bere iritzia ematen zuen. Bera zen bezala baloratzen zuten, besteek imitatuz jarraituz gero, ez zen benetakoa izango, ez zuen indarrik izango.

Baina ez ezazue pentsa dena hor bukatu zenik. Ez. Oraindik ere, beste aurkikuntza eder bat egin zuen. Beldurra eta seguritate eza gainditzeko bere buruarekin izandako borrokak bere lagun eta auzokideen ahaleginak eta nolakotasunak baloratzen erakutsi zion. Denak izan zuten borrokatu beharra, ziren bezalakoak izan ahal izateko, benetakoak izateko, denek pasa baitzituzten esperientzia eta egoera zailak. Denak dira gutxi gorabehera ni bezalakoak, eta ni ere gutxi gorabehera haiek bezalakoa naiz. Borrokatzen dugu, ahalegintzen gera eta garenak izateaz eta pentsatzen duguna pentsatzeaz oso pozik gaude..., eta pentsamendu horrek besteenganako ulergarritasuna sorrarazi zion, haiek egiten zituzten ahaleginak ezagutzen baitzituen.

Beraz, besteak baloratzen ikasi zuen, ez zeukatenagatik, zeukatena lortzeko egindako ahaleginagatik baizik.

Eta istorio hau bukatzen da. Gure laguna, muxikondoa, hazi eta heldu egin zen, baina ohar zaitez ongi, kanpotik hazi zen, bere itxura hobeagotuz (enborra, adarrak, hostoak fruituak...) eta barrutik ere hazi zen, besteen aurrean maitagarriak izateko, ezkutatuta dauzkagun baloreak (adiskidetasuna, maitasuna, zintzotasuna...) garatzen eta sendotzen saiatu behar gara.

Baina hau dena, zuhaitzak egurrezkoak bakarrik ez ziren herri batekoa zelako gertatu zitzaion, han zuhaitzek burmuina zeukaten eta pentsa zezaketen!

## "Benetakoa izatea"

*Taldean lan egiteko galde-sorta*

Hona hemen galdera batzuk. Taldean erantzunen dituzue. Galdera hauek daukaten helburu nagusia zuen ideiak argitzea da, beraz hau lortzeko lagungarriak gertatzen ez bazaizkizue, ez dituzue galderak zertan erabili. Zuetako norbaitek apunteak hartu behar ditu, ondoren erantzunak talde osoan komentatuko baititugu.

*Galderak*

1. Muxikondoa zergatik ez zegoen pozik bere izateko moduarekin?
2. Zer gertatzen zitzaion bere burua itsusia ikusten zuenean?
3. Hasieran ez zitzaion bere burua gustatzen. Zer gertatu zitzaion bere burua maitatzen hasteko?
4. Arbolak bera den bezala izatea erabakitzen duenean, bertuteak dauzkala ikusten du. Oroitzen zarete zer gertatu zitzaion gero?
5. Muxikondoari gertatu zitzaiona askotan gizakioi ere gertatzen zaigu. Horrelako zerbait gertatzen zaizue? Elkarrekin komentatu.
6. Zuetako norbaiti horrelako zerbait gertatuz gero, zer-nolako irtenbide eskainiko zenizkiokete?

## A2. Autokontzeptua landuz

### Zertarako erabil daiteke?

- Autokontzeptua aztertzeko.
- Autoestimua indartzeko.
- Ikasleek beraien ezaugarriak azter ditzaten. Besteek beraietaz daukaten iritziak ikus ditzaten. Zertzuk alda ditzaketen ikus dezaten. Beraien burua onartzeko.

### Prozedura

*Ariketak*

- Autokontzeptua. Galdetegia eta hausnarketa.
- Beste galdetegiak:
  - Ikaslearen iritziz zein den gurasoen iritzia.
  - Gurasoei zuzendutako galdetegia.
  - Ikaslearen iritziz zein den irakasleen iritzia.
  - Lagunei zuzendutako galdetegia.

A

## Autokontzeptua

Ondoko koadroan, pertsonen izaera-ezaugarri batzuk jasotzen dira. Saia zaitez aztertzen zeu nolakoa zaren eta adierazi zein maiztasunez agertzen zaren honelakoa:

| *Honelakoa naizela uste dut* | *Ia inoiz ez* | *Batzuetan* | *Maiz* |
|---|---|---|---|
| 1. Txukuna, garbia naiz. | | | |
| 2. Etxerako laguntza handia naiz. | | | |
| 3. Argia naiz ikasketetan. | | | |
| 4. Herabetia (lotsatia) naiz. | | | |
| 5. Pasiboa naiz. | | | |
| 6. Arduratsua naiz. | | | |
| 7. Arriskuek beldurra ematen didate. | | | |
| 8. Oso txantxazalea (bromazalea) naiz. | | | |
| 9. Langile amorratua naiz. | | | |
| 10. Atsegina, sinpatikoa. | | | |
| 11. Lanak ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz. | | | |
| 12. Itxura onekoa. | | | |
| 13. Alperra, nagia. | | | |
| 14. Gauza berriekiko jakin-min handikoa. | | | |
| 15. Lagunkoia, lagunartekoa. | | | |
| 16. Goibela, tristea. | | | |
| 17. Kirolari ona. | | | |
| 18. Ganoragabekoa (zabarra). | | | |
| 19. Zintzoa. | | | |
| 20. Urduria. | | | |
| 21. Lanerako ona. | | | |
| 22. Gaiztoa. | | | |
| 23. Beste neska-mutil batzuen gogokoa. | | | |
| 24. Zorte ona dut. | | | |

Azter itzazu hobekien definitzen zaituzten ezaugarriak. Idatz ditzakezu aurreko ariketan “maiz” markatu dituzun ezaugarriak edota egokiak iruditzen zaizkizun beste batzuk.

Nire izaera definitzen duten ezaugarriak:

________________________________________

________________________________________

________________________________________

## Nola ikusten naute besteek?

Zure izaeraren ezaugarriez hausnartu ondoren, zure gurasoek, lagunek eta irakasleek nola ikusten zaituzten aztertuko dugu. Interesgarria izango da pertsona hauen iritziak zureekin egiaztatzea.

### a) *Zer pentsatzen dute nitaz nire gurasoek?*

Bete ezazu *zuk zeuk* galdeketa hau.

1. Ados daude zure gurasoak hurrengo ikasturteari begira egin nahi duzun aukeraketarekin?

   a) Bai. b) Ez. c) Ez dakit.

2. Beraiek aukeratzekotan, non kokatuko zintuzkete?

   a) Batxilergoan. b) Erdi mailako LHZan. c) Beste nonbait: ________

3. Zure iritziz, zure gurasoek zuk daukazun ikasteko gaitasunari buruz zer iritzi dute?

   a) Oso gai naizela.
   b) Nahikoa gaitasun dudala.
   c) Ahal dudala, baina ez dudala nahi.
   d) Beste erantzunen bat...

4. Zure gurasoek zuk ikasteko dituzun ohiturei buruz zer iritzi dute?

   a) Oso ondo antolatzen dudala lana.
   b) Batzuetan antolatzen dudala.
   c) Lana ez dudala sekula ere antolatzen.
   d) Beste erantzunen bat.

5. Erabaki garrantzitsu bat hartzen duzunean, zure gurasoek ba al dute nolabaiteko eraginik horretan?

   a) Handia. b) Nahikoa. c) Pixka bat. d) Baterez.

6. Erabakia hartzen duzunean, nola jokatzen dute beren adostasuna edo desadostasuna azaltzeko?

   a) Aholkuak ematen dizkidate.
   b) Arrazoiak ematen dizkidate.
   c) Gehienetan nire alde egiten dute.
   d) Sekula ez daude ados.
   e) Batzuetan hartzen dute esku.
   f) Beste erantzunen bat.....

7. Onartzen al duzu zure gurasoen iritzia eta esku-hartzea?

   a) Erabat.
   b) Neurri handian.
   c) Pixka bat.
   d) Ia batere ez.
   e) Inolaz ere ez.
   f) ______________________

8. Zure gurasoek onartzen al dute zuk iritzi ezberdina izatea?

   a) Gai guztietan. b) Gai askotan. c) Gai batzuetan. d) Gai gutxitan. e) Inoiz ez.

## DBH4
## Mailako ikasleen gurasoentzako galdeketa

Zure izena: ____________________________________________

Zure seme-alabaren prestakuntzan, oraingo momentu hau oso erabakigarria da. Galdeketatxo hau bete dezazuen zuzentzen gara zuengana, honela, zuek emandako datuek, zuen seme-alabekin egiten ari garen orientazio-lana erraztuko digutelakoan. Erantzuteko, marka ezazue X batez zuen iritziarekin bat datorren erantzuna edota idatz ezazue zuen iritziz egokiena. Semeak edo alabak berak galdetuko dizue.

*Vuestro/a hijo/a se encuentra en un momento decisivo de cara a su formación. Os pedimos que rellenéis este cuestionario que nos ayudará en el trabajo de orientación que estamos llevando a cabo en el Instituto. Os preguntará el propio hijo o la propia hija.*

| | |
|---|---|
| 1. Laugarren maila bukatzean, zein ikasketa jarraitu beharko nuke?<br>a) Batxilergoa.<br>b) Erdi mailako Lanbide Heziketako zikloa.<br>c) Beste bat. | *1. ¿Qué estudios creéis que debería cursar yo al terminar cuarto?*<br>*a) Bachillerato.*<br>*b) Ciclo formativo de grado medio.*<br>*c) Otra cosa.* |
| 2. Zergatik uste duzue jarraitu behar dudala goian aipatutakoa? | *2. ¿Por qué creéis que debería cursar esos estudios?* |
| 3. Zuen iritziz, zein da atsegin dudan lanbidea? | *3. En vuestra opinión cuál es el oficio que me gusta?* |
| 4. Zuen iritziz, zein da eginen dudan ikasketa? | *4. ¿Qué estudios pensáis que haré?* |

| | |
|---|---|
| 5. Zuen iritziz, zergatik aukeratuko dut hori? (Bi gauza gehienez)<br>a) Ikasteko gaitasuna dudalako.<br>b) Lana bilatzerakoan, posibilitate gehiago izanen dudalako.<br>c) Primeran doakiolako nire izaerari.<br>d) Horretarako bokazioa dudalako.<br>e) Familiaren egoera ekonomikoagatik.<br>f) Beste gauzak baino errazagoa delako.<br>g) ______________________ | 5. *¿Por qué creéis que escogeré eso? (Dos respuestas como máximo)*<br>*a) Porque tengo capacidad para estudiar.*<br>*b) Porque tengo más posibilidades a la hora de encontrar empleo.*<br>*c) Porque es acorde con mi carácter.*<br>*d) Porque tengo vocación para ello.*<br>*e) Por la situación económica familiar.*<br>*f) Porque es más fácil que otras cosas.*<br>*g)* ______________________ |
| 6. Nik egin dudan aukeraketa<br>a) Sendoa eta serioa da.<br>b) Zalantzazkoa da.<br>c) Guztiz lekuz kanpokoa da. | 6. *¿Qué os parece mi decisión?*<br>*a) Firme y seria.*<br>*b) Dudosa.*<br>*c) Totalmente fuera de lugar.* |
| 7. Zuen iritzia nire erabakiarekin bat ez badator, nik erabakitakoa onartuko duzue?<br>a) Bai.<br>b) Ez.<br>Zergatik? | 7. *¿Si vuestra opinión no coincide con mi elección aceptaréis mi decisión?*<br>*a) Sí*<br>*b) No.*<br>*¿Por qué?* |
| 8. Zuen iritziz, zein da ikasketa eta ikastetxearekiko azaltzen dudan interesa?<br>a) Izugarria.<br>b) Handia.<br>c) Ez txikia, ez handia.<br>d) Txikia.<br>e) Oso txikia. | 8. *¿Qué interés muestro, en vuestra opinión, hacia los estudios?*<br>*a) Muy alto.*<br>*b) Alto.*<br>*c) Medio.*<br>*d) Bajo.*<br>*e) Muy bajo.* |
| 9. Gurutze baten bidez marka ezazue hobekien definitzen nauten ezaugarriek | 9. *Marcad con una cruz las características que mejor me definen:* |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lagunkoia (*sociable*) | | | | | | Herabetia (*tímido/a*) |
| Alaia (*alegre*) | | | | | | Tristea |
| Berritsua (*hablador/a*) | | | | | | Isila (*callado/a*) |
| Ausarta (*decidido/a*) | | | | | | Ezbaitia (*indeciso/a*) |
| Bizia (*activo/a*) | | | | | | Gogo gutxikoa (*pasivo/a*) |
| Urduria (*nervioso/a*) | | | | | | Lasaia (*tranquilo/a*) |
| Borrokalaria (*peleón, peleona*) | | | | | | Bakezalea (*pacífico/a*) |
| Menderatzailea (*dominante*) | | | | | | Apala (*sumiso*) |
| Arduratsua (*responsable*) | | | | | | Arduragabea (*irresponsable*) |
| Esanekoa (*obediente*) | | | | | | Managaitza (*desobediente*) |
| Eskuzabala (*generoso/a*) | | | | | | Nirekoia (*egoísta*) |
| Irekia (*abierto/a*) | | | | | | Itxia (*retraído/a*) |

10. Beste iruzkinak.

*10. Otros comentarios.*

**Zer pentsatzen dute nitaz nire irakasleek?**

Galdeketa hau zuk erantzuteko da. Erantzunetan, zure iritziz irakasleek zutaz pentsatzen dutena idatzi beharko duzu.

1. Ikasteko duzun gaitasunari dagokionez, zer pentsatzen dute zure irakasleek?

   a) Oso gai naizela.
   b) Nahikoa gaitasuna dudala.
   c) Ahal dudala baina ez dudala nahi.
   d) Kostatzen zaidala.
   e) Beste zerbait: ____________________

2. Zer iritzi dute zure irakasleek ikasteko dituzun ohiturei buruz?

   a) Oso ondo antolatzen dudala lana.
   b) Batzuetan egiten dudala.
   c) Lana ez dudala sekula ere antolatzen.
   d) Beste zerbait: ____________________

3. Nola eragiten dute irakasleek zure erabakietan?

   a) Aholkuak ematen dizkidate.
   b) Arrazoiak ematen dizkidate.
   c) Gehienetan nire alde egiten dute.
   d) Sekula ez daude ados.
   e) Batzuetan hartzen dute esku.
   f) Beste zerbait: ____________________

Galdera hauek erantzun eta gero zoaz tutorearengana eta haren iritziarekin alderatu.

A

## Zer pentsatzen dute nitaz nire lagunek?

Gidoi hau eskuetan duzula, galde iezaiezu bi laguni (nahi baduzu, lagun gehiago har ditzakezu).

| 1. Ikasketei dagokienez, zure iritziz, zer dut gogoko? | |
|---|---|
| Lagunaren izena: | Lagunaren izena: |
| | |
| 2. Nire denbora librean, zer gustatzen zait egitea? | |
| | |

3. Nolakoa naizela uste duzu?
1. Laguna 2. Laguna

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Bai | Ez | Etxeko lanetan arduratsua naiz. | Bai | Ez |
| Bai | Ez | Parte hartzen dut denbora libreko ekintzetan. | Bai | Ez |
| Bai | Ez | Arduratsua naiz ikasketa lanetan. | Bai | Ez |
| Bai | Ez | Gelan giro ona egon dadin laguntzen dut. | Bai | Ez |
| Bai | Ez | Gelako beste kideei laguntzen diet. | Bai | Ez |

4. Nolakoa naiz zure iritziz?

| Laguna 1 | | | | | | | Laguna 2 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Urduria | | | | | | Lasaia | Urduria | | | | | | Lasaia |
| Berritsua | | | | | | Isila | Berritsua | | | | | | Isila |
| Irekia | | | | | | Itxia | Irekia | | | | | | Itxia |
| Esanekoa | | | | | | Managaitza | Esanekoa | | | | | | Managaitza |
| Borrokalaria | | | | | | Bakezalea | Borrokalaria | | | | | | Bakezalea |
| Alaia | | | | | | Tristea | Alaia | | | | | | Tristea |
| Eskuzabala | | | | | | Nirekoia | Eskuzabala | | | | | | Nirekoia |
| Menderatzailea | | | | | | Apala | Menderatzailea | | | | | | Apala |
| Ausarta | | | | | | Ezbaitia | Ausarta | | | | | | Ezbaitia |

| 10. Egizu nire izaeraren deskribapena bizpahiru hitzetan: | |
|---|---|
| Laguna: 1 | Laguna: 2 |
| | |
| *Eskerrak eman lagunei.* | |

### *Ondorioak*

Irakur itzazu galdeketa guztiak eta atera itzazu zuk zeuk ondorioak: Zer pentsatzen dute zutaz gurasoek, lagunek eta irakasleek? Iritzi egokiak iruditzen zaizkizu? Bat al datoz zeure buruaz duzun iritziarekin? Zer ikasi duzu zeure pertsonari buruz ariketa honetan? Komenta itzazu ondorio hauek guztiak gelako lagun batekin.

## A3. Gurasoen aurrean fidagarriak izan nahian

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleek gurasoekin (baita beste pertsona helduekin ere) dauzkaten harremanak aztertu eta hobe ditzaten laguntzeko.

### Prozedura

Kasuaren azterketa. Yadiraren istorioa.

## Yadiraren Istorioa

Yadira 15 urteko neska da. Ciudad Realeko Alcazar de San Juan herrian bizi da. Ongi doakio dena, DBH3. maila egiten ari da eta nota politak ateratzen ditu. Lagunen artean ongi dagoela erran dezakegu, lagun asko duela ikaskideen artean. Saskibaloian aritzen da eta kirol talde honetan oso ongi moldatzen da. Auzoan ere badauka bere koadrila. Etxetik ateratzea gero eta gehiago gustatzen ari zaio.

Joan den astean saskibaloi-taldearekin atera zen, partidua zaila zen eta ez zuten irabazteko itxaropen handirik. Ongi moldatu ziren eta alde handiarekin irabazi zuten. Animatu egin ziren eta askari on batekin ospatu zuten. Autobusez ailegatu ziren herrira eta irabazi zutela ospatzeko, diskoteka batera joan ziren.

Diskotekan ederki pasa zuten elkarrekin eta Yadirak zigarro bat erre zuen. Ez zitzaion sobera gustatu, baina bere koadrilako mutilek erre zutenez, ez zuen gutxiago izan nahi. Festa bukatu zuten eta etxera joan ziren.

Etxera abiatu zen eta beranduegi zela konturatu zen. Inoiz ez zen hain berandu joan. Ama eta aita esperoan ziren etxeko atarian. Gurasoak jatorrak ziren, hagitz, baina egun horretan arraro ikusi zituen.

– Non egon zara?

– Diskotekan.

Yadirak nahiago izango zuen partiduaren gaineko galderak aditzea, baina gurasoen zalantzak beste alde batetik zetozen.

Gurasoak konturatu ziren erre egin zuela eta ezer esan gabe erabat kezkaturik oheratu ziren. Bere zalantzarik handiena zen tabakoa erretzeaz gain beste zerbait egina ote zuen. Ez ziren galdetzera ausartzen eta bere kezkarekin gelditu ziren.

Yadirak azterketa bat egin behar izan zuen astelehenean. Ikasi egin zuen beti bezala, baina ez zitzaion ongi atera; "*Gutxiegi*" izan zen bere nota. Bera ez zen kezkatu, gainditzeko aukera handiak zituela pentsatzen baitzuen, baina irakasleak amari telefonoz deitu zion gutxiegiaren berri emateko.

Amak aipatu gutxiegia lotu zien aurreko zalantza guztiei eta, ezer aditu gabe, zigor hau ezarri zion: ikasturtea bukatu arte ez zen entrenatzera joanen eta larunbat eta igandeetan gurasoekin aterako zela. Astean zehar ez zen etxetik aterako. Ekainean den-dena gainditzen ez bazuen, familia ez zen oporretara joanen eta Yadirak estudiatzen pasako zuen uda.

*Ariketa*

1. Zein izan zen Yadirak gaizki egin zuen gauza?
2. Zer pentsatu zuten gurasoek?
3. Zer zen gurasoek espero zutena?
4. Zer eginen zenukete Yadiraren ordez?
5. Zer eginen zenukete gurasoen ordez?
6. Idatz iezaiezue Yadiraren gurasoei eskutitza Yadiraren eskubideak defendatuz.

## A4. Adoleszentzia. Abiapuntua

### Zertarako erabil daiteke?

- Ikasleek beraien aldaketak ezagutzeko.
- Ikasleek beren artean aldaketen gainean hitz egin dezaten.
- Ikasleek onar ditzaten beren aldaketak.
- Aldaketak direla-eta kontuan hartuz, bide berriak ireki ditzaten.

### Prozedura

1. Adierazpen txikia.
2. Galdetegia erantzun, bakarka.
3. Taldean komentatu.
4. Denon artean komentatu.

### Oharrak

- Honetaz hitz egiteko, elkarrekiko giro baikorra garrantzitsua da.
- Behar bada, giro lasaia ez badugu, ez du merezi hastea.
- Produktua baino, prozesua da garrantzitsuagoa.
- Behar adina denbora erabiliko dugu honetaz guztiaz hitz egiteko.

**Irakasleak elkarrizketa bideratzeko zenbait ideia**

1. Gorputza aldatu egiten da, gure nahia edo gure eginahalak gora-behera. Naturari laguntzen ahal diogu: ongi lo egin, ongi jan, kirola, gai toxikorik ez hartzea, TV gehiegirik ez...

2. Adimen-euskarri fisikoa hor daukagu, hor dago gure burmuina, dagoeneko heldua, orain tresnak eman behar dizkiogu (ordenagailua badugu, programak eman behar). Zer- nolako tresnak ematen ahal dizkiogu gure adimenari? Ikasketak, Mate, Gizarte... baina baita kirola, lagunekin egotea, dantza eta beste hainbat ere. Kontuan har dezagun adimenaren eta egokitzapenaren arteko loturak. Beraz, honetan badaukagu ardura handia, guk ahaleginak egiten ez baditugu, gure adimena ez da aurrera joaten. (entrenatu behar, kirola bezala...).

3. Munduan egoteko modua. Gure adoleszenteek hemen dauzkate (baldin eta badute) arazo handiak. Adoleszenteak bere burua heldua bezala ikus dezake baina bere ondoan dauden helduek beste nolabait ikusten dituzte (ditugu).

Zer da gure gizartean heldua izatea? Erabiltzen ahal dugun ideia hauxe litzateke: gure gizartean balore batzuk garrantzitsuak dira, honetaz eztabaidatzea ez legoke gaizki:

Fidagarritasuna (emandako hitza bete behar, egindako lana ongi egina, lagunen artean, familian, bikotean...)

Erantzukizuna.

– Fidagarriak gara gure lanetan? Fidagarriak gara gure gurasoentzat? Arduratsuak gara gure lanetan? Nola lortu fidagarritasuna batez ere gurasoek kanpora joaten uzten ez didatenean? Nola lortu gugan konfiantza izatea?

Zure izena eta abizenak: ______________________________________________

Orain, 14-15-16 urteetan aldaketa batzuk ari dira gertatzen zugan. Honetaz hitz eginen dugu datozen egunetan. Elkarrizketak ongi bideratzeko interesgarria da aldez aurretik prestatzea. Has gaitezen ba.

Adoleszentzian gertatzen diren aldaketak hiru ataletan sailkatuko ditugu:

– Gure gorputza aldatu egiten da. Forma berriak, sentsazio berriak...
– Gure adimena aldatu egiten da.
– Gure munduan egoteko modua ere aldatu egiten da.

Pertsona guztiak desberdinak gara (zorionez) eta aldaketak ere erritmo desberdinez gertatzen zaizkigu.

*Bakarka erantzuteko galderak*

1. Zure iritziz, noraino ailegatu zara zu?

Gorputza

| | | |
|---|---|---|
| Haurra | ⟶ | Heldua |

Adimena

| | | |
|---|---|---|
| Haurra | ⟶ | Heldua |

Munduan egoteko modua

| | | |
|---|---|---|
| Haurra | ⟶ | Heldua |

2. Taldeka erantzuteko galderak. Erantzuten hasi baino lehen, irakur itzazu eta gero elkartu lagunekin. Taldean 4 lagun. Elkartu eta denok idatzi behar duzue. Izenda ezazue bozeramailea. Mutilek eta neskek, osa itzazue talde desberdinak lehendabiziko 4 galderak erantzuteko, beste galderak erantzuteko, nahi duzuen bezala eseriko zarete. Azkenean denon artean hitz eginen dugu.

*Gorputza*

2.1. Zer nolako aldaketak izan ditu zure gorputzak?

2.2. Beste aldaketarik espero duzu zure gorputzean?

2.3. Atsegin dituzu zure gorputzak izandako aldaketak?

2.4. Zerbait egin dezakezu aldaketa horiek ongi joan daitezen. Geldiarazten ahal dituzu? Ardura duzu?

*Adimena*

2.5. Zer-nolako aldaketak izan ditu zure adimenak?

2.6. Beste aldaketarik espero duzu?

2.7. Zerbait egin dezakezu adimen-aldaketa horiek ongi eta hobe gerta daitezen? Geldiarazten ahal dituzu?

2.8. Zeintzuk dira gai honetan dauzkazun ardurak?

*Munduan egoteko modua*

2.9. Zer-nolako aldaketak izan ditu zuk munduan egoteko moduak?

2.10. Zer-nolako aldaketak espero dituzu?

2.11. Zerbait egin dezakezu aldaketa horiek ongi eta hobe gerta daitezen? Geldiarazten ahal dituzu?

2.12. Helduek badute zeresanik honetan?

3. *Jokaerak*

– Haurren gisako 5 jokaera.

– Helduen gisako 5 jokaera.

# B. Balorazioak egiteko materiala

## Zera lantzen dugu

Galde-sorta hauen bidez, denboraldi batean egindakoa baloratzen dugu ikasle edota irakasleekin.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| B1 | Laugarren mailan egindako orientazio-programa baloratzen dugu | DBH4 | Tutoretza saioan Martxoan | Tutorearentzat |
| B2 | Tutoretza ebaluatzeko materiala | DBH3 | Berdin Ekainean | Berdin |
| B3 | Ikasturtea baloratzen dugu | DBH1, 2, 3, 4 | Berdin | Berdin |
| B4 | Ikasturtea baloratzen dugu | Id. | Id. | Id. |
| B5 | Tutoretza ebaluatzen. Askatasuna institutuan, 1998an egina | | Tutoreekin baloratzeko | Orientatzaile edo Ikasketa-buruarentzat |
| B6 | Tutoretzaren balorazioa Askatasuna institutuan 1999an egina | | Id. | Id. |

## B1. Orientazio-programa baloratzen dugu

### Zertarako erabil daiteke?

Askotan ikasleekin gauzak egiten ditugu eta ez dakigu ongi edo gaizki atera diren. Interesgarria da beraiei galdetzea. Hona hemen ariketa zehatz batzuk orientazio-programan egindakoa baloratzeko.

### Oharrak

DBH4. mailarako.

**DBH4. mailako Orientazio-programa baloratzen dugu.**

Tutoretza departamentuko partaide guztiok ikasketen orientazioa hobetu nahi dugu. Hau egiteko asmoz, zure iritzia eskatu nahi dugu.

Beste batzuen artean hau dugu helburu nagusia:

"Laugarren mailako ikasleek, beren ezaugarriak kontuan hartuz, ahalik eta hobe aukera dezaten laguntzea".

Helburu hau lortzeko, gauza hauek guztiak egin ditugu edota egiten ari gara:

- Autoezagutzarako galdetegiak.
- Tutorea ikaslearekin elkarrizketak.
- Gurasoekin lan-saioa.
- Informazioa ematea.
- Galderak erantzutea.
- Tutorea gurasoekin elkarrizketak.

Baliteke datorren urtean zer edo zer aldatu behar izatea. Mesedez, galdera hauek erantzun itzazu, horrela, zuen iritzia jakinen baitugu. Kontuan hartu orientazio-programaz ari zarela iritzia ematen eta ez beste gauzez.

Horrela erantzunen duzu:

1. Oso gaizki. Ez nago batere ados. Erabat ezkor. Kendu behar.
2. Gaizki. Ez nago ados. Ezkor. Hobe da kentzea.
3. Ez gaizki ez ongi. Ez ados, ez kontra. (Saia zaitez ez erabiltzen)
4. Ongi. Ados nago. Baikor. Mantendu eta hobetu behar.
5. Oso ongi. Erabat ados. Erabat baikor. Segi horrela.

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Koadernotxoan jarritako galdetegiak | | | | | |
| 2. Koadernotxoan jarritako informazioa | | | | | |
| 3. Tutorearekin izandako elkarrizketak | | | | | |
| 4. Gurasoek etxean aipatu zutenez, beraiekin orientatzaileak egindako orientazio hitzaldia izen zen... (Ez erantzun egon ez bazen) | | | | | |
| 5. Gurasoek tutorearekin izandako elkarrizketak... | | | | | |
| 6. Nire erabakia hartua daukat | | | | | |
| 7. Nire erabakia programa hasi baino lehen hartua nuen | | | | | |
| 8. Nire ikastaldeak programa honetan parte hartu du... | | | | | |
| 9. Nire erabakia ongi hartzeko lagungarria izan zait | | | | | |

a) Zure iritziz zer izan da ongi?

b) Datozen urteei begira zer sartuko zenuke? Zer kenduko zenuke?

c) Zerorrek ikusi sinatu nahi duzun ala ez. Sinadura jartzeak zera erran nahi du: idatzitakoaz arduratzen zarela eta geuk zure iritzia ezagutzea nahi duzula. Sinadura ez jartzeak zera erran nahi du: Zure anonimatuari eutsi nahi duzula. Esker mila.

## B2. Tutoretza ebaluatzeko materiala

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasturtean ariketa asko egin dugu tutoretzan. Hona hemen ikasleek egindakoa balora dezaten tresnatxoa.

### Oharrak

Arriskua: ikastetxean horrelako ariketak egiten ez badira, ikasleek ohiturarik ez badute, hemen balorazioak atera beharrean eskaerak eta aldarrikapenak atera daitezke.

**DBH Hirugarren mailako ikasleek egindako tutoretzaren ebaluazioa**

Ikaslea ______________________ Maila eta taldea ______________________

Kurtsoa amaitzear dagoelarik, beharrezkoa ikusten dugu tutoretzan garatutako lanei buruzko zure iritzia ezagutzea, horregatik hemen zenbait galdera egiten dizkizugu, erantzun itzazu jator, gogoan izan ebaluazio honekin ongi dagoena mantenduko dugula eta hobetu daitekeena hobetzen saiatuko garela. Kontuan izan, tutoretza-ordua kentzeko aukerarik ez daukagula. Azkenean zuriz dagoen zati bat utziko zaizu, horretan beharrezko jotzen duzuna eta galdetu ez zaizuna jartzeko.

Ondoko baremoa kontuan harturik, balora itzazu erantzunak batetik bostera:

1-en esanahia: “Ez nago inolaz ere ados”.
“Ez da nire kasua, inoiz ez”.
“Oso gaizki”.

2-ren esanahia: “Ez nago ados”.
“Ia inoiz ez da nire kasua”.
“Gaizki”.

3-ren esanahia: "Ez nago ez ados ez kontra".
"Batzuetan nire kasua da besteetan ez".
"Ez ongi ezta gaizki ere".
4-ren esanahia: "Ados nago".
"Bai, nire kasua izaten da".
"Ongi".
5-en esanahia: "Guztiz ados nago".
"Beti izaten da nire kasua".
"Oso ongi".

A. Helburu orokorrei buruz.

| | | |
|---|---|---|
| A1 | Tutoretzak institutura hobekiago egokitzeko bidea eman digu. | |
| A2 | Tutoretzak nire burua hobeki ezagutzen lagundu dit. | |
| A3 | Tutoretzari esker irakasleek beren lan eta irakasteko moduak zerbait aldatu dituzte. | |
| A4 | Tutoretzan institutuan zer hobe daitekeen adierazi ahal izan dugu. | |
| A5 | Tutoretzari esker, irakasleek gure eguneroko lanetan gehiago lagun diezagukete eta hobeki ezagutzen gaituzte. | |
| A6 | Tutoretza guretzat interesgarriak diren gaiak lantzeko leku egokia izan da. | |
| A7 | Institutuko giroa hobetzen lagundu du tutoretzak. | |
| A8 | Tutoretzak gure taldeko giroa hobetzen lagundu du. | |
| A9 | Tutoretzak gure osasuna nola hobetu erakutsi digu. | |

B. DBHko Hirugarren mailako helburu espezifikoak.

| | | |
|---|---|---|
| B10 | Tutoretzak institutuan hobeto kokatzen lagundu dit: bertako arauak ezagutzen. | |
| B11 | Tutoretzak institutuan hobeto kokatzen lagundu dit: jendea ezagutzen eta beraien pentsatzeko erak ulertzen. | |
| B12 | Nire familiak institutua eta irakasleak ezagutzen ditu. | |
| B13 | Nire amak edo/eta aitak tutorearekin hitz egitera etorri dira. Inoiz ez:1. Behin: 3. Behin baino gehiagotan: 5. | |
| B14 | Irakasleen lan egiteko era aldatu da eta gure ikasteko moduei moldatzen saiatu da. | |
| B15 | Institutura lehenengo aldiz etorri nintzenean kikilduta nengoen. Ez zen hainbesteraino, lan egiteko leku ona dela irizten diot. | |
| B16 | Nire iritziz, DBH ateratzeko gauza naiz. | |
| B17 | Ikaskideekin beti euskara erabiltzen dut. | |

| | | |
|---|---|---|
| B18 | Nire iritziz gero eta errespetu handiagoa dago mutil eta nesken artean. | |
| B19 | Gero eta hobeto antolatzen dut nire ikasteko denbora. | |
| B20 | Nire iritziz, erronkei eta eskola-zailtasunei aurre egiteko gauza naiz. | |
| B21 | Nahiko ongi ezagutzen dut hezkuntza-sistema eta eskaintzen dituen irteerak. | |
| B22 | Tutoretzan egindako ekintzek, heldu den urtean egin behar dudana ongi aukeratzen lagunduko didate. | |

C. Ikaslearen jarraipen pertsonala

| | | |
|---|---|---|
| C23 | Irakasleek nire hezkuntzaren prozesuaren jarraipen ona egin dutela pentsatzen dut. | |
| C24 | Nire iritziz, pertsona bezala errespetua izan naiz. | |
| C25 | Irakasleekin solastu naiz.<br>Solasaldi kopurua: guztira __________<br>Puntuatzeko era: 1=solasaldirik ez. 3=solasaldi bat. 5=solasaldi bat baino gehiago. | |
| C26 | Klase guztietan nola ikasi behar dudan erakutsi didate. | |
| C27 | Zuzentasun-irizpideetan oinarrituta kalifikatua izan naiz. | |

D. Azpiegitura. Ordua. Beste...

| | | |
|---|---|---|
| D28 | Tutoretza-ordua. | |
| D29 | Tutoretza ordua ordutegian dagoen momentua. | |
| D30 | Lan sistema. | |
| D31 | Taldeak, aktiboki, tutoretza-ordua ongi garatzen lagundu du. | |
| D32 | Nik, pertsonalki, tutoretza-ordua ongi garatzen lagundu dut aktiboki. Modu positiboan eta aktiboan parte hartu dut. | |
| D33 | Tutoretza-ordua kendu egin al da noizbait? Erantzuna emateko irizpideak: Inoiz ez: 5. Batzuetan: 4. Gutxitan: 3. Askotan: 2. Normalki: 1. | |

E. *Gai interesgarrienak*. Adieraz ezazu zure iritziz, tutoretzara ekarri diren gaietatik zein izan diren interesgarrienak.

F. *Gai aspergarrienak*. Adieraz ezazu zure ustez, tutoretzara ekarri diren gaietatik zein izan diren aspergarrienak.

G. *Zure iritziz*, zeintzuk izan daitezke *datorren urtean lantzeko gai interesgarriak?* Adieraz itzazu, zure iritziz, laugarren kurtsoan sar daitezkeen gaiak.

H. Idatz ezazu hemen esan nahi duzuna eta esateko aukerarik izan ez duzuna.

## B3. Ikasturtea baloratzen dugu

### Zertarako erabil daiteke?

- Ikasturtearen bukaeran egindakoa baloratzeko.
- Datorren urtean kontuan hartzeko eta hobetzeko.

### Prozedura

Inkesta batzuk.

**B**

## Ikasturtea baloratzen dugu

Ikaslea: ____________________ Maila eta atala: ________________________

Kurtsoa amaitzear dagoelarik, beharrezkoa ikusten dugu urtean garatutako lanei buruzko zure iritzia ezagutzea, horregatik hemen zenbait galdera luzatzen dizkizugu, erantzun itzazu jator, gogoan izan ebaluazio honekin ongi dagoena mantenduko dugula eta hobetu daitekeena hobetzen saiatuko garela. Kontuan izan, zenbait gauza kentzeko aukerarik ez daukagula. Inkestaren azkeneko aldean zuriune bat utziko dugu, bertan interesgarria iruditzen zaizun guztia idatz dezazun. Eskerrik asko. Zure tutorea.

Ondoko baremoa kontuan harturik, balora itzazu erantzunak batetik bostera:

1-en esanahia: Ez nago inolaz ere ados. Ez da nire kasua, inoiz ez. Oso gaizki.

2-ren esanahia: Ez nago ados. Ia inoiz ez da nire kasua. Gaizki.

3-ren esanahia: Ez nago, ez ados ez kontra. Batzuetan nire kasua da besteetan ez. Ez ongi, ezta gaizki ere.

4-ren esanahia: Ados nago. Bai, nire kasua izaten da. Ongi.

5-en esanahia: Guztiz ados nago. Beti izaten da nire kasua. Oso ongi.

| ***Nire taldeari buruzko galderak*** | | |
|---|---|---|
| *Zenbakia* | *Esaldia* | *Baliosespena* |
| 1. | Zorte ona izan dut gela honetan egoteagatik. Kontent nago ikastaldearekin. | |
| 2. | Ikaskideek ikas dezadan lagundu didate. Klasean lan giro ona izan dugu. | |
| 3. | Nire ikaskideekin ondo moldatu naiz. Oro har, lagun-giro ona izan dugu. | |
| 4. | Lasai eta kontent etorri naiz institutura. | |
| 5. | Ikasleon artean, errespetu handiagoa behar dugula uste dut. | |
| ***Nire tutorearen lanari buruzko galderak*** | | |
| 6. | Nire tutoreak nirekin hitz egin du. | |
| 7. | Tutoreari edozein galdera egiteko konfiantza izan dut. | |
| 8. | Nire tutoreak jarraipen ona egin dit. | |
| 9. | Nire gurasoek hitz egin dute tutorearekin. | |
| 10. | Tutoretza orduetan egindakoa interesgarria iruditu zait. | |

***Irakasleak eta irakaskuntza***

11. Nire irakasleek ongi irakatsi didate.
    a) Denek ongi egin dute.
    b) Gehienek egin dute ongi.
    c) Batzuek bai, besteek ez.
    d) Gehienek egin dute gaizki.
    e) Denek gaizki egin dute.

12. Erakusten duten gaiaren gainean aunitz badakite irakasleek.
    a) Denek.
    b) Gehienek.
    c) Batzuek bai, besteek ez.
    d) Gehiengo batek ez daki.
    e) Inork ez daki.

13. Nire irakasleek ongi prestatu dituzte klaseak.
    a) Denek.
    b) Gehienek.
    c) Batzuek bai, besteek ez.
    d) Gehiengo batek ez ditu prestatzen.
    e) Inork ez ditu prestatzen.

14. Nire irakasleek konfiantza ematen didate.
    a) Denek.
    b) Gehienek.
    c) Batzuek bai, besteek ez.
    d) Gehiengo batek ez dit konfiantzarik ematen.
    e) Inork ez dit konfiantzarik ematen.

15. Nire irakasleek errespetatu naute.
    a) Denek.
    b) Gehienek.
    c) Batzuek bai, besteek ez.
    d) Gehiengo batek ez nau errespetatu.
    e) Inork ez.

16. Nire irakasleek errespetatu dituzte ikaskide guztiak.
    a) Denek.
    b) Gehienek.
    c) Batzuek bai, besteek ez.
    d) Gehiengo batek ez ditu errespetatu.
    e) Inork ez.

17. Hona hemen zuriune bat. Kurtsoko balorazioaren gaineko zerbait erran nahi baduzu, hemen egin dezakezu. Esker mila.

## B4. Ikasturtea baloratzen dugu. Bigarren eredua

### Ikasturtea baloratzen dugu

Ikaslea: ________________________ Maila eta atala: _____________________

Kurtsoa amaitzear dagoelarik beharrezkoa ikusten dugu urtean garatutako lanei buruzko zure iritzia ezagutzea, horregatik hemen zenbait galdera luzatzen dizkizugu, erantzun itzazu jator, gogoan izan ezazu ebaluazio honekin ongi dagoena mantenduko dugula eta hobetu daitekeena hobetzen saiatuko garela. Kontuan izan, zenbait gauza kentzeko aukerarik ez daukagula. Inkestaren azkeneko aldean zuriune bat utziko dugu, bertan interesgarria iruditzen zaizun guztia idatz dezazun. Eskerrik asko. Zure tutorea.

Ondoko baremoa kontuan harturik, balora itzazu erantzunak batetik bostera:

| | |
|---|---|
| 1-en esanahia: | Ez nago inolaz ere ados. Ez da nire kasua, inoiz ez. Oso gaizki. |
| 2-ren esanahia: | Ez nago ados. Ia inoiz ez da nire kasua. Gaizki. |
| 3-ren esanahia: | Ez nago, ez ados ez kontra. Batzuetan nire kasua da besteetan ez. Ez ongi, ezta gaizki ere. |
| 4-ren esanahia: | Ados nago. Bai, nire kasua izaten da. Ongi. |
| 5-en esanahia: | Guztiz ados nago. Beti izaten da nire kasua. Oso ongi. |

| | *Esaldia* | *Baliosespena* |
|---|---|---|
| 1. | Zorte ona izan dut gela honetan egoteagatik. Kontent nago ikaskide taldearekin. | |
| 2. | Nire irakasleek ongi irakatsi didate. | |
| 3. | Erakusten duten gaiaren gainean aunitz dakite nire irakasleek. | |
| 4. | Nire irakasleek ongi prestatzen dituzte klaseak. | |
| 5. | Nire irakasleek konfiantza ematen didate. | |
| 6. | Nire irakasleek errespetatzen naute. | |
| 7. | Nire irakasleek ikaskide guztiak errespetatzen dituzte. | |
| 8. | Nire tutoreak nirekin hitz egin du. | |
| 9. | Nire tutoreak jarraipen ona egin dit. | |
| 10. | Oro har, klasean adierazitakoa ulertzen dudala erran dezaket. | |
| 11. | Irakasleek etxean egiteko lana bidali dutenean, ongi bidali dute. Ez da gehiegi izan. | |
| 12. | Ikaskideek ikas dezadan laguntzen didate. | |
| 13. | Pasilloetan ongi mantendu dugu ordena. | |
| 14. | Irakasleak etorri baino lehen ongi egoten gara klaseetan. | |
| 15. | Jolaslekuan ongi gaude. | |
| 16. | Txangoak atseginak izan dira. | |
| 17. | Gaizki jokatzen dutenek ez lukete txangoetara joan behar. | |
| 18. | Lasai eta kontent etorri naiz institutura. | |
| 19. | Ongi iruditzen zait institutuan ez erretzea. | |
| 20. | Ongi iruditzen zait patiotik ezin ateratzea. | |
| 21. | Nire gurasoek hitz egin dute tutorearekin. | |
| 22. | Irakasleek nire hezkuntzaren bilakaeraren jarraipen ona egin dutela pentsatzen dut. | |
| 23. | Nire iritziz, pertsona bezala errespetatua izan naiz. | |
| 24. | Klase guztietan nola ikasi behar nuen erakutsi didate. | |
| 25. | Zuzentasunean oinarrituta kalifikatua izan naiz. | |
| 26. | Etxean irakurtzeko ohitura daukat. | |
| 27. | Ikasi eta berrikuspen-lanak egiten ditut astero etxean. | |
| 28. | Nire iritziz, ikasleon artean errespetu handiagoa behar dugu. | |
| 29. | Oro har, ikasturte ona pasatu dut. | |
| 30. | Tutoretza-orduetan egindakoa interesgarria iruditu zait. | |

## B5. Tutoreek tutoretza lanak baloratzeko inkestatxoa

### Zertarako erabil daiteke?

Tutoretza-departamentuak oroitza-txostena egin behar du. Honekin tutoreen iritziak jaso ditzake.

### Prozedura

Tutoreei galdetegia luzatu.

## Tutoretza departamentua. Tutoretza ebaluatzen

Tutorea: ___________________________________ Taldea: _________________

Inkestaren helburua: Datorren urterako tutoretza hobetzea.

1. Irakasle-taldean. (Irakasle-taldeko koordinatzailea zara). Zer moduz moldatu zara tutore-lanetan? Zer-nolako arazoak izan dituzu? Zer da datorren urterako hobetu behar duguna?

2. Gurasoekin. Deskriba ezazu zer-nolakoa izan den gurasoekin egin duzun lana. Zer da datorren urterako hobetu behar duguna?

3. Ikasleak. Taldea bezala. Nolakoa izan da lana? Zer-nolako arazoak izan dituzu? Zer da datorren urterako kontuan hartu behar duguna?

4. Ikasleak. Banan-banan hartuak. Elkarrizketak egin dituzu? Zer da datorren urterako kontuan hartu behar duguna?

5. Lan marroia. (Burokrazia) Zer-nolako arazoak izan dituzu? Nola bideratuko zenuke datorren urterako?

6. Koordinaketa bilerak. Zure iritziz, zer da hoberena?
   a) Zikloko tutoreen bilerak.
   b) Etapako tutoreen bilerak.
   c) Kurtsoko tutoreen bilerak.

7. Koordinaketa bilerak. Nolakoak izan dira tutoretza-departamentuan egindako koordinazio-bilerak?

8. Zer da datorren urterako kontuan hartu beharko duguna?

9. Atzealdeko galdetegia erantzun eta, gero, zerbait berria erran behar duzula iruditzen bazaizu, folio batean idatzi eta honekin batera eman orientatzaileari.

10. Hauek dira tutoretza-planaren helburuak. Balora itzazu honela:
    a) Tutoretzan egindakoak ez du ezertarako lagundu.
    b) Gutxi lagundu du.
    c) Ez ongi, ez gaizki.
    d) Tutoretzan egindakoak lagundu du.
    e) Tutoretzan egindakoak asko lagundu du.

## Helburua

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Irakaskuntzaren pertsonalizazioan lagundu, pertsona bere orokortasunean harturik eta ez arlo akademikoa bakarrik. | |
| 2. | Ikasleek ikaste prozesuan dituzten beharrei erantzuna eman, egokipen curricularrak eta metodologi neurrien bidez. Tutoretzaren bidez metodologia, eduki edota helburu batzuk egokitzen saiatuko gara baldin eta beharrezkoa bada. Tutoretzak ikasle eta irakasleei bere errendimendua hobetzen lagunduko die. Tutoretzan ikasleen behar bereziak detektatzen lagunduko du, baita ikasleak premiazkoak dituen neurriak ezartzen ere. Detekzioaz eta erantzunaz hitz egiterakoan, ikaskuntza eta irakaskuntza-arloa garrantzitsuak direla esan behar dugu, arazoren bat gertatzen denean biak diagnostikatu eta tratatu behar direlarik. (...). | |
| 3. | Hezkuntzaren alderdi orientagarriak nabarmendu, ikasleak bizi diren inguru zehatz batean kontuan hartuz eta etorkizunari begira. Tutoretza-plan honen bidez irakaskuntza eta ikaskuntza egokitzen saiatuko gara. | |
| 4. | Garapen pertsonaleko prozesuetan laguntza eman, ikasleak bere identitate eta balore sistema propioa gara dezan. Bide honetan garrantzia emango diegu izpiritu kritikoari eta informazio aukeratzeari, ikasleak bere irizpideak izan ditzan. | |
| 5. | Ikasketa-zailtasunei aurre egin, posible den neurrian ager ez daitezen, zailtasun hauek agertzen direnean zailagoa baita moldatzen. | |
| 6. | Institutuko hezkuntza-komunitatean gauden pertsona guztien elkarrekintza. | |
| 7. | Osasunerako hezkuntza egokia eskaini, ikasleak osasun-ohitura egokiak izan ditzan. | |
| 8. | Institutuko instalakuntzetatik abiatuz, ikasleek ingurugiroa errespeta dezatela. | |
| 9. | Ikasleari dagozkion erabaki hartzeak erraztu (taldeka zein bakarka). | |
| **Hauek dira (laburbilduta) DBHrako helburuak** | | |
| 1. | Ikasleak zentroan egoki daditezela (...) institutua ere ikasleei ongi egokitzea (...). | |
| 2. | (...) Elkarlanerako giroa lortu (...). | |
| 3. | Institutuko arauak ezagutu eta errespetatu ditzatela (...). | |
| 4. | Ikasleak bere buruarekiko irudi egokia lor dezala “Gauza naiz hau egiteko” sentsazioa landuko dugu. | |
| 5. | Ikastetxeko dinamikan parte hartzea (...). | |
| 6. | Pertsonen desberdintasunak ezagut, balora eta errespeta ditzatela. Beste ikaskideen iritziak errespetatuz, bereak adierazi ditzatela. | |
| 7. | Euskaraz hitz egin dezatela (...). | |
| 8. | Sexuen arteko desberdintasunak ezagut eta errespeta ditzatela; jarrera sexistak baztertu. | |
| 9. | Denboraren antolamendua (...). | |
| 10. | (...) Erabakiak hartzen has daitezela (...). | |
| 11. | Hezkuntza-sistema ezagut dezatela. | |
| 12. | Beste pertsonekin harreman onak izan ditzatela, baita giza trebetasunak ere. | |

## B6. Tutoretza irakasleekin baloratzen dugu
## Beste eredua (Askatasuna institutuan, 1999ko ekaina)

*Lankide agurgarria:*

Gaur egungo esperientzian oinarrituz, ikastetxeko zenbait atal aztertu nahi ditugu, aurrerantzean gure lana zertxobait hobeto egin asmoz.

Eman zure iritzia lasaitasun osoz. Jakina da ikastetxean hobetzeko hamaika alor dugula, egin itzazu proposamen dotoreak eta ea datorren urtean lana aurten baino gusturago egiteko bideak aurkitzen ditugun.

Aztertu nahi dugun atala tutoretza izanik, bide batez mintegien funtzionamenduari buruzko zuen iritzia ere jaso nahi genuke eta beste zer edo zer aipatu nahi izanen bazenu, lagungarria suertatuko litzaiguke.

Ahal duzun neurrian, bete ezazu maiatzaren 14rako eta utzi nire kutxatilategian.

Esker mila. Zuzendaria.

1. Tutoretza-plana ezagutzen dut.

   a) Bai. b) Ez. c) Hor nonbait.

2. “Irakasle izatea tutore izatea da” esaldia ikastetxean gauzatzen ari da...

   a) Bai. b) Bai, poliki-poliki. c) Gutxi. d) Ez.

3. Tutoretza-departamentuaren betebeharrak aztertzen... balora ezazu 1etik 5era. “Bat” erantzunak zera erran nahi du: Gutxi, gaizki, ez nago ados... eta “bost” erantzunak: aunitz, asko, erabat ados...

| *Betebeharrak (TP delako dokumentuan agertzen direnak)* | *Puntuazioa* |
|---|---|
| Tutoretza planaren proposamena laboratu. | |
| Tutoretzarako zenbait material prestatu. | |
| Informazioa irakasleei eta tutoreei eman. | |
| Arazoak gertatzen direnean, eztabaidatu eta proposamenak egin. | |
| Irakasleak bere lanean izanen dituen beharrei posible den neurrian erantzun. | |
| Tutoretza planaren proposamena KPBn aurkeztu. | |
| Tutoretza plana ezagutarazi. | |
| Irizpide pedagogikoak behar direnean eman. | |

Beste zerbait... Zer sartu behar?... Zer kendu behar?...

4. Orientatzailearen eginkizunak (hemen ez ditugu TPen sartutako eginkizun guztiak aipatuko gehiegi luzatuko baikinateke). Honetan zera jakin nahi genuke: oro har, lagungarria gertatu zaizu orientatzailearen lana? Zer eskatuko zenioke? Zertan hobe dezake?.

5. PT irakaslearen eginkizunak. Gauza bera. Bere lana lagungarria izaten ari da? Zer eskatuko zenioke? Zertan hobe dezake? Lehen ziklokook bakarrik erantzun behar dugu.

6. KPBak egin beharrekoa (balora ezazu 3. galderan bezala).

| *Betebeharra (TPen agertzen den bezala)* | *Balioespena* |
|---|---|
| Jaso irakasle guztien iritziak mintegiz mintegi. | |
| Tutoretzaren egintza-plana eztabaidatu eta honen laboraziorako irizpideak jarri. | |
| Tutoretzaren egintza-planaren inplikazioak eta eginkizunak mintegien bitartez bideratu. | |
| Tutoretzaren egintza-plan hau proiektu curricularra delako dokumentuarekin ikusi, ikasi eta, hala badagokio, onartu, hedatu eta, hobetzeko asmoz, ebaluatu. | |

Beste zerbait erran nahi baduzu...

7. Tutoretza planaren helburuak baloratuko ditugu. Zure iritziz, aurrera joaten ari gara helburuei begira? Irizpideak erantzuna ematerakoan: “1” erantzunak zera erran nahi du: “Ez gara lortzen ari”. “5” erantzunak: “Lortzen ari gara oso ongi”.

| *Helburua* | *Balorazioa* |
|---|---|
| 1. Irakaskuntzaren pertsonalizazioan lagundu, pertsona bere orokortasunean harturik eta ez arlo akademikoan bakarrik. | |
| 2. Ikasleek ikaste prozesuan dituzten beharrei erantzuna eman, egokipen curricularrak eta metodologi neurrien bidez. Tutoretzaren bidez metodologia, eduki edota helburu batzuk egokitzen saiatuko gara baldin eta beharrezkoa bada. Tutoretzak ikasleei eta irakasleei bere errendimendua hobetzen lagunduko die. Tutoretzak ikasleen behar bereziak detektatzen lagunduko du, baita ikasleek premiazkoak dituen neurriak ezartzen ere. Detekzioaz eta erantzunaz hitz egiterakoan, bai ikaskuntza eta baita irakaskuntza arloa ere garrantzitsuak direla esan nahi dugu, arazoren bat gertatzen denean, biak diagnostikatu eta tratatu behar direlarik. | |
| 3. Hezkuntzaren alderdi orientagarriak nabarmendu (...) Tutoretza-plan honen bidez irakaskuntza eta ikaskuntza egokitzen saiatuko gara. | |
| 4. Garapen pertsonalaren prozesuetan laguntza eman, ikasleak bere identitate eta balore-sistema propioa gara dezan. Bide honetan garrantzia ematen diogu izaera kritikoari eta informazio aukeratzeari, ikasleak bere irizpideak izan ditzan. | |
| 5. Ikasteko zailtasunei aurre egin, posible den neurrian ager ez daitezen (...). | |
| 6. Institutuko hezkuntza komunitatean gauden pertsona guztien elkarrekintza. | |
| 7. Osasunerako hezkuntza egokia eskaini (...). | |
| 8. Institutuko instalakuntzetatik abiatuz, ikasleek ingurugiroa errespeta dezatela. Beraz materiala eta abar errespeta dezatela. | |
| 9. Ikasleari dagozkion erabakiak hartzea erraztu. | |

Zerbait gehiago aipatu nahi baduzu... Helburu berriren bat?

8. Tutoreek erantzun behar dute.
   Tutoretzarako koordinazio bilerak (orientatzailearekin egindakoak).

   DBHko 1. ziklokoak. Zertan hobetu behar dira? Zertan joan dira ongi?

   DBHko 3. mailako koordinazio bilerak. Zertan hobetu behar dira? Zertan joan dira ongi?

   DBHko 4. mailako koordinazio bilerak. Zertan hobetu behar dira? Zertan joan dira ongi?

9. Lehen zikloko irakasle-taldearen bilerak. DBHko 3. eta 4. mailako irakasle-taldearen bilerak. Zera izan da gure irizpidea: hamabostaldian behin ziklo bilerak elkartzea eta beste behin mintegiak. Zer iruditu zaizu neurria?
   a) Ongi
   b) Gaizki.

   Zure iritziz, ziklo edo kurtsoko bilerak eraginkorrak izan dira?

   a) Bai, oro har.
   b) Gutxitan.
   c) Ez.

   Zertan hobetu behar da?

10. Ebaluazioa egiteko sistemak. Zertan hobetu behar dira?

11. Ikasleen jarraipen indibiduala.
    Tutoreek erantzun behar dituzte galdera hauek:
    a) Zenbat elkarrizketa egin dituzu zure ikasleen gurasoekin? (Zenbaki "gordinak")
    b) Zenbat elkarrizketa egin dituzu zure tutoretzapeko ikasleekin? (Zenbaki "gordinak")
    c) Jakintzagairen bat zintzilik daukaten ikasleen jarraipena ongi eraman duzu?
    a) Bai. b) Hor nonbait. c) Ez.
    Zertan hobetu behar da?

12. Ikasleen jarraipen indibiduala.
    Denok erantzun behar dugu (tutoreek ez dute bere ikastaldez hitz egin behar galdera honetan)
    a) Zenbat elkarrizketa egin dituzu ikasleen gurasoekin? (Zenbaki gordina)
    b) Zenbat elkarrizketa izan dituzu ikasleekin?
    c) "Gainditu gabeen" jarraipena ongi eraman duzu?
    a) Bai. b) Hor nonbait. c) Ez.
    Zertan hobetu behar da?

13. Ikasleen jarraipen indibiduala.
    Zure ustez nolakoa izan da orientatzailearen lana arlo honetan?

14. Tutoretza-orduan egindako lanak. Galdera hau irekia uzten dugu. Adierazi nola joan den eta zertan aldatu behar den (tutoreek erantzun behar dute).

15. Tutoreek erantzun beharrekoa. Irakasle-taldeko koordinazioa zer moduzkoa gertatu zaizu? Zertan hobetu behar da?

16. Tutoretzarako prestatutako materialak.

17. Gurasoekin egindako ekintzak.

Bilera arruntak. Gelan egindakoak (bat edo bi) tutorearekin:

a) Oso ongi. b) Ongi. c) Hor nonbait. d) Porrot.

Zertan hobetu behar da?

Bilera ez arruntak (egin badituzu)

a) Oso ongi b) Ongi. c) Hor nonbait. d) Porrot.

Zertan hobetu behar da?

Guraso-eskola eta beste hitzaldiak. Ikastetxeak urte honetan 9 hitzaldi antolatu ditu (5 guraso-eskolarenak, 3 orientaziokoak, bat inkestaren emaitzak emateko)

a) Oso ongi. b) Ongi c) Hor nonbait. d) Porrot.

Zertan hobetu behar da?

18. Zure mintegian egindako lana. Balorazioa eta hobetzeko proposamenak (Begiratu IEO, 25/97 Foru Dekretua, II kapitulua)

19. Orokorrean zer-nolako aldaketak sartu beharko genituzke?

# C. Ebaluazioaz ikasleekin prestatzen ditugunean Ikastaldean denboraldiak baloratzeko tresnak. Ebaluazioa prestatzen dugunean. Beste dokumentuak

## Zera lantzen dugu

Hiru hilabetean behin, gutxienez, irakasle taldea elkartu egiten da eta ikasleen aurrerapena baloratu egiten du. Ikasleekin honetaz ere aritzea komenigarria da. Hona hemen balorapenak egiteko tresnatxoak. Hoberena: irakasle bakoitzak prestatzen duena.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| C1 | Lehen ebaluazioa aztertzen ikastaldearekin. (Ideiak icce "La tutoría en la Educación Secundaria. Segundo ciclo. Sesión 9") | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio saioa baino aste bat lehenago | Tutorearentzat |
| C2 | Orain arte egindakoa baloratzeko tresna | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio saioa baino aste bat lehenago | Tutorearentzat |
| C3 | Ebaluazioa prestatuko dugu ikasleekin. Tresna erraza | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio saioa baino aste bat lehenago | Tutorearentzat |
| C4 | Ebaluazioa prestatzeko ikasleentzako galdetegia | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio saioa baino aste bat lehenago | Tutorearentzat |
| C5 | Ikasleek irakaslearen lana balora dezaten. Inkestatxoa | DBH1, 2, 3, 4 Batx1, 2 | Irakasleak nahi duenean. | Irakaslearentzat |
| C6 | Bigarren ebaluazioa prestatuko dugu Ikasleekin egiteko ariketa | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio saioa baino aste bat lehenago | Tutorearentzat |
| C7 | Gure lana ebaluatzeko | DBH1, 2, 3, 4 | Beharrezkoa ikusten denean | Tutorearentzat |
| C8 | Aurre-ebaluazioa mailaz maila Galdera-sortak | DBH1, 2, 3, 4 | Hilabete bat pasa eta gero. | Tutorearentzat |

## C1. Lehen ebaluazioa aztertzen ikastaldearekin

### Zertarako erabil daiteke?

– Ebaluazio-saioa baino lehen ikasle taldearekin ikasleen iritziak ateratzeko.
– Ikasleek beren ebaluazioa egiteko.
– Ebaluazio bilerara ikasleen iritziak eramateko.

### Prozedura

1. Ikasle bakoitzak bere inkestatxoa erantzungo du.
2. Taldetxoak osatzen dira eta taldeko laburpena idazten dute.
| Nondik ateratzen du bere gastuetarako dirua? | *¿Cómo cubre sus gastos personales?* |
|---|---|
| ❑ Aste-sari finkoa du. Zenbat? ________<br>❑ Bere kalifikazioen arabera ematen diogu<br>❑ Bere etxeko lanengatik ematen diogu<br>❑ Bere denbora librean lan egiten du<br>❑ Momentuan behar duen dirua ematen diogu<br>❑ Ez du dirurik jasotzen | ❑ *Tiene una paga fija. ¿Cuánto?* ________<br>❑ *Le dan por sus calificaciones*<br>❑ *Por sus trabajos en casa*<br>❑ *Trabaja en su tiempo libre*<br>❑ *Le dan en cada momento el dinero que necesita*<br>❑ *No recibe dinero* |

29.

| Familiako elkarbizitzan arazorik sortzen al du? | *¿Plantea algún problema en la convivencia familiar?* |
|---|---|
| ❑ Bai ❑ Ez<br>Norekin?<br>❑ Aitarekin<br>❑ Amarekin<br>❑ Neba-arrebekin<br>❑ Beste senitartekoekin | ❑ *Sí* ❑ *No*<br>*¿Con quién?*<br>❑ *Padre*<br>❑ *Madre*<br>❑ *Hermanos/as*<br>❑ *Otros familiares* |

30. Momentu honetan ba al duzue arazorik zuen seme-alabekiko harremanetan?
*¿Tenéis alguna dificultad en este momento para relacionaros con vuestro hijo/a?*

❑ Bai / *Sí*
❑ Ez / *No*
Zergatik? / *¿Por qué?*

31. Zuen seme-alabekin, zein gaiez hitz egitea gustatuko litzaizueke?
*¿Qué temas os gustaría poder hablar con vuestro hijo/a?*

32. Gai hauei buruzko informazioa jasotzea gustatuko litzaizueke?
*¿Os gustaría recibir información sobre esos temas?*

❑ Bai / *Sí*
❑ Ez / *No*

33. Deskriba ezazue zeuen hitzekin nolakoa den zuen seme/alaba.
*Describid en pocas palabras cómo es vuestro/a hijo/a.*

34. Zein ikasketa egitea pentsatzen hasia da?
*¿Qué estudios va pensando hacer?*

35. Zer uste duzue ikasketa horietaz?
*¿Qué pensáis de ellos?*

## F2. Gurasoentzako galdera-sorta. Orientazioa dela eta. 4 mailan



### Zertarako erabil daiteke?

– Orientazio kontseilua egiteko prozesuan, gurasoen iritziak kontuan hartzeko
– Gurasoek beren seme-alabei laguntzeko.
– Gurasoekin izaten ditugun elkarrizketetan laguntzeko.

### Oharrak

Ongi pentsatu behar dugu nola bidali etxera. Postaz? Ikasleen eskuetan? Gurasoen bileretan?

### __________ Institutua. Gurasoentzako galdera-sorta. D.B.H. 4.

Aitaren izena: ________________ Amaren izena:________________ Helbidea: ________________
Semea/alabaren izena: ________________ Abizenak: ________________

1. Interes akademikoak. Zuen seme-alabek ondoko arloetan interesa erakusten dute:

| | | |
|---|---|---|
| ❑ Euskara | ❑ Gaztelania | ❑ Ingelera |
| ❑ Gizarte | ❑ Literatura Unibertsala | ❑ Geografia Ekonomikoa |
| ❑ Natur Zientziak | ❑ Fisika eta Kimika | ❑ Biologia eta Geologia |
| ❑ Plastika | ❑ Teknologia | ❑ Musika |
| ❑ Matematika | ❑ Erlijioa | ❑ Etika |

2. Lanbide interesak. Zuen seme-alabek ondoko lanbide-arloetan interesa erakusten dute:

- ❑ Landa, baso, soro, itsaso eta atari zabalean egiten diren lanbideak
- ❑ Matematika, estatistika, etab.; zenbakiekin lan egitea
- ❑ Mekanika, elektrizitatea, sukaldaritza, etab.; eskulanak
- ❑ Jendearekin lan egitea, pertsuasioa eskatzen duten lanbideak
- ❑ Literatura eta hizkuntzarekin zerikusia duten lanbideak
- ❑ Zientziarekin zerikusia duten lanbideak
- ❑ Artearen munduarekin zerikusia duten lanbideak (margolaritza, argazkigintza, etab.)
- ❑ Besteei laguntzeko lanbideak: sendagile, erizaintza
- ❑ Administrazio-lanbideak
- ❑ Hezkuntza eta irakaskuntza
- ❑ Beste lanbideren bat (adierazi zeintzuk): ____________________________________

3. Gaitasunak. Zuen seme-alabek ondoko arloetan gaitasuna erakusten dute:

| | |
|---|---|
| ❑ Hizkuntzak (euskara, gaztelania, ingelera, frantsesa) | ❑ Literatura |
| ❑ Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia | ❑ Teknologia |
| ❑ Natur Zientziak, Biologia eta Geologia | ❑ Fisika eta Kimika |
| ❑ Matematika | ❑ Plastika |

4. Gaitasunak eta errendimenduaren arteko oreka. Arlo ezberdinetan zuen seme-alaben eskola-errendimendua...

- ❑ Bere gaitasunekin orekan dago.
- ❑ Bere gaitasunekin orekan dago arlo batzuetan, baina ez denetan.
- ❑ Bere gaitasunen azpitik dago arlo gehienetan, denetan ez esateagatik.

5. Erabaki hartzea. Zuen seme-alabak, 4. maila bukatu ondoren, dituen aukeretan hau hobetsiko luke:

- ❑ Lanean hastea
- ❑ Lanbide Heziketa: Gizarte Garantiako Programak (Lanbide Hasiera)
- ❑ Lanbide Heziketa: Erdi Mailako Heziketa Zikloak
- ❑ Batxilergoa:
  - ❑ Teknologia
  - ❑ Natur eta Osasun Zientziak
  - ❑ Giza eta Gizarte Zientziak
  - ❑ Artea
- ❑ Oraindik ezin dezakegu deus aurreratu

6 Zuen seme-alabak orientatzeko eta laguntzeko erabil ditzakegun oharrak:

7. Zer gustatuko litzaizueke zuen seme-alabek ikastea?

## Instituto. Cuestionario para Padres y Madres. ESO 4

Nombre del padre: ___________ Nombre de la madre: ___________ Dirección: ______________
Nombre del hijo/a: ____________________________ Apellidos: _____________________________
En este cuestionario os planteamos una serie de preguntas que consideramos importantes para una mejor orientación académica y profesional de vuestro hijo o hija.

1. Intereses académicos. Vuestro hijo/a muestra un mayor interés por las siguientes áreas:

| | | |
|---|---|---|
| ❑ Euskara | ❑ Castellano | ❑ Inglés |
| ❑ Geografía e Historia | ❑ Literatura Universal | ❑ Geografía Económica |
| ❑ Ciencias Naturales | ❑ Física y Química | ❑ Biología y Geología |
| ❑ Plástica | ❑ Tecnología | ❑ Música |
| ❑ Matemáticas | ❑ Religión | ❑ Optativa |

2. Intereses profesionales. Vuestro hijo/a muestra interés por los siguientes campos profesionales:
   - ❑ Profesiones que se realizan al aire libre, en el campo, mar, bosques...
   - ❑ Profesiones cercanas a las matemáticas, estadística, contabilidad... (con números)
   - ❑ Profesiones relacionadas con la mecánica, electricidad, cocina... (manuales)
   - ❑ Profesiones que exigen uso de la persuasión, trato con la gente...
   - ❑ Profesiones relacionadas con la literatura y los idiomas
   - ❑ Profesiones relacionadas con las ciencias
   - ❑ Profesiones relacionadas con el mundo del arte
   - ❑ Profesiones relacionadas con la ayuda a los demás (medicina, enfermería...)
   - ❑ Profesiones relacionadas con el campo administrativo
   - ❑ Profesiones relacionadas con la educación y la enseñanza
   - ❑ Otros campos profesionales (señalar cuál o cuáles): ____________________

3. Capacidades. Vuestro hijo/a muestra una mayor capacidad en las siguientes áreas:

| | |
|---|---|
| ❑ Idiomas (euskara, castellano, inglés...) | ❑ Literatura |
| ❑ Ciencias Sociales, Geografía e Historia | ❑ Tecnología |
| ❑ Ciencias Naturales, Biología y Geología,... | ❑ Física y Química |
| ❑ Matemáticas | ❑ Plástica |

4. Adecuación capacidad/rendimiento. El rendimiento académico de vuestro hijo/a en las distintas áreas, en vuestra opinión...
   - ❑ Está de acuerdo con sus capacidades.
   - ❑ Está de acuerdo con sus capacidades en algunas áreas, pero no en otras.
   - ❑ Está por debajo de sus capacidades en todas o en la mayoría de las áreas.

5. Toma de decisión. Vuestro hijo/a, entre las alternativas que se le presentan una vez terminado 4º de ESO, en principio se inclina preferentemente por la siguiente:
   - ❑ Incorporarse al mundo del trabajo.
   - ❑ Formación Profesional: Programas de Garantía Social (Iniciación Profesional).
   - ❑ Formación Profesional (Ciclos Formativos de Grado Medio).
   - ❑ Bachillerato:
     - ❑ Ciencias de la Naturaleza y de la Salud ❑ Tecnología
     - ❑ Humanidades y Ciencias Sociales ❑ Artes
   - ❑ En estos momentos no podemos anticipar nada.

6. Observaciones que nos puedan servir para ayudar y orientar mejor a su hijo/a:

7. ¿Qué os gustaría a padre y madre que estudiara o hiciera vuestro hijo o hija?

F

## F3. Gurasoak deitzeko ereduak

Bigarren hezkuntzako institutua __________________ Telefonoa __________

Guraso Agurgarriok:

Tutoreok, kurtso hasiera honetan, datorren asteartean, hilak 14, arratsaldeko seietan institutuan eta zuen seme/alabaren gelan bertan izanen den bilerarako deia luzatzen dizuegu, ondoko aztergaiak izanen ditugularik:

1. Aurkezpena.
2. Institutuko informazio orokorra.
3. Kurtsoari buruzko informazioa.
4. Taldeari buruzko informazioa.
5. Galde-eskeak.

Institutuak ikasle baten gurasoak deitzen dituenean, biak (aita eta ama) etortzea gomendatzen du. (Tutoretza Plana, __________ puntua).

*Madres y padres del alumnado.*

*Una vez iniciado el curso académico, los tutores y tutoras os convocamos a la primera reunión que el próximo martes, día 14 a las seis de la tarde celebraremos en el Instituto y en el mismo aula de vuestro hijo o hija. Éste será el orden del día:*

1. *Pesentación.*
2. *Información general del Instituto.*
3. *Información general del curso de vuestro hijo o hija.*
4. *Información sobre el grupo.*
5. *Preguntas y ruegos.*

*El Instituto __________, cuando llama a las familias del alumnado recomienda que acudan el padre y la madre. (PAT. Punto __________ Relaciones con las familias)*

*Tutoreak.*

_____________ Institutua

Orientazio Departamentua.

Telefonoa: _____________

_____________ Institutuko orientazio departamentutik DBHko 1. eta 2. Mailetako ikasleen gurasoei.

Orientazio Departamentu honek hitzaldi bat antolatu du.

Gaia: Eskola-Etekina, arrakasta eta porrota. Nola jaso kalifikazioak

*Hitzaldia*:

– Eguna: abenduak 10, osteguna.
– Ordua: Arratsaldeko seiak laurden gutxitan (ordu bete eta laurden iraunen du).
– Tokia: Institutuko gela handian.
– Hizlaria: Institutuko orientatzailea.

*Ikastetxeko Tutoretza Planean agertzen diren ideiak*: Gurasoekin harreman baikorrak izan nahi ditugu. Hezkuntza, ___________ Institutuan eskola-komunitateko partaide guztien lan konpartitua dela pentsatzen dugu. Hau kontuan harturik, urte honetan lana bide horretatik joatea errazten duten ekintzak antolatuko ditugu. (...) ___________ Institutuak ikaslearen gurasoak deitzen dituenean biak (aita eta ama) etortzea gomendatzen du. (...).

F

*Del Departamento de Orientación del Instituto ___________ a las madres y padres del alumnado de 1º y 2º de ESO.*

*Este Departamento organiza una charla.*

*Tema: El rendimiento escolar. Éxito y fracaso.*

*– Día: 10 de diciembre. Jueves*
*– Hora: Seis menos cuarto de la tarde. (Estaremos una hora y cuarto).*
*– Lugar: Aula grande del Instituto.*
*– Da la charla: Orientador del centro.*

*Algunas ideas del Plan de Acción Tutorial: "(...) Es nuestra intención mantener ralaciones positivas con los padres y madres. Pensamos en el Instituto ___________ que la educación es una tarea compartida por todos los miembros de la comunidad escolar. Teniendo esto en cuenta este año organizaremos actividades que faciliten el trabajo en este sentido (...) Cuando el Instituto convoca a las familias de los alumnos y/o alumnas recomienda que acudan padre y madre (...)".*

Gela ongi prestatzearren, etorriko zareten edo ez erratea eskatzen dizuegu. Mesedez hilaren 9an semea edo alabaren tutoreari bidera iezaiozue erantzuna.

*Os pedimos que el día 9 nos comuniquéis si pensáis o no acudir para que podamos preparar la sala. Llenad, por favor, esta ficha y enviadla al tutor o tutora.*

Ikaslearen izena / *alumna/o*: ________________________________________

Maila/*curso*: _______________

Hitzaldira etorriko gara (borobildu erantzun egokia) /
*Acudiremos a la charla (rodear respuesta correcta)*:

Aita: bai / ez                    Ama: bai / ez

Sinadura/*Firma*

# G. Ikasteko ohiturak

G

## Zera lantzen dugu

Ikasteko ohituren gaineko hausnarketak egiteko galdetegiak.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| G1 | Laneko eta Ikasteko ohiturak. | DBH1, 2 | Denak | Irakasle guztientzat |
| G2 | Ikasteko ohiturak. *Guía de Orientación. Actividades de tutoría y orientación para el ciclo superior*. Nafarroako Gobernua. | DBH1, 2, 3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| G3 | Ikasteko ohiturak. | DBH3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| G4 | Irakasle-taldeak ikasteko teknikak eta ohiturak modu bateratuan lantzeko proposamena. | DBH | Denak | DBHko irakasle-taldearentzat. |
| G5 | Ikas-prozesuak. *Guía de orientación. Actividades de tutoría y orientación para el ciclo superior*. Nafarroako Gobernua. | DBH1, 2 | Tutoretza saioan | Tutorearentzat |
| G6 | Sararen Istorioa. | DBH3 | Tutoretza saioan | Tutorearentzat |
| G7 | Ikasteko teknikei buruzko saioa. | DBH3, 4 | Tutoretza saioan | Tutorearentzat |

## G1. Lan egiteko eta ikasteko ohiturak

### Zertarako erabil daiteke?

Irakasle-taldean ikaste-tekniken programazioa abiarazteko.

Hona hemen akordio bat ikas-azturak eta teknikak elkarrekin lantzeko.

G

**Lana egiteko eta ikasteko ohiturak DBHko 1. zikloa**

Askatasuna Institutua. Lehen zikloko Irakasle-taldeak onartua.
Proposamena Josu Erro. 1997.

* Hiruhilabete honetan landuko dugu.
\+ Hiruhilabete honetan kontuan hartuko dugu.
= Helburua lortua. Ongi egin dezatela eskatuko diegu.

| *Zikloko hiruhilabetea →* | *1.* | *2.* | *3.* | *4.* | *5.* | *6.* | *Nork kontrolatzen duen du bereziki ↓* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| * Ikastaldean egoteko ohitura. Kurtso hasieran irakasle-taldeak definituko du (*diziplina...*) | * | + | = | = | = | = | Irakasle guztiok |
| * Materialak ordutegiaren arabera antolatu | * | + | = | = | = | = | Irakasle guztiok |
| * Agendaren eralpena guztiok | * | + | = | = | = | = | Tutoreak eta irakasle |
| * Ordena eta txukuntasuna guztiok | * | + | = | = | = | = | Tutoreak eta irakasle |
| ♠ Etxerako lanaren antolaketa. (*Sekuentziatu behar dugu*) | (1) | (1) | (1) | (2) | (2) | (2) | Tutoreak eta irakasle guztiok |
| ♠ Ikas-prozesuaren kontrola. (*Sekuentziatu behar dugu*) | (3) | (3) | (3) | (4) | (4) | (4) | Irakasle guztiok |
| ♠ Taldean lan egin (*Sekuentziatu behar dugu)* | (5) | (5) | (5) | (6) | (6) | (6) | Irakasle guztiok |

(*) Lehenengo lau puntu hauek berdin landuko ditugu 1. eta 2. mailan, antzeko eskakizunarekin.
(♠) Azken hiru puntu hauetan 1. eta 2. mailetan landu beharrekoa bereiztuko dugu, lantzeko prozesuak sekuentziatu behar direlako.

| (♠) | 1. maila | 2. maila |
|---|---|---|
| *(Etxeko lanaren antolaketa* | (1)<br>– Asteroko ordutegi finkoa izan.<br>– Agendan etxerako lanak apuntatu.<br>– Etxeko lanak egiteko ohitura izan.<br>– Etxeko lanaren iraupena: 60'↔90'. | (2)<br>– Asteburuetan lanak kontrolatu.<br>– Epe erdiko/luzeko lanak kontrolatu.<br>– Etxeko lanetarako denboraldia jardueren eta beharren arabera antolatu. |
| *Ikas-prozesuaren kontrola* | (3)<br>– Ikasteko gaia kontrolatu: eman dena / falta dena<br>– Ematen denaren errepasoa egin<br>– Errepasatzean autoebaluaketa teknikak erabili.<br>– Gaiaren ikasketa/errepasoa egitean menperatzen duena eta ikasteko duena bereizi. | (4)<br>– 1. mailako puntuak landuko ditugu irakasleon laguntza pixkanaka gutxituz<br>– Ikasten topatzen dituen eragozpenak gainditzeko baliabideak erabili, gero eta autonomia gehiagoz.<br>– Ikasteko zein errepasatzeko teknika egokiak erabili. |
| *Taldean lan egin* | (5)<br>– Taldean hitz egiteko txanda errespetatu.<br>– Lan-giroa gorde laguntza eskatzeko eta iritzia emateko.<br>– Laguntza emateko eta eskatzeko taldekideekin moldatu.<br>– Lan taldean parte hartzen ikasi.<br>– Taldean bere iritziak eman eta ekarpenak egin.<br>– Taldekideen ideiak eta proposamenak entzuten eta errespetatzen ikasi. | (6)<br>– Taldekideen ekarpenak kritikoki baloratzen ikasi.<br>– Proposatzen den lana taldekideekin batera antolatzen ikasi.<br>– Lan taldearen idazkariaren eginkizuna egiten ikasi.<br>– Lan taldearen moderatzailearen eginkizuna egiten ikasi. |

*Metodologia-iradokizunak*

– Ikasgelan, eta hainbat arlotan, praktika-saioak egingo ditugu etxerako lanaren antolaketa erakusteko eta irakasteko, ereduak eskainiko dizkiegu, ikaskideen esperientziak konpartituko dituzte...
– Era berean, praktika saio horietan, lan egiteko eta ikasteko tekniken erabilpena egiaztatuko dugu, gure laguntza eskainiko diegu, eta elkarri ikusi eta elkarrengandik ikasiko dute.
– Hasierako mailetan ez diegu inoiz ikasteko ezer bidaliko, nola ikasi behar duten esan gabe (zein teknika, nola egin...). Baina bidali!
– Ohituraren atal honetan, ikastetxeko eta etxeko eskakizunak bat etortzeak garrantzi handia duenez, gurasoen onespena eta lankidetza kurtso hasieratik lortu beharko genituzke. Helburu honekin, kurtso hasieran gurasoekin egiten ditugun bileretan eta elkarrizketetan gai hau aztertuko dugu.

## G2. Ikasteko ohiturak

### Zertarako erabil daiteke?

Ikaslearen egoera globala aztertzeko, bere ikasteko ohiturei dagokienean.

Bere ikasteko ohituretatik zeintzuk zuzendu edo trebatu behar dituen jakiteko.



### Prozedura

Galdetegi bat erantzun eta norberak zuzentzea.

Ariketaren garapena: ariketaren azalpen labur bat egin ondoren,irakasleak galdetegiak banatuko ditu eta bertan datozen argibideen arabera aplikatuko ditu. Erantzundakoan, ikasle bakoitzak berea zuzenduko du, atal bakoitzeko “bai” eta “ez” erantzunen kopurua zenbatuz. Azkenik, erantzun hauetako bakoitzeko kopuru globala ere lortu behar du.

Batez besteko denbora: 20 minutu.

### Oharrak

*Tutorearentzako iradokizunak.*

Klaseko egoerari buruzko datu globalak atera. Taldearen egoeraren grafikoak egin, publikoki aurkeztu eta komentatu. Aldaketak eta hobetzeko programak proposatu.

## Ikasteko ohiturak. Ba al dakizu ikasten?

Izena: ____________________________________ Taldea: __________________

Zenbait urte daramazu ikasten eta galdera honek harritu egingo zaitu agian. Jakinen ez dut ba! Baina zeure erara, eta litekeena da zure ikasteko modu hori zure gaitasunekiko egokiena ez izatea, ez eta aurrerantzean izango dituzun irakasgaietarako komenigarriena ere. Erantzun ezazu galdetegi hau, zer zuzendu behar duzun eta zure ikasteko ohituretatik zer hobetu behar duzun jakin dezazun.

*Argibideak*.

Zuk egiten duzuna ongien adierazten duen erantzuna, "bai" edo "ez" zutabean "x" batez markatu. Galdera ikurra (?) "bai" eta "ez" erantzunen artean erabaki ezin duzunean soilik markatu behar duzu, "Batzuetan", "ez beti" ren antzeko zerbait erran nahiko luke ikur honek.

| ***Tokia*** | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| 1. Ikasteko toki zehatzik ba al duzu? | | | |
| 2. Zaratetatik (telebista, irratia, musika...) urrun dagoen gela batean ikasten duzu? | | | |
| 3. Zure ikasmahaian behar hainbat toki ba al dago? | | | |
| 4. Mahaian arreta galaraz diezazukeen gauzarik ba al dago? | | | |
| 5. Ba al duzu gelan ordenadorerik piztuta? | | | |
| 6. Begiak behartu gabe ikasteko adina argi ba al duzu? | | | |
| 7. Ikasten jartzen zarenean, eskura izaten al duzu behar duzun guztia? | | | |
| ***Denbora*** | | | |
| 8. Atsedenerako, ikasketarako, aisialdirako, ordutegi zehatzak al dituzu? | | | |
| 9. Ikasi behar dituzun jakintzagaien artean banatzen al duzu zure denbora? | | | |
| 10. Astean bost orduz gutxienez ikasten al duzu? | | | |
| ***Aditasuna*** | | | |
| 11. Irakasleari begiratzen al diozu azalpenak ematen dituenean? | | | |
| 12. Irakasleak azalpenak ematen dituen bitartean, adi egoten al zara? | | | |
| 13. Irakaslearen azalpenek aspertzen al zaituzte? | | | |
| 14. Zenbait ulertzen ez duzunean, galdetzen al duzu? | | | |
| ***Ikasketa*** | | | |
| 15. Hitz baten esanahi edo ortografiaz ziur ez zaudenean, hiztegian begiratzen al duzu? | | | |
| 16. Ikasgai bat ikasi ondoren berrikusten al duzu? | | | |
| 17. Irakasgaiak eta ariketak egunean al daramatzazu? | | | |
| 18. Ikasgai bakoitzaren eskema edo laburpenik egiten al duzu? | | | |
| ***Ariketak*** | | | |
| 19. Ziur al zaude, lanean hasi aurretik, badakizula zer den egin behar duzuna? | | | |
| 20. Zure ariketak argiro idazten ahalegintzen al zara? | | | |
| 21. Idatzitakoaren ortografia, idazkera, eta txukuntasuna egiaztatzen al dituzu? | | | |
| 22. Asignatura bakoitzerako koaderno edota karpeta bat al duzu? | | | |
| ***Guztira*** | | | |

## Jarraitu zure bidea



## G3. Ikasteko ohiturak

### Zertarako erabil daiteke?

- Ikaslearen egoera globala aztertzeko, bere ikasteko ohiturei dagokienean.
- Bere ikasteko ohituretatik zeintzuk zuzendu edo trebatu behar dituen jakiteko.

### Prozedura

- Irakasleak laburki azalduko du ariketaren helburua eta galdetegiak banatuko ditu.
- Ikasleak puntutxoak jarriko ditu bere iritziekin bat datozen koadrotxoetan.
- Galdetegia erantzundakoan, ikasle bakoitzak bere ariketa zuzenduko du.
- Atal bakoitzean (motibazioa, asimilazioa, eta abar) ikasleak diagrama poligonala eginen du. Ezkerraldean gelditzen diren puntutxoek hutsuneak adieraziko dituzte.
- Bukaeran batez bestekoa aterako du (batetik bostera); hirutik gora ateratzen bazaio, ongi dagoela erran dezakegu.
- Gero zeintzuk diren aldatu beharreko alorrak ere jakinen dugu.
- Aldaketak egiten has gaitezke.

### Oharrak

*Tutorearentzako iradokizunak*:

- Galdetegien emaitzak: irakasleak klasearen ikasteko ohiturei dagokien egoera orokorra balora dezake.
- Taldearen datuekin grafiko bat egin, publikoki aurkeztu eta komentatu.
- Galdetegietako datu global edo indibidualetatik abiatuz, hobekuntza programak taxu daitezke, bai talderako, bai ikasle jakinentzako.

## Ikasteko ohiturak

Izen deiturak: ______________________ Data: ______________ Taldea: ____________

| | *Motibazioa* | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | Ikasten dudanean, tokia eta mahaia desordenaturik daude beti. | | | | | | Ikasten dudanean tokia eta mahaia ordenaturik daude beti. |
| 2. | Ez nago batere gustura ikasten dudan tokian. Ez dut neuretzat hartzen. | | | | | | Gustura sentitzen naiz ikasten dudan tokian, neuretzat hartzen dut. |
| 3. | Ikasten ari naizenean, zaratek distraitu egiten naute, ez naiz kontzentratzen. | | | | | | Ikasten ari naizenean, ez dut zaratarik aditzen, erraz kontzentratzen naiz. |
| 4. | Ez dut ikasteko ilusiorik, ezta motibaziorik ere, horregatik gogorik ez dudanean, ikasketak uzten ditut. | | | | | | Ilusioa eta motibazioak ditut ikasteko, horregatik gogorik eduki ez arren ikasi egiten dut. |
| 5. | Borondatea falta zait ikasteko. | | | | | | Ikasteko borondatea dut. |
| 6. | Ikasten ari naizenean, irudimen eta fantasietan galtzen naiz. | | | | | | Ikasten ari naizenean ez dut arreta galtzen. |
| 7. | Ikastea ez da garrantzitsua bizitzarako. | | | | | | Ikastea garrantzitsua da bizitzarako. |
| 8. | Azterketak lehenbailehen entregatzen ditut, askotan berrikusi gabe. | | | | | | Denborarik izanez gero, azterketak berrikusi egiten ditut eman aurretik. |
| 9. | Ikasten jartzeko nagikeria izaten dut. | | | | | | Ikasten jartzeko ez dut nagikeriarik. |
| 10. | Ulertzen ez ditudan gauzak ez dizkiot irakasleari galdetzen. | | | | | | Ulertzen ez ditudan gauzak irakasleari galdetzen dizkiot. |
| 11. | Zaila den edo ulertzen ez dudan zerbait aurkitzen dudanean, ikasteari uzten diot. | | | | | | Zaila den edo ulertzen ez dudan zerbait aurkitzen dudanean, berriz, abiatzen naiz, beste bideak bilatzen ditut. Saiatu egiten naiz. |
| 12. | Klasean egiten diren gauzak ez zaizkit tutik ere interesatzen. | | | | | | Klasean egiten diren gauzak interesatzen zaizkit. |
| 13. | Irakasleak esaten duena ez dut ulertzen. | | | | | | Irakasleak esaten duenaren berri hartzen dut. |
| 14. | Azalpenetan galdu egiten naiz klasean. | | | | | | Azalpenak ongi jarraitzen ditut klasean. |
| 15. | Azalpenek aspertzen banaute ez diet kasurik egiten. | | | | | | Azalpen osoari adi egoten natzaio. |
| 16. | Ikasteko orduan nekaturik eta ikasteko gogorik gabe aurkitzen naiz. | | | | | | Ikasteko orduan, batzuetan nire burua nekaturik eta ikasteko gogorik gabe aurkitzen dudan arren, normalki gogoz hasten naiz lanean. |
| 17. | Ikasten ari naizenean, bortz axola zait gauza berriak ikasteko aukera izatea. | | | | | | Ikasten ari naizenean, poza sentitzen dut ikasten ditudan gauza berriekin. |
| 18. | Ikasketa eteten dudanean, asko kostatzen zait lanari berriz ekitea. | | | | | | Ikasketa eteten dudanean, ez zait asko kostatzen lanari berriz ekitea. |
| 19. | Ikaskideek klasean lanaren gaineko, talde osorako eta ordenan galderak egiten dituztenean ez zait batere gustatzen. | | | | | | Ikaskideek klasean lanaren gaineko, talde osorako eta ordenan galderak edo iruzkinak egitea gustatzen zait. |
| 20. | Ondorengo emaitzetan pentsatzeak ez nau ikastera animatzen. | | | | | | Ondorengo emaitzetan pentsatzeak ikastera animatzen nau. |
| 21. | Eskolako lanak egitea iruditzen zait garrantzitsua, berdin zait era ez egokian ateratzen bazaizkit ere. | | | | | | Eskolako lanak *ongi* egitea iruditzen zait garrantzitsua. |

Batez bestekoa:
Zertan hobetu behar duzu?

G

| | ***Ingurune-baldintzak*** | *1* | *2* | *3* | *4* | *5* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | Ez daukat ikasteko tokirik. | | | | | | Beti toki berdinean ikasten dut. |
| 2. | Ikasten dudanean ez naiz zaratetatik (oihu, irrati, telebista, musika, eta abar) urrun jartzen. | | | | | | Ikasten dudanean, zaratetatik (oihu, irrati, telebista, musika, eta abar) urrun jartzen naiz. |
| 3. | Ikasten dudanean, zarata egoten da, etenaldiak egiten ditut eta batzuetan bisitak edo telefono solasaldiak izaten ditut. | | | | | | Zaratarik, etenaldirik eta bisitarik gabe ikasten dut. |
| 4. | Etxean ez dut ikasteko toki erosorik. | | | | | | Etxean toki eroso eta atsegin bat dut ikasteko. |
| 5. | Etxean, ikasten dudan tokian, argia ezkerretik sartzen da (ezkerra bazara eskuinetik). | | | | | | Etxean, ikasten dudan tokian, argia eskuinetik sartzen da (ezkerra bazara ezkerretik). |
| 6. | Ikasten dudan tokian hotz egiten du, argi gutxi dago edo aireztapena eskasa da. | | | | | | Ikasten dudan tokian tenperatura egokia dago. Argia nahikoa da eta ongi aireztatuta dago. |
| 7. | Ikasten dudanean, nekaturik egoten naiz, logalez edo ezeroso. | | | | | | Ikasten dudanean, indartsu nago. |
| 8. | Asko ikasi arren ez da nabari. Ez dut ikasten dudan adinako etekinik ateratzen. | | | | | | Etekina ikasi adinakoa edo gehiago da. |
| 9. | Nire kalifikazioak ez datoz bat egiten ditudan ahaleginekin. | | | | | | Nire kalifikazioak egiten ditudan ahaleginekin bat datoz. |
| 10. | Nire gurasoek paso egiten dute nire ikasketez. | | | | | | Nire gurasoek ikas dezadan animatu eta adorea ematen didate. |
| 11. | Gurasoek ikasketei buruz egiten dizkidaten kritikek desanimatu egiten naute. | | | | | | Gurasoek ikasketei buruz egiten dizkidaten kritikek, animatu egiten naute. |
| 12. | Arazo eta kezka pertsonalak ditut, horregatik ezinezkoa egiten zait azalpenei adi egotea eta aldi berean apunteak hartzea. | | | | | | Ez dut arazo pertsonalik. Alde honetatik ez dut oztoporik. |
| 13. | Idazten motela naiz, horregatik ezinezkoa egiten zait azalpenei adi egotea eta aldi berean apunteak hartzea. | | | | | | Idazten azkarra naiz, horregatik azalpenei adi egotea eta aldi berean apunteak hartzea ez zait kostatzen. |
| 14. | Ikasketarako dudan interesa gutxitu egiten da irakaslearen aldetik interes gutxi ikusten dudanean. | | | | | | Ikasketarako dudan interesa ez da gutxitzen irakaslearen aldetik interes gutxi ikusten dudanean. |
| 15. | Klasean dagoen ikasteko giro eskasak bereganatu egiten nau. | | | | | | Klasean dagoen ikas-giro onak bereganatu egiten nau. |

Batez bestekoa:
Zertan hobetu behar duzu?

| | *Plangintza* | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | Ikasten ari naizenean, sarritan altxatzen naiz gauzen bila (liburuak, boligrafoak eta abar). | | | | | | Ikasten ari naizenean behar beharrezkoa denean bakarrik altxatzen naiz gauzen bila (liburuak, boligrafoak eta abar). |
| 2. | Gutxi ikasten dut, jakintzagaiak ez zaizkit-eta interesatzen. | | | | | | Asko ikasten dut. Jakintzagaiak interesatzen zaizkit. |
| 3. | Jakintzagai zail edo aspergarriak azkenerako uzten ditut. | | | | | | Jakintzagai zail edo aspergarriak besteak bezala ikasten ditut. |
| 4. | Askotan gauza batzuk ikasi gabe uzten ditut, ez baitit denborarik ematen. | | | | | | Normalki, ikasi behar dudan guztia ikasteko adina denbora dut. Arraroa da denbora faltagatik lana bukatu gabe uztea. |
| 5. | Ez ditut klaseko apunteak inoiz osatzen. | | | | | | Egunero hartzen dut denbora klaseko apunteak osatzeko. |
| 6. | Maiz askotan asteko egunen batean ez dut ikasten. | | | | | | Normalki egunero ikasten dut. |
| 7. | Azterketak ditudanean, aunitz ikasten dut errepasatzea, besterik ez dut egiten. | | | | | | Azterketak ditudanean, gaiak sakonki berrikusten ditut. Ez naiz zerotik hasten. |
| 8. | Gogoz banago, hasitako lana bukatzen dut. Gogorik ez badut utzi egiten dut. | | | | | | Beti bukatzen dut hasitako lana, nahiz eta aspergarri edo astuna izan. |
| 9. | Azterketa bat prestatzen dudanean, garrantzitsuena soilik ikasten dut, edo klasean azkena azaldutakoa. | | | | | | Azterketa bat prestatzen dudanean, aldez aurretik ikasitakoa errepasatu besterik ez dut egin behar. |
| 10. | Ez dut ikasteko ordutegirik. | | | | | | Ikasteko ordutegi bat dut eta bete egiten dut. |
| 11. | Gustuko ditudan jakintzagaiei ematen diet denbora gehiago. | | | | | | Jakintzagaia garrantzitsuenei ikastordu gehiago ematen dizkiet. |
| 12. | Azken momenturako uzten ditut klaseko lanak eta ikasketak. | | | | | | Klaseko lanak eta ikasketak egunean eramaten ditut. |
| 13. | Nekatzen naizenean, ikasten segitzen dut. | | | | | | Normalki nekatu arte ikasten dut eta gero utzi egiten dut. |
| 14. | Ikasten ematen dudan denbora gehiegi edo gutxiegi da kurtsoa gainditzeko. | | | | | | Ikasten ematen dudan denbora aski da kurtsoa gainditzeko. |
| 15. | Arlo zailenak gorroto ditut. | | | | | | Arlo zailenak adore eta erabaki handiagoz ikasten ditut. |
| 16. | Lan asko pilatzen bazait, hasten naiz gauza atseginak ikasten. Geroko uzten dut astunena. | | | | | | Lan asko pilatzen bazait, gaizkien daramadan arloa ikasten dut lehenik. |
| 17. | Ikasten hasi aurretik ez dut lan-planik egiten. | | | | | | Ikasten hasi aurretik lan-plana egiten dut. |
| 18. | Zaila egiten zait arlo bakoitzerako behar dudan ikasteko denbora kalkulatzea. | | | | | | Erraza egiten zait arlo bakoitzerako behar dudan ikasteko denbora kalkulatzea. |
| 19. | Oso gutxi ikasten dut egunez egun eta asko azterketa aurretik. | | | | | | Egunez egun ikasten dut eta azterketa aurretik errepasatu egiten dut. |

Batez bestekoa:
Zertan hobetu behar duzu?

| | *Materialaren erabilpena* | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | Hitz ezezagun bat aurkitzen dudan bakoitzean paso egiten dut. | | | | | | Hitz ezezagun bat aurkitzen dudan bakoitzean hiztegian begiratzen dut. |
| 2. | Ikasten dudanean, ez dut azpimarratzen. | | | | | | Ikasten dudanean, paragrafo, esaldi eta hitz garrantzitsuenak azpimarratu egiten ditut. |
| 3. | Ikasgaien laburpen eta eskemak ez ditut egiten. | | | | | | Ikasgaien laburpen eta eskemak egiten ditut. |
| 4. | Ez dut azpimarratzen. | | | | | | Azpimarraturikoa erabiltzen dut eskema eta laburpenak egiteko. |
| 5. | Azterketak prestatzeko eskemak edota laburpenak egin ez ditudanez, irakasleak emandako material osoa erabiltzen dut. | | | | | | Azterketak prestatzeko egiten ditudan eskema eta laburpenak erabiltzen ditut. |
| 6. | Ikasgai bat ikasten ari naizenean, zenbait aldiz irakurtzen dut, aspertzen naizen arte. | | | | | | Ikasgai bat ikasten ari naizenean, ez dut segitzen arreta galtzen hasten naizenean. Ez dut inolaz ere aspertzeraino ailegatu nahi. |
| 7. | Ikasten ari naizenean, bata bestearen atzetik ikasten ditut paragrafoak, iristen naizeneraino egiten dut hau. | | | | | | Ikasten ari naizenean orden bat eramaten dut, beti ideia nagusiak atereaz eta laburpenaz baliatzen naiz. |
| 8. | Irakurtzen dudanean, kosta egiten zait hitzen esanahia ongi ulertzea. | | | | | | Irakurtzen dudanean, ez zait kostatzen hitzen esanahia ongi ulertzea. |
| 9. | Ez dut nahiko irakurtzen eta irakurmenaren abiadura eta ulermena hobetzen ez naiz ahalegintzen. | | | | | | Nahiko irakurtzen dut eta irakurmenaren abiadura eta ulermena hobetzen ahalegintzen naiz. |
| 10. | Liburutegian, ez dakit behar ditudan liburu eta autoreak neronek bakarrik bilatzen. | | | | | | Liburutegian, badakit behar ditudan liburu eta autoreak neronek bakarrik bilatzen. |
| 11. | Ikasgai batean garrantzitsua dena eta ez dena bereiztea kosta egiten zait. | | | | | | Ikasgai batean garrantzitsua dena eta ez dena bereiztea ez zait kostatzen. |
| 12. | Liburu batzuek ekartzen dituzten “alboko azalpenak” ez ditut irakurtzen. | | | | | | Liburu batzuek ekartzen dituzten “alboko azalpenak” irakurtzeko ohitura dut. |
| 13. | Ikasten dudanean, ez ditut eskema, koadro sinoptiko edo kontzeptu maparik egiten. | | | | | | Ikasten dudanean, eskema, kontzeptu-mapak eta koadro sinoptikoak egiten saiatzen naiz. |
| 14. | Nire apunteetan, hartzen jakin ez dudan datu garrantzitsuak faltatzen dira batzuetan. | | | | | | Nire apunteetan, hartzen jakin ez dudan datu garrantzitsuak ez dira falta, apunteak osatzen baititut. |

Batez bestekoa:

Zertan hobetu behar duzu?

| | ***Asimilazioa*** | *1* | *2* | *3* | *4* | *5* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | Ikasten dudanean, ez dut berrikuspenik egiten. | | | | | | Ikasten dudanean, buruz errepasatzen dut eta liburukoetatik desberdinak diren galderak egiten dizkiot neure buruari. |
| 2. | Oro har, jendez inguratuta ikasten dut. | | | | | | Oro har, bakarrik ikasten dut. |
| 3. | Azalpenetan, ez zaizkit galderarik bururatzen. | | | | | | Azalpenetan, gainerakoei bururatzen ez zaizkien galdera bitxiak egiten ditut. |
| 4. | Ikasten ari naizenean, zalantzak sortzen bazaizkit, aurrera segitzen dut, askotan argitu gabe. | | | | | | Ikasten ari naizenean, zalantzak sortzen bazaizkit, atzera jotzen dut argitzen ditudan arte. |
| 5. | Ikasten ari naizen ikasgaia ez dut aurrekoekin lotzen. | | | | | | Ikasten ari naizen ikasgaia aurreko gaiekin lotzen saiatzen naiz. |
| 6. | Nahiago dut gauzak buruz ikastea, beste gauzekin erlazionatuz edo arrazoituz ikastea baino. | | | | | | Ikasten ditudan gauza berriak ezagutzen ditudan beste gauzekin erlazionatzen saiatzen naiz. |
| 7. | Hizkuntza arrotzetako hiztegi eta esamoldeak ez ditut ozenki ikasten. | | | | | | Hizkuntza arrotzetako hiztegi eta esamoldeak ozenki ikasten ditut. |
| 8. | Zerbait ulertzen ez badut, buruz ikasten ahalegintzen naiz. | | | | | | Zerbait ez badut ulertzen, testuinguruari begira ulertzen saiatzen naiz. Lortzen ez badut, beste laguntzak bilatzen ditut. |
| 9. | Nekatuta nagoenean, buruz ikasten saiatzen naiz. | | | | | | Nekatuta nagoenean, ez naiz buruz ikasten ahalegintzen; atsedena hartzen dut eta geroago ekiten diot. |
| 10. | Gai bat ikasteko ez da beharrezkoa ariketak egitea. | | | | | | Gai bat ongi ikasteko, horri buruzko ariketa ugari egiten ditut eta ondoren memorizatu egiten dut. |

Batez bestekoa:
Zertan hobetu behar duzu?

## Jarraitu zure bidea



## G4. Irakasle-taldeak ikasteko teknikak eta ohiturak modu bateratuan lantzeko proposamena



### Zertarako erabil daiteke?

– Ikasteko teknikak era bateratuan jakintzagai guztietan lantzeko.
– DBH osoan zehar ardura hau hedatzeko.

### Prozedura

– KPBk adostu beharko luke.

## KPBrako proposamena

Tutoretza departamentuak, aurreko bileran pentsatu zuen irakasle guztiei galdera hauek zuzentzea: Programatu behar al ditugu ikasten laguntzeko teknikak? Ikasleei lagundu behar diegu ikas-azturak izaten? Noiz landu? Abiapuntu bezala dokumentu honetan oinarrituko gara.

| *DBHko ziko eta ikasturtea* | *1.1* | | | *1.2* | | | *2.3* | | | *2.4* | | | *Bereziki nork kontrolatuko duen* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Ikasturteko hiruhilabetekoa* | *1* | *2* | *3* | *1* | *2* | *3* | *1* | *2* | *3* | *1* | *2* | *3* | |
| Irakurmen ulerkorra | * | + | + | * | + | + | + | + | = | + | + | = | Irakasle guztiok. (IG). Hizkuntzak |
| Azpimarratzea | | * | + | * | + | + | + | + | = | + | + | = | IG. Tutorea (T) |
| Laburpenak eta eskemak. | | | | | * | + | + | + | = | + | + | = | IG. |
| Mapa kontzeptualak | * | + | + | * | + | + | * | + | = | + | + | = | Natur. Gizarte. |
| Nola prestatu azterketak | | | * | | | * | + | + | | | | = | IG. T. |
| Nola egin azterketak | * | | | * | | | * | | | * | | = | IG. T. |
| Autoebaluaketarako sistemak erabili | * | | | * | | | * | | | * | + | = | IG. T |
| Idaztiak, nola prestatu. | * | * | * | * | + | + | + | + | + | = | = | = | IG. |
| Apunteak nola hartu | | | | | | * | * | * | * | + | + | = | IG. |
| Laburpena eta eskema. Iturria ahozkoa denean | | | | | * | * | * | + | + | + | + | = | IG. |
| Truku nemoteknikoak | | * | | | * | | | * | | | | | IG. T. |
| Ahoz adierazteko teknikak | * | + | + | * | + | + | * | * | * | + | + | = | IG. T. Hizkuntzak |
| Idatziz adierazteko teknikak. | * | + | + | * | + | + | * | + | + | * | + | = | Id. |
| Hiztegia erabili | * | * | * | + | + | = | + | + | = | + | + | = | IG. Hizkuntzak |
| Bi sarrerako laburpen koadroak | | * | | | * | | | * | + | + | + | = | IG. |
| Gidoiak nola egin | | * | | | * | | | * | + | + | + | = | IG. |
| Marrazkiak ikasteko edo adierazteko erabili | * | | | * | | | * | + | + | + | = | | IG. Marrazk |
| Liburutegia kontsultatu | * | + | + | * | * | * | * | + | + | + | + | = | IG. |
| Internet kontsultatu | | | * | * | * | + | + | + | + | + | + | = | IG. |
| ***Ikas-azturak*** | | | | | | | | | | | | | |
| Denbora ongi antolatu | * | + | + | * | + | + | * | + | + | * | + | = | T. |
| Aditzen egon. Arreta jarri. Behar denean, isiltasuna | * | + | + | * | + | + | * | + | + | + | = | = | IG. |
| Taldean lan egin. | | * | * | * | + | + | * | * | + | + | = | = | IG. |
| Gelan egon. Jarrera egokia. | * | * | * | * | + | + | * | + | + | + | = | = | IG. |
| Etxerako lanak. Antolaketa. | * | * | * | * | + | + | * | + | + | = | = | = | Tutorea. |
| Etxerako lanak egin. | * | + | = | * | + | = | * | = | = | = | = | = | IG. |
| Etxean egunero ikasi. | * | * | * | * | * | * | * | + | + | + | = | = | IG. |
| Etxean irakurri. | * | * | * | + | + | + | + | + | + | + | + | = | Hizkuntzak. |
| Ingurua nola antolatu. | * | + | + | * | + | + | * | + | + | = | = | = | T. |
| Gelan hitz egin. | * | + | + | * | + | + | + | = | = | = | = | = | IG. |
| Taldean erabakiak hartu. | * | * | * | * | + | + | * | + | + | += | = | = | IG. |

*: Hiruhilabeteko honetan landuko dugu. Arlo guztietan landuko dugu.
+: Hiruhilabeteko honetan kontuan hartuko dugu. Landu eta gero hartuko dugu kontuan.
=: Ongi egin dezaten eskatuko diegu. (Helburu lortua).

Ikusten denez gauza asko sar daitezke. Irakasle-taldeak ikusiko du zeri ematen dion garrantzia. Funtsezkoena gauza hauek guztiak elkarrekin lantzea da.

Orain denon artean lan egiteak zer suposatzen duen zehaztuko dugu. Zer nolako ekintzak edota aginteak, edota programa eraman behar dugu aurrera hau guztia lantzeko?

- Zer egin denbora antola dezaten laguntzeko?
- Zer egin aditzen egon eta arreta jar dezaten laguntzeko?
- Zer egin taldean lan egiten ikas dezaten laguntzeko?
- Zer egin etxerako lanak antola eta egin ditzaten laguntzeko?
- Zer egin etxean egunero ikas dezaten?
- Zer egin etxean irakur dezaten laguntzeko?
- Zer egin ikasleek beraien ingurua antola dezaten laguntzeko?
- Nola bideratu gelan, beharrezkoa denean, hitz egin dezaten? Zer egin partaidetza bultzatzeko?
- Nola lagunduko diegu taldean erabakiak har ditzaten?

## G5. Ikas-prozesuak.

*Guía de Orientación. Actividades de Tutoría y Orientación para el Ciclo Superior*
Nafarroako Gobernua.

### Zertarako erabil daiteke?

– Ikas-prozesuen mekanismoari buruz ikasleek informazioa jasotzeko.

### Prozedura

– Aurretik egindako irakurketa batetik abiatuz, galdetegi bat erantzutea.

*Ariketaren garapena:*

– Irakasleak laburki azalduko du ariketaren helburua eta galdetegia banatuko du.
– Jokoan sartzen diren zenbait kontzepturen ulermen-zailtasunak direla-eta, komenigarria da bai irakurketa bai galdetegia irakasleak bideratuak izatea, hots, ikasleak burutu ahala irakurriz eta azalduz.

### Oharrak

– Ariketa hau baliagarria izan dadin, beharrezkoa da ingurune-baldintza hobezinetan burutzea: isiltasunean, lasaitasunez eta behar hainbat denboraz.
– Lan honen subjektibotasuna dela-eta, komenigarria da tutoreak galdetegia ikasle bakoitzarekin berrikustea, ikuspegi pertsonal horri izaera objektiboagoa ematearren. Tutorearen eta ikaslearen iritzien arteko desadostasuna handia denean, guztiz beharrezkotzat jotzen dugu.

## Ikas-prozesuak

Izena eta Abizenak: ______________________________________________

Ikasten ari zarenean zure gogamenak bulego batek bezala funtziona-tzen du. Zu bulegaria zara. Ikus dezagun zein den zure lana.

Etengabe jasotzen duzu informazioa: hitz egiten dizute, azalpenak ematen dizkizute, irakurri egiten duzu, objektuak, marrazkiak eta abar ikusten dituzu... Zuk, bulegari gisa, lehenengo egin behar duzuna, heltzen zaizun informazioa entzun edo begiratzea da; hau da, *adi egotea*. Horrela egiten ez baduzu, edo eta gaizki egiten baduzu, informaziorik jasoko ez bazenu bezala da. Zenbat eta adiago egon, orduan eta informazio gehiago jasoko duzu.

Bestalde, beharrezkoa duzu iristen zaizun informazioa ulertzea. Ezagutzen ez dituzun hitzekin mintzatzen bazaizkizu, oso adi egon arren ez duzu deus ulertuko, ezta guztiz ezezaguna zaizun eta ezagutzen duzun edozerekin erlaziorik duen zerbaiti buruzko informazioa ematen badizute ere. Hiztegirik zabalena duen eta gauzarik gehien dakizkien bulegaria da ongien ulertzen duena. Gauza berriak ezagutzera, aurreko ezagutzetatik iristen da beti. Ulermen-lan hau zure *Ulermen-gaitasuna* da.

Orain artxibategia antolaturik duzu eta datu askorekin. Zer egin dezakezu datu horiekin?

Norbaitek gorderik duzun informazio bat eskatzen badizu, artxibategian begiratu eta besterik gabe eman diezaiokezu. Hau *gogoratzea* da.

Jadanik dituzun informazioetatik, datu batzuk besteekin konparatuz eta beraien arteko erlazioak ezarriz, informazio berria lor dezakezu. Hau *arrazonamendua* da.

Arrazonamendu jarraiak eginez, *buruketak ebatz* ditzakezu.

Informazioa jasotakoan, gorde egin behar da: *memorizatu*. Datu guztiak artxibatu behar dituzu, eta “buru-karpeta” desberdinetan sailkatu. Karpeta bakoitzean, ezaugarri bereziak dituzten datuak gordeko dituzu, beste karpetetan dauden datuekiko desberdinak izango direlarik. *memorizatzeko* egin behar den lan honi, *abstrakzioa* eta *erlazioa* deritze. Datuak zure memorian ongi ordenaturik gordetzen badituzu, beharra duzunean jo ahal izanen duzu haietara. Alderantziz, batzuk besteekin erlazionatu gabe pilatzera mugatzen bazara, askoz ere zailago egingo zaizu bilatzea.

Gure bulegoan, datu-mota desberdinekin lan egin behar dugu guztiok: Hitzak, zenbakiak, formak, bolumenak, eta abar... Zer deritzozu, zure bulegoak datu-mota desberdinekin nola funtzionatzen duen aztertzeari?

1. *Nola funtzionatzen du zure bulegoak hitzekin?* (Pentsa ezazu, Gaztelania, Euskara, Gizarte Zientziak, Ingelesa, ...arloetan). Marra bat egin ezazu zure bulegoari emango zenizkiokeen puntuetaraino.

<table>
<tr><th></th><th></th><th>0</th><th>1</th><th>2</th><th>3</th><th>4</th><th>5</th><th>6</th><th>7</th><th>8</th><th>9</th><th>10</th></tr>
<tr><td rowspan="2">Aditasuna</td><td>Azalpen eta irakurgaietan kontzentraturik egotea, beste gauzetan pentsatzen arreta galdu gabe</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Aditasuna, denbora luze samarrez mantentzea erdiestea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td rowspan="2">Ulermena</td><td>Klaseko azalpenak zailtasunik gabe ulertzea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Idatzitako testu gehienak zailtasunik gabe ulertzea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td rowspan="4">Abstrakzioa eta erlazioa</td><td>Testu bateko funtsezko ideia ateratzeko gai izatea. Ongi laburtzea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Irakaslearen azalpen luze bat, hitz gutxitan laburtzea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Irakasgai batetako datuak beste irakasgai batekoekin lotzea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Memorizatu beharreko ikasgaien eskemak egitea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Memoria</td><td>Ikasitako azalpen eta ikasgaiak gogoratzea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Arrazonamendua</td><td>Dituzun datu batzuetatik ondorioak ateratzea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

2. *Nola funtzionatzen du zure bulegoak zenbakiekin*? (Pentsa ezazu, Matematika, Natur, ...arloetan).

| | | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aditasuna | Azalpen matematikoetan kontzentraturik egotea, beste gauzetan pentsatzen arreta galdu gabe. | | | | | | | | | | | |
| | Aditasuna denbora luze samarrez mantentzea. | | | | | | | | | | | |
| Ulermena | Irakasleak ematen dituen edota testu matematiko batean irakurtzen ditudan azalpen matematikoak zailtasunik gabe ulertzea. | | | | | | | | | | | |
| Abstrakzioa eta erlazioa | Irakasgai bateko ezagutzak erlazionatu eta beste irakasgai batean aplikatzea. | | | | | | | | | | | |
| | Lege bat kasu konkretuei aplikatzen jakitea. | | | | | | | | | | | |
| | Adibideetatik lege orokorrak ateratzen jakitea. | | | | | | | | | | | |
| Memoria | Aurreko azalpenak erraz gogoratzea. | | | | | | | | | | | |
| Arrazonamendua | Buruketak arazorik gabe ebaztea. | | | | | | | | | | | |

## Ikas-prozesua aldarazten duten elementuak

Badira bulegoaren funtzionamenduan positiboki ala negatiboki eragin dezaketen alderdiak. Hauek dira garrantzitsuenak:

*Motibazioa-Interesak*

Bulegariari, esku artean erabiltzen dituen datuak interesatzen bazaizkio, edo/eta motibazio pertsonalak baditu, bere lana ongi burutzeko, askoz ere gusturago arituko da eta segur aski aktibo eta eraginkorragoa izango da bere lanean.

| | *Gutxi* | *Hor nonbait* | *Dezente* | *Asko* |
|---|---|---|---|---|
| Zenbateraino zaude motibatuta ikasteko? | | | | |

G

*Osasuna*

Bulegoko baldintzak onak badira (garbia, hondatu gabea...) hobeto lan eginen da horrela ez badaude baino, edota arazoak egonda baino.

| | *Txarra* | *Normala* | *Ona* |
|---|---|---|---|
| Nolakoa da zure osasuna? | | | |

*Konstantzia*

Beti lan erritmo konstantea duen bulegaria eraginkorragoa da. Zuk nola egiten duzu lan?

a) Beti berdin, ikastea ohitura bat da niretzat.

b) Gorabehera handiekin, batzuetan lan asko egiten dut eta beste batzuetan batere.

*Beste alderdi batzuk*

Batzuetan bulegariak oso lan gutxi egiten du. Honelakoak gertatzen zaizkio:

– Arrazoi berezirik gabe, adorerik gabe sentitzen da, nekatuta, ezer egiteko gogorik gabe, triste eta laur jota.
– Segurtasunik gabe sentitzen da, eta dena gaizki egingo duela iruditzen zaio.
– Gaizki moldatzen da bere lankideekin.
– Arazoak ditu etxean.

Gauza hauetarikoren bat gertatzen bazaizu, seinalatu gurutze batez. Gerta daiteke laguntza behar izatea. Zure tutorearekin edo konfiantzako lagun batekin kontsulta ezazu.

## G6. Ikasteko ohiturak. Sararen istorioa

### Zertarako erabil daiteke?

– Ikasketa sistemaren baldintzei buruz hausnartzeko.
– Ikasle bakoitzak duen ikasketa-sistema pertsonala hobetzeko.

### Prozedura

– Ipuina bakarka irakurri.
– Bosnakako taldeetan galdetegiari erantzunak eman.
– Talde osoan bateratu.

## Sararen istorioa

Sara, DBHko 3. mailan ikasten ari den neska bat da. Harremanetarako izaera maitagarria eta atsegina du eta gainera oso langilea da.

Ahalmen intelektual oso ona duenez eta 2. mailan ere oso nota onak lortu zituenez, edozein ikasketa egiteko aukerak izanen zituela erran zioten bere irakasleek.

Lehen ebaluaketan bost *gutxiegi* jaso ditu eta tutoreak aditzera eman dionez, orokorrean ez du aurrerapausorik egin, beraz sakonki hobetu beharrean aurkitzen da.

Sara lur jota aurkitzen da, bestalde. Gainera, etxean ez dute ulertzen. Mikel, Institutuan ezagutu duen mutil bat, Loli eta Mariarengan, antzinako ikastetxean ezagutu zituen kideengan bakarrik aurkitzen du atseginez komunikatzeko aukera bakarra, atsedenaldi eta asteburuetan elkar ikusteko aukera izaten baitu.

Sarak dioenez, oso gaizki aurkitzen da, ezin du gainditu beregan duen gorputz-larrialdia, horrenbertze *gutxiegi* ez zaio iruditzen ez bidezkoa ezta zuzena ere. Kontrolak dituen inguruko egunetan gogor eta sakon jarduten du ikasten...

Hara –esan dio Mikeli– asteburu osoan etxean sartuta egon naiz, entrenatzera joateari ere utzi nion, eta beno, ikusi zenuen, nire bizitza osoan baino goiztiarrago ibili naiz, kontxo, Matematikako azterketa egunean goizeko bost t'erdietan jaiki nintzen, horrenbertze izorratu ikasten eta... ez dago eskubiderik!

Mikel mutiko ona da eta ez dabil gaizki ikasketetan. Sara aditzen duen bitartean, honek beharbada ez duela behar bezain ongi ikasten pentsatu du eta horregatik hainbat gauza ohartarazi nahi diola erabaki du.

Begira, Sara –dio oso serio–, klasean zaudenean leiho ondoan jartzen zara patiora begira egoteko, egia esan, askotan lekoratuta edo galduta ikusi zaitut, eta ez Mate eta ez Ingelesean arretarik ez zenuela jartzen irudikatzen zitzaidan... Hainbat ikasgaitan nire apunteak fotokopiatu eta azterketari begira *enpollatzera* mugatu zara.

Horrela ohartu zen Sara, berak pentsatzen zuen baino gehiago begiratzen zuela eta hori atsegina iruditu zitzaion. Baina, ez zitzaion, ordea, hain atsegina iruditu beste hutsegite horiez Mikel ohartzea eta zera zioen, apunteak fotokopiatzeari esker zerbaitez ohartu zela, bestela, klasean behintzat...

Sarak, joan den urteko tutorearekin izandako buila eta matraka gogoratu zuen, alegia, “idea garrantzitsuenak azpimarratzea”, eta eskema... eta laburpena... eta kontzeptu-mapak. Bere bizitzan lehenengo aldiz pentsatu zuen buruz ikaste hori, beharbada, ez zela hain praktikoa.

Lortutako emaitzek sortutako tristuraz ohean etzan eta begirada sabaian tinkoturik pentsatu zuen non eta nola ikasten zuen, mahaira begiratuz bere poltsa eta bere gauzatxoak, ispilua, zorrozkailua, buruko eskuila, flexoa eskuinaldera eta leihoa aurrealdean, behealdean semaforoa gorri zegoela ohartu gabe igaro zen txirrindulari bat, zuhurgabea, pentsatu zuen. Aulkiaren albotik zintzilikaturik kaskoak, segur aski bere anaia Gaizkak irrati-kasetea hartuko zuen...

Bere gelatik, amak ipinita zeukan telebista-katea entzuten zuen, albistegiaren musikak gogorazi zion atzo ordu berean eskola lanak egiten ari zela bere gurasoekin batera, haiek Bosniako berriak interes handiarekin entzuten zituzten bitartean.

Ikasten jarraitzea erabaki zuen, Sara ez zegoen prest berriro ere ezer gainditu gabe uzteko.

Flexoa piztu zuen, ohean moldatu zen, eta han bertan utzi zituen agindu zizkioten Gizarte Arloko gaiaren fotokopiak. Irakurtzen hasi zen...

Gaia ikasi zuenean, afaltzera atera zen eta bere gurasoei esan zien: Hiruhilabete honetan ez zait aurrekoan gertatu zitzaidana berriro gertatuko, “ebaluaketa” hau serio hartu behar dut.

Bere amak irribarretsu begiratu zion horrela izanen zela guztiz sinetsita.

G

*Talde lana*

Erantzun ondoko galderei:

- Zer-nolako akatsak egiten zituen Sarak ikasterakoan?
- Antzeko arazoak lituzkeen lagun bati nolako aholkuak emanen zenizkioke?
- Antzeko zerbait gertatzen zaizue?

## G7. Ikasteko teknikei buruzko saioa

Nieto eta besteek egindako materiala. icce. Liburu berdetik ateratako ideiak

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleak jabetzeko zein garrantzitsua den ikasteko toki eta giro aproposa edukitzea.

### Prozedura

- Galdera-sorta banatuko da.
- Bakarka erantzunen dute.
- Bakoitzak berea zuzenduko du.
- Ikaskideekin komentatuko dute. Talde txikiak.
- Tutoreak datu esanguratsuenak arbelean idatziko ditu.
- Solasaldi irekia.
- Bukatzeko tutoreak bere burua eskaintzen du laguntzaile gisa.

### Ikasleentzako dokumentua. Nola ikasten duzu?

Izena: ____________________________________________

Dokumentu hau, zuk zerorrek nola ikasten duzun jakin dezazun prestatuta dago. Gogoz erantzun, zure ikas-azturak hobetuko dituzulakoan prestatu dugu. Zenbait aste egonen gara gai honekin. Lan hau egin eta gero gaizki ikasten duzula ikusten baduzu, beharbada interesgarria izanen da zure tutorearekin hitz egitea. Eman behar dituzun erantzunak “bai”, “ez” edo “?” izan behar dira. “?” galdera-ikurrak “ez dakizula” erran nahi du, ahalik eta gutxien erabili ikur hori.

| *Zk.* | *Galdera* | *bai/ez* |
|---|---|---|
| 1. | Beti leku berean ikaste al duzu? | |
| 2. | Azken egunerako uzten al duzu azterketen eta kontrolen prestakuntza? | |
| 3. | Ordutegi zehatza al duzu ikasteko? | |
| 4. | Irakasleak klasean ematen dituen ideia garrantzitsuenen oharrak edo apunteak hartzen al dituzu? | |
| 5. | Ikasten aritzeko daukazun aulkiaren bizkarraldea eta eserlekua gogorrak al dira? | |
| 6. | Ba al duzu mahai egokirik, zure altuerara eta aulkiarenera egokitzen denik? | |
| 7. | Ikasten aritzen zaren tokia ongi aireztatuta eta kaleko zaratetatik, telebistatik aldenduta al dago? | |
| 8. | Hurrengo egunean klasean azalduko diren gaiak etxean irakurtzen al dituzu? | |
| 9. | Egunero bi orduz aritzen al zara ikasten? | |
| 10. | Irakaslea azalpenak ematen ari denean, erne egoten al zara? | |
| 11. | Ohean etzanda edo besaulkian albora jarrita ikasten al duzu? | |
| 12. | Ikasteko erabiltzen duzun mahaia bernizatua edo distiratsua al da? | |
| 13. | Zure ikasgelan argitasun egokia al daukazu zure ikusmena gehiegi ez behartzeko? | |
| 14. | Hitz batzuen ortografia edo esanahia ezagutzen ez baldin baduzu, hiztegia erabiltzen al duzu argitu ahal izateko? | |
| 15. | Irakasgaiek duten zailtasunaren arabera antolatzen al duzu ikasteko denbora? | |
| 16. | Zerbait ulertzen ez duzunean, irakasleari galdetzen al diozu? | |
| 17. | Ikasten ari zarenean, zure oinak ongi euskarritzen al dituzu zoruan? | |
| 18. | Ikasten hasi baino lehen, ikaste-saio horretan behar duzuna bakarrik prestatzen al duzu? | |
| 19. | Ikasten ari zaren bitartean, musika entzuteko ohiturarik ba al duzu? | |
| 20. | Ikasten ari zarenean, ideia garrantzitsuenak azpimarratzen al dituzu? | |
| 21. | Azken ordurako uzten al duzu irakasgai gehientsuenen prestakuntza? | |
| 22. | Zure kideen apunteak fotokopiatzeko ohitura al duzu? | |
| 23. | Zure ikasketa-mahaia nahaspilaturik edukitzen al duzu? | |
| 24. | Ordu pare bat ikasten aritu ondoren, lasaitu eta atsedenaldia hartzen duzu? | |
| 25. | Ahal baduzu, ikasgelako atzealdean dauden mahaiak hartzen al dituzu irakasleak zu ez kontrolatzeko? | |
| 26. | Zure apunteak irakasgaiaren arabera antolatzen al dituzu? | |
| 27. | Zure azterketak igorri baino lehen errepasatzen al dituzu? | |
| 28. | Esertzen zerenetik ikasten hasi arte 15 minutu baino gehiago igarotzen al dira? | |
| 29. | Ikasketa-saio bakoitzean helburutzat jarri dituzun betebeharrak eta lanak bukatzen al dituzu? | |
| 30. | Ikasten dituzun ikasgaien eskema egiten al duzu? | |
| 31. | Aurkezten dituzun lanen aurkezpen egokia eta ortografia zaintzen al dituzu? | |
| 32. | Gai bat ikasten ari zarenean, testuaz gain, beste liburu batzuk kontsultatzen al dituzu? | |
| 33. | Ikasteko ohitura eskuratu duzula iruditzen al zaizu? | |

## Galdetegia zuk zeuk zuzen ezazu

Zure erantzunak ondoan adierazten dugunarekin bat baldin badatoz, dagokion hutsunean “+” ikur batez seinala ezazu.

| *Tokia:* | *Mahaia:* | *Aulkia:* |
|---|---|---|
| 1. bai ___ | 6. bai ___ | 5. bai ___ |
| 7. bai ___ | 12. ez ___ | 11. ez ___ |
| 13. bai ___ | 18. bai ___ | 17. bai ___ |
| 19. ez ___ | 23. ez ___ | |
| *Klasean:* | *Ikasketa denbora:* | *Lan-Metodoa:* |
| 4. bai ___ | 3. bai ___ | 2. ez ___ |
| 10. bai ___ | 9. bai ___ | 8. bai ___ |
| 16. bai ___ | 15. bai ___ | 14. bai ___ |
| 22. ez ___ | 21. ez ___ | 20. bai ___ |
| 25. ez ___ | 24. bai ___ | 26. bai ___ |
| | 28. ez ___ | 27. bai ___ |
| | 29. bai ___ | 30. bai ___ |
| | | 31. bai ___ |
| | | 32. bai ___ |
| | | 33. bai ___ |

Osotara zenbat “+” dago? __________

*Iragarpena*

| | |
|---|---|
| 28tik 33ra | Iragarpena oso ona. |
| 22tik 27ra | Iragarpena ona. |
| 16tik 21era | Iragarpena desegokia. Kontuz, aldaketak sartzen hasi behar duzu. |
| 15 baino gutxiago... | Ikasteko oso desegokia. Arrisku handia. |

Pentsa ezazu orain ea zeintzuk diren sartu behar dituzun aldaketak gauzak ahalik eta hobekien joan daitezen. Hemen idatzi orain eta, zure iritziz tutorearekin hitz egin behar baduzu, esan iezaiozu.

# H. Ikasle izatearen lana



## Zera lantzen dugu

Ikasle izatearen gaineko hausnarketak.

*Ideiak*:

– *Guía de Orientación. Actividades de tutoría y orientación para el ciclo superior*. Nafarroako Gobernua. 85.
– García Nieto eta beste. "*La Tutoría en la Educación Secundaria*" *icce*. 95.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| H1 | Zintzotasuna. | DBH2, 3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H2 | Ikasle izatearen lana. | DBH2, 3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H3 | Erabakien ondorioak. | DBH3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H4 | Ikasle bezala dauzkadan hutsuneak aztertuz. | DBH1, 2, 3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H5 | Baloreak. Etorkizunari begira dauzkadan baloreak. | DBH3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H6 | Kikoren istorioa. Institutura etortzearen beharra aztertzeko ariketa. | DBH2, 3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H7 | Irakasgairik gogokoenak. | DBH1 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H8 | Jakintzagairik gogokoenak. | DBH2 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H9 | Nire kalifikazioen gaineko hausnarketa. | DBH1 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H10 | Nola Erabaki. | DBH3, 4 | Tutoretza | Tutorearentzat |
| H11 | Gizarte harremanak. Lagunak. | DBH2 | Tutoretza | Tutorearentzat |

## H1. Zintzotasuna. Nire zintzotasuna ikaslea naizen aldetik.
Ikaslearen etika profesionaleren gaineko ariketa

### Zertarako erabil daiteke?



Ikasleek ikus dezaten beraiek ongi jokatzeko ardura dutela.

### Prozedura

– Irakasleak galdetegiaren hasiera irakurriko die. Bertako ohartarazpena azalduko die.
– Erantzuten dute. Bakoitzak berea.
– Talde txikietan aztertzen dute.
– Talde handian komentatzen dute. Zer da benetan baloratzen dutena? Nora doaz? Beraien ardurak hartzeko gauza ote dira?...

### Oharrak

DBHko 3. mailako orientaziorako jokoa ematen du.

### Nire zintzotasuna ikaslea naizen aldetik

Gartzia Nieto eta beste. *La tutoria en la Educación Secundaria,* 1995.

Nire izen abizenak: ____________________ Taldea: ________ Data: _________

Ikasleen munduaren gaineko galderak dauzkazu hemen. Hiru aukeren arteko bat hartu behar duzu. Zure iritziarekin bat datorrena, hain zuzen ere. Gauza berbera eginen duzu zure ikaskideen taldearekin. Hau egin ahal izateko, aukeratutako esaldiari dagokion letra borobilduko duzu. Lehen zutabean “ni” jartzen duen tokiaren azpian, hain zuzen ere, zuri pertsonalki dagokizuna erantzunen duzu; bigarren zutabean “Taldea” jartzen duen tokiaren azpian zure gelako ikastaldeari buruzko erantzuna emanen duzu. Zintzotasunez jokatu gero!

| *Galdera* | *Ni* | | | *Taldea* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Egiten ari naizen ikasketak...<br>a) Seriotasun handiaz hartzen ditut<br>b) Seriotasunez hartzen ditut<br>c) Bost axola zaizkit | a | b | c | a | b | c |
| 2. Nire ikasketak eta ikaslanei...<br>a) Denbora aunitz ematen diet<br>b) Azterketak edo premia dudanean bakarrik ematen diet denbora<br>c) Denbora gutxi ematen diet beste gauza garrantzitsuagoak egin behar baititut | a | b | c | a | b | c |
| 3. Ikasketen gauzarik nagusiena zera da...<br>a) Kultur maila ona lortzea<br>b) Ez diezadatela loa kendu<br>c) Nahiko txar batekin bada ere, gainditzea | a | b | c | a | b | c |
| 4. Azterketak egiterakoan...<br>a) Ez dut inoiz ere kopiatzen<br>b) Arriskurik ez badago, kopiatu egiten dut<br>c) Maiz askotan kopiatzen dut. Kopiatzeko ahaleginak egiten ditut | a | b | c | a | b | c |
| 5. Azterketetan kopiatzea zera dela uste dut...<br>a) Merezi ez duzun nota ateratzea ez da zintzoa, ez da justua<br>b) Arrisku txiki bat da. Batzuetan merezi du arriskatzeak<br>c) Ausarta izatea da, ikasle guztiek ez daukaten trebetasun berezia da | a | b | c | a | b | c |
| 6. Azterketa egiterakoan, harrapatuko ez ninduketela jakingo banu...<br>a) Ez nuke kopiatuko<br>b) Gainditzeko kopiatuko nuke<br>c) Dena kopiatuko nuke | a | b | c | a | b | c |
| 7. Azterketa baten aurrean<br>a) Kopiatu baino gehiago nahiago dut gutxiegi ateratzea<br>b) Nahiago dut kopiatzea gutxiegi ateratzea baino<br>c) Beti kopiatzen dut ahalik eta gehien | a | b | c | a | b | c |
| 8. Azterketa batean kopiatu duena<br>a) Ez dut onartzen<br>b) Berdin zait. Ez dut ezer pentsatzen. Ez ona, ez txarra<br>c) Ausarta izateagatik txalotzen dut | a | b | c | a | b | c |

| Galdera | Ni | | | Taldea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 9. Ikaskide batek nire apunteak eskatzen badizkit...<br>a) Nire apunteak uzten dizkiot<br>b) Kosta egiten zait nire apunteak uztea<br>c) Hain txarrak dira non uztea ere ez duen merezi | a | b | c | a | b | c |
| 10. Arazodun irakasle baten aurrean...<br>(gaizki erakusten duena, fama txarra, justua ez dena...)<br>a) Saiatu egiten naiz berarekin gertatzen denaz jabearazten<br>b) Agoantatzen dut, disimulatzen dut nire kontra joka ez dezan<br>c) Kritikatzen dut, deskalifikatzen dut, bere atzetik esamesetan aritzen naiz | a | b | c | a | b | c |
| 11. Irakasle batekin gatazka gertatzen denean...<br>a) Arazoa moldatzeko ahalegin guztiak egiten ditut agresibitaterik gabe<br>b) Nahiago dut isilik gelditu besteek molda dezaten<br>c) Egoera baliatzen dut iskanbila handiago izan dadin, irakaslea izorratzeko | a | b | c | a | b | c |
| 12. Irakasle batek ikasle bat gaizki tratatzen duenean...<br>a) Ez dut ongi ikusten eta jakinarazten diot irakasleari<br>b) Nire kontra jartzen ez den bitartean, paso egiten dut<br>c) Ikaslearen alde jartzen naiz arazoa moldatzeko pausorik eman gabe | a | b | c | a | b | c |
| 13. Lana taldean egin behar dugunean...<br>a) Ahalegin guztiak egiten ditut nire lan propioa balitz bezala jokatuz<br>b) Pasibotasunaz aritzen naiz besteek lan guztia egitea posible bada<br>c) Emaitza denona denez eta denontzako berdina denez, ez dut arretaz lan egiten eta ihesian ibiltzen naiz | a | b | c | a | b | c |
| 14. Ikasle bezala...<br>a) Behar ditudan gauzak (liburuak, apunteak, lanak eta abar) prest dauzkat besteen kontura ez bizitzeko<br>b) Beti badaukat ikaskideren bat laguntza eskatu ahal izateko<br>c) Besteen kontura bizi naiz. Horrela denbora, lan eta kezka gutxiago dauzkat | a | b | c | a | b | c |
| 15. Ikastetxeko instalakuntzak (eraikuntza, gelak, altzariak, mahaiak, komunak...)<br>a) Hagitz ongi zaintzen ditut, nireak balira bezala zaintzen ditut<br>b) Ez naiz gauza haietaz arduratzen, berdin zait nola dauden<br>c) Ez ditut errespetatzen, ez baitira nireak | a | b | c | a | b | c |
| 16. Nire ikastaldeko ikaskideekin<br>a) Ongi moldatzen naiz, errespetatzen ditut eta posible dudan guztietan laguntzen diet<br>b) Lagun-talde txiki batekin ibiltzen naiz, besteak existituko ez balira bezala<br>c) Beharra izaten dudanean beraiez aprobetxatzen naiz, liburuak, apunteak, lanak... eskatzeko | a | b | c | a | b | c |

| *Galdera* | *Ni* | | | *Taldea* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 17. Nire ikaskide ahulekin (inteligentzia txikia edo horrelako zerbait daukatenak)<br>a) Ez dut inolako desberdintasunik egiten, denak errespetatzen ditu berdin<br>b) Haietaz paso egiten dut<br>c) Haietaz barre egiten dut | a | b | c | a | b | c |
| 18. Zer deritzozu esaldi honi: “Nirea nire eta besteena denona”<br>a) Erabat kontra nago, ez naiz halakoa.<br>b) Batzuetan nire kasua da.<br>c) Horrelakoa naiz normalki | a | b | c | a | b | c |
| 19. Zure izateko modua dela edo besteekin izaten duzun jokaera dela-eta, zer deritzozu esaldi honi: “Hemen denak doaz nor bere aldetik”<br>a) Ez du nirekin zerikusirik<br>b) Zenbait kasutan horrelakoa naiz<br>c) Erabat ados nago esaldi horrekin | a | b | c | a | b | c |
| 20. Azterketa eta ikasgaien arteko gauzarik nagusiena da...<br>a) Ikasi eta aurrera joatea<br>b) Gainditzea, nahiz eta justuegi izan<br>c) Gainditzea, nahiz eta tranpak erabili behar izan | a | b | c | a | b | c |
| 21. Klaseetara etortzea...<br>a) Ez dut inolaz ere klase bat galtzen<br>b) Noizean behin hutsegiteak izaten ditut<br>c) Ahalik eta piper gehien egiten dut, hau egiteko gezurrak erratea beharrezkoa bada ere | a | b | c | a | b | c |
| 22. Klaseko puntualtasuna...<br>a) Berandu iritsi banaiz noizbait, benetako arrazoi batengatik izan da<br>b) Maiz askotan berandu iristen naiz: aitzakiak erabiltzen ditut<br>c) Berandu iristen naizenean, aitzakiak aipatzen ditut (istripua izan edo autobusa ez dela ailegatu, adibidez) | a | b | c | a | b | c |
| 23. Garrantzia duen triskantzaren bat gertatzen bada, ikastetxean eta taldeari erantzunak eskatzen bazaizkio...<br>a) Nork egin duen baldin badakit, izena ematen dut, aldez aurretik ikaskide horrekin hitz eginda<br>b) Anonimatuan ezkutatzen dut neure burua eta ez dut inor salatzen<br>c) Nik egin badut, ukatu egiten dut, nahiz eta ikastalde osoa zigortuta geratu | a | b | c | a | b | c |
| 24. Nirea ez den zerbait eskuartera ailegatzen bazait...<br>a) Ez dut niretzat gordetzen, bere jabea topatu arte gordetzen dut eta gustura bueltatzen diot<br>b) Besteek jakin behar ez badute, niretzat gordetzen dut<br>c) Niretzat gordetzen dut nahiz eta norena den jakin | a | b | c | a | b | c |
| 25. Azterketako kalifikazio baxu eta justu baten aurrean...<br>a) Nahiz eta gogorra izan, nire gurasoei erraten diet<br>b) Gurasoei gordetzen diet edota arrazoi faltsuak ematen dizkiet<br>c) Posible izanez gero, firmak edo notak faltsutzen ditut nire gurasoek jakin ez dezaten | a | b | c | a | b | c |

*Zuzenketa*

| *Kontatu* | | *Zenbat* |
|---|---|---|
| Erantzun pertsonalak | A | |
| | B | |
| | C | |
| Taldearen gaineko erantzunak | A | |
| | B | |
| | C | |

*Interpretazioa*

*Pertsonalak*

“A” erantzunak irabazten badu, oso baikorra da zure jarrera. “Etika profesionala” zaintzen duzu. Giza kategoriko pertsona zara. Zorionak!

“B” erantzunak irabazten badu, zerbait zaindu eta aldatu behar duzula erran nahi du. Ikasle bezala zerbait falta zaizu. Zure jarrerak hausnartu behar dituzu.

“C” erantzunak irabazten badu... Kontuz! Zertan zabiltza? Zertan ari zara jostatzen zeure buruarekin eta besteekin? Has zaitez aldatzen!

*Taldekoak*

Erantzun pertsonalei emandako irizpideak balio du. Komenigarria litzateke zuen artean honetaz hitz egitea. Posible den neurrian komenigarria litzateke elkarrekin adostasun minimoak lortzea gauzak ahalik eta hobekien joan daitezen.

Ondorio pertsonalak:

Ondorio eta konpromisoak taldean:

## H2. Ikasle izatearen lana

### Zertarako erabil daiteke?

1. Honetaz konturatzeko eta egoera hori onartzeko: Ikasle izateak badauzka bere onurak.
2. Ikasteko zer-nolako arrazoiak dauzkagun ohartzeko.
3. Ardurazko jarrera bultzatzeko.
4. Ikasle izateak dauzkan alde baikorrak aurkitzeko eta onartzeko.

### Prozedura

Erantzun bakarka eta eztabaidatu talde txikitan.

## Ikasle izatearen lana

Zure izena eta abizenak: ______________________________________________

Ariketa txiki bat eginen duzu orain. Hemen esaldi batzuk idatzi ditugu. Ikusten duzunez bukatu gabe daude. Zerorrek bukatu behar dituzu. Ongi pentsatu eta zintzotasunez bete. Bukatu eta gero lanean segituko dugu taldean eta azkenean tutoreak irakurriko du zuk idatzitakoa.

1. Ikasle izatea zera da:
   ______________________________________________
2. Ikasle izateak daukan alderik hoberena zera da:
   ______________________________________________
3. Ikasle izateak daukan alderik makurrena zera da:
   ______________________________________________
4. Ikasle ona...
   ______________________________________________
5. Ikasle txarra...
   ______________________________________________
6. Honengatik ikasten dut:
   ______________________________________________
7. Honetarako ikasten dut:
   ______________________________________________
8. Nire ikaskideak __________________________________ dira.
9. Nire ikaskideek zera egiten dute:
   ______________________________________________
10. Nire ikaskideek zera daukate:
    ______________________________________________
11. Nire ikaskideengandik zera espero dut:
    ______________________________________________
12. Ikaslea naizen aldetik gehien kezkatzen nauena zera da:
    ______________________________________________
13. Ikaslea naizen aldetik gehien atsegin dudana zera da:
    ______________________________________________
14. Ikaslea naizen aldetik zera da gehien gorrotatzen dudana:
    ______________________________________________

15. Ikastetxea...

16. Irakasleak...

17. Irakasgaiak...

18. Eskertzen dut...

19. Ez dago eskubiderik...

20. Estudiatzen segitzeko arrazoiak...

21. Ez nago prest...

22. Nire gurasoek ikas dezadan erraten didate honengatik...

23. Nire irakasleek ikas dezadan erraten didate honengatik...

24. Ikasturte honetan...

25. Ikaskideen artean hau izatea nahi nuke...

26. Besteak hau eginen balute gusturago egonen nintzateke...

*Taldean eztabaidatzeko*

Ondorioak

Zuen artean hitz egin eta jarraian idatzi hemen ondorio interesgarrienak.

Taldeko partaideak:

Ikasle izateak dauzkan alderik positiboenak hauexek direla iruditzen zaigu:

Alde txarrak, berriz, hauexek direla iruditzen zaigu:

Gure ikasle-izaera hobetzeko hauxe proposatzen dugu:

Lan-taldea garenez eta lana elkarrekin egin behar dugunez, hauxe egin nahi dugu:

Lagun-taldea garenez eta lana elkarrekin egin nahi dugunez, hauxe egin nahi dugu...

## H3. Erabakien ondorioak

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleek ideia hauetaz jabearazteko: hartzen ditugun erabakiek beren ondorioak dauzkatela beti. Erabakitzeak zera suposatzen du:

– Libre izatea. Heldutasuna eskatzen du.
– Erabakiak hartzen ikasten den zerbait da, beraz, erabakiak hartzen, ikas dezakegu.

### Prozedura

– Irakurgaia.
– Aztertu kontakizuna.

## Kontakizuna: Miriamen eguna

Miriamek, ohetik jaiki zenean, bazekien ez zela garaiz iritsiko lehenengo klasera. Gauean lagunekin parrandan ibili zen, gurasoen gogoz kontra. Baina gurasoek egina zeukaten "konfiantza-hitzarmena" errespetatu zuten, Miriamek bere erabakiak hartzeko baimena baitzuen.

Miriamek 17 urte zituen, Batxilergoa bukatzen ari zen. Inork ez zuela bere bizitza berak baino hobeto antolatu eta gidatuko sentitzen zuen. Aitari, oihuka, ez zuela gosaltzeko astirik izango esaten zion bitartean, praka bakeroak eta kotoizko alkandora jantzi zituen azkar-azkar.

Juxtu-juxtu iritsi zen ingeleseko klasera; aulkian kuzkurtu eta Unai, bere lagunari, begiratu zion irribarrez. Irakasleak hurrengo egunean ingeleseko azterketa zutela esan zuen, irakurritako eleberriari buruzkoa, hain zuzen ere. Miriami "azterketa" hitza entzundakoan, bihotza taupada biziak ematen hasi zitzaion. Hurrengo orduan kimikako azterketa zuen eta hori ere ikasi gabe zeukan. Bazekien orain zuten ingeleseko errepasoari arreta jarri behar ziola, eleberria ez baitzeukan osorik irakurrita; baina kimikan zer egin erabaki beharra zeukan. Irtenbide bat, Unai, bere lagunari, gau hartan eleberriaren laburpena egin ziezaion eskatzea zen.

Beste aukera batzuk ere aztertu zituen; bat, kimikako klasera huts egin eta bere falta zurituko lukeen ohar bat eskatzea edo irakaslearekin hitz egin eta kimikako azterketa atzera ziezaiola eskatzea. Azken hau ez zuen oso erraza ikusten, ez baitzituen kimikako lanak erregulartasunez eman eta batzuk oraindik ere emateke baitzeuzkan. Beste aukera bat azterketara joan eta zer egiteko gai zen ikustea edo tutorearekin hurrengo ikasturterako asmoei buruz hitz egitea zen; hartara, kimikako klasera ez joatea justifikatuta edukiko luke.

Ingeleseko klasetik atera zenean, Unairekin bazkaltzeko orduan elkartzekotan gelditu zen eta arratsalde hartan elkarrekin ikastea eskatu zion. Unaik irribarre egin eta baietz esan zion. Edozein gauza eskatuta ere, Unaik ez zuen inoiz huts egiten.

Tutorearekin hitz egiterakoan, kimikan izandako kalifikazioarena atera zen; kimikako irakasleak, tutorearekin izandako solasaldi batean, komentatua zion oso zail ikusten zuela Miriamek ebaluaketa gainditzea, eta zein inpresio txarra zuen hartaz, orokorrean. Tutorearen jarrera eta aurpegia erabat aldatu ziren Miriamek ordu hartan bertan kimikako azterketa zuela aipatu zionean.

Eguerdian, Unairekin egon zenean, honek areto nagusira beka eta bestelako laguntzei buruzko bilera batera joan behar zuela gogorazi zion. Eskaerak egun hartan bertan egin behar zituzten eta Miriam, ar-

H

tean, etxean ezer aipatu gabe zegoen, ez baitzekien beka eskaerak emateko epea noiz bukatzen zen. Bilerara joan eta lagun gehienek beka eskaerak prestatuta zeuzkatela ikustean, Unibertsitatera joateko aukera murritzez ohartu zen. Kimika azterketa, beka eskaera, ingeleseko azterketa... Momentu hartan lur jota sentitu zen.

Azkenean, atera zen eskolatik. Saskibaloi-entrenamendura zihoala, lagun batzuekin topo egin zuen bidean eta beraiekin gelditu zen hizketan. Solasaldia zela-eta, berandu egin zitzaion eta aldageletara iritsi zenean, Maite bakarrik zegoen, beste guztiak entrenatzen ari baitziren jadanik. Maitek, Miriam ikusi orduko, azkar-azkar zerbait sartu zuen poltsikoan eta agurrik ere esan gabe alde egin zuen. Miriam lehenbailehen aldatu eta entrenamendura joan zen.

Talde osoa aldagelara itzuli zenean, entrenatzaileak Joneren kartera desagertu izanaren berri eman zien. Jone zuri-zuri zegoen, izan ere, amak emandako diru mordoska zeukan karteran. Entrenatzaileak inork zerbait ote zekien galdetu ahala, banan-banan begiratu zien denei. Une batean Miriami begira gelditu zen, bera izan baitzen azkena aldagelatik ateratzen. Inork txintik esan ez zuenez, denek elkar agurtu eta alde egin zuten.

Miriamek, pentsakor, zer egin ez zekiela, etxerako bidea hartu zuen. Bazekien entrenatzaileak beregan zituela susmoak. Esan egin behar al zion aldagelan sartu zenean Maite ikusi zuela eta honek zer egin zuen? Sinetsiko ote zion entrenatzaileak? Bazekien ezin zutela frogatu berak hartu zuela kartera, ez baitzuen berak hartu; baina entrenatzaileak bera izan zela pentsatzen jarraituko ote zuen? Miriamek errespetu handia zion entrenatzaileari, baina hala ere, Maite salatzea? Beno, gauean aitarekin horri buruz hitz egin ondoren, zer egin pentsatuko zuela erabaki zuen.

Etxera deprimitu samar iritsi zen, eta aita etxean ikusi zuenean, poztu egin zen, normalki berandu etortzen baitzen lanetik. Gainera oso irribarretsu zegoen aita. Honek gaueko saskibaloi-txapelketarako bi sarrera ekarri zituela esan zionean, Miriamen aurpegia piztu egin zen. Hala ere, alaitasunak denbora gutxi iraun zion, bere arazoez gogoratu baitzen. Zer egin behar zuen Unai eta ingeleseko errepasoarekin? Bestalde, oso saskibaloiaren zalea zen eta oso gutxitan joaten zen aitarekin txapelketaren bat ikustera.

Aitak, hain goibel ikustean, azalpen bat eskatu zion eta honek, ia-ia indarrik gabe, Unairekin konpromisoa zeukala esan zion: “Ongi, zure erabakiak zuk zeuk hartu behar dituzu; badakit nori eman diezaiokedan txartela zuk ez joatea erabakiz gero”.

Hau entzun eta Miriam, mantso-mantso, telefonorantz abiatu zen Unairi dei egitera.

## *Ariketak*

Irakurri berri duzun kontakizun honetan, Miriamek zenbait erabaki hartu zuen egun hartan. Lehenagotik hartutako edota atzeratutako erabakien ondorioz, zenbait egoerari ere aurre egin behar izan zion. Ondoren, egun hartan hartutako edo aurre egindako erabaki batzuk azalduko ditugu:

1. Beranduegi iristea institutura, garaiz ez jaikitzeagatik.
2. Ez gosaltzea.
3. Ingeleseko azterketarako errepasoa egiten ez gelditzea.
4. Tutorearekin hitz egitearren, kimikako klasera ez joatea.
5. Unairekin gelditzea ingelesa ikasteko.
6. Beka eta bestelako laguntzei buruzko bilerara joatea.
7. Zer egin garaiz eman ez zuen eskari harekin?
8. Saskibaloi-entrenamendurako bidean lagunekin hizketan gelditzea.
9. Entrenatzaileak Joneren karteraren kontua atera zuenean, Maiteri buruzko ezer ez aipatzea.
10. Zer egin entrenatzailearen susmoak argitzeko?
11. Maite salatu ala ez.
12. Aitarekin saskibaloi-ligako partidura joan ala ez.

*Aurretik hartu eta egun hartan eragina izan zuten erabakiak:*

13. Ingeleseko eleberria ez irakurtzea.
14. Bekarena etxean eztabaidatu gabe izatea.
15. Kimikan lanak egin gabe izatea eta azterketarako ez ikastea.
16. Aurreko gauean lagunekin parranda egin izana.

Talde txikian jarri eta aipatutako 16 erabakien artetik, aukeratu, zuen iritziz, egun hartan Miriamentzat garrantzitsuenak izan ziren 5 erabaki. Idatz itzazue garrantziaren arabera ordenaturik eta azaldu zuen iritziaren arrazoiak.

| *Erabakiak* | *Arrazoiak* |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |

H

## H4. Ikasle bezala dauzkadan hutsuneak aztertuz

### Zertarako erabil daiteke?

1. Ikasleek ikus dezaten gauzak ongi eginez emaitzak hobeak izan daitezkeela.
2. Ikasterakoan hutsuneak dauzkatela ikusteko.
3. Posible den neurrian moldatzeko.

### Prozedura

– Galdetegia erantzun.
– Taldean komentatu.
– Tutorearekin komentatu bakarka.

### Oharrak

Bi eredu daude.

## Ikasten dauzkadan hutsuneak

Nire izena eta abizenak: (Bukatu arte ez jarri, zerorrek ikusiko baituzu tutoreari emanen diozun ala ez): ________________

Zintzotasunez erantzun. Nahi ez baduzu, inork ez ditu zure erantzunak irakurriko. Gurutze batez marka itzazu iruditzen zaizkizun erantzun egokienak (bai, ez, ?).

| *A. Ulermena* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| A1. Ongi pentsatzen dut | | | |
| A2. Abiadura handiz eta zehaztasunez pentsatzen dut | | | |
| A3. Irakasleek agintzen dizkidaten irakurgaiak ulertzen ditudala erran dezaket | | | |
| A4. Orokorrean nire irakasleek ematen dituzten adierazpenak nire ikaskideek baino hobe ulertzen ditut | | | |
| A5. Irakasleek ematen dituzten adierazpenak oso ongi eskuratzen ditut | | | |
| *A. Orokorrean* | | | |

| *B. Ulermena lortzeko erabiltzen dudan metodoa* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| B1. Ulertu dudana besterik ez naiz buruan sartzen ahalegintzen | | | |
| B2. Ulertzen ez ditudan kontzeptuak eta hitzak argitzen saiatzen naiz | | | |
| B3. Idazkietan ideia nagusiak eta besteak ongi bereizten ditut | | | |
| B4. Eskemak eta laburpenak egiten ditut, gauzak logikotasunez ulertu ahal izateko | | | |
| B5. Gauzak ulertzeko, marrazkiak eta grafikoak maiz askotan erabiltzen ditut | | | |
| B6. Edozein ariketa egiten hasi baino lehen erantzunak planteatzen ditut, beharrezkoa bada, aldez aurretik teoria irakurri egiten dut. Normalki ez naiz hasten ongi planteatu ez badut | | | |
| *B. Orokorrean* | | | |

| *C. Zailtasunak argitzerako unean* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| C1. Zalantzak ditudanean, galdetu egiten dut | | | |
| C2. Hiztegia eta entziklopedia erabiltzen ditut maiz askotan | | | |
| C3. Beste urteetan erabilitako liburuetara jotzen dut ongi ikasi ez ditudan kontzeptuak berreskuratzeko | | | |
| C4. Zailtasunak dauzkadanean nire ikaskideei laguntza eskatzen diet | | | |
| C5. Maiz askotan joaten naiz irakasleengana nire zalantzak argitu nahian | | | |
| *C. Orokorrean* | | | |

| *D. Burutzapen praktikoa* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| D1. Gai bat menperatu arte ariketa pila egiten dut | | | |
| D2. Liburuek ekartzen dituzten ariketak egiten ditut neure kabuz | | | |
| D3. Klasean ikasitako gaien erabilpenerako neure kabuz egiten ditut ariketak | | | |
| D4. Itzulpenak egiten ditut neure kabuz | | | |
| D5. Gainditzeko beharrezkoak diren gaiak aurkeztu eta gero beste batzuk aurkezten ditut | | | |
| *D. Orokorrean* | | | |

| *E. Bat-bateko prestakuntza* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| E1. Edukiak errepasatu egiten ditut ongi ikasteko | | | |
| E2. Gauza guztiak ikasten saiatzen naiz, eta ez azterketetan jarriko dutena bakar bakarrik | | | |
| E3. Egunero eramaten ditut gaiak ongi ikasiak | | | |
| E4. Neure kabuz, inork eskatu gabe, eskema txiki bat egiten dut ikasgaia ikasia dudanean | | | |
| E5. Egunero ikasten dut eta ez bakarrik azterketaren bezperan | | | |
| *E. Orokorrean* | | | |

| *F. Adierazteko erraztasuna* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| F1. Idazti bat egiten dudanean argia eta garbia ateratzen dut lana | | | |
| F2. Nire ariketak ordenatu eta garbi dauzkat | | | |
| F3. Hitz egiten dudanean edota aurkezpenak ahoz egiten ditudanean, nire ikaskideek ongi ulertzen didate | | | |
| F4. Idatziz ongi adierazten dut adierazi nahi dudana | | | |
| F5. Ortografia menperatzen dut | | | |
| F6. Hiztegi aberatsa daukat. Euskaraz | | | |
| F7. Hiztegi aberatsa daukat. Gaztelaniaz | | | |
| F8. Adierazteko erraztasuna daukat. Idatziz eta ahoz | | | |
| *F. Orokorrean* | | | |

| *G. Arreta izateko ahalmena* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| G1. Orokorrean kontzentratzen naizela iruditzen zait | | | |
| G2. Irakasleak ematen dituen adierazpenak arretaz segitzen ditut. Distraitu gabe | | | |
| G3. Adierazpenak ematen dizkidatenean, adi egoten naiz eta ez dut aldameneko ikaskideekin hitz egiten | | | |
| G4. Nahiago dut adierazpena ematen didatenean ulertu nire kabuz ulertu behar izatea baino | | | |
| G5. Adi egoten naiz adierazpenak ematen dizkidatenean. Beste gauzetan ez egoten saiatzen naiz | | | |
| *G. Orokorrean* | | | |

| *H. Diziplina* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| H1. Jarrera baikorrak agertzen ditut irakasleen aurrean | | | |
| H2. Ikastetxea gustatzen zait | | | |
| H3. Ez ditut ikasgaiak gorroto | | | |
| H4. Harreman ona dut ikaskideekin | | | |
| H5. Ongi moldatzen naiz irakasleekin | | | |
| H6. Ikasgelan agertzen dudan jarrera baikorra da. Ez didate ongi egon behar dudala esaten | | | |
| H7. Nire jarrerak lan-giroa lortzen laguntzen du | | | |
| H8. Klaseko erritmoa ez dut nire jarrerarekin oztopatzen | | | |
| H9. Ikasten duten ikaskideak errespetatzen ditut. Ez diet “enpollon (ikasnahi)” deitzen | | | |
| H10. Nire ikaskideek ongi ikas dezaten laguntzen dut | | | |
| *H. Orokorrean* | | | |

| *I. Ongi ikasteko giro aproposa* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| I1. Lan egiteko toki aproposa daukat | | | |
| I2. Ikasten hasi baino lehen gauza guztiak antolatzen ditut | | | |
| I3. Ikasten hasi baino lehen denbora kalkulatzen dut | | | |
| I4. Ikasten hasi baino lehen ikasgaiak antolatzen ditut zailtasunak kontuan hartuz | | | |
| I5. Ordutegi finkoa daukat | | | |
| I6. Ez dut ikasten berandu edo nekatuta nagoenean | | | |
| I7. Egunero ikasten dut eta ez azterketa egin behar izaten dudanean bakarrik | | | |
| I8. Ikasten ari naizen bitartean ez dut nire lana mozten behar-beharrezkoa ez bada | | | |
| I9. Nire gorputz osoak ikasten du nirekin, beraz ez nago etzanda edo gaizki eserita | | | |
| I10. Ikasketa zailenetatik hasten naiz eta ez gehien atsegin ditudanetatik | | | |
| I11. Egunerokoa egunero lantzen dut | | | |
| I12. Ikasten ari naizen bitartean ez dago soinu edo arreta galarazten didaten beste gauzarik | | | |
| *I. Orokorrean* | | | |

Nola irakurri emaitzak:

– “Ez” ateratzen bazaizu atal batean: arazo larriak izan ditzakegu.
– “Bai” ateratzen bazaizu, ez dirudi arazo larriak dauzkazunik.
– “?” ateratzen bazaizu, baliteke arazoa izatea.

Behar bada tutorearekin hitz egin beharko duzu. Horrela bada, ez utzi biharko, lehenbailehen egitea komenigarria da.

## Nire hutsuneak ikasterakoan. 2. Galdetegia

| *J. Adimen ahalmenak eta nortasuna* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| J1. Nire iritziz, nire ahalmena ez da nahikoa ikasten ari naizena ikasteko | | | |
| J2. Beste urteetatik hutsune asko daukat, oinarria falta zait | | | |
| J3. Zenbait gauzatako ahalmen txikia daukat | | | |
| J4. Heldu gabea naizela iruditzen zait | | | |
| J5. Barnekoia naiz hagitz | | | |
| J6. Berez alferra naiz | | | |
| J7. Arraro samarra naizela iruditzen zait | | | |
| J8. Urduria naiz | | | |
| J9. Segurtasun falta dut | | | |
| J10. Emozio aldakorrekoa naiz. | | | |
| *J. Orokorrean* | | | |

| *K. Nire familia* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| K1. Mimatua izan naiz | | | |
| K2. Nahi izan dudana egin dut beti | | | |
| K3. Gutxi kontrolatu naute nire gurasoek | | | |
| K4. Nire etxean ez dugu hitz egiten. Komunikazio falta dugu | | | |
| K5. Nitaz gutxi arduratu dira | | | |
| K6. Nire familian gaizki moldatzen gara elkarrekin | | | |
| K7. Erraztasun gehiegi izan ditut | | | |
| K8. Nire familiari ez zaizkio nire arazoak interesatzen | | | |
| *K. Orokorrean* | | | |

| *L. Ikastetxean* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| L1. Ez naute kontuan hartzen | | | |
| L2. Irakasleek nitaz daukaten ideia ez da baikorra | | | |
| L3. Herabea edo konplexuduna izan naizenez, ez dira nitaz konturatu | | | |
| L4. Bidezkoak ez ziren zigorrak ezarri dizkidate | | | |
| L5. Bidegabeko kalifikazio edo notak jarri dizkidate maiz askotan | | | |
| L6. Zail gertatzen zait nire irakasleekin hitz egitea | | | |
| L7. Irakasleek ez didate pertsonalki inoiz lagundu | | | |
| L8. Lagun gutxi daukat ikastetxean | | | |
| L9. Ikaskideek ez didate lagundu | | | |
| L10. Lagun gutxi daukat | | | |
| L11. Bazterturik sentitzen dut neure burua | | | |
| L12. Ez naiz pertsona nabaria. Ezta ikasle nabaria ere | | | |
| *L. Orokorrean* | | | |

| *M. Nire giroa* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| M1. Nire giroak ez dit pozik egoten laguntzen | | | |
| M2. Familia kanpoko giroak kaltetzen nau | | | |
| M3. Nire ekintza jostagarriek ez didate ikasten uzten | | | |
| M4. Nire zaletasunak ezkorrak dira | | | |
| M5. Nire koadrilan ez dago ikasteko girorik | | | |
| *M. Orokorrean* | | | |

| *N. Nire osasuna* | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| N1. Maiz gaixo egoten naiz | | | |
| N2. Maiz buruko minak egoten naiz | | | |
| N3. Maiz zorabiatzen naiz | | | |
| N4. Ez dut goserik | | | |
| N5. Gaizki egiten dut lo | | | |
| N6. Gehiegi nekatzen naiz | | | |
| N7. Nire nortasun-egoera ahula da | | | |
| N8. Ikasten aritzen naizenean begietan hartzen dut mina | | | |
| N9. Ebaluaketetan lepoko mina izaten dut | | | |
| N10. Digestio txarrak izaten ditut | | | |
| *N. Orokorrean* | | | |

Nola irakurri emaitzak:

– Atal batean “Bai” aukerak irabazten badu: arazoa dago. Saia zaitez arazoa aztertzen.
– “?” aukerak irabazten badu: arazoa izan daiteke.
– “Ez” aukerak irabazten badu: arazorik ez.

Arazoa ikusi baduzu, tutorearekin hitz egitea komenigarria da. Ez utzi biharko eta egizu lehenbailehen.

## H5. Baloreak

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleek baloratzen dutena ikasteko.

– Dauzkaten baloreek baldintza ditzakete beraien ikasteko erabakiak.

Beraien burua ongi ezagutzeko.

### Prozedura

– Galdetegi batzuk. Aukeratu behar dira.
– Solasaldiak.
  - Irakaslearekin eta beraien artean.

## Nire helburuak eta proiektuak etorkizunerako

Adieraz ezazu honako helburu edo proiektu pertsonalek zuregan sortzen duten interes edo garrantzi maila, etorkizunean izango duzun lanaren barnean. Helburu bakoitzari dagokion laukitxoan adieraz ezazu “X” batez.

| *Helburuak lanean* | *Garrantzi maila* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | *oso altua* | *altua* | *ertaina* | *baxua* | *oso baxua* |
| Pertsona bezala osatzea | | | | | |
| Nire ezagutzak bilakatu eta zabaltzea | | | | | |
| Familia bat sortu eta mantentzea | | | | | |
| Albait dirurik gehien irabaztea | | | | | |
| Nire buruaren jabe izatea | | | | | |
| Beste pertsonekin harremanak izatea | | | | | |
| Besteen lana zuzendu eta taxutzea | | | | | |
| Ahal den gutxien lan egitea | | | | | |
| Lanean ziurtasuna edukitzea | | | | | |
| Patroiarekin harreman onak izatea | | | | | |
| Lan-giro atsegina izatea | | | | | |
| Besteentzat baliagarria izatea | | | | | |
| Lan interesgarri bat izatea | | | | | |
| Ideia eta gauza berriak sortzea | | | | | |
| Lan artistiko eta ederra edukitzea | | | | | |
| Lan ezberdina eta aldakorra izatea | | | | | |
| Arrakasta nabarmenak lortzea | | | | | |
| Lankide atseginak izatea | | | | | |
| Arlo batean “jakintsu” izatea | | | | | |
| Lasai bizi eta bizitzaz gozatzea | | | | | |
| Kargu publikoren batean aritzea | | | | | |
| Talde batean lan egitea | | | | | |
| Auskalo. Ez dakit ezer | | | | | |

Zeintzuk dira “oso altua” kalifikazioa jaso duten helburuak? Zergatik iruditzen zaizkizu hain garrantzitsuak?

___

Haien artean, zeintzuk dira, zure iritziz, zure bizitzarako baikorrenak eta onuragarrienak? Zergatik?

___

Denen artean zein da gehien baloratzen duzuna? Zergatik?

___

**Lan-baloreak**
(Alvarez Rojok emandako ideiaren ondorioz)

Ariketa erraza duzu hau. Egina duzunean, dituzun baloreei buruz zerbait gehiago jakinen duzu. Honela erantzun behar duzu:

1. Ia-ia ez du garrantzirik.
2. Garrantzi gutxi.
3. Ez bat, ez bestea. Zalantza.
4. Garrantzitsua da nire irudiz.
5. Oso garrantzitsua.

*Zintzotasunez erantzun eta ahal duzun neurrian ez erabili "3".*

*Autoerrealizazioa*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Nire lanak honako hau garatzea nahi dut: | | | | | |
| Sormena | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Norberaren errekurtsoen erabilpena | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Partehartze aktiboa | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Pertseberantzia | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Gauza eta egoeren aurkikuntza eta aurrera eramateko aukera | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Egiteko gauza naizela jakinaraztea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

Batura zati 6 ☐

*Estatusa*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Lanaren bidez lortu nahi dut: | | | | | |
| Miretsia, ezaguna eta onartua izan | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Postu altua lortzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Eragin handikoa izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Jendearen artean ospea izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

Batura zati 4 ☐

*Giroa*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Nik gehien baloratzen ditudan lan baldintzak honako hau eskaintzen didatenak dira: | | | | | |
| Besteek ulertu eta onartzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Ondo antolatutako egoeran egotea, atsegina eta gustukoa | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Lan giro ona edukitzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Lagun giro ona edukitzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

Batura zati 4 ☐

*Arriskua*

| Nire lanak niri honako hau exijitzea nahi dut: | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Zailtasunak gainditu beharra | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Bat-bateko egoera ezezagun eta arriskutsuei aurre egin beharra | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Egoera konpetitiboetan lan eginaraztea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

Batura zati 3: ☐

*Askatasuna*

| Nire lanean honako hau aurkitu nahi nuke: | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Independentzia, inoren mende ez egotea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Autodeterminazioa, nire kabuz gauzak erabakitzeko ahalmena izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Besteenganako ezberdintasuna | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Mugitzeko askatasuna, arau zehatzetara lotuta ez egotea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Indibidualismoa, bakarrik lan egitea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

Batura zati 5 ☐

*Nire ogibide eta lanaren bitartez etorkizunean lortu nahi dudana honelaxe deskriba dezaket*

**Baloreak**
Cordobako EPOEk emandako ideiaren ondorioz

Gizaki guztiok bizitzan printzipio eta arau batzuen arabera jokatzen dugu, zeintzuk erreferentzia gisa baliagarri suerta dakizkigukeen gertakizunen aurrean jarrera bat hartu eta horren arabera jokatzeko. Baloreak deiturikoak ditugu. Hauek jendearen bizitzaren estiloa zehazten dute. Baina guztiok ez dugu balore berdinen arabera jokatzen eta, gainera, balore bakoitzari ez diogu garrantzi bera ematen. Gizaki bakoitzak konturatu gabe sortzen du bere baloreen hierarkia, batez ere hartzen duen heziketaren eraginez eta bizi den gizartearen eraginez. Hurrengo ariketa honek zure bizitza gidatu eta orientatzen dituzten baloreak aurkitzen lagunduko dizu. Horretarako baloratu esaldi bakoitza ondorengo irizpideen arabera:

1. Ez nago batere ados.
2. Ez nago ados.
3. Zalantzan.
4. Ados.
5. Erabat ados.

1. Esanak esan, bakoitzak dituen diru eta gauzek neurtzen dute gizakien arrakasta ☐
2. Garrantzitsua deritzot arrakasta izateko edo zerbait lortzeko gauzak egiteari ☐
3. Batzuetan, ekidinezinak izan arren, nire bizitzako arrisku guztiak uxatzen saiatzen naiz ☐
4. Herrialde honetan gehiegi sakondu da gizaki guztion berdintasunaren gaia ☐
5. Aurrera egin ez duten pertsonek ez diote sistemari errurik bota behar, nork bere buruari baizik ☐
6. Ez du merezi ikasten jarraitzeak horrek bizitzan aurrera egiten lagunduko ez badigu ☐
7. Bizitza honetan inork ez dizu ezer oparitzen. Gauzak nahi badituzu, borrokatu egin behar duzu ☐
8. Umeak aita eta amarekin bizi behar du zoriontsu izateko ☐
9. Bizitzan gure izaera eta ekintzak gidatuko dituzten sineskeriak onartu beharra ditugu erlijiosoak edo beste mota batekoak, nahiz eta arrazonamendutik at egon ☐
10. Inor edo ezer epaitu aurretik alderdi guztiak zehatz-mehatz arrazonatu behar dira ☐
11. Gaur egunean dugun bezalako mundu aurreratu honetan, ezin da bizi libertate zehatz batzuk gabe, baina onartu beharra dago sarritan, askatasun horiek eten egin behar direla guztion onerako ☐
12. Hobe da etorkizunari begira egotea baino oraina bizitzea ☐
13. Neronen nortasuna garatzeko eta azaltzeko bitarteko eta erak aurkitzea da etorkizunerako interesatzen zaidana ☐
14. Ez dut nahi inork nire bizitza planifikatzerik; nik neuk zainduko dut nire burua, garrantzitsua baita niretzat ☐

15. Zientzia eta teknologiaren garapenak bakoitzari askatasun gehiago eta bizimodu hobeagoa emanen dizkigu ☐
16. Batzuetan ezinbestekoa da biolentzia erabiltzea, bestela ez dizute kasurik egiten ☐
17. Noizean behin giroa eta lagunak aldatzea eta jende berria ezagutzea beharrezkoa dut ☐
18. Bakoitzak askatasun osoa izan behar du bere sexualitateaz eragozpenik gabe gozatzeko ☐
19. Bizitza honetan ezinbestekoa da helburu batzuk edukitzea eta oinarrizko baloreen eskala bat gidari izatea ☐
20. Etorkizunean nolanahiko pasio handiak bizitzea gustatuko litzaidake ☐
21. Nire gainean daudenek dauzkadan hutsen berri eman eta akatsak nola zuzendu behar ditudan esatea gustatzen zait ☐
22. Lan arazoak nola dauden ikusita, gaur egun hobe enpresari onak egotea artista onak baino ☐
23. Gogor lan egiteak ez du arrakastarik ziurtatzen ☐
24. Ez dira gauzak datozkigun bezala onartu behar, errealitatea aldatu behar da onerantz ☐
25. Eguneroko gauza eta objektuak diseinatzeak funtzionalagoak eta praktikoagoak egiteko izan behar du, ez ordea, edertzeko ☐
26. Beharrezko ikasketa edo lan minimoa egin ondoren, ahalik eta hobekien pasatzea izan behar da kezka bakarra ☐
27. Daramagun bizitza artifizialegia da; berriro naturaren legeen arabera bizi beharra dago: produktu naturalak kontsumitu eta abar ☐
28. Erabaki bat behin hartuz gero, zail da aldatzea ☐
29. Garrantzitsuena momentu honetan eta hementxe gertatzen ari dena da, ez, ordea, etorkizuna ☐
30. Idealena legerik, autoritate eta araurik gabeko mundua litzateke ☐
31. Gauza asko izateak ez du horrenbesteko garrantzirik (gastatzeak eta abar), baizik eta norbere buruarekin ondo sentitzeak, norbere larrupean ondo sentitzea ☐
32. Bizitzan etorkizuna sortzen joateko sakrifizioa ezinbestekoa da ☐
33. Beharrezko den gauza oro egin behar da gizartean mundu guztiak aurrera egiteko aukera desberdinak izan ditzan ☐
34. Ondo legoke mundu berriak ezagutzea, espazioan badira ere ☐
35. Bizitza honetan hobe norbere burua zaintzea, zeren ezin baita inoren laguntzarik espero ☐
36. Neurriak hartu beharko dira gure lurraldean langile atzerritarren sarrera kontrolatzeko ☐
37. Arazoak errazago konpontzen dira gorengo autoritate arduradunen erabakien arabera aldeen arteko elkarrizketarekin baino ☐
38. Makina automatiko, robot eta ordenagailuen mundu honetan imajinazio, amets eta fantasiazko mundua errebindikatu behar ditugu ☐

Hartu orain bost puntu jarri dizkiozun aukerak eta taula aztertuz, laburtuta aurkituko duzu hitz gutxitan zure giza baloreen hierarkia izan daitekeena. Zer iruditzen zaizu? Ados zaude?

1. Boterearen materialismoa. Zenbat eta gehiago eduki hobe ☐
2. Arrakasta izateko motibazioa ☐
3. Pasibotasuna. Arriskuaren kontrakoa ☐
4. Berdintasunaren kontrako jarrera. Elitismoa ☐
5. Konformismoa ☐
6. Atzerapena. Ihesa ☐
7. Ahalegina ☐
8. Diziplina, egonkortasuna, tradizioa... ☐
9. Transzendentzia ☐
10. Arrazionalismoa, zuhurtasuna ☐
11. Diziplina, ordena, murritzaldia ☐
12. Unea bizi ☐
13. Indibidualismoa, autonomia, norberaren baieztapena ☐
14. Autodefentsarako indibidualismoa. Liberalismoa ☐
15. Teknologia. Utopia zientifikoa ☐
16. Biolentzia ☐
17. Dinamismoa. Aldaketa ☐
18. Norbere askatasun pribatua ☐
19. Printzipioak eta baloreak ☐
20. Sinbolismoa. Bihotz eta hunkipenen garrantzia ☐
21. Arauen jarraipena ☐
22. Pragmatismoa ☐
23. Lanaren gutxiespena; desesperantza ☐
24. Erreformismoa ☐
25. Pragmatismo funtzionalista ☐
26. Hedonismoa ☐
27. Naturalismoa ekologikoa ☐
28. Monolitismoa ☐
29. Gaur egunkeria. Etorkizunak ardurarik ez ☐
30. Akrazia, liberalismoa ☐
31. Norberaren oreka eta garapena. Esentzialismoa. Izatea garrantzitsuagoa edukitzea baino ☐
32. Diziplina. Lasaitasuna alboratu ☐
33. Berdintasuna. Solidaritatea. Lankidetasuna ☐
34. Abenturazaletasuna ☐
35. Norberekeria ☐
36. Arrazakeria ☐
37. Autoritarismoa. Hierarkia ☐
38. Sinbolismoa. Fantasia ☐

## H6. Institutura etorri beharra aztertzeko materiala

### Zertarako erabil daiteke?

Ez etortzeak gertatzen direnean, posible den neurrian gutxitzeko.

Afera honetan ikasleen partaidetza lortzeko.

Egiten diren hutsegiteak gutxitzeko. Posible den neurrian arazo hau ez izateko.



### Prozedura

Nola bideratzen dugu:

– "Kikoren istorio" desberdinak irakurriko dituzte taldeka. Talde bakoitzak istorio bat irakurriko du. Galdera batzuen erantzunak idazten dituzte.
– Taldeek ez dute beste taldeen lana ezagutzen. Bateratze lana egin arte ez dituzte besteen istorioak ezagutu behar.
– Bateratu eginen dira galderak eta erantzunak.
– Debatea antolatuko dugu gero.
– Bukaeran institutuko arautegia argi gelditu behar da.

### Oharrak

Hemen istorio batzuk ageri dira. Zuk, tutore zaren aldetik, beste baten bat erraz asma dezakezu. Talde bakoitza mundu bat da, tutoreak ikusiko du nola bideratzen den saioa.

## 1. Kikoren istorioa

Madrilgo Institutu bateko ikaslea dugu Kiko. DBHko 4. maila egiten ari da. Ongi moldatzen ari da, nota onak ateratzen ditu normalki. Dena den kurtsoko lehen hiruhileko honetan lanpeturik dabil eta horrenbesteko teoriaz nekaturik dago. Berak erraten duenez nekatuta dago.

Joan den asteko ostegunean “piper” egin zuen eta lehenengo hiru klaseetara ez zen joan, lehenengo orduan lotan gelditu zen eta gero ez zuen joateko gogorik izan.

Bere tutorea berria da, lana atsegin duen horietako bat da eta, bere ikasleek erraten dutenez, “guai” da. Tutore honek zera pentsatzen du: ikasleak helduak dira, beraz beraiek badakite noiz joan behar duten klaseetara eta noiz ez. Ideia honetan oinarriturik ez ditu faltak kontrolatzen eta ez die gurasoei horretaz ezer kontatzen. Jarrera hau hagitz egokia iruditzen zaie ikasleei. Irakasleak errespetu handia diela pentsatzen baitute.

Baino aste honetan gurasoen ordezkariak kexa azaldu du eskola-kontseiluan. Dirudienez Hezkuntza ikuskaritzak parte hartu beharko du. Legea ez da behar den bezain ongi bete.

Tutoreak hausnartzen ari da bere jarrera.

a) Tutorearen jarrera egokia iruditzen zaizue?

b) Zer egingo zenukete haren lekuan bazeundete?

c) Zer egingo zenukete Kikoren ama edo aita bazinete?

## 2. Kikoren istorioa

Madrilgo Institutu bateko ikaslea dugu Kiko. DBHko 4. maila egiten ari da. Normalki ikasle atsegina eta langilea, baino urte honetan galdu samar dabil.

Lehenengo bi orduetan faltatzen ari da egunero. Irakasleriak gurasoei parte eman die eta hauek haserre galanta eman diote. Zigor gisa bi asteburu etxetik atera gabe, telebista ez ikustea eta bi astez dirurik gabe gelditzea ezarri diote.

Kikok uste du tutorea behar ez den tokian sartu dela, errespetu falta dela iruditzen zaio. Dagoen egoera ez zaio batere gustatzen, beraz haserre dago.

a) Tutorearen jarrera egokia iruditzen zaizue?

b) Zer eginen zenukete haren lekuan bazeundete?

c) Etxean gertatu zen haserrealdi galanta. Norena da errua? Tutorearena? Familiarena?...

### 3. Kikoren istorioa

Madrilgo Institutu bateko ikaslea dugu Kiko. DBHko 4. maila egiten ari da. Normalki ikasle atsegina eta langilea, baina urte honetan galdu samar dabil. Egun hauetan beste ikastetxeko neska mutilen koadrila ezagutu du eta klaseetara faltatzen hasi da.

Ikastetxeko arautegia ez dago garbi eta hutsuneak edo faltak ez dira behar den bezain ongi kontrolatzen.

Atzo, etorbidetik paseatzen, koadrila bultzaka zebilen txantxetan. Halako batean Kiko galtzadara erori zen eta zetorren moto batek kolpatu zuen. Zorionez motoak balaztatzen zihoan semaforo batera hurbiltzen ari baitzen. Istripuaren ondorio bakarra eskumuturra apurtzea izan zen.

Kikoren ama, bere abokatuak lantokira deitu zutenean, ikaratu egin zen eta ezin zuen sinetsi, bere semea klasean zegoela erraten baitzuen.

Kikoren gurasoek Institutua salatu dute, ikaslearen hutsuneen berri ez emateagatik. Gurasoek klasean zegoela pentsatzen zuten eta beraiek ezer jakin gabe kalean zebilen.

a) Nor da istripuaren erruduna?

b) Ongi jokatu du institutuak?

c) Zer eginen zenukete?

## H7. Irakasgai gogokoenak*

### Zertarako erabil daiteke?

Irakasgai gogokoenak, atseginak izatea zerk egiten dituen hausnartzeko.

### Prozedura

- Ariketa hau bakarkako bi eta taldeetan egin beharreko beste bi lantxoz osatuta dago.
- Lehenengo bakarkako lanean ikasleak gustukoen dituen irakasgaien zerrenda bat osatuko du.
- Ondoren eta talde txikitan, irakasgai gogokoenak izatea zerk egiten dituen, esaldi bakar batean laburtzen saiatuko dira.
- Talde handietan eztabaidatu ondoren, ikasle bakoitzak galdetegi bat erantzunen du.

*Prestaketa:*

- Lehenengo talde-lana zein taldetan burutuko den zehaztu.
- Ariketaren helburuak laburki azaldu
- Argibide eta galdetegien orriak banatu.

Batez besteko burutze-denbora: 45 minutu.

*. *Guía de Orientación, actividades de tutoría y orientación para el ciclo superior*. Nafarroako Gobernua. 85.

## Irakasgai gogokoenak

Izen-abizenak: ______________________________ Data: ________________

1. *Bakarkako lana*

Egin ezazu gehien gustatzen zaizkizun irakasgaien zerrenda bat, lehentasunaren arabera goitik behera ordenatuz (3 minutu dituzu. Bukatzen duzunean, elkar zaitez zure lan-taldearekin)

| | |
|---|---|
| | 3 puntu |
| | 2 puntu |
| | puntu 1 |

2. *Taldekako lana.*

– Egin ezazue bakarkako lanean idatzi dituzuen irakasgai guztien zerrenda.
– Egin ezazue irakasgai bakoitzak lortutako puntuen batuketa.
– Asma ezazue puntu gehien lortu dituen irakasgaia zergatik den atsegina adierazten duen esaldi labur bat.
– Izenda ezazue esaldia arbelean idatziko duen idazkari bat.

10 minutu dituzue.

3. *Taldekako lana.*

– Talde bakoitzeko idazkariak klase osoari azalduko dio idatzi duen esaldia.
– Eztabaidatu arbelean idatzitako esaldiak talde handitan (klase osoa izan daiteke).

4. *Bakarkako lana*

Erantzun ezazu galdetegi hau

a) Suposa ezazu hiruhilabeteko batean zehar irakasgai bakarra ikasi behar duzula. Bakoitzak gustukoen duena aukera dezake. Zein hautatuko zenuke?

b) Idatz ezazu ikaskide bati zer esango zeniokeen, zuk aukeratu duzun irakasgai bera har dezan.

c) Hautatu dudan irakasgaia honengatik gustatzen zait:

| | *Bai* | *?* | *Ez* |
|---|---|---|---|
| Eskolaz kanpo ere balio duten gauzak ikasten direlako | | | |
| Irakaslea asko gustatzen zaidalako | | | |
| Bertan ikasten dena ikasten jarraitzeko baliagarria izango delako | | | |
| Hau ikasten eta ariketak egiten oso ongi pasatzen dudalako | | | |

H

## H8. Jakintzagai gogokoenak

*Guía de Orientación, actividades de tutoría y orientación para el ciclo superior*. Nafarroako Gobernua. 85

### Zertarako erabil daiteke?

Irakasgai gogokoenak atseginak egiten dituzten ezaugarriez hausnarketa egiteko.

### Prozedura

– Ariketa hau, role playing edo antzezpen batean datza.
– *Prestaketa*: Irakasleak, irakasgaien ordezkari izango diren hamar ikasle (jakintzagaien arabera) hautatuko ditu. Nork bere abantailak defendatu beharko dituenez, komenigarria litzateke aukeratutako ikasleak dagokien irakasgaia ondo eramatea. Halaber, lotsatiegiak ez diren ikasleak aukeratzea komenigarria da. Komenigarria da ikasleak behar adinako aurrerapenaz aukeratzea, eztabaidan plazaratuko dituzten argudioak egokiro prestatu ahal izateko.
– *Antzezpena*: Egoera hurrengoa da: irakasgaiak, klaseak osoturiko epaimahai baten aurrean bilduta daude. Guztien arteko eztabaida sortzen da: gainerakoen erasoen aurrean, bakoitza bere abantailak eta erabilgarritasunak defendatzen saiatuko da. Eztabaida hau 30 minutuz luza daiteke gehienez. Bukatzean, klaseak bere epaia emanen du.
– *Idazlana*: Epaia bakarkako idazlan baten bidez plazaratuko da. Bertan, ikasle bakoitzak gehien gustatzen zaion irakasgaia zein den adieraziko du, bere arrazoiak azaldurik. Idazlan hau burutzeko emango zaien denbora 25 minutukoa izanen da.
– *Bozketa*: Antzezpen-jokoa osatzeko, idazlana bukatutakoan, bozketa bat egin daiteke: eskua altxatuz bozkatuko da gehiengoaren irakasgairik gogokoena.

## H9. Nire kalifikazioen gaineko hausnarketa

*Guía de Orientación, actividades de tutoría y orientación para el ciclo superior*. Nafarroako Gobernua. 85

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleek, beren egungo egoeraz hausnartzeko, beraien istorio akademikoan oinarrituz.

H

### Prozedura

– Irakasleak "Pedroren istorioa" irakurriko du.

Irakurketa honen ondoren, ikasle bakoitzak norberari buruzko idazlana egingo du, ikaslearen fitxan zehazten diren puntuak azpimarratuz. Ariketa hau hirugarren ebaluaketan burutuko da.

### Pedroren istorioa

Pedro, DBHko 2. mailako ikasle bat da. Lehen Hezkuntzako 4. maila arte Bilboko eskola batean ikasi zuen, izugarri nota onak ateratzen zituelarik. “*Enpollonetakoa*” zen ia, ia.

Lana zela-eta, aitak Nafarroara etorri behar izan zuen eta Pedro gure eskolan agertu zen behin.

Hasieratik oso lagunak egin ginen: elkarrekin ikasten genuen eta mailak gaindituz gindoazen.

6. mailara iristean, Pedroren notak jaisten hasi ziren. Afera honek haserrarazi zuen, berak dezente ikasten jarraitzen baitzuen. Jakintzagaiak zailagoak zirela zioen. Lehen Hezkuntza bukatzerakoan, Ingurugiroa eta Gaztelania gainditu gabe geratu zitzaizkion.

DBHko lehen mailan hasi ginenean, apur bat beldurtu zen. Irakasgai batzuk oso zailak iruditzen zitzaizkion eta gainditzeko gaizki ibiliko zela pentsatzen zuen. Hasieratik gauzak oso serio hartu zituen.

Lehenengo eta bigarren ebaluaketetan nahiko ongi ibili da. Gaztelania gainditu du (beldurrik handiena ematen ziona) eta honek asko animatu du.

Orain 3. ebaluaketan dago. Ez daki zer gertatuko den. Kurtso bukaerak kezkatu egiten du, irakasleek gero eta lan gehiago agintzen baitituzte.

Aurrekoan lanaz eta lankideez hitz egin zuten klasean. Pedrori informatikoa izatea gustatuko litzaioke, bere aita ere halaxe izanik, baina oraindik ez du oso argi.

### *Idazlana*

Saia zaitez Pedroren antzekoa baina zeuri buruzko istorioa egiten. Kontuan hartu, istorio honetan honakook sartu behar dituzula:

- Ikastetxe-aldaketak, izan badituzu.
- DBHren hasiera.
- Nola ikusten dituzu irakasgaiak.
- Non aurkitzen dituzu zailtasunik handienak eta non txikienak.
- Gogoratu zer egitea gustatuko litzaizukeen.

Idazlanaren izenburua: “Nire istorioa”.

## H10. Nola erabaki

### Zertarako erabil daiteke?

Egunero erabakiak hartzen ditugula pentsatzeko.

Erabakitzeak zera suposatzen du:

– Libre izatea. Heldutasuna eskatzen du.
– Erabakiak hartzen ikasi egiten da. Ariketa hauekin ikasi egin nahi dugu.
– Beste aldetik erabaki batzuek ez dute inolako garrantzirik. Beste batzuek, aldiz, garrantzi handia dute. Erabaki guztiek daukate beren ondorioa.

### Prozedura

– Irakurgai txiki bat.
– Bi galdetegi.
– Elkarrekin honetaz hitz egitea.

## Nola erabaki. Zer da erabakiak hartzea. Erabakian balore erlatiboa

*Sarrera*

Aliziak, Lurralde zoragarrian zein bide jarraitu erabaki nahian zebilenean, honela galdetu zion Cheshire, bere katuari:

– Esango al zenidake, mesedez, zein bidetatik jo beharko nukeen?

– Segun eta nora iritsi nahi duzun –esan zion katuak.

– Ez dit gehiegi axola “nora” horrek –esan zion Aliziak.

– Orduan berdin da edozein bide hartzen duzula ere –esan zion katuak.

Nora joan axola ez bazaizu, orduan ez du garrantzirik egiten duzun aukeraketak. Baina nora zoazen inporta bazaizu, eta non dagoen baldin badakizu, orduan errazagoa izango zaizu aukeratzea.

Zein bide hartu erabakitzeak, aurretik norberak nora joan nahi duen jakitea eskatzen du.

*Erabakien garrantzi erlatiboa*

Denok hartzen ditugu erabakiak egunero. Erabaki batzuk besteak baino garrantzitsuagoak dira. Batzuek, bere garrantzi eta erabakigarritasunagatik, aztertzea eta sakontzea eskatzen dute; beste batzuk, ordea, ia-ia automatikoki hartzen ditugu. Erabakiak honako kategoria hauetan bana ditzakegu segun eta nola hartzen diren:

0. Besteek hartutako erabakiak; geure kontrolpean ez daudenak.
1. Ohiturazko erabakiak, ia automatikoak direnak. Ez dugu hauetan pentsatu ere egiten.
2. Hartu aurretik, pixka bat pentsatzeko erabakiak.
3. Pentsatu bai baina gehiegi hausnartu gabekoak.
4. Aztertu, pixka bat pentsatu eta beste norbaiti galdetzen diogu erabaki baino lehen.
5. Asko aztertu eta pentsatzen dugu. Erabaki baino lehen galdetu eta ikertu egiten dugu.

*Ariketa. Ohiko erabakiak*

Ondorengo ariketan, edonork hartu behar izaten dituen 15 erabakiz osatutako zerrenda bat aurkituko duzu. Zerrenda osoa irakurri eta eskuineko zutabean, zure ohiko erabakiak hartzeko erarekin bat datorren kategoria –0, 1, 2, 3, 4, 5– erabiliz adierazi. Agertzen diren erabaki hauetakoren bat zure egoerari ez badagokio, zurian utzi.

| *Ohiko erabakiak* | *Kategoria* |
|---|---|
| 1. Goizean jaikitzea | |
| 2. Etxerako lanak ez egitea | |
| 3. Egia esatea | |
| 4. Lagun bati buruz gaizki hitz egitea | |
| 5. Taberna batera sartu eta zerbait edatea | |
| 6. Oporretan lan egitea | |
| 7. Tabakoa erretzea | |
| 8. Piper egitea | |
| 9. Etxeko zaborrak nora atera nahi ditugun | |
| 10. Semaforo bat gorri dagoenean, kalea gurutzatzea | |
| 11. Egunero dutxatzea | |
| 12. Egunero eskolara joatea | |
| 13. Kirol bat egitea | |
| 14. Jaungoikoan sinestea | |
| 15. Zein pelikula ikusi nahi duzun | |
| 16. Zein liburu irakurri nahi duzun | |



Orain, gogora itzazu joan den astean edo joan den hilabetean zeuk hartutako erabaki batzuk. Saia zaitez honako esparru hauekin zerikusirik duten erabakiak aukeratzen:

– Norbanako edo gizarte erabakiak.
– Osasun eta segurtasunarekin harremana duten erabakiak.
– Ikasketa edo lanarekin zerikusia duten erabakiak.
– Erabaki etiko edo moralak.
– Eguneroko ohiko erabakiak.

Ondoko eskala erabiliz (lehen erabili duzun berbera), idatzi zure zerrendako erabaki bakoitzari dagokion kategoria:

0. Ez dago nire esku.
1. Automatikoa.
2. Pixka bat pentsatu dut.
3. Pentsatu dut, baina ez dut gehiegi hausnartu.
4. Zertxobait hausnartu dut.
5. Asko aztertu dut.

| *Neuk hartutako erabakiak* | *Kategoria* |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |

Atera itzazu orain ondorioak: Zein erabaki hartzen duzu? Zein garrantzi dute erabaki horiek? Asko ala gutxi hausnartzen dituzu?

## H11. Gizarte-harremanak. Lagunak

### Zertarako erabil daiteke?

Eskolako eta eskolaz kanpoko pertsonen arteko harremanak teorikoki aztertzeko.

### Prozedura

*Ariketa*: “Lagunak edukitzearen garrantzia”ren gaineko mahai ingurua.

*Ariketaren garapena:*

- Bost ikaslek, bata bestearen ondoren hitz egingo dute mahainguruko gaiaz, entzuleria izanen den klasearen aurrean. Bakoitzak, gaiaren alderdi bati buruz duen iritzia azalduko du.
- Idazkari edo moderatzaileak, mahaiko partaideak aurkeztuko ditu; hitza emango du, eta solasaldi denbora errespetaraziko du.
- Moderatzaileak berak, botatzen diren ideiarik garrantzitsuenak idatziko ditu eta bukaeran, aztertu diren alderdi desberdinen laburpena eginen du.
- Bigarren zatian taldeak, galderak, iruzkinak, argitu beharreko zalantzak eta abar zuzenduko dizkio mahaiari, beti ere, moderatzailearen zuzendaritzapean.

*Prestaketa*

- Mahaingurua 15 egun aurretik egin, hizlariak izango diren bost ikasle aukeratuko dira. Komenigarria da hizketarako erraztasuna dutenak eta eztabaida eta joko dialektikorako joera dutenak izatea.

– Hizlari edo moderatzailea ere aukeratuko da. Ikasle bakoitzak, irakasleak ematen dion gidoiaren arabera prestatu beharko du bere txostena. Horretarako ikaskide batzuk aukera ditzake aholkulari gisa.

*Materiala*

Txostenak egiteko gidoiak:

1. Lagunen hautaketan eragina duten alderdiak. Lagunak aukeratzerakoan, kontuan hartzen diren irizpideak. Zein nolakotasun bilatzen diren lagunengan. Zertara behartzen zaituzten eta zer ematen dizuten lagunek.
2. Adiskidetasunak beste harreman-mota batzuekiko (guraso, neba-arrebak, senar-emaztegaiak, eta abar) dituen abantaila eta eragozpenak.
3. Sexu bereko eta sexu desberdinetako lagunak. Zeintzuk diren ohikoagoak 13-14 urtetan eta zergatik. Zein abantaila dituzten batzuek eta besteek. Beste sexuko pertsonekiko harremanetarako oztopoak.
4. Familiaren eragina lagunekiko harremanetan: debekuak, oztopoak, eta gurasoen beldurrak. Gurasoek noiz errazten dituzten eta noiz oztopatzen seme-alaben lagunekiko harremanak.
5. Adiskidetasuna errazten duten aktibitateak. Zein egoera dira onak lagun minak edo lagun onak egiteko.

*Batez besteko denbora*

– Bost minutu txosten bakoitzarentzat: Guztira 30 minutu.

30 minutu eztabaidarako.

# I. Ikasturtearen hasieran egin ditzakegun gauzak

## Zera lantzen dugu

Ikasturtea martxan jartzeko iradokizunak, ariketak eta dokumentuak.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| I1 | Ikasturteko lehenengo eguna. | DBH | | Tutorearentzat |
| I2 | Ikasleentzako inkestak. | DBH1, 2, 3, 4 Batx1, 2 | Lehenengo eguna | Tutorearentzat |
| I3 | Klaseko logotipoa egiten. | DBH1, 2, 3, 4 | Lehenengo eguna | Tutorearentzat |
| I4 | Ikasleek matrikula egin behar dutenean jakintzagaien informazioa. | DBH LH | Aurretiko izen-ematea egin behar denean | Tutorearentzat LHko tutoreentzat |
| I5 | Ikasturtea ongi hasteko ariketak | DBH1, 2, 3, 4 | Tutoretzan | Tutorearentzat |
| I6 | Talde batzuekin ikasturtearen hasieran inbentarioa egitea komenigarria da. | DBH eta Batx. | Lehendabiziko eguna | Tutorearentzat |
| I7 | Talde batzuekin komenigarria da araudi propioa egitea. Hona hemen ideia. | DBH1, 2, 3, 4 | Ikasturtearen hasieran | Tutorearentzat |
| I8 | Tutoretza planaren aurkezpena | DBH3, 4 | Ikasturtearen hasieran | Tutorearentzat |
| I9 | Ikasleek beraien ordutegi pertsonalak egiteko laguntza. Ikasteko ohiturak lantzen ditugu. | DBH1, 2, 3 | Ikasturtearen hasieran | Tutorearentzat |
| I10 | Ikasturtearen hasia dagoenean, ikasleria nola dagoen ikusteko saioa. | DBH1, 2, 3, 4 | Ikasturte hasi eta hilabete bat geroago | Tutorearentzat |

## I1. Ikasturteko lehenengo eguna

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasturteko lehenengo egunean, lehendabiziko saioan egin daitezken ariketak.

### Prozedura

Azpian.

## DBH. Lehen zikloa

*Sarrera*

Ikasleak mailaka areto nagusian sarraraziko dira beren tutoreak izango direnekin batera.

Hasierako harrera eta ongi etorri aurkezpenak zuzendariak eginen ditu. Jarraian, ikastalde bakoitzaren tutoreak zerrenda (4. eranskina) irakurri ondoren, dagokion ikasgelara joanen dira.

*Gelan*

0. Eser daitezela banaka zerrendaren arabera (tutoreak erabakia hartuko du).
1. Tutorearen eta ikasleen aurkezpena.
   – Tutorea, ardura hori edukitzeaz gain, arlo bateko irakaslea da.
   – Lehen mailako gauzak: tutorearen izena eman. Ikasleek beren burua aurkeztu dezatela: nor naizen, nondik natorren, zer den gustatzen zaidana, zer den Bigarren Hezkuntzatik espero dudana...
   – Tutorearen eginkizuna aurkeztu. *Zeure burua eskaini laguntzaile gisa*. Lehen mailako ikasleak ez ditugu beldurtu behar, animatzea da gure helburu.
   – Tutoretza eskola-ordua noiz.
   – Zer egiteko asmoa dagoen ordu horretan. (1. eranskina).
   – Gurasoekin egoteko ordua noiz. Nola jarri harremanetan zurekin.
2. Materiala.
   – Ekarri beharreko gauzak (kontuan hartu irakasle bakoitzak bere arlokoa geroago egingo duela).
   – Gelan uzten ahal dituzten gauzak.
3. Bigarren Hezkuntzak dauzkan zailtasunak.
   – Ongi antolatu behar.
   – Irakasle aunitz, bakoitzak bere lana bidaltzen du.
   – Bigarren mailatik hirugarrenera pasatzeko ezin dira bi arlo baino gehiago gainditu gabe utzi.
4. Bigarren Hezkuntzak dauzkan abantailak:
   – Lagun berriak egiteko aukerak.
   – Rol berria betetzeko aukera.
   – Ordutegia goizez bakarrik.
5. Egutegia (2. eranskina)
   – Adierazi eta kortxoan atxiki.
6. Behin behineko ordutegia (3. eranskina).
   – Adierazi, arbelean idatzi eta gero kortxoan atxiki.
7. Klase emango duten irakasleen izenak (4. eranskina)

8. Ikasleen zerrenda (5. eranskina)
   - Helbidea eta telefonoa ziurtatu.
   - Izena, abizenak, jaiotze-data... egiaztatu.
   - Aukerakoak ziurtatu.
   - Akatsak izatekotan, zuzendu idazkaritzan.
9. Garraioa (6. eranskina)
10. Arauak eta gomendioak. Irakasle-taldea aldez aurretik ados jarri da.
    - *Puntualtasuna. Hutsegiteak.*
      - Zentrotik ateratzeko baimena aurkeztuko dute.
      - Sarreran eta jostaldia amaitzean bi txirrin-soinu izango dira. Lehendabizikoarekin gelara joan daiteke, aurretik, ez.
      - Puntualtasuna: bigarren txirrinak jo orduko gelan egon behar da. Ikastetxeko atea __________etan ixten da. Atsedenaldia bukatuta ere itxiko da atea__________etan.
      - Aurrerago azalduko zaie nola justifikatu behar diren ez-etortzeak.
    - *Gelan*.
      - Hitz egiteko txanda errespetatu, hasieratik ohitura sortu
      - Ez erabili takoak, biraoak, irainak... Saia gaitezen atseginak izaten!
      - Egin euskaraz.
      - Ez jan gelan.
      - Ez atera gelatik txirrinak jo baino lehen.
      - Azken saioaren amaieran utzi aulkia mahai gainean.
      - Ez ibili gelaz gela material eske, bakoitzak berea ekarri behar du-eta.
      - Etxeko lana egiteko behar ez duten materiala gelan gordeko dute.
      - Esertzeko modua.
      - Gelako arduradunak izendatuko dira (arbela, pertsianak, agenda).
      - (Aurrerago egingo da, geure artean hitz egin behar baita).
      - Garbitasuna.
      - Gela ordenatuta egongo da
    - *Klase arteko tarteak eta pasabideak.*
      - Klase aldaketetan pasabidera ez atera
      - Klaseen artean ez da komunera joango, beharrezkoa bada irakasleari baimena eskatuko zaio.
    - *Etxean egin behar den lan pertsonala.*
      - Egunero gutxienez ordubeteko lana (irakasle-taldeak adostu) egin behar da etxean, lan ohiturak finkatzeko eta ikas teknikak praktikatzeko.
11. Ikastetxeko planoa (7. eranskina) (Tutoretza saioaren amaieran, ona izanen da bide eta areto garrantzitsuenak erakustea)
12. Kurtso hasierako inkesta (8. eranskina) (46I dokumentuan daude eredu batzuk)
13. Karpeta Berdea (9. eranskina). Ikasle berriek karpeta berdea osatuko dute.

## DBH. 2. zikloa

*Sarrera*

Ikasleak, mailaka, areto nagusian sarraraziko dira beren tutoreak izango direnekin batera.

Hasierako harrera eta ongi etorri aurkezpenak zuzendariak eginen ditu. Jarraian, ikasle talde bakoitzaren tutoreak zerrenda (4. eranskina) irakurri ondoren, dagokion ikasgelara joanen dira.

*Gelan*

0. Zerrendaren arabera eseriko dira (tutoreak erabakia hartuko du).
1. Tutorea eta ikasleen aurkezpena.
   - Tutorea, ardura hori edukitzeaz gain, arlo bateko irakaslea da.
   - Lehen mailako gauzak: tutorearen izena eman. Ikasle berriek beren burua aurkeztuko dute: nor naizen, nondik natorren, zer den gustatzen zaidana, zer den ikasturtetik espero dudana...
   - Tutorearen eginkizuna aurkeztu. *Zeure burua eskaini laguntzaile gisa.*
   - Tutoretza eskola-ordua noiz.
   - Zer egiteko asmoa dagoen ordu horretan. (1. eranskina).
   - Gurasoekin egoteko ordua noiz. Nola jarri harremanetan zurekin.
2. Materiala.
   - Ekarri beharreko gauzak (kontuan hartu irakasle bakoitzak bere arlokoa geroago egingo duela).
   - Gelan uzten ahal dituzten gauzak.
3. Bigarren zikloak dauzkan eskakizunak.
   - Heldutasunaren arabera gehituko da eskakizuna. Gero eta zailagoa, gero eta interesgarriagoa.
   - Ongi antolatu beharra. Agedaren erabilpena.
   - Irakasle aunitz, bakoitzak bere lana bidaltzen du.

   *3. mailak daukan berezitasuna.*
     - Ikasturte bukaeran promozioa dago (bi gainditu gabe gehienez).
     - Urte honetan aukeratuko da datorren urtean eginen diren ikasbideak eta aukeraketa honek beraien etorkizuna baldintzatuko du. Garrantzizkoa da serio jokatzea.

   *4. mailak dauzkan berezitasunak.*
     - Etapako azken maila da. Amaieran titulua dago (bi arlo gainditu gabe gehienez)
     - Orientazioak garrantzi nagusia hartuko du.
     - Gero eta heldutasun handiagoa eskatuko zaie.

4. Egutegia (2. eranskina)
   – Adierazi eta kortxoan atxiki.
5. Behin-behineko ordutegia (3. eranskina).
   – Adierazi, arbelean idatzi eta gero kortxoan atxiki.
6. Klase emango duten irakasleen izenak (4. eranskina)
7. Ikasleen zerrenda (5. eranskina)
   – Helbidea eta telefonoa egiaztatu.
   – Aukerakoak ziurtatu.
   – Gainditu gabekoak ziurtatu.
8. Garraioa (6. eranskina)
9. Arauak eta gomendioak. (Tutore bakoitzak baloratuko du ondoko ideietatik zein azaldu eta nola. Kontuan hartu 3. mailan aunitz berriak direla, ez, ordea, 4.enean. Garrantzitsua da zenbait eredu garbi finkatzea).
   – *Puntualtasuna.-Ez-etortzeak.-*
     • Zentrotik ateratzeko baimena aurkeztuko dute.
     • Sarreran eta jostaldia amaitzean bi txirrin-soinu izango dira. Lehendabizikoarekin gelara joan daiteke, aurretik, ez.
     • Puntualtasuna: bigarren txirrinak jo orduko gelan egon behar da.
     • Goizeko __________etan ikastetxeko atea itxiko da. Gauza bera eginen da __________etan.
     • Aurrerago azalduko zaie nola justifikatu behar diren ez-etortzeak.
   – *Gelan*.
     • Hitz egiteko txanda errespetatu, hasieratik ohitura sortu.
     • Ez erabili takoak, biraoak, irainak... Saia gaitezen atseginak izaten!
     • Euskaraz egin.
     • Ez jan gelan.
     • Ez atera gelatik txirrinak jo baino lehen.
     • Azken saioaren amaieran, utzi aulkia mahai gainean.
     • Ez ibili gelaz gela material eske, bakoitzak berea ekarri behar du-eta.
     • Etxeko lana egiteko behar ez duten materiala gelan gordeko dute.
     • Esertzeko modua.
     • Gelako arduradunak izendatuko dira (arbela, pertsianak, agenda) (Aurreago egingo da, geure artean hitz egin behar baita).
     • Garbitasuna: gehiegi zikinduz gero, haiek garbitu beharko dute.
     • Gela ordenatuta egongo da.

– *Klase arteko tarteak eta pasabideak.*
  - Klase aldaketetan ez atera pasabidera.
  - Klaseen artean ez da komunera joango, beharrezkoa bada, irakasleari baimena eskatuko zaio.

– *Etxean egin behar den lan pertsonala.*
  - Egunero etxean lan egin behar da, lan ohiturak finkatzeko eta ikasteko teknikak praktikatzeko.

10. Ikastetxeko planoa (7. eranskina) (Tutoretza saioaren amaieran, ona izanen da ikasle etorri berriei bide eta areto garrantzitsuenak erakustea).
11. Kurtso hasierako inkesta (8. eranskina) (46I dokumentuan daude eredu batzuk)
12. Karpeta Berdea (9. eranskina) Ikasle berriek osatu behar dute.

## I2. Lehenengo inkestak

Lehenengo eguneko ariketa.

Bere helburua: tutorearentzako tresna bat da. Honetan oinarritzen ahal gara ikasle batekin elkarrizketa egin nahi dugunean. Irakasle tutoreak gorde behar ditu inkesta ale guztiak. Baita irakurri ere. Kurtsoan zehar elkarrizketa egin baino lehen ikasle konkretuaren erantzunak irakurriz, nondik abiatu jakinen dugu.

I

**DBHk 1. Mailako ikasleentzako inkesta**

Abizenak: ______________________________ Izena: __________________
Helbidea: _____________________________ Herria: __________________
Jaiotze-data: ______________________ Telefonoa/k: __________________

| *Etxean bizi direnak* | | | | |
|---|---|---|---|---|
| *Izena* | *Ahaidegoa* | *Adina* | *Euskalduna?* | *Egiten duena* |
| | Ni | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

**1. Eskola-Historia**

1.1. *Zein ikastetxetan ikasi duzu?*

| *Ikastetxeak* | *Egindako kurtsoak* |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

1.2. Ikasturterik errepikatu al duzu inoiz? Zein? __________________
Zergatik? ________________________________________________
1.3. Eskolan gertatu al zaizu ezer aipagarririk?: ____________________

**2. Zure etxea eta familia**

2.1. Logela zuretzat bakarrik duzu? ____________________ Horrela ez bada norekin banatzen duzu? ______________________________
2.2. Etxean, normalean, norekin hitz egiten duzu euskaraz? _________
2.3. Zein ordutan jaikitzen zara eskola egunetan? _________________
Eta noiz oheratzen zara? ________________________________
2.4. Kurtsoan zehar zure gurasoekin hitz egin beharko dugu. Norekin nahiago duzu hitz egitea (aitarekin, amarekin...)? ______________
2.5. Normalki zutaz zer esaten dute gurasoek? ____________________

### 3. Etxeko lana eta ikasketak

3.1. Etxean zein tokitan ikasten duzu? ______________________________

3.2. Ikasten ari zaren bitartean molestatzen zaituzte? ________________
Adierazi zerk edo nork molestatzen zaituen: ____________________

3.3. Joan den kurtsoan etxeko lanak egunero egiten zenituen? _________
Zergatik? ______________________________________________

3.4. Etxeko lana egiteko zein ordu nahiago duzu? ___________________
Zergatik? ______________________________________________

3.5. Etxean norbaitek esan behar dizu lana egiten hasteko? ___________
Zergatik? ______________________________________________

3.6. Etxeko lana egiteko ordutegi finkoa al duzu? ___________________
Noiz? _________________________________________________

3.7. Zenbat denbora behar duzu, batez beste, etxerako lana egiteko?
__________________________________________________________

3.8. Etxerako lanak egiterakoan zalantzaren bat duzunean, nori eskatzen diozu laguntza? ________________________________________

3.9. Etxean irakurtzea gustatzen al zaizu? _________________________
Zein egunetan irakurtzen duzu? ____________________________
______________ Zenbat minutuz gutxi gorabehera? ______________

3.10. Iaz zeintzuk ziren atseginen zenituen ikasgaiak? ________________

3.11. Eta zeintzuk gorrotatzen zenituenak? _________________________

3.12. Zer zen iazko irakasleek zutaz esaten zutena? __________________

### 4. Institutua

4.1. Zeintzuk dira ikasturte hasiera honetan kezka sortzen dizuten gauzak? ______________________________________________

4.2. Ikasten noraino iristea pentsatzen duzu? _______________________

### 5. Zaletasunak eta aisialdia

5.1. Zenbat diru edukitzen duzu astean zehar gastatzeko? __________ euro.

5.2. Zer egiten duzu aisialdian? _________________________________

5.3. Lagunak al dituzu? ___________________________ Gure ikastetxean badituzu, nortzuk dira? ________________________________

5.4. Kirol, kultura edo jostagarri den aktibitateren bat egiten baduzu, adieraz ezazu hemen: _________________________________

5.5. Zenbat denbora pasatzen duzu aktibitate horietan? *Astegunetan osotara* __________________________________ *ordu eta asteburuetan* ____________________________________ *ordu ematen d(it)ut.*

5.6. Eskolaz aparte zerbait ikasten ari zara? _________________________
Zer? ______________________________________________

**6. Osasuna**

6.1. Osasun arazoren bat baduzu, aipatu hemen: ____________________

**7. Oharrak tutorearentzat**

7.1. Nola sentitzen zara denboraldi honetan, animatuta, triste, kezkatuta, ilusioz gainezka, pozik...? ____________________
Zergatik? ____________________

7.2. Zure tutorea izanen naiz urte osoan, beraz, elkarrekin ongi konpontzea nahi nuke, zuri laguntzeko naukazu, hori baita tutoreon egitekoa. Espero dut elkarrekin ongi moldatzea.
Zerbait galdetu edota eskatu nahi baduzu, egizu hemen ____________________
____________________

7.3. Tutoretza-orduetan edota institutuan gai bereziren bat aztertzea nahi baduzu, idatzi hemen. ____________________

7.4. Zure ustez ikasle ona izan zara orain arte? ____________________
Zergatik? ____________________

7.5. Zer-nolako aldaketak egin beharko dituzu zure ikasketak, aurten, gero eta hobeto joan daitezen? ____________________

7.6. Zertan laguntzen ahal dizugu irakasleok? ____________________
____________________

**8. Interesgarriena**

Beharbada ez dizut galdetu zure iritziz interesgarriena dena. Garrantzitsua den zerbait esan nahi baduzu, ondorengo lerrootan idatz dezakezu.

____________________
____________________
____________________

*Eskerrik asko*
*Zure sinadura eta gaurko data*

## DBHk 2. Mailako ikasleentzako inkesta

Abizenak: ______________________ Izena: ______________

Helbidea: ______________________ Herria: ______________

Jaiotze-data: __________________ Telefonoa/k: ______________

| *Etxean bizi direnak* | | | | |
|---|---|---|---|---|
| *Izena* | *Ahaidegoa* | *Adina* | *Euskalduna?* | *Egiten duena* |
| | Ni | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

### 1. Eskola-Historia

1.1. Ikasturterik errepikatu al duzu inoiz? Zein? ______________
Zergatik? ______________________________

1.2. Eskolan edo instituto gertatu al zaizu ezer aipagarririk?: ________
______________________________________

### 2. Zure etxea eta familia

2.1. Logela zuretzat bakarrik duzu? ______________ Horrela ez bada, norekin banatzen duzu? ______________________

2.2. Etxean, normalean, norekin hitz egiten duzu euskaraz? ________

2.3. Zein ordutan jaikitzen zara eskola egunetan? ______________
Eta noiz oheratzen zara? ______________________

2.4. Kurtsoan zehar zure gurasoekin hitz egin beharko dugu. Norekin nahiago duzu hitz egitea (aitarekin, amarekin...)? ____________

2.5. Normalki zutaz zer esaten dute gurasoek? ______________
______________________________________

### 3. Ikasketak eta etxeko lanak

3.1. Etxean zein tokitan ikasten duzu? ______________________

3.2. Ikasten ari zaren bitartean molestatzen zaituzte? ____________
Adierazi zerk edo nork molestatzen zaituen: ______________
______________________________________

3.3. Joan den kurtsoan etxeko lanak egunero egiten zenituen? _________
Zergatik? ______________________________________________
______________________________________________

3.4. Etxeko lana egiteko zein ordu nahiago duzu? ____________________
Zergatik? ______________________________________________
______________________________________________

3.5. Etxean norbaitek esan behar dizu lana egiten hasteko? ___________
Zergatik? ______________________________________________
______________________________________________

3.6. Etxeko lana egiteko ordutegi finkoa al duzu? ____________________
Noiz? ______________________________________________
______________________________________________

3.7. Zenbat denbora behar duzu, batez beste, etxerako lana egiteko?
______________________________________________

3.8. Etxerako lanak egiterakoan zalantzaren bat duzunean, nori eskatzen diozu laguntza? ______________________________________________
______________________________________________

3.9. Etxean irakurtzea gustatzen al zaizu? ________________________
Zein egunetan irakurtzen duzu? ______________________________
Zenbat minutuz gutxi gorabehera? ____________________________
______________________________________________

3.10. Iaz zeintzuk ziren atseginen zenituen ikasgaiak? _______________
______________________________________________

3.11. Eta zeintzuk gorrotatzen zenituenak? ________________________
______________________________________________

3.12. Zer zen iazko irakasleek zutaz esaten zutena? __________________
______________________________________________

## 4. Institutua

4.1. Zeintzuk dira ikasturte hasiera honetan kezka sortzen dizuten gauzak? ______________________________________________

4.2. Ikasten noraino iristea pentsatzen duzu? _______________________
______________________________________________

## 5. Zaletasunak eta aisialdia

5.1. Zenbat diru edukitzen duzu astean zehar gastatzeko? ____________ euro.

5.2. Zer egiten duzu aisialdian? ____________________________________
______________________________________________

5.3. Lagunak al dituzu? ____________________ Gure ikastetxean baditutzu, nortzuk dira? ____________________

5.4. Kirol, kultura edo jostagarri den aktibitateren bat egiten baduzu, adieraz ezazu hemen: ____________________

____________________

5.5. Zenbat denbora pasatzen duzu aktibitate horietan? *Astegunetan osotara* ____________________ *ordu eta asteburuetan* ____________________ *ordu ematen d(it)ut.*

5.6. Eskolaz aparte zerbait ikasten ari zara? ____________________
Zer? ____________________

**6. Osasuna**

6.1. Osasun arazoren bat baduzu, aipatu hemen: ____________________

____________________

**7. Oharrak tutorearentzat**

7.1. Zure tutorea izanen naiz urte osoan, beraz, elkarrekin ongi konpontzea nahi nuke, zuri laguntzeko naukazu, hori baita tutoreon egitekoa. Espero dut elkarrekin ongi moldatzea.
Zerbait galdetu edota eskatu nahi baduzu, egizu hemen ____________________

____________________

7.2. Tutoretza-orduetan edota institutuan gai bereziren bat aztertzea nahi baduzu, idatzi hemen. ____________________

7.3. Zure ustez ikasle ona izan zara orain arte? ____________________
Zergatik? ____________________

7.4. Zer-nolako aldaketak egin beharko dituzu zure ikasketak, aurten, gero eta hobeto joan daitezen? ____________________

____________________

7.5. Zertan laguntzen ahal dizugu irakasleok? ____________________

____________________

**8. Interesgarriena**

Beharbada ez dizut galdetu zure iritziz interesgarriena dena. Garrantzitsua den zerbait esan nahi baduzu, ondorengo lerrootan idatz dezakezu.

____________________

____________________

____________________

*Eskerrik asko*

*Zure sinadura eta gaurko data*

## DBHk 3. Mailako ikasleentzako inkesta

Abizenak: ______________________________ Izena: ____________________
Helbidea: ______________________________ Herria: ____________________
Jaiotze-data: ________________________ Telefonoa/k: ____________________

| *Sendia* | | | |
|---|---|---|---|
| *Izena* | *Ahaidegoa* | *Adina* | *Egiten duena* |
| | Ikaslea bera | | |
| | Aita | | |
| | Ama | | |
| | | | |
| | | | |

### 1. Eskola-Historia

1.1. Zein ikastetxetan ikasi duzu?

| *Ikastetxeak* | *Egindako kurtsoak* |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

1.2. Ikasturterik errepikatu al duzu inoiz? Zein? ____________________
Zergatik? ________________________________________________
________________________________________________________

1.3. Eskolan gertatu al zaizu ezer aipagarririk?: ____________________
________________________________________________________

### 2. Zure etxea eta familia

2.1. Logela zuretzat bakarrik duzu? ______________________ Horrela ez bada norekin banatzen duzu? ______________________________

2.2. Kurtsoan zehar zure gurasoekin hitz egin beharko dugu. Norekin nahiago duzu hitz egitea (aitarekin, amarekin...)? ________________
________________________________________________________

2.3. Normalki zutaz zer esaten dute gurasoek? ______________________
________________________________________________________

### 3. ikasketak eta etxeko lanak

3.1. Etxean zein tokitan ikasten duzu? ____________________________
________________________________________________________

3.2. Ikasten ari zaren bitartean molestatzen zaituzte? ______________
Adierazi zerk edo nork molestatzen zaituen: ______________
______________

3.3. Joan den kurtsoan etxeko lanak egunero egiten zenituen? ______
Zergatik? ______________
______________

3.4. Eguneko edo gabeko zein orduetan nahiago duzu ikasi? ______.
Zergatik?______________
______________

3.5. Zure ikasketetan zalantzaren bat duzunean, norengana jotzen duzu?
______________

3.6. Ikasturte honetan, astean zehar, zenbat orduz ikasteko asmoa duzu?
______________

3.7. Iaz zeintzuk ziren atseginen zenituen ikasgaiak? ______________
______________

3.8. Eta zeintzuk gorrotatzen zenituenak? ______________
______________

3.9. Zer zen iazko irakasleek zutaz esaten zutena? ______________
______________

3.10. Ikasturtea aurrera ateratzeko itxaropeniak baduzu? __________
______________

**4. Institutua**

4.1. Zergatik etorri zinen hona? ______________
______________

4.2. Zeintzuk dira ikasturte hasiera honetan kezka sortzen dizuten gauzak? ______________
______________

4.3. Ikasten noraino iristea pentsatzen duzu? ______________
______________

**5. Zaletasunak eta aisia**

5.1. Zenbat diru edukitzen duzu astean zehar gastatzeko? ______ euro.
______________

5.2. Zer egiten duzu aisialdian? ______________
______________

5.3. Kirol, kultura edo jostagarri den aktibitateren bat egiten baduzu, aipatu hemen: ______________
______________

5.4. Zenbat denbora ematen duzu astean aktibitate hori egiten? *Astegunetan osotara* ______________ *ordu eta asteburuetan* ______________ *ordu ematen d(it)ut.*

5.5. Elkarteren bateko partaide zara? ____________________
Zein da elkarte hori? ____________________
____________________

5.6. Eskolaz aparte zerbait ikasten ari zara? ____________________
Zer? ____________________
____________________

## 6. Osasuna

6.1. Osasun arazoren bat baduzu, aipatu hemen: ____________________
____________________

## 7. Oharrak tutorearentzat

7.1. Zure tutorea izanen naiz urte osoan, elkarrekin ongi modatzea nahi dut, zuri laguntzeko naukazu, espero dut elkarrekin ongi moldatzea.
Zerbait galdetu edota eskatu nahi baduzu, egizu hemen ____________
____________________

7.2. Ikastetxean gai bereziren bat aztertzea nahi al duzu? ____________
____________________

7.3. Zure ustez ikasle ona izan zara orain arte? ____________________
Zergatik? ____________________
____________________

7.4. Zer-nolako aldaketak egin beharko dituzu zure ikasketak gero eta hobeto joan daitezen? ____________________
____________________

7.5. Zertan laguntzen ahal dizugu irakasleok? ____________________
____________________

## 8. Interesgarriena

Beharbada ez dizut galdetu zer dem zure iritziz interesgarriena. Zerbait garrantzitsua erran nahi baduzu, aipatu hemen, zuriune honetan idatz dezakezu. Eskerrik asko.

____________________
____________________
____________________

## 9. Kanpotik datozen ikasleentzako galdera

9.1. Zer aditu duzu gure ikastetxeaz? ____________________
9.2. Non ikasi zenuen iaz? ____________________

*Zure sinadura eta gaurko data.*

## DBHk 4. Mailako ikasleentzako inkesta

Abizenak: ____________________ Izena: ____________________
Helbidea: ____________________ Herria: ____________________
Jaiotze-data: ____________________ Telefonoa/k: ____________________

| *Familia. Etxea bizi zaretenak* | | | |
|---|---|---|---|
| *Izena* | *Ahaidegoa* | *Adina* | *Egiten duena* |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

### 1. Eskolan izandako historia

1.1. Gai guztiak gaindituak dituzu? ____________________
1.2. Zeintzuk ez dituzu gaindituak? ____________________
1.3. Badakizu nola gainditu behar dituzun gainditu gabe dituzun horiek? ____________________
1.3. Eskolan eta institutuan gertatu zaizu ezer aipagarririk?: ____________________

____________________

### 2. Zure etxea eta familia

2.1. Logela zuretzat bakarrik al duzu? ____________ Horrela ez bada, norekin banatzen duzu? ____________________
2.2. Kurtsoan zehar zure gurasoekin hitz egin beharko dugu. Norekin nahiago duzu hitz egitea (aitarekin, amarekin...)? ____________
2.3. Normalki zutaz zer esaten dute gurasoek? ____________________

### 3. Ikasketak eta etxeko lanak.

3.1. Etxean zein tokitan ikasten duzu? ____________________
3.2. Ikasten ari zaren bitartean, molestatzen zaituzte? ____________. Adierazi zerk edo nork molestatzen zaituen ____________________
3.3. Joan den kurtsoan egunero ikasten zenuen? ____________. Zergatik? ____________________
3.4. Eguneko edo gabeko zein orduetan nahiago duzu ikasi? ____________. Zergatik? ____________________
3.5. Zure ikasketetan zalantzaren bat duzunean, norengana jotzen duzu?

____________________

3.6. Ikasturte honetan astean zenbat ordu emateko asmoa duzu?

____________________

3.7. Iaz zeintzuk iren gehien atsegin zenituen gaiak? ________________
________________________________________________________________
3.8. Eta zeintzuk gorrotatzen zenituenak? ________________________
________________________________________________________________
3.9. Zer zen iazko irakasleek zutaz esaten zutena? _________________
3.10. 4. mailan zaude. Ekainean DBH bukatua izanen duzu (honetarako ikasi behar). Zer egiteko asmoa duzu hurrengo kurtsoan? _________
________________________________________________________________

**4. Institutua**

4.1. Zerk kezkatzen zaitu kurtso hasiera honetan? _________________
________________________________________________________________
4.2. Ikasten noraino iristea pentsatzen duzu? ______________________
________________________________________________________________

**5. Zaletasunak eta aisia.**

5.1. Zenbat diru edukitzen duzu astean zehar gastatzeko? _________ euro.
5.2. Zer egiten duzu zure aisialdian? ____________________________
________________________________________________________________
5.3. Kirol, kultur edo jostagarri den aktibitateren bat egiten baduzu, aipatu hemen: ______________________________________________
5.4. Zenbat denbora pasatzen duzu astean aktibitate hori egiten? *Astegunetan osotara* ________________________ *ordu eta asteburuetan* ______________________________________ *ordu ematen d(it)ut.*
5.5. Elkarteren bateko partaide zara? ___________________________
Zein da elkarte hori? _____________________________________
5.6. Eskolaz aparte zerbait ikasten ari zara? _______________________
Zer? ____________________________________________________

**6. Osasuna**

6.1. Osasun arazoren bat baduzu, aipatu hemen: ___________________
________________________________________________________________

**7. Oharrak tutorearentzat**

7.1. Zure tutorea izanen naiz urte osoan, elkarrekin ongi moldatzea nahi dut, zuri laguntzeko naukazu, espero dut elkarrekin ongi moldatzea. Zerbait galdetu edota eskatu nahi baduzu, aipatu hemen _________
7.2. Ikastetxean gai bereziren bat aztertzea nahi al duzu? ____________
________________________________________________________________
7.3. Zure iritziz, ikasle ona izan zara orain arte? ___________________.
Zergatik? ________________________________________________

7.4. Zer-nolako aldaketak egin behar dituzu zure ikasketak gero eta hobeto joan daitezen? ______________________________________

7.5. Zertan laguntzen ahal dizugu irakasleok? ____________________
______________________________________________________________

## 8. Lan giroa

Urte honetan lan-giro ona lortu nahi dugu ikastetxean. Laguntzeko prest zaude? ____________________________________________

Zertan laguntzen ahal duzu gure ikastetxeko lan-giroa gero eta hobeagoa izan dadin? ________________________________________
______________________________________________________________

## 9 Interesgarriena

Beharbada ez dizut galdetu zer den, zure iritziz, interesgarriena. Zerbait garrantzitsua erran nahi baduzu, hemen, zuriune honetan idatz dezakezu. Eskerrik asko. __________

*Zure sinadura eta gaurko data.*

### Batxilergoko Lehen mailako ikasleentzako inkesta

Orientazio-programa antolatzen hasi baino lehen, nola zaudeten jakin behar dugu. Zure benetako egoera ezagutu dezagun, galdetegi hau seriotasunez erantzutea eskatzen dizugu. Eskerrik asko.

Irakur itzazu galdera guztiak erantzunak ematen hasi baino lehen.

Erantzuna ematerakoan tokirik ez baduzu, atzeko orrialdea erabil dezakezu. Irakur itzazu galdera guztiak erantzunak ematen hasi baino lehen.

Izen-abizenak: ____________________ Gaurko eguna: ____________________

Maila eta atala: ________________________________________________

Zenbat urte izanen dituzu urtarrilaren batean? ________________________

*Oharrak*: Informazioa behar baduzu, ez utzi azken momenturako. Kontuan hartu, *normalki, martxorako erabakia hartua izan behar duzula*. Orientazio-saioak azaroan egiten saiatuko gara.

*Beste ekintzak*: Batxilergoko 2. Mailako ikasleek Unibertsitatea bisita dezakete (zure kabuz egin dezakezu arratsaldeetan. Baliteke bigarren mailakoekin arratsalde batean joatea. Aldez aurretik gonbidatuta zaudela erraten dizugu). “Plaza de la Cruz” delako institutuan hitzaldi batzuk antolatzen dira Nafarroako ikasle guztientzat, jakinaren gainean jarriko zaituztegu. Bestaldetik LHko feria ere antolatzen da.

*Non begiratu*: Orientatzailearen bulegoan informazioa dago. “Orientazio” taulan oharrak agertzen dira (orientatzaileak bakarrik erabiltzen du iragarki-taula hori). Egunkariak... Internet... Ikasleen gidaliburuan... Nolabait zure etorkizunari begiratzea gomendatzen dizugu. Aurrera!

1. *Zure ametsa*. Zer gustatuko litzaizuke izatea zure bizitzan? *(Erantzuten hasi baino lehen galdera guztiak irakurri behar dituzu)*

   ________________________________________________

2. *Zure ametsa*. Atseginen litzaizukeen hori lortu ahal izateko eman beharreko pausuak.

   Zer egin behar duzu urte honetan? Eta hurrengoan? Eta gero?

   ________________________________________________

3. Izan *errealista* galdera hau erantzuterakoan. Zer da datorren urtean eginen duzuna?

   ________________________________________________

4. Zenbat ideia daukazu buruan batxilergoa bukatzen duzunerako?

| *Ikasketak eta non ematen diren* | *Zeintzuk dira hartu beharreko jakintzagaiak bigarren mailan?* | *Aurtengo selektibitatea errepikatuko balitz, zure aukerak. Selektibitateko notak beheko orientazio taulan daude* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |

5. Martxoan erabakia hartua izan behar duzu. Zertan laguntzen ahal dizugu erabakia har dezazun?

______________________________________________

6. Tutoreari laguntza eskatzen ahal diozu lasai ederrean, dena den, zure erantzunak irakurri eta gero, orientatzaileak edo tutoreak deitzeko baimena ematen duzu?

| | | |
|---|---|---|
| Orientatzailea: | bai | ez |
| Tutorea: | bai | ez |

7. Dakizun bezala oraingo etapa ez da “orohartzailea”, selektiboa baizik, honek zera erran nahi du: Institutuak maila altua eskatu behar dizula. Zure ustez institutuak (denok gara institutua) behar duzun maila lortzen lagunduko dizu? Zailtasunak ikusten badituzu, aipatu hemen.

______________________________________________

8. Batxilergoa bukatzen baduzu, aukera asko izanen duzu: Unibertsitatean 120 karrera inguru eta Lanbide Heziketa berrian ehun eta piko. Batean edo bestean sartu ahal izateko aukeraketa bat egin beharko duzu. Ikastetxeak lehenbailehen eta ahalik eta gehien ikastea gomendatzen dizu. Kontuan hartu batxilergoko bi kurtsoek balio dutela selektibitatea (edo hautespen-azterketa) gainditzeko. Zer iritzi duzu horretaz?

______________________________________________

9. Aipatu hemen: ahalik eta gehien ikas dezazun, zeintzuk dira, zure iritziz, moldatu beharreko arazoak? (baldin eta halakorik badago).

______________________________________________

10. Zein da zure ikasbidea? Zer jakintzagai aukeratuko duzu datorren urterako?

______________________________________________

11. Beste ikastetxeetatik datozen ikasleentzako galderak:
    a) Etorri baino lehen zer aditu duzu gure institutuaz?
    b) Zer-nolako zailtasunak izan ditzakezu?
    c) Zergatik aukeratu duzu institutu hau?
    d) Zein ikastetxetik zatoz?

**Batxilergoko bigarren mailako ikasleentzako inkesta**

Orientazio-programa antolatzen hasi baino lehen, nola zaudeten jakin behar dugu. Zure benetako egoera ezagutu dezagun, galdetegi hau seriotasunez erantzutea eskatzen dizugu. Eskerrik asko.

Irakur itzazu galdera guztiak erantzunak ematen hasi baino lehen.

Erantzuna ematerakoan tokirik ez baduzu, atzeko orrialdea erabil dezakezu. Irakur itzazu galdera guztiak erantzunak ematen hasi baino lehen.

Izen-abizenak: ____________________ Gaurko eguna: ____________________

Maila eta atala: ______________________________________________

Zenbat urte izanen dituzu urtarrilaren batean? __________________________

Oharrak: Informazioa behar baduzu, ez utzi azken momenturako. Kontuan hartu, normalki, martxorako erabakia hartua izan behar duzula. Orientazio-koadernotxoa abenduan izanen duzu eskuetan.

Beste ekintzak: Batxilergoko 2. Mailako ikasleek Unibertsitatea bisitatuko dute (zure kabuz egin dezakezu arratsaldeetan). Baliteke arratsalde batean joatea. “Plaza de la Cruz” delako institutuan hitzaldi batzuk antolatzen dira Nafarroako ikasle guztientzat, jakinaren gainean jarriko zaituztegu. Bestaldetik LHko feria ere antolatzen da.

Non begiratu: Orientatzailearen bulegoan informazioa dago. “Orientazio” taulan oharrak agertzen dira (orientatzaileak bakarrik erabiltzen du iragarki-taula hau). Egunkariak... Internet... Ikasleen gidaliburuan... Nolabait zure etorkizunari begiratzea gomendatzen dizugu. Aurrera!

1. Zure ametsa. Zer gustatuko litzaizuke izatea zure bizitzan? *(Erantzuten hasi baino lehen galdera guztiak irakurri behar dituzu)*

   ______________________________________________

   ______________________________________________

   ______________________________________________

2. Zure ametsa. Atseginen litzaizukeen hori lortu ahal izateko eman beharreko pausuak.

   Zer egin behar duzu urte honetan? Eta hurrengoan? Eta gero?

   ______________________________________________

   ______________________________________________

   ______________________________________________

3. Izan zaitez errealista galdera hau erantzuterakoan. Zer da datorren urtean eginen duzuna?

   ______________________________________________

   ______________________________________________

4. Zenbat ideia daukazu buruan batxilergoa bukatzen duzunerako?

| *Ikasketak eta non ematen diren* | *Zeintzuk dira hartu beharreko jakintzagaiak bigarren mailan? Hartuak dituzu?* | *Aurtengo selektibitatea errepikatuko balitz, zure posibilitateak. Selektibitateko notak beheko orientazio-taulan daude* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |

5. Martxoan erabakia hartua izan behar duzu. Zertan laguntzen ahal dizugu erabakia har dezazun?

______________________________

______________________________

6. Tutoreari laguntza eskatzen ahal diozu lasai ederrean, dena den, zure erantzunak irakurri eta gero orientatzaileak edo tutoreak deitzeko baimena ematen duzu?

Orientatzailea: bai ez

Tutorea: bai ez

7. Jakin badakizunez, oraingo etapa ez da "orohartzailea", selektiboa baizik, honek zera erran nahi du: Institutuak maila altua eskatu behar dizula. Zure iritziz, institutuak (denok gara institutua) behar duzun maila lortzen lagunduko dizu? Zailtasunak ikusten badituzu, aipatu hemen.

______________________________

______________________________

8. Batxilergoa bukatzen baduzu, aukera asko izanen duzu: Unibertsitatean 120 karrera inguru eta Lanbide Heziketa berrian ehun eta piko. Batean edo bestean sartu ahal izateko, aukeraketa bat egin beharko duzu. Ikastetxeak lehenbailehen eta ahalik eta gehien ikastea gomendatzen dizu. Kontutan hartu batxilergoko bi kurtsoek balio dutela selektibitatea (edo hautespen-azterketa) gainditzeko. Zer iritzi duzu horretaz?

______________________________

______________________________

9. Aipatu hemen: ahalik eta gehien ikas dezazun, zeintzuk dira, zure iritziz, moldatu beharreko arazoak (baldin eta halakorik badago).

______________________________

______________________________

## I3. Logotipoa

### Zertarako erabil daiteke?

Ikastaldea indartzeko. Lan-talde bezala osatuz joan dadin.

### Prozedura

*Klaseko anagrama edo logotipoa*

- Ikasleek ez dute elkar ezagutzen, elkar ezagutzea ona da, baita akordioak hartzen ikastea ere.
- Tutoreak papera banatzen duen bitartean, honelako zerbait erran dezake: “Adierazi, marrazki baten bidez, zer-nolako ikastaldea eta ikasgela nahi duzuen. Zer da ikasturte honetan espero duzuena? Zer emateko prest zaudete?...
- Eman behar beste adierazpen.
- Ariketa bakarka eta isilik egiten hasiko dira.
- Bukatzen dutenean, seikoteka eseriko dira eta elkarri egindako marrazketaren esanahia adieraziko diote.
- Seikoteak anagrama bat aukeratuko du.
- Seikote bakoitzak bere bozeramailea izendatuko du (ezin da izan aukeratu dugun marrazkiaren egilea).
- Bozeramaile guztiak esertzen dira. Anagrama bakoitzaren aurkezpena eginen da.
- Bozeramaileek aurrerantzean “Klaseko anagrama” izanen dena aukeratuko dute.
- Fotokopia handi bat eginen da eta ikasgelako atarian paratuko da. Aurrerantzean hauxe izanen da klaseko anagrama.

## I4. DBHko 1. Mailako aukerako gaien informazio laburra

### Zertarako erabil daiteke?

Lehenengo maila egin behar duten ikasleei aukerako jakintzagaiei buruzko informazioa emateko.

### Prozedura

*Egoera desberdinak:*

– Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan institutuko irakasleak bisita egiten duenean.
– Lehen Hezkuntzako ikastetxeko tutoreak adieraz dezake.
– Institutuko idazkaritzan aurretiko izen-ematea egiten denean.

### *Atzerriko hizkuntza (frantsesa)*

Lau urterako aukeratzen den gaia. Oinarrizko frantsesa ikasteko aukera. Ingelesa bezala erakutsiko da. Zerotik abiatuko gara.

*Tema que se impartirá durante los cuatro cursos. Oportunidad de aprender Francés básico. Se enseñará como el Inglés pero partiendo de cero.*

### *Pentsatzen ikasi*

Informazioarekin lan egin
– Informazioa bilatu, landu eta adierazi
– Nola eta nondik lortu informazioa
– Nola berregin informazioa. Arrazonamendua eta hausnarketa
– Arazoen ebazpena
– Nola adierazi informazioa

Trabaja con la información
– *Recogida, elaboración y expresión*
– *Cómo y dónde obtener la información*
– *La elaboración de la información. Razonamiento y reflexión*
– *La resolución de problemas*
– *La expresión de la información*

## *Ipuin-tailerrak*

- Prozedurazko aukerako gaia.
- Bilatzen dena: Autoestimua indartzea. Taldean integratzea. Idaztea eta irakurtzea maitatzea. Komunikaziorako jarrera baikorra. Pentsamendu sortzailea. Koherentzia eta kohesioa dituen adierazpena bultzatzea.

- *Optativa muy procedimental.*
- *Se busca en esta optativa: Desarrollar la autoestima. Integración en el grupo. Gusto por escribir y leer. Pensamiento creativo. Expresión con coherencia y corrección.*

## *Giza trebetasunak*

- Gizartean bizitzen ikasi. Oinarrizko giza trebetasunak (adibidea: eskerrak nola eta noiz eman, baimena eskatu, barkamena nola eskatu...).
- Trebetasunak ongi komunikatzeko (adibideak: Galderak eta iradokizunak egin, gure arrazoiak adierazi, besteen arrazoiak baloratu...).
- Adierazpen-trebetasunak izateko... (adibideak: kexa nola aurkeztu, negoziatu, "ezetz" erraten ikasi...).
- Enpatia bultzatzeko trebetasunak. (adibideak: ezetz erratea minik eman gabe, sentimenduak adierazi...).
- Norberaren garapena bultzatzeko trebetasunak. (adibideak: erabakiak hartu, planifikatu, porrotari aurre egin...).

- *Aprender a vivir en sociedad. Habilidades básicas (ejemplo: dar gracias, pedir permiso, pedir perdón...)*
- *Habilidades para la comunicación (ejemplos: preguntas y sugerencias, expresión de nuestras razones, valoración de las razones del otro u otra...).*
- *Habilidades para la asertividad (ejemplos: formulación de una queja, la negociación, decir no...).*
- *Habilidades para la empatía (ejemplos: decir no sin herir, expresión de sentimientos...).*
- *Habilidades para el desarrollo personal (ejemplos: tomar decisiones, planificación, superar el fracaso...).*

## *Matematika tailerra*

Helburua: Matematika ikuspuntu funtzional batetik lantzea. Matematika errealitatearekin lotuz landuko dugu.
Egingo dena: adibideak: Maketa bat nola egiten den. Matematika supermerkatuan. Informazioaren tratamendu matematikoa (estatistikak, grafikoak, ...). Antolakuntza orokorrean (proiektu bat nola egin...). Matematika ludikoa (logika jokoak, Matematika Arte Ederretan, zenbakien propietate harrigarriak...).

*Objetivo: Trabajar la matemática desde un punto de vista funcional. Trabajaremos relacionando la Matemática con la realidad.*
*Qué haremos: Ejemplos. Cómo se hace una maqueta. Matemática en el Súper. Tratamiento matemático de la información (estadísticas y gráficos...). La organización en general (cómo hacer un proyecto). La Matemática divertida (juegos lógicos, la matemática en el arte, las curiosas propiedades de los números...).*

## *Plastika*

Ikasgai honen bidez zera lortu nahi dugu:
- Irudien bidez, adierazpena eta sormena bultzatzea.
- Hiru dimentsiodun formen bidez, adierazpena eta sormena bultzatzea.
- Besteek egindako arte produkzioak ulertu eta horiez gozatu.
- Hainbat teknika erabiliko dira.

*A través de esta asignatura se guiere lograr:*
- *Potenciación de la expresión y creación a través de la imagen.*
- *Potenciación de la expresión y creación a través de formas tridimensionales.*
- *Entender y disfrutar de las producciones artísticas de otras personas.*
- *Se emplearán distintas técnicas.*

## I5. Ikasturte bat ongi hasteko ariketak

### Prozedura

1. Irakasle guztiei zuzendutako galdera-sorta.
2. Agendarekin ariketak.
3. Ikasleen abiapuntua. Zer-nolako itxaropenak dauzkaten.

Astean zehar ikasleek irakasleoi beraien ikasgaia nola landu behar duten galdetuko digute. Irakasleok ados eta erantzuteko prest egon behar dugu. Irakasleok, beti bezala, une honetan ikasleek ulertu behar dutela kontuan hartuko dugu. Gure klase-saioa bukatzerakoan, ikasleek zer eta nola eskatuko diegun jakin behar dute.

### Oharrak

Ariketa hau lehen astean zehar eginen da.

### Irakasleei zuzendutako galdetegia

Klaseko ikasle batek galdetuko dio irakasleari eta beste ikaskide guztiek apuntatuko dituzte irakaslearen erantzunak.

Irakasgaia: __________ Irakaslea: __________ Ikasturtea: __________

1. Programa

| | *Gaiaren izena* | *Noiz hasiko da* | *Noizko bukatuta* |
|---|---|---|---|
| 1 | | | |
| 2 | | | |
| 3 | | | |
| 4 | | | |
| 5 | | | |
| 6 | | | |
| 7 | | | |
| 8 | | | |
| 9 | | | |
| 10 | | | |

2. Nola ebaluatuko duzu?
   - 2.1. Etxerako lana baloratuko duzu?
     a) Bai b) Bai, gutxi c) Bai, aunitz d) Ez
     2.1.1. Portzentajea?
   - 2.2. Klaseko lana baloratuko duzu?
     a) Bai. b) Bai, gutxi c) Bai, aunitz d) Ez.
     2.2.1. Portzentajea?
   - 2.3. Taldeko lana baloratuko duzu?
     a) Bai b) Bai, gutxi c) Bai, aunitz d) ez
     2.3.1. Portzentajea?
   - 2.4. Zenbat kontrol jarriko dizkiguzu? __________
   - 2.5. Zehazten ahal ditugu egunak? __________
   - 2.6. Zer-nolako jarrera eskatzen diguzu?
3. Zenbat denbora eman behar diogu zure gaiari astean zehar?
   __________ ordu.
4. Ulertzen ez badizugu, nola eskatzen ahal dizugu laguntza?
   a) Klasean galdetu. b) Klasetik kanpo galdetu.
5. Noiz egonen zara mintegian gure galderak aditzeko?
6. Beste zerbait aipatu nahi diguzu?

### Agenda eta horren erabilpena

Ariketa hauen helburua agenda ongi erabiltzen ikastea dugu.

Ikasle guztiek beraien agendetan gauza hauek guztiak apuntatu behar dituzte.

Agenda egunero bi aldiz, gutxienez, begiratu behar da:

- Etxera joan baino lehen begiratu bat, biharamunerako zer egin beharko dugun ikusteko.
- Etxetik ateratzen garenean, zerbait ahazten dugun ikusteko.
- Irakasle batek zer edo zer bidaltzen digunean, agenda atera eta bertan, une horretan, apuntatu.
- Etxerako lanak egiten hasi baino lehen agenda begiratu behar da (egin beharrekoa zer den jakiteko).

1. Urtebetetzeak.
   1.1. Klaseko ikaskideen urtebetetzeak apuntatuko ditugu.
   1.2. Gurasoen urtebetetzeak.
   1.3. Anai-arreben urtebetetzeak.
   1.4. Atautxi-amautxien urtebetetzeak.
2. Festak
   2.1. Ikastetxeko egutegia apuntatuko dugu.
3. Ebaluaketa egunak
   3.1. Noiz elkartzen dira irakasleak notak jarri baino lehen gutaz hitz egiteko? Apunta itzazue egunak.
4. Gaurko lana
   4.1. Bidali al digute zerbait konkretua?
   4.2. Apuntatuta duzu?
      a) Bai oso ongi!
      b) Ez apunta ezazu oraintxe bertan!
5. Zure agenda konpara ezazu zure adiskideenekin.
   5.1. Klaseko agenda erabiltzen hasiak zarete?

## Kurtsoa ateratzeko aukerak

Izena: ______________________________ Ikasturtea eta atala: _______________



## I6. Inbentarioa

### Zertarako erabil daiteke?

Talde batzuekin komenigarria da ikasturtearen hasieran gelako inbentarioa egitea.

Zer edo zer apurtzen denean, moldatzeko abiapuntua izanen dugu. Ikasturtearen hasieran egindako inbentarioa.



### Prozedura

Denon artean akta bat osatuko dute.

### Ikasturtearen hasierako inbentarioa

Gela: ____________________ Taldea: ____________________
Zerrendan dagoen lehen ikaslearen izena: ____________________
Zerrendan dagoen azken ikaslearen izena: ____________________
Tutorearen izena: ____________________

| *Mahaiak* | *Ongi* | *Ez ongi, ez gaizki* | *Gaizki* | *Aldatu behar* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| *Aulkiak* | *Ongi* | *Ez ongi, ez gaizki* | *Gaizki* | *Aldatu behar* |
| | | | | |

| | | |
|---|---|---|
| Irakaslearen mahaia | Nola dago? | |
| | | |
| Irakaslearen aulkia | Nola dago? | |
| | | |
| Arbela | Nola dago? | |
| | | |
| Kortxoa | Nola dago? | |
| | | |
| Arropa esekitzekoak | Nola daude? | |
| | | |
| Leihoak | Nola daude? | |
| | | |
| Ateak | Nola daude? | |
| | | |
| Pintura | Nola dago? | |
| | | |
| Erradiadoreak | Nola daude? | |
| | | |

| Beste gauzak |
| --- |
| |

Data: ______________________________

*Sinadurak*

*Tutorea. Ikasleak:* *Zerrendan lehena* *Zerrendan azkena*

## I7. Ikastaldeko araudia egiteko proposamena

### Zertarako erabil daiteke?

Arauen beharrez jabetzeko.

Denon jokaerak bideratuko dituen gela barruko araudia egiteko.

### Prozedura

1. Bakarka 5 arau proposa ditzatela.
2. Laukoteak osatu.
3. Laukoteak 20 arau ditu, hauetatik bost bakarrik aukeratuko ditu.
4. Zortzikoteak osatuko dira.
5. Bost arau aukeratuko dituzte.
6. Hiru edo lau zortzikote dira, beraz 15 arau inguru.
7. 10 arau aukeratu behar ditugu denon artean.
8. Garbira pasako ditugu eta arbelaren ondoan zintzilikatuko dugu kartoi mehe batean.
9. Astero berrikusiko dugu araudia. Horren funtzionamendua tutoretza-saioetan aztertuko dugu.
10. Hurrengo egunean denon artean erabakiko da nola bideratuko diren araudi horren kontra gertatzen diren arazoak.

### Oharrak

– Ikastalderako arauak dira. Arautegi horrek ezin du ikastetxeko barne-arautegiak ezartzen duenaren kontrakoa izan.
– Sistema berbera erabil dezakezu tutoretzarako arauak finkatzeko.
– Arauak esanguratsuak dira baldin eta betetzeko ahaleginak egiten baditugu.
– Komenigarria litzateke lankideei jakinaraztea.
– Interesgarria izanen da, halaber, arau bat betetzen ez denerako zernolako neurriak hartuko ditugun erratea.

## I8. Tutoretza planaren aurkezpena

### Zertarako erabil daiteke?

1. Ikasturterako tutoretza-plana denon artean bideratzen hasteko, ondorengo *ardatzak* kontuan hartuko ditugu:
   - Ikasketa eta lanbide orientazioa (Hezkuntza Sistema, lan mundua, nork bere burua ezagutza, erabakiak hartzea).
   - Saio libreak (hauek bideratzeko, tutorearekin batera lan-talde bat sortuko dugu):
     - Ikasleek eskatzen dituzten gaien inguruan *debateak* edo hitzaldiak.
     - Sortzen diren unean uneko kezkak, arazoak, komentatu beharrekoak, etab.

### Prozedura

1. Lehenengo saioa: Tutoretza Planaren asmoen aurkezpena.
   - Ikasleak borobilean jarri eta Tutoretza Planaren aurkibideak banatuko dira.
   - Tutoretza Planaren ardatzak eta egitura (blokeak) azalduko dira.
   - Urte osorako dauzkagun langaiak ozenki komentatuko dira.
   - Galdera-erantzunen txanda irekiko da.
   - Saio libreen antolaketaz arduratuko den talde-lana izendatuko da denon artean.
2. Bigarren saioa:
   - Egutegiak banatu.
   - Dauzkagun tutoretza egunak eta saioak bertan finkatu edo aurreikusi.
   - Izango ditugun saio libreen egunak zehaztu.
   - Bosteko taldeak eratu.
   - Saio libreetarako *gaiak* (tituluak) taldeka proposatu.
   - Gaien zerrenda egin.

  - Laukote bakoitzak gai bat hartuko du bere gain.
  - Gai bakoitzari egun bat jarri. Gai bakoitzari egun bat ematen bazaio ere, honek ez du esan nahi bere garaian luza ez daitekeenik.
3. Hirugarren saioa:
  - Talde bakoitzak hartu duen gaia zehaztuko du gidoi bati jarraituz, zirriborro antzera.

*Materiala*:
- Tutoretza Planaren aurkibidea. Zer eta nola.
- Egutegia.
- Saio libreak bideratzeko gidoia.

**Saio libreak bideratzeko gidoia**

| | |
|---|---|
| Talde antolatzailea: | Arduren banaketa: |
| Gaia:<br>Noizko: | |
| Igorlea(k):<br>Hartzaileak:<br>Non eta nola eseriko garen (borobilean, taldeka, banaka...):<br>Iraupena:<br>Baliabideak:<br>Saioaren garapena: | |
| Ideia nagusienak (saioaren zentzua, helburuak, asmoak, gure aurreiritziak...): | |

*Tutoretza planaren aurkezpena*

| | | |
|---|---|---|
| *Zer landuko dugu?* | Ni naiz (autoezagutzarako ariketak) | Taldeetan bizi naiz<br>Nire ahalmenak<br>Nire ikasketak<br>Nire gorputza<br>Nire interesak<br>Nire nortasuna<br>Nire garapena<br>Ikasten dut<br>... |
| | Gu gara (gure ikastaldea lagun-taldea eta lan-taldea izatea nahi dugu) | Taldea gara<br>Elkarren lagunak izan nahi dugu<br>Giro ona behar dugu (lagunarteko giroa eta lanerako giroa)<br>Irakasleak gu laguntzeko daude<br>Ikastetxe bateko ikastaldea gara |
| | Hemen eta orain bizi gara (gizarte konkretu batean bizi gara) | Gure ingurua<br>Gure gizarteak dauzkan arazoak<br>Berriak gertatzen dira<br>Aisialdia |
| | Ni izanen naiz (orientazioa) | Aukeratzen hasten naiz<br>Askatasuna eta bere hesiak<br>– Libre naiz<br>– Besteak libreak dira<br>Nire eguneroko aukerak<br>Datozen aukerak |
| *Nola eginen dugu lan?* | Ariketak bakarka<br>Elkarrizketak<br>Taldeko lana<br>– Talde handian<br>– Talde Txikian<br>Inkestak<br>Testuak komentatzen:<br>– Olerkiak<br>– Berriak...<br>Material bilketak<br>Antzerkitxoak<br>Irudien inguruko iruzkinak | |
| | Ikasleen protagonismoa | Nire nahiak<br>Gure aukerak<br>Gure baldintzak<br>Aldez aurretik talde edo ikasle bat ardura daiteke |
| | Baldintzak | Elkarrenganako errespetua<br>Txanda errespetatu<br>Adierazpen-askatasuna |

## I9. Ikasleen ordutegiak hobetzeko lantxoa

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleek beraien denbora antola dezaten laguntzeko.

Ordutegian egiten dituzten gauza guztiak antolatu behar dituzte.

### Prozedura

Astean zehar ikasleak bere ordutegia margotuko du eredu honi jarraituz:

| | |
|---|---|
| Lo egin | Beltza |
| Etxean lagundu | Berdea |
| Etxeko lanak (ikasi edo lana) | Urdina |
| Kirola | Oria |
| Telebista | Gorria |
| Irakurri | Grisa |
| Lagunekin egon | Arrosa |
| Jan eta beste beharrak | Marroia |
| Bestelakoak | |

Hurrengo saioan irakasleak iradokizun batzuk emanen ditu. Hala nola:

– Zenbat denbora den beharrezkoa lan intelektuala egiteko.
– Lo egitearen garrantzia.
– Kirola egitearen garrantzia.
– Lagunekin egotearen garrantzia.
– Familia.
– Denbora antolatzearen garrantzia.
– ...

*Zertan aldatu behar dute?*

Beste orrialdea emanen die proposamena egin dezaten. Halaber, interesgarria litzateke gurasoei bidaltzea beraiekin osa dezaten.

### Oharrak

– Tutoretzan eta etxean lantzen da.
– Bi saio dira beharrezko.

## Orain egiten dudana

Nire izen-abizenak: __________________________ Taldea: ____________________

| | *Astelehena* | *Asteartea* | *Asteazkena* | *Osteguna* | *Ostirala* | *Larunbata* | *Igandea* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 00.00-00.30 | | | | | | | |
| 00.30-01.00 | | | | | | | |
| 01.00-01.30 | | | | | | | |
| 01.30-02.00 | | | | | | | |
| 02.00-02.30 | | | | | | | |
| 02.30-03.00 | | | | | | | |
| 03.00-03.30 | | | | | | | |
| 03.30-04.00 | | | | | | | |
| 04.00-04.30 | | | | | | | |
| 04.30-05.00 | | | | | | | |
| 05.00-05.30 | | | | | | | |
| 05.30-06.00 | | | | | | | |
| 06.00-06.30 | | | | | | | |
| 06.30-07.00 | | | | | | | |
| 07.00-07.30 | | | | | | | |
| 07.30-08.00 | | | | | | | |
| 08.00-08.30 | | | | | | | |
| 08.30-09.00 | | | | | | | |
| 09.00-10.00 | | | | | | | |
| 10.00-10.30 | | | | | | | |
| 10.30-11.00 | | | | | | | |
| 11.00-11.30 | | | | | | | |
| 11.30-12.00 | | | | | | | |
| 12.00-12.30 | | | | | | | |
| 12.30-13.00 | | | | | | | |
| 13.00-13.30 | | | | | | | |
| 13.30-14.00 | | | | | | | |
| 14.00-14.30 | | | | | | | |
| 14.30-15.00 | | | | | | | |
| 15.00-15.30 | | | | | | | |
| 15.30-16.00 | | | | | | | |
| 16.00-16.30 | | | | | | | |
| 16.30-17.00 | | | | | | | |
| 17.00-17.30 | | | | | | | |
| 17.30-18.00 | | | | | | | |
| 18.00-18.30 | | | | | | | |
| 18.30-19.00 | | | | | | | |
| 19.00-19.30 | | | | | | | |
| 19.30-20.00 | | | | | | | |
| 20.00-20.30 | | | | | | | |
| 20.30-21.00 | | | | | | | |
| 21.00-21.30 | | | | | | | |
| 22.00-22.30 | | | | | | | |
| 22.30-23.00 | | | | | | | |
| 23.00-23.30 | | | | | | | |
| 23.30-24.00 | | | | | | | |

Zertan aldatu behar dut?

## Egin nahi dudana.

Nire izen-abizenak: ________________________ Ikastaldea: ___________________

| | *Astelehena* | *Asteartea* | *Asteazkena* | *Osteguna* | *Ostirala* | *Larunbata* | *Igandea* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 00.00-00.30 | | | | | | | |
| 00.30-01.00 | | | | | | | |
| 01.00-01.30 | | | | | | | |
| 01.30-02.00 | | | | | | | |
| 02.00-02.30 | | | | | | | |
| 02.30-03.00 | | | | | | | |
| 03.00-03.30 | | | | | | | |
| 03.30-04.00 | | | | | | | |
| 04.00-04.30 | | | | | | | |
| 04.30-05.00 | | | | | | | |
| 05.00-05.30 | | | | | | | |
| 05.30-06.00 | | | | | | | |
| 06.00-06.30 | | | | | | | |
| 06.30-07.00 | | | | | | | |
| 07.00-07.30 | | | | | | | |
| 07.30-08.00 | | | | | | | |
| 08.00-08.30 | | | | | | | |
| 08.30-09.00 | | | | | | | |
| 09.00-10.00 | | | | | | | |
| 10.00-10.30 | | | | | | | |
| 10.30-11.00 | | | | | | | |
| 11.00-11.30 | | | | | | | |
| 11.30-12.00 | | | | | | | |
| 12.00-12.30 | | | | | | | |
| 12.30-13.00 | | | | | | | |
| 13.00-13.30 | | | | | | | |
| 13.30-14.00 | | | | | | | |
| 14.00-14.30 | | | | | | | |
| 14.30-15.00 | | | | | | | |
| 15.00-15.30 | | | | | | | |
| 15.30-16.00 | | | | | | | |
| 16.00-16.30 | | | | | | | |
| 16.30-17.00 | | | | | | | |
| 17.00-17.30 | | | | | | | |
| 17.30-18.00 | | | | | | | |
| 18.00-18.30 | | | | | | | |
| 18.30-19.00 | | | | | | | |
| 19.00-19.30 | | | | | | | |
| 19.30-20.00 | | | | | | | |
| 20.00-20.30 | | | | | | | |
| 20.30-21.00 | | | | | | | |
| 21.00-21.30 | | | | | | | |
| 22.00-22.30 | | | | | | | |
| 22.30-23.00 | | | | | | | |
| 23.00-23.30 | | | | | | | |
| 23.30-24.00 | | | | | | | |

Aurrera eraman ahal izateko izan ditzakedan zailtasunak eta nola molda ditzakedan.

## I10. Kurtsoa hasia dagoenean, ikasleak nola dauden aztertzeko ekintza

### Zertarako erabil daiteke?

- Taldean jokaera baikorra lortzeko. Taldea lan egiteko baliabidea dela irizten badiogu, interesgarria deritzogu taldea ongi kohesionatzea.
- Taldea egiten ari da orain. Guk taldea ongi egitura dadin laguntza ematen saiatzen gara.

### Prozedura

1. Inkesta erantzun beharko dutela erranen diegu ikasleei. Bertan beraien izena jarriko dute. Zer lortu nahi dugun ere erranen diegu. Hasieran bakarkako lana da. Gero taldeka lan eginen dute inkestako galdera batzuen inguruan. Bakarkako lanerako 15 minutu besterik ez dutela erranen diegu. Erantzun egokiak dira denak. Garrantzitsuena egia erranez erantzutea da.
2. Galdetegia banatuko dugu eta isilean erantzun dezatela eskatuko diegu.
3. Erantzuten duten bitartean lan-taldeak –zarata handia atera ez dezaten– nola mugituko diren pentsatzen dugu.
4. Boskoteak osatuko ditugu. Moderatzailea eta idazkaria. Elkarrekin hitz egiten dute (20 minutu, tutoreak luza dezake). Ez litzateke asko inportako hurrengo astean ere horretaz hitz egitea.
5. Taldean berriz erantzun. Bukaerako erredakzioa adostasunez idaztea lortu behar dute. Adostasuna lortzea ezin denean, ikasleek emandako erantzun guztiak agertu behar dituzte.
6. Moderatzaileek taldeen erantzunak kontatuko dituzte. Talde handian solasaldi irekia.
7. Tutoreak doinu baikorra emanen dio errandakoari. Zertan hobetu behar dugu?
8. Tutoreak inkesta guztiak hartuko ditu (bakarkakoak eta taldekoak). Begiratu eta bere ondorioak aterako ditu.

### Oharrak

Elkarrekiko komunikazioa da gaurko tresna

–

**Guztion artean ikasturtea nola doan aztertzeko ariketak.**
**Galdera-sorta**

Nire Izena: ________________________________ Kurtso eta atala: __________

1. Badaramat hainbat aste klasean, hasieran pixka bat zera nengoen...
2. Klasea funtzionatzen hasi zenean...
3. Jende ez ezagunarekin hitz egin behar dudanean...
4. Talde berrietatik gehien gustatzen zaidana zera da...
5. Patiora goazenean ni...
6. Kideengandik gehien gustatzen zaidana zera da...
7. Kideengandik gutxien gustatzen zaidana zera da...
8. Nire kurtsoko taldea horrela izatea gustatuko litzaidake:...
9. Taldea niri gustatzen zaidan bezalakoa izan dadin, prest nago hau egiteko:...
10. ..., gure institutuan gehien izorratzen nauena zera da:...
11. Hemen okerren funtzionatzen duena zera da:...
12. Nire iritziz okerren funtzionatzen duen hori zuzentzeko, ni prest nago zera egiteko:...
13. Institutuak irakasten digunaz gain, zera irakatsi beharko liguke:...
14. Gure gelako kideen artean Euskararen erabilpenari buruz daukagun jarrera hauxe da:...

Eman batetik bosterako balioa segidan ageri diren esaldiei. “Bat” balorapenak zera erran nahi du: “Ez nago hemen esaten denarekin batere ados”. “Bost” balorapenak zera erran nahi du: “Ados nago hemen esaten denarekin”.

a) Puntual ailegatu eta ateratzen gara beti _________________________
b) Gela honetan lagunen arteko giro ona daukagu __________________
c) Gela honetan lana egiteko giro ona daukagu ____________________
d) Oso suerte ona daukat gela honetan egoteagatik ________________
e) Irakasleek ahalik eta hobekien egiten dute lan guk, ikasleok, gai guztiak ulertu eta ikas ditzagun ________________________________
f) Mahaiak ongi daude kokatuta. Hau dela-eta, ongi egiten dugu lana gure gela honetan ____________________________________________
g) Gure taldeko jendeak ez ditu instalakuntzak zikintzen, oso jende txukuna gara arlo honetan ___________________________________
h) Nire jarrera egokia da ________________________________________
i) Errespetua diogu elkarri ______________________________________
j) Irakasle eta ikasleen artean errespetua dago ____________________

k) Institutua garbitzen duten pertsonek lan handia egiten dute ikastetxea garbia egon dadin saiatuz ____________________

l) Ingurugiroa eta ekologia guregandik hurbilen dagoen tokian hasten da, hau dela-eta denok saiatu behar dugu gure ondoan dagoen giroa ahalik eta garbien edukitzen ____________________

m) Ez zait batere gustatzen jendeak Institutuan erretzea ____________

n) Nire lagun euskaldunekin Euskaraz egin nahi dut ______________

## Taldean erantzuteko galdera-sorta

Ondoko pertsonez osaturiko taldea:

Kurtsoa eta atala: __________

Bakarka idatzitakoa denon artean aztertu behar duzue. Saia zaitezte adostasunera iristen (denon arteko adostasunera, alegia).

1. Hainbat aste daramagu klasean, hasieran pixka bat zera geunden...
2. Klasea funtzionatzen hasi zenean gu...
3. Jende ezezagunarekin hitz egin behar dugunean...
4. Talde berrietatik gehien gustatzen zaiguna...
5. Patiora goazenean gu...
6. Kideengandik gehien gustatzen zaiguna...
7. Kideengandik gutxien gustatzen zaiguna...
8. Gustatuko litzaiguke taldea horrelakoa balitz...
9. Taldea gustatzen zaigun bezalakoa izan dadin prest gaude...
10. Institutuan gehien izorratzen gaituena zera da...
11. Hemen okerren funtzionatzen duena...
12. Gure iritziz, okerren funtzionatzen duen hori zuzentzeko, zera egingo genuke...
13. Gure Institutuak, irakasten digunaren gainetik, zera irakatsi beharko liguke...
14. Gure institutuan dagoen gauzarik hoberena zera dela iruditzen zaigu...

Jarraian, hitz egin ezazue taldean bakarka erantzun duzuen azkeneko esaldi-multzoaz... Badago hobe dezakegun zerbait? Zer egin dezakegu gauza guztiak ongi joan daitezen? Erantzun hau ematerakoan, har ezazue kontuan ongi dauden gauzak ere hobe daitezkeela, beti.

# J. Ordezkariak

## Zera lantzen dugu

Ikastaldeko ordezkariak hautatzea.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| J1 | Ordezkariak hautatzea. | DBH1, 2, 3, 4 | Ikasturtearen hasieran | Tutorearentzat |

## J1. Ordezkariak hautatzea

### Zertarako erabil daiteke?

1. Kargu bakoitzaren betebeharrak kontutan harturik ikasle talde bakoitzak bere ordezkariak aukeratzeko, pertsona egokienak aukeratzearen inportantziaz jabetu ondoren.

Bozketa aurretik, ikaslek ondorengo puntu hauetaz jabetuko dira:

– Ordezkarien betebeharrak.
– Betebehar hauek jasoko dituzten pertsonen ezaugarriak.
– Bozketa-mahiaren osaera.



### Prozedura

– Lehenik eta behin, tutoreak tutoretza-ordua ordezkarien hauteskundeetan beteko dela adieraziko die. Kurtsoan zehar nahasmenik izan ez dadin, ordezkarien betebeharrak eta kargu hauek jasoko dituzten pertsonen ezaugarriak erabaki beharko dituztela adieraziko die.
– Horretarako, lekuz aldatu gabe, 4 laguneko taldeak osatuko dituzte, 5 minututan ordezkarien 2 betebehar (gutxienez) eta beste 2 ezaugarri (gutxienez) erabakitzeko.
– Gero beste bost minutu erabiliko dituzte betebehar nagusiak zeintzuk diren erabakitzeko. Tutoreak egoki baderitzo, ikasleek betebehar eta ezaugarriak ordenatu ahal izanen dituzte.
– Ondoren, talde bakoitzean sortutakoa arbelean bilduko da.
– Taldean sortutako betebehar eta ezaugarri hauek gure Institutuko emandakoekin (baita dekretuan ematen direnekin ere) alderatuko dira, azkenean betebehar zehatz batzuekin denok bat etorri beharko dira.

– Beste hainbeste lortu beharko da ezaugarriekin.
– Ondoren bozketara pasako gara. Lehenengo bozketan erabateko gehiengoa lortzen ez bada (botoen erdia gehi bat), beste bozketa bat eginen da; bigarren honetan, gehiengo soilak erabakiko du.
– Bukatzeko, prozesuaren akta beteko da. Akta hau ikasketa-buru edo koordinatzaileari emanen diogu.
– Oharra: lehendabiziko kurtsoko taldeetan batez ere, komeni da aurretik Eskola Batzordearen osaketa eta betebeharrak azaltzea.

*Posibilitateak*: Tutoreok erabakitzen dituztenak.

## Oharrak

*Iraupena*: bi saio.

*Materiala*:
– Ordezkari eta azpiordezkariaren betebeharrak eta ezaugarriak, bozketa prozesua.
– Hauteskundeetarako akta.
– Eskola Batzordeari buruzko dokumentua (ikastetxe bakoitzak bere eredua izan badezake ere, hemen legea doakigu, erreferentzi gisa).

### 1. Dokumentua.
### Ordezkariaren betebeharrak

a) Ordezkarien batzarraren bilkuretara joan eta deliberoetan esku hartzea.
b) Ordezkatzen duten taldearen iradokizun eta erreklamazioak agintari akademikoei azaltzea.
c) Bere taldeko ikasleen arteko harreman onak bultzatzea eta taldearen funtzionamenduaren inguruko gaietan tutoreari eta irakasle-taldeari laguntzea.
d) Institutuko irakasle eta buruekin lankidetzan aritzea, zentroaren funtzionamendua egokia izan dadin.
e) Ardura hartzea, institutuko materialak eta instalazioak egoki erabil daitezen.
f) Barne-araudiak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak.

*Tutorea: Zure taldean zerbait gehiago baldin badago, erran ezazu.*

### Azpiordez karioren betebeharrak

1. Ordezkaria falta denean bera ordezkatu, betebehar guztiak bere gain hartuz.

## 2. Dokumentua.
## Ordezkariaren ezaugarriak

1) Ordezkari izan nahi izatea.
2) Gelako nahiak bildu eta diren bezala azaltzeko abilezia edo trebetasuna; gela osoak adierazitako nahiak, aldatu gabe, defendatzea.
3) Bere gela ordezkatzea, bere kabuz erabaki gabe.
4) Gauzak ongi egin nahi izatea. Nolabaiteko zintzotasuna ere beharrezkoa da.
5) Pertsona fidagarria izatea. Zintzoa. Gure taldea ongi defendatuko duena.

## 3. Dokumentua.
## Bozketa

Hurrengo tutoretza-saioa.

1) Idatzia eta gorderik (bozketa-orriak erabiliz)
2) Bozketa-orri bakoitzean 2 izen-abizen jarriko dituzte.
3) Lehenengo bozketan “erabateko gehiengoa” (botoen erdia gehi bat) beharko da ordezkaria hautatzeko.
4) Botoen gehiengo hori lortzen ez bada, aurrekoan boto gehien jaso dituztenetatik bat aukeratzeko bigarren bozketa eginen da. Honetan “gehiengo soila” nahikoa izanen da. Boto gehien atera duena Ordezkaria izanen da eta bigarrena Ordezkariordea.
5) Akta bete eta sinatu besterik ez.

## 4. Dokumentua.
## Bozketa-mahaia

Ondoren zehazten den bezala osatuko da:

1) *Lehendakaria*: tutorea izanen da.
2) *Mahaikidea*: gelako ikaslerik zaharrena izanen da.
3) *Idazkaria*: gelako ikaslerik gazteena izanen da.

## 5. Dokumentua.
## Ariketa egiteko plantila

Taldea osatzen duten lagunen izenak: ______________________________

______________________________________________________________

______________________________________________________________

| | |
|---|---|
| Ordezkariak egin behar dituen gauzak | Begiratzen ahal duzue:<br>Barne-arautegia.<br>IEO (ROC)<br>Tutoreari galdetu |
| | |
| Betebehar hauek egiteko zer-nolako pertsona izan behar du gure ordezkariak? Zeintzuk dira ordezkari baten ezaugarriak? | |
| | |
| Nortzuk izan daitezke klaseko ordezkariak?<br>Proposamena | |
| | |

Iruditzen bazaizue, eskatzen ahal diezue beraien burua aurkeztea.

## 6. Dokumentua.
## Akta

Gaur egun _________ (data) _________ etan, bozketa egin dugu __________ (gela)n.

Hauek izan dira emaitzak:

| Pertsonen izenak | Botoen kopurua |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |

Hau kontuan hartuz
_________________________________________________, ordezkaria eta
_________________________________________________, ordezkariordea izendatzen ditugu.

Gertaerak:

| Mahai-buruak | Idazkariak | Mahaikideak |
|---|---|---|
| (Tutorea) | (Ikaslerik gazteena) | (Ikaslerik zaharrena) |

Lekua eta data:

## 7. Dokumentua.
## Foru Dekretua.

25/1997 Foru Dekretua, Otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa onesten duena.

*VI. Titulua. Ikasleen ordezkarien batzarra*

67. artikulua. Ordezkarien batzarraren osaketa, funtzionamendua eta bilerak.

1. Bigarren Hezkuntzako institutuek ikasleen Ordezkarien Batzar bat izanen dute, honela osatua: Talde bakoitzeko ikasleek libreki hautatutako ordezkariak eta ikasleek institutuko Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariak.

2. ikasturteko lehenbiziko hilabetean ikasle talde bakoitzak taldeko ordezkaria aukeratuko du bozketa zuzen eta sekretuaren bidez. Ordezkariak ikasturte osoan jardunen du kargu horretan, eta ikasleen ordezkarien batzarrean esku hartuko du. Era berean, ordezkariorde bat hautatuko da, ordezkaria falta edo gaixo denean ordezka dezan eta bestelakoetan ere haren eginkizunetan lagun diezaion.

3. Ikasketa-buruak antolatu eta deituko ditu ordezkari eta ordezkariordeen hautaketak. Horretarako, taldeko tutoreen eta Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkarien laguntza izango du.

4. Ordezkariak eta ordezkariordeak hautatu zituen taldeko ikasleen gehiengo osoak bere esku izango du hautaketa hori baliogabetzea. Horretarako, beharrezko izango da aldez aurretik tutoreari igortzea erabaki hori arrazoitzen duen txostena. Egoera hori suertatuz gero, hamabost eguneko epean egin beharko da beste bozketa bat, aurreko puntuan xedatutako guztia bete behar duena. Ordezkariak edo ordezkariordeak euren kargua uzten badute, prozedura berdinari jarraituko zaio.

5. Ikasleen ordezkarien Batzarrak ikasleen eskubide eta betebeharren araudiak eta kasuan kasuko ikastetxearen barne-araudiak aitortzen dizkioten eginbeharrak izanen dituzte.

6. Ordezkarien batzarra osoko bilkuran edo batzorde txikiagoetan elkartuko da. Azkeneko bide hau hartuko da arazoen izaera berezia dela-eta, institutuko ikasmaila edo hezkuntza-etapa bateko ordezkariak biltzeko.

7. Osoko bilkuran elkartutako ordezkarien batzarrari edo horren zeinahi batzorderi entzutea eman beharko diote institutuko kide bakarreko gobernu-organoek, batzarrak hala eskatzen badu eta arazoek ikasleak zuzenean ukitzen badituzte.

8. Ordezkarien batzarreko kideak ezin zigortuko dira Foru Dekretu honek eta euren ikastetxeen barne-araudiek ematen dizkieten eginkizunak, araututako eran, betetzeagatik.

9. Ikasketa-buruak toki egoki bat eskainiko dio ordezkarien batzarrari bilkurak egiteko, baita ongi aritzeko baliabide materialak ere.

*68. Artikulua. Taldeko ordezkarien eginkizunak*

Taldeen ordezkarien lana da:

a) Ordezkarien batzarraren bilkuretara joan eta berorietan esku hartzea.

b) Ordezkatzen duten taldearen iradokizun eta erreklamazioak agintari akademikoei azaltzea.

c) Bere taldeko ikasleen arteko harreman onak bultzatzea eta taldearen funtzionamenduaren inguruko gaietan tutoreari eta irakasle-taldeari laguntzea.

d) Institutuko irakasle eta buruekin lankidetzan aritzea, zentroaren funtzionamendua egokia izan dadin.

e) Ardura hartzea, institutuko materialak eta instalazioak egoki erabil daitezen.

f) Barne-araudiak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak.

Ikastetxeko barne arautegian 6. artikuluan irakurri behar dugu.



**8. Dokumentua.**
**Txartelak**

| | |
|---|---|
| *Institutua*<br>Ikaskide hauei ematen diet nire botoa nire ordezkariak izan daitezen. | *Institutua*<br>Ikaskide hauei ematen diet nire botoa nire ordezkariak izan daitezen. |
| *Institutua*<br>Ikaskide hauei ematen diet nire botoa nire ordezkariak izan daitezen. | *Institutua*<br>Ikaskide hauei ematen diet nire botoa nire ordezkariak izan daitezen. |

# K. Arazoak aztertzeko materialak

## Zera lantzen dugu

Gure arazoak aztertzeko materialak.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| K1 | Problemak aztertzeko materiala. | DBH1, 2, 3, 4 | Arazoak | Tutorearentzat |
| K2 | Gela arazoekin. | DBH1, 2, 3, 4 | Arazoak | Tutorearentzat |
| K3 | Gelako jokaera aztertzeko tresna erraza. | DBH1, 2, 3, 4 | Arazoak | Tutorearentzat |
| K4 | Lagunarteko arazoak. | DBH1, 2 | Arazoak | Tutorearentzat |
| K5 | Gure taldeak hobetu nahi du. Nik hobetu nahi dut. | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluaketa eta gero | Tutorearentzat |

## K1. Problemak aztertzeko materiala

### Zertarako erabil daiteke?

Tutoreak, ikasleen ikuspuntutik, ikastaldean gertatzen dena ezagutzeko.

K

**__________________________________ Institutua.**
**Tutoretza departamentua. Ikasleentzako galdetegia.**

*Helburuak:*

1. Ikasleei ahalik eta hobe ikas dezaten laguntzea.
2. Lana ahalik eta hobekien egin dezaten geletako giroa indartzea.
3. Denon artean ikus dezagun zertan alda dezakegun kalifikazioak ahalik eta altuenak izan daitezen.
4. Ikasle eta irakasleen arteko giroa hobetzea.

*Oharra.*

Kontuan har itzazu dauzkagun helburuak. Saia zaitez ahalik eta zintzoen erantzuten. Galderak izatekotan tutoreari galdetu. Ez duzu izena jarri beharrik. Erantzun egokia borobildu.

1. Identifikazioa. Non zaude?
   a) DBH.
2. Identifikazioa: Zer zara?
   a) Neska.
   b) Mutila.
3. Klasean daukagun ikasteko giroa. Zure iritziz...
   a) ... oso ona da.
   b) ... ona da.
   c) ... ez dakit edo erregularra da.
   d) ... txarra da, kostatzen zaizu denbora aprobetxatzea.
   e) ... oso txarra da, ezin duzu behar den bezala aprobetxatu.
4. Irakasleekiko harremana...
   a) ... ona da.
   b) ... normala da.
   c) ... txarra da.
5. Ikasleen arteko lan-giroa...
   a) ... ona da.
   b) ... hala-moduzkoa da.
   c) ... txarra da.
6. Ikasleen arteko lagun-giroa...
   a) ... ona da.
   b) ... Hala-moduzkoa da.
   c) ... txarra da.
7. Pertsonalki ongi sentitzen zara ikaskideekin?
   a) Bai.
   b) Ez.
   c) Ez ongi, ez gaizki.
8. Pertsonalki ongi sentitzen zara irakasleekin?
   a) Bai.
   b) Ez.
   c) Ez ongi, ez gaizki.

9. Ikaskide batzuek irakasleen adierazpenak oztopatzen dituzte
   a) Ados.
   b) Ez dakit.
   c) Ez nago ados.
10. Erakutsi behar digutena hagitz ederki ezagutzen dute irakasleek. Adituak dira beraien gaietan.
   a) Ados.
   b) Ez dakit.
   c) Ez nago ados.
11. Dakitena ongi erakusten digute irakasleek.
   a) Ados.
   b) Ez dakit.
   c) Ez nago ados.
12. Gehiegi hitz egiten dugu klasean eta afera honek lan egiteko aukera oztopatzen du.
   a) Ados.
   b) Ez dakit.
   c) Ez nago ados.
13. Orientazioa egiten ari gara eta gutxi gorabehera datorren urtetik aurrera egin nahi duzuna badakizu zer den.

13A. *Zure lana* kontuan hartuz eta gauzek orain arte bezala segitzen badute...
   a) ... Nahi dudan ikasketa egiteko aukera guztiak izanen ditut.
   b) ... Segur aski bai, lortuko dut gainditzea.
   c) ... Aukera txikiak izanen ditut.
   d) ... Arriskuan nago, baliteke DBH ez gainditzea.
   e) ... Ez dut lortuko.

K

13B. *Klaseko giroa* kontuan hartuz eta gauzek orain arte bezala segitzen badute...
   a) ... Nahi dudan ikasketa egiteko aukera guztiak izanen ditut.
   b) ... Segur aski bai, lortuko dut gainditzea.
   c) ... Aukera txikiak izanen ditut.
   d) ... Arriskuan nago, baliteke DBH ez gainditzea.
   e) ... Ez dut lortuko.

14. Norberak ikusi behar du zertan dagoen eta zer-nolako gauzak egin behar dituen kurtsoa eta bizitza aurrera ateratzeko. Taldean gaudenean, aldiz, *lan-giro* aproposa lortzea guztion ardura da.
   a) Zer egin behar dute zure ikaskideek? Jarraian erantzun.

   b) Zer egin behar dute irakasleek? Jarraian erantzun.

   c) Zer egin behar duzu zerorrek? Jarraian erantzun.

15. Nire iritziak esateko askatasun osoa daukat ikaskideen artean:
   a) Bai. Lasaitasun osoz ematen ditut nire iritziak.
   b) Ez. Ez ditut nire iritziak ematen, zenbait ikaskidek ez baitituzte besteen iritziak errespetatzen.

16. Erasoren bat jaso duzu zure ikaskideengandik?
    a) Bai. Jarraian idatzi.
    b) Ez.
17. Zure ikaskideak eraso dituzu noizbait?
    a) Bai.
    b) Ez.
18. Zenbait irakasgaitan a, b eta c taldeak nahasten dira. Nola baloratzen duzu taldekatze berria?
    a) Ongi.
    b) Berdin zait.
    c) Gaizki.
19. Apunta itzazu hemen zure iritziz klasean dauzkazuen arazoak. Mesedez, kontuan hartu ezingo dizuegula lagundu isilik gordetzen badituzue. Halaber, arazo handirik ez badago, idatzi ezazue berdin.

*Gertaeren deskribapenak.*
Posible den neurrian ez egin balorapenik.

| Gertatu dena | Zer egin zenuen? Zer egin zuten bertan zeuden irakasleek? | Ikastaldearen erantzuna |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

## K2. Gelan arazoak daudenerako

### Zertarako erabil daiteke?

- Taldeko partaide guztien jarrera aztertzeko.
- Problema baten aurrean erantzunak emateko. Soluziobideak lortzen saiatzeko.
- Gelakideen arteko harremanen aurrean suertatzen diren zailtasun, tentsio eta gatazkak direla-eta, norbere buruaren ebaluaketa egiteko.

### Prozedura

K

*Jardueraren garapena (Norberak egin behar duen lana)*

- Bakarka egiteko lana: 15’
- Bosnakako taldetan: 20’
- Talde osoan: 20’

*Oharra*:

- Tutoreak ikusiko du merezi duen zerbait aldatzea.

*Beharrezkoa den materiala:*

- Galdera-sortak (ikaslearena eta taldearena).
- Tutorearen laguntzarako txostena.
- Taldeak dituen arazoen konponketarako urratsak.

*Prozedura:*

0. Beharbada saioak bi klase hartuko dizkigula kontuan hartzea beharrezkoa deritzogu. Lehen egunean bi pausu egin daitezke eta bigarrenean azkena.
1. Motibazioa: idazlana gelan denentzat irakur daiteke edota giroaren arabera, isilka, bakoitzak berea. Taldeak berarentzat bereziki prestatuta dagoela pentsa ez dezan, egin itzazu ahalegin guztiak.

*Behin bazen arazoak, arazo dezente zituen ikastaldea. Gela hartako ikasle batek idatzitakoa irakurriko dizuet. Entzun ezazue:*

"Gure gelako arazoa tontolapikoak egotea da, nire iritziz. Irakasle bat zerbait azaltzen ari denean, batzuk eragozten diote, hitz eginez edo barre eginez; dena bost axola zaie eta guztiek berdin jokatzea nahi luketela dirudi. Gelatik eskapatzen dira batzuk eta hori beraien arazoa da, zeren, bederen, horrela gu bakean uzten baikaituzte, halere beti bada irakasle astunen bat denoi gogorarazten diguna, gutxi batzuen arazoa dela konturatuko ez balitz bezala.

Gauza da, irakaslea zerbait azaltzen ari denean, zerbait irrigarria aipatzen dutela, hitz egiten dutela edo barrez hasten direla, eta gu guztiok haiei jarraitzea eta irakasleak haria galtzea lortzen dutela, klaseak istiluan bukatzen duelarik...

Irakasleria gure aurka jartzen ari da, nazka edukiko baligute bezala, batxilergoko 1. talde hau okerrena dela... inork ez gaituela jasaten...

Dena den, gure gelako jendea, orokorrean jatorra da, lanean ari gara, eta ikasten dugu. Datorren urtean batxilergoko bigarren maila egingo dugu eta unibertsitatera sartzeko frogak pasatuko. Honela jarraituz, ordea, oso nota apalak aterako ditugu eta batez bestekoa jaitsiko digute. Orain gure gelan sortzen ari zaigun giro txarragatik ezin izanen gara guk nahi dugun karreran sartu.

Lau katurengatik dena izorratu beharraz nazkatuta nago. Horretarako ez dago eskubiderik. konponbidea non dagoen jakinen banu, konponduko nuke baina... jende honi aurre egiteak beldur pixka bat ematen dit, zeren..., agian, elkar joka bukatuko dugu eta, 'Pelota edo lausengaritzat' hartzerik ere ez nuke nahi.

Mundu guztia gutaz kexatzeaz ere kokotaraino nago. Gela osoa oso txarra dela dirudi eta gelako gehiengoa oso jatorra dela ziur nago.

Nik, pertsona, ikasle eta ikaskide bezala errespetatua izatea exijitzen dut, nik besteak errespetatzen baititut. Ez dakit zer egin giroa aldatzeko eta gauzak behar bezala joateko... eta gainera, hainbeste denbora pasatu behar dugu elkarrekin!

Benetan sentitzen dudana hauxe da: nahastuta nago. Nik bezala pentsatzen duen jende gehiago egonen da, agian, baina hain egiten zait zaila inori ezer esatea..."

Gure taldekideen artean ere komunikatzeko eta harremanetarako zailtasunak gertatzen dira. Probetxuzko lana ateratzeko zailtasunak ditugu. Nahi baduzue, denon artean, irtenbidea bilatuko dugu.

1. *Bakoitzaren lana.*

"Ni ikasgela honetan..." deritzon galdera-sorta banatuko zaio ikasle bakoitzari eta betetzeko eskatuko diogu. 10-15 minutuko tartea izanen dute.

2. *Bosnakako azpitaldeak.*

Ikasgela antola ezazu bost pertsonez osatutako taldetan (kontuz! Jokaera ezkorrak dituzten ikasleak, azpitalde ezberdinetan zatituta geratzea komeniko litzateke). Talde bakoitzak "taldearentzako galdera-sorta" erantzungo du.

3. *Eztabaida azpitalde bakoitzean.*

Azpitalde bakoitzeko pertsona batek bere taldekideen artean eztabaidatutakoa komunean jarriko du. Honen inguruan, gaiari buruzko eztabaida orokorra sortzen da gelan.

4. *Bai banakako nola taldeko galdera-sortak bilduko dira.*

K

Nire izena eta abizenak: ______________________________

Nire klasea: ______________________________

Hona hemen esaldi batzuk: denak "Klase honetan..." hitzez hasten dira. Esaldi guztiak bukatuz nola sentitzen zaren adieraziko duzu. "X" dagokion laukitxoan ezarriko duzu. Erabil ezazu eredu hau erantzunak emateko:

1. Inoiz edo ia-ia inoiz.
2. Gutxitan.
3. Batzuetan bai eta beste batzuetan ez.
4. Maiz askotan.
5. Beti edo ia-ia beti.

Ez ezazu gehiegi pentsa, erantzun ezazu burura datorkizun lehenarekin. Erantzunak ez dira onak edo txarrak. Zera har ezazu kontuan: erantzunik hoberena zure sentipena adierazten duena da.

| *Zk.* | *Klase honetan...* | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | ... nire ideiak askatasunez adieraz ditzaket | | | | | |
| 02 | ... nire sentimenduak askatasunez adieraz ditzaket | | | | | |
| 03 | ... besteek ezagutzen nautenean ongi pasatzen dut | | | | | |
| 04 | ... gustura nago | | | | | |
| 05 | ... taldea bezala onak izan gaitezkeelakoan nago | | | | | |
| 06 | ... nire jokaera hobetzeko prest nago | | | | | |
| 07 | ... nire ikaskideei jokaera egokia izan dezaten eskatzeko prest nago | | | | | |
| 08 | ... bakarrik sumatzen dut neure burua | | | | | |
| 09 | ... ezberdina banintz bezala sentitzen naiz | | | | | |
| 10 | ... ikaskide gutxi batzuekin izaten ditut lagun-harremanak | | | | | |
| 11 | ... ez daukat nire buruarengan konfiantzarik | | | | | |
| 12 | ... besteek ez naute onartzen | | | | | |
| 13 | ... uste dut besteek nitaz paso egiten dutela | | | | | |
| 14 | ... urdurik sentitzen naiz | | | | | |
| 15 | ... besteek nitaz esamesetan dabiltzala iruditzen zait | | | | | |
| 16 | ... besteek naizen bezala ez nautela ikusten iruditzen zait | | | | | |
| 17 | ... besteak ez direla egiazaleak iruditzen zait | | | | | |
| 18 | ... besteak hotzegiak direla iruditzen zait | | | | | |
| 19 | ... okertzen naizenean, besteek nitaz barre egiten dutela iruditzen zait | | | | | |
| 20 | ... irakasleriak ezkorki baloratzen gaitu | | | | | |
| 21 | ... gure jarrera dela-eta ikas genezakeena baino gutxiago ikasten dugula iruditzen zait | | | | | |
| 22 | ... haurrek bezala jokatzen dugu | | | | | |
| 23 | ... talde bezala izan ditzakegun arazoak beste pertsonek moldatu behar dituzte, ez guk. Adibidez, tutoreak edo ikasketa-buruak moldatu behar ditu. Baliteke eskola kontseiluak moldatu behar izatea | | | | | |
| 24 | ... irakasleak gure klasean sartzerakoan gure nolabaiteko jarrera txarra espero du eta gure kontra bere burua defendatzen hasten da klasean | | | | | |
| 25 | ... ez ditut nire ideiekin bat ez datozen ideiak onartzen | | | | | |
| 26 | ... besteek nitaz pentsatzen dutenaz kezkatuta nago | | | | | |
| 27 | ... nire irudiz, besteak nitaz kezkatzen dira | | | | | |
| 28 | ... denon artean mintzatuko eta elkar ezagutuko bagenu gauzak hobeto joanen liratekeela uste dut | | | | | |
| 29 | ... gutxi batzuengatik funtzionatzen du klaseak | | | | | |
| 30 | ... besteek nitaz pentsatzen dutenak kezkatzen nau | | | | | |

Galdetu ez dizugun zerbait garrantzitsua aipatu nahi baduzu, egizu zati honetan:

### Bost lagunez osatutako taldean erantzuteko galdera-sorta

Taldekideen izenak: ______________________________

______________________________

______________________________

______________________________

______________________________

Klaseko giroaz elkarrekin pentsatzea da lan honen helburua. Galdetegia interesgarria bada ere, interesgarriagoa da elkarrekin pentsatzen duzuena ongi adieraztea eta elkarrekin komentatzea. Akordio batera ailegatu eta gero idatzi erantzuna.

1. Elkarrekin harreman baikorrak izateko zeintzuk dira dauzkazuen hiru akats?

   ______________________________

   ______________________________

   ______________________________

   ______________________________

2. Gure iritziz klasean dauzkagun zailtasunen arrazoiak hauexek dira:

   ______________________________

   ______________________________

   ______________________________

   ______________________________

3. Zailtasun hauek moldatzeko zer egiten ahal dugu?

   ______________________________

4. Zertara konprometitzen da taldea gauzak ahalik eta hobekien joan daitezen?

   ______________________________

5. Ba al da erran nahi duzuen beste zerbait?

   ______________________________

6. Zuen iritziz zertarako ari gara gauza hauek egiten?

   ______________________________

7. Proposamen bat egin nahi diozue taldeari?

   ______________________________

## K3. Ikastaldeko jokaera aztertzeko tresna erraza. Ikasleentzat eta irakasleentzat

### Zertarako erabil daiteke?

Taldeko jokaera aztertu behar dugunerako.

### Prozedura

1. Erantzun bakarka. Lehen inkesta.
2. Talde txikiak osatu eta bigarren inkesta bete.
3. Tutoreak irakasle-taldean errandakoa kontatuko du.
4. Talde txikiko bozeramaileak taldeko iritziak aipatuko ditu.
5. Solasaldia.
6. Tutoreak zera galdetuko du:
   – Zer egin behar dugu hobe funtzionatzeko?
   – Prest zaudete hori egiteko?

Izen-abizenak: ______________________________
Taldea: ______________________ Data: ______________

Bete itzazu lauki hauek. Letra ona erabili, mesedez.

| | *Ni eta nire lana* | *Klaseko taldea* | *Institutua orokorrean* |
|---|---|---|---|
| Ongi dagoena | | | |
| Hobetu behar dena | | | |

Zertan aldatu behar dut?

______________________________

______________________________

Zertan aldatu behar du nire taldeak?

______________________________

______________________________

Zertan aldatu behar dute irakasleek?

______________________________

______________________________

K

*Taldeko iritziak*

Taldeko partaideen izenak:

___

Zertan aldatu behar du gure taldeak?

___

Zertan aldatu behar dute irakasleek?

___

Zer egiteko konprometitzen gara?

___

*Irakasleen iritziak*

Irakasle-taldearen bilera: ________________ eguna: _________________

*Sintomak*

Arazoen deskribapen zehatza eramatea komenigarria da. Deskribapenak egiterakoan, ez dugu balorapenik egin behar. Zer da ikusi duguna?

___

*Hipotesia (zein da arazoa?).* Zergatik gertatzen da?

___

*Neurriak*

– Denborarekin jokatu?
– Tokiarekin jokatu?
– Irakasleen jarrerak aldatu?
– Zenbait neurri metodologiko?

## K4. Lagunarteko arazoak
(José Mari Zelaieta)

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleen artean suertatzen diren harreman-arazoez kontziente izateko.

### Prozedura

– Lehenik bakarka irakurriko dute.
– Bakarka erantzunen dituzte galderak.
– Talde txikiak osatuko dira (4-5). Tutoreak ikusiko du zein den irizpidea.
– Talde txikietan eztabaidatuko dute. Emaitzak aterako dituzte.
– Denon artean komentatuko dute.

## Lagunarteko arazoak

Neska-mutilek aspaldian elkar ezagutzen zuten. Taldea osatu zuten, baita lagun-lagunak sentitu ere. Urtetan edukitako gorabeherak huskeriengatik izan ziren beti, eta haserretu bezala, adiskidetzea lortzen zuten.

Pubertaroa iristearekin bat, gauzak aldatzen hasi dira. Lagun gehiago ezagutu dituzte, beste eskoletatik ere bat baino gehiago etorri baita. Harreman esparrua zabaldu dute; taldea ez dago hain itxia, hain lotua.

Egoera honek minberatasunak ekarri ditu. Haserreak gero eta luzeagoak eta sakonagoak izaten hasi dira; moldaketak zailagoak, batzuetan irainak ere tartean agertu dira.

Aspaldi sortu eta elikatu den taldea hausteko zorian dago, baita etsai bihurtzekotan ere.

Neska-mutil batzuk egoeraz ohartu dira, elkartu dira eta zenbait irtenbide aztertu dituzte, besteak beste:

a) Egoera dagoen bezala utzi, nahiz eta baten bat oso kaltetua izanen den.
b) Talde guztia elkartu zinera joateko. Pelikula interesgarri hori ikusi ondoren, lasai egoerari buruz hitz egin eta onartu talde berriak sor daitezkeela, baina horrek ez duela, nahitaez, lagun izanak baztertzea ekarriko. Ondorioz, gaizki eginak zuzendu.
c) Betiko taldea zatitzea ez onartu, elkarrekin zeudenean ongi bizi zirela aldarrikatuz.

### *Galderak*

1. Pasatu da zuen artean horrelako zerbait? Zer sentitzen da? Deskriba ezazu egoera.
2. Imajina ezazu goian aipatutako taldeko bat zarela; nola jokatuko zenuke? Zergatik? Zer pausu emanen zenituzke?

## K5. Gure taldeak hobetu nahi du. Nik hobetu nahi dut

### Zertarako erabil daiteke?

Ebaluaketa eta gero. Kalifikazioak txarrak izan dira.

### Prozedura

1. Ebaluaketa saioaz hitz eginen diezu ikasleei. Gutxienez zera erranen diezu:
   a) Jakintzagaika atera dezaketen gutxiegien portzentaia.
   b) Ikasle bakoitzeko gutxiegien kopurua (gutxiegien kopuru osoa zati ikasle kopurua)
   c) Taula hau.

   Gutxiegien kopurua
   Ikasle kopurua
   0
   1
   2
   Ikasle errepikatzaileak
   3
   4
   5
   6
   7
   8
   9

   d) Taldeari buruz irakasle-taldeak errandakoa.

2. Inkesta banatu (kontuz, hau ez duzu egin behar jarraian dauden beste pausuak egin behar ez badituzu). Bi orri daude inkestan:
   a) Batean izena jarriko dute (norberari buruzko galderak)
   b) Bestean ez dute jarriko (taldeari buruzko galderak)
3. Inkestak hartuko dituzu.
4. Saio honetan denbora badago, taldean hitz eginen dute. Zu (tutorea) gidari.
   a) Zer dago gaizki?
   b) Zer aldatu behar dugu?
   c) Konpromiso bateraturen bat hartzeko gauza gara?
5. Izena daukaten inkestetan oinarrituko zara elkarrizketa pertsonalak bideratzeko. Gero tutoretza-gelako fitxategian gordeko dituzu aipatu inkestak.
6. Izena ez daukaten inkestak hartu, aztertu eta hurrengo tutoretzasaioan eman horren berri.
7. Proposatu dituzten hobekuntzarako ideiak azter itzazu ikasle-taldearekin. Ikasturtearen hasieran elkarrekin adostu zituzten arauak aztertu eta gauzatze-maila ebaluatu.
8. Konpromiso lortu.

## Oharrak

– Soziograma gehitzen ahal da.
– Ez du merezi egitea ikasleei emaitzak eman behar ez bazaie.
– Helburua kontuan hartu behar da.
– Segidako bi saio hartu behar ditugu.

## Nik hobetu nahi dut

Izena: ______________________________________________

Taldea: ________________ Gaurko data: __________________

1. Zure kalifikazioak:

| *Jakintzagaia* | *Kalifikazioa* | *Errendimendua. Zenbakia* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

Tutorearen oharrak:

2. Zertan huts egin duzu?

_____________________________________________

3. Zer aldatu behar duzu datorren ebaluaketan hobetzeko? (Kontuan hartu beti hobetzen ahal dugula)

_____________________________________________

4. Zein da zure zailtasunik handiena? Non dituzu eragozpenak?

_____________________________________________

K

### Gure taldeak hobetu nahi du

1. Tutoreak irakasle-taldean hitz egindakoaz hitz egin dizue? Zer izan da gehien kezkatu zaituena?

   ______________________________________________

2. Zer dago oker taldean?

   ______________________________________________

3. Zertan aldatu behar duzue/dute taldean?

   ______________________________________________

4. Zer eskatzen diezu zure ikaskideei?

   ______________________________________________

5. Zertan laguntzen ahal dizuegu?

   ______________________________________________

DBH ___________

Erantzunak eman zenbakiari borobila eginez.

| Esaldia | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Esaldia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gela honetan dauden ikasleak alferrak dira | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Gela honetan dauden ikasleak langileak dira |
| Elkarrekin gaizki moldatzen gara. Orokorrean zera erran dezakegu: lagun-giro txarra dugula | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Elkarrekin ongi moldatzen gara. Orokorrean zera erran dezakegu: lagun-giroa ona dugula |
| Posible izanez gero, gela honetatik alde eginen nuke | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Kontent nago gelan, ez dut alde egin nahi |
| Irakasleek gutxi dakite | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Irakasleek aunitz dakite |
| Irakasleek gaizki erakusten dute | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Irakasleek ongi erakusten dute |
| Irakasleak ez dira garaiz iristen | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Irakasleak garaiz iristen dira |
| Ikasleok ez gara garaiz iristen | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Klasea hasten denean, denok gure mahaia prest dugu. Eserita gaude eta materiala prest dugu |
| Tutoreak ez digu laguntzen | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Tutoreak laguntzen digu |
| Gure artean arazoak daude | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Gure artean ez dago arazorik |
| Ezin dugu aldatu. Talde txarra gara eta kito | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Alda gaitezke, hobetu nahi dugu eta geuk egin dezakegu |
| Ez dugu aldatu nahi. Berdin zaigu gainditzea edo ez | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Aldatu nahi dugu. Ikasturtea atera nahi dugu |
| Nik ez dut hobetu nahi | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Nik hobetu nahi dut |
| Klasean egoteko moduan ez dut aldaketarik sartu. Lehen bezala nago | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Klasean egoteko moduan aldaketak sartu ditut. Hobe egoten naiz |
| Gela zikin dugu | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Gela garbi dugu |
| Gure artean ikasketaz aparte arazo larriak daude (pertsona batzuek dauzkate) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Gure artean ikasketaz aparte ez dago arazorik. Ongi gaude |

# L. Soziogramak

## Zera lantzen dugu

Taldeko harremanak nola dauden jakitea.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| L1 | Eredu batzuk | | Tutoretza-saioan | Tutorearentzat |

## L1. Giza harremanak ikusteko saioa. Soziograma

### Zertarako erabil daiteke?

Ikastetxean garatzen diren giza harremanak ezagutzeko.

Harreman hauek hobetzearren, ekintza-estrategiak proposatzeko.

### Prozedura

Soziograma pasatu (erantsitako galdetegia edota tutoreak berak asmatzen duena).

- Galdetegiaren ale bana emango diegu ikasleei.
- Izenburuan, izen-deiturak idatziko dituzte.
- Prozedura: Irakasleak 1. galdera irakurriko du eta erantzuteko denbora emanen die ikasleei. Berdin jokatuko du beste galdera guztiekin.
- Ikasleek ezin dute hitz egin. Beraien artean ez dezatela honetaz hitz egin aholkatuko die tutoreak.
- Galdera bakoitzean bi izen eman beharko dituztela adieraziko diegu, ordena ere garrantzitsua dela erranen diegu. Baliteke ikasleren batek inor gogoko ez izatea edota gorroto izatea, honelakoetan zera erantzunen dio tutoreak: “izen batzuk eman behar dituzu, beraz, gehien maite duzunik ez badago, erantzun ezazu ariketa horretan ‘gutxien gorrotatzen duzunaren izena’”.

Soziogramaren zuzenketa:

- Betetako galdetegiak jaso.
- Orden alfabetikoz ordenatu.

– Neurtutako alderdi bakoitzerako sarrera bikoitza duen koadroa prestatu (erreparatu ereduari).
– “Ordenatu-ardatzean” hautesleen zerrenda idatzi.
– “Abzisa-ardatzean” hautatuen zerrenda paratu.
– Hautaketak puntuatzeko kolore urdina erabili, puntuaketa honela eginik:
  • 3 puntu lehen hautatuari.
  • 2 puntu bigarren hautatuari.
  • Puntu 1, hirugarren hautatuari.
– Errefusetarako erabili kolore gorria eta hautaketetan bezala puntuatu.
– Ikasle bakoitzak lortu duen hautaketen batuketa aritmetikoa egin batetik, eta errefusena bestetik.
– Gezidun grafikoa ere erabil dezakezu. Galdera bakoitzeko grafiko bat erabiliko duzu.

## Oharrak

*Denbora:*
– Pasatzeko: 15 minutu.
– Zuzenketa: Ikasle kopuruaren arabera. Zuzenketa oso luzea da.

## DBH12

Zure izena eta abizenak: ________________________________________________

Taldea: __________________________________ Data: _________________________

*Galdetegia*

Suposa ezazu azterketa edo lan garrantzitsu bat prestatu behar duzula. Zure klaseko nori eskatuko zenioke laguntza? Eman bi izen:

1.
2.

Norekin ez litzaizuke gustatuko prestatzea?

1.
2.

Pentsa ezazu kanpaldi batera joaten zaretela. Norekin gustatuko litzaizuke kanpin-dendan egotea? Eman bi izen.

1.
2.

Norekin ez?

1.
2.

Irakasleen aurrean zure eskubideak ongi defendatzeko nor izan daiteke arduratsuena? Eman bi izen.

1.
2.

Nork ez luke ongi defendatuko? Eman bi izen.

1.
2.

## DBH3, 4
## Soziograma

Izena eta abizenak: ______________________________________________

Klasea eta Taldea: ______________________________________________

*Erantzunak ez dituzue jakinarazi behar.*
*Beraz, ez diezue zuen ikaskideei erran behar.*

1. Pentsa ezazu hiru egunetako txangoa egiten dugula. Errepidean autobusa gelditzen da eta ezinezkoa zaigu aberia moldatu. Bertan pasatzen dugu gaua. Hurrengo egunean polizia dator eta ondoko herrian pertsona bat erasoa izan dela esaten digute. Poliziaren ustez gu gara erasotzaileak. Ikaratzen gara eta erabakitzen dugu gutako norbaitek joan behar duela epailearengana gauzak argitzera. Ziur gaude gauean den-denok egon garela autobusean.

1.1. Zure iritziz, nor da klaseko hoberena lan hau egiteko (epailearekin hitz egitera joateko)?

| | |
|---|---|
| Hoberena: | |
| Hori joan ez bada, nor izanen litzateke? | |

1.2. Zure iritziz, nork ez luke joan beharko?

| | |
|---|---|
| Lehena | |
| Bigarrena | |

2. Ailegatu zarete hotelera. Gelak bi pertsonentzako dira.
   2.1. Norekin banatuko zenuke zure gela?

| Lehena: | |
|---|---|
| Lehena ikasketa bidaiara joan ez bada, norekin? | |

   2.2. Norekin ez?

| Azkenekoa: | |
|---|---|
| Azkeneko hau joan ez bada. Norekin ez zenuke banatuko? | |

3. Eskolako lanak egiteko...
   3.1. Norekin gustatzen zaizu lan egitea?

| Lehena: | |
|---|---|
| Bigarrena: | |

   3.2. Norekin ez?

| Azkenekoa | |
|---|---|
| Azkenaurrekoa | |

## Zuzenketarako ereduak

| *Hautesleak* | *Hautatuak* | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Joan | Pepe | Ana | Nerea | David | María | | | |
| Joan | | 3 | 1 | 2 | | | | | |
| Pepe | 3 | | 2 | 1 | | | | | |
| Ana | 3 | | | 2 | 1 | | | | |
| Nerea | 3 | 2 | | | | 1 | | | |
| David | 1 | 3 | | | | 2 | | | |
| María | | 3 | 1 | 2 | | | | | |
| | 7 | 14 | 4 | 7 | 1 | 4 | | | |




*Eskuz egitea gomendatzen dugu*

# M. Ikasle baten promozioa edo titulazioa erebaki behar denerako pentsatzeko tresna

## Zera lantzen dugu

DBHko helburu orokorrak hartu eta adierazle sorta bihurtuko dugu. Hona begiratuz ikaslearen egoera zein den aztertuko dugu. Irakasle-taldeak erabaki behar duenerako, gure iritzia zehaztuta izanen dugu.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| M1 | Promozioa erabaki behar dugunerako laguntza. | DBH 2, 3, 4 | Azkeneko ebaluaketa baino lehen | Edozein irakaslerentzat |

## M1. Promozioa edota titulazioa erabaki behar dudanerako laguntza

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleak bi jakintzagai baino gehiago utzi du. Promozioaz hitz egin behar du irakasle-taldeak. Irakasleak ikasle konkretu horretaz bere iritzia zehazteko baliotsua izan daiteke tresna hau.

### Prozedura

Irakasleak ebaluatzen du ikaslea. Besteak beste, tresna honetaz baliatzen da.

### Oharrak

Hurrengo orrialdean.

**Irizpideak.**

NAO, 1996ko martxoaren 29. 89/96 Foru Agindua.

“Curriculum proiektuan sartuko dira irakasle-taldeak ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan hurrengo ziklora edo kurtsora igotzea erabakitzeko aplikatu behar dituen irizpideak.

Irizpide horietan, beti ere, *irizpen hauek sartuko dira*:

a) Behar den ziklo edo kurtsoko hezkuntza helburuak bere osotasunean lortzea.

*(Consecución en términos globales de los objetivos educativos del Ciclo o curso correspondiente).*

b) Helburu orokorretan sartutako gaitasunekin alderatuta ikasleak duen heldutasuna.

*(Madurez del alumno en relación a las capacidades incluidas en los objetivos generales)*

c) Aurrera egiteko aukerak, hurrengo ziklo edo kurtsoan bere ikasketak probetxuz jarraitzeko

(*Posibilidades de continuar con aprovechamiento sus estudios en el ciclo o curso siguiente)*

(...) irizpide hauek kualitatiboak izanen dira eta ez dira soilik gainditu gabeko arlo eta gai kopuruari dagozkion alderdi numerikoetan oinarrituko. Betiere, bermatuko da ikasleak hurrengo ziklo edo kurtsora igoko direla gainditu gabeko arlo edo gai bat edo birekin”.

Irakasle-taldeak ezarriko dituen irizpideak erabakiko ditu, kalifikazioak kontuan hartuko dituelarik. Adostasuna eta hau ezin bada, bi heren.

Ikastetxearen promoziorako irizpideak ere (ikastetxe bakoitzak bereak dauzka) kontuan hartzen ditugu.

*Oharrak*

Adierazle-sorta hau ez da oinarria erabakia hartzeko. Ideia bat egiteko besterik ez baita.

Galdera guztiak erantzun nahi ez badituzu, beltzean daudenak nahiko esanguratsuak direla iruditzen zaigu.

## Erantzunen orria 1

*Promozioaz eztabaidatzeko orria. Ikasle bakoitzarentzat bat.*

*Titulua emateari buruz eztabaidatzeko orria*

Ikaslearen izena: ____________ Jaiotze-data: ____________ Urteak: __________

Maila: ___________ Tutorea: ____________________________________________

| A | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| a1 | | | | | |
| a2 | | | | | |
| a3 | | | | | |
| a4 | | | | | |
| a5 | | | | | |
| a6 | | | | | |
| a7 | | | | | |
| a8 | | | | | |
| a9 | | | | | |
| a10 | | | | | |
| a11 | | | | | |
| a12 | | | | | |
| a13 | | | | | |
| a14 | | | | | |
| a15 | | | | | |
| a16 | | | | | |
| A | | | | | |

| B | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| b1 | | | | | |
| b2 | | | | | |
| b3 | | | | | |
| b4 | | | | | |
| b5 | | | | | |
| b6 | | | | | |
| b7 | | | | | |
| b8 | | | | | |
| b9 | | | | | |
| b10 | | | | | |
| B | | | | | |

| C | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| c1 | | | | | |
| c2 | | | | | |
| c3 | | | | | |
| c4 | | | | | |
| c5 | | | | | |
| c6 | | | | | |
| c7 | | | | | |
| c8 | | | | | |
| c9 | | | | | |
| c10 | | | | | |
| c11 | | | | | |
| c12 | | | | | |
| c13 | | | | | |
| c14 | | | | | |
| C | | | | | |

| D | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| d1 | | | | | |
| d2 | | | | | |
| d3 | | | | | |
| d4 | | | | | |
| d5 | | | | | |
| d6 | | | | | |
| d7 | | | | | |
| d8 | | | | | |
| d9 | | | | | |
| d10 | | | | | |
| d11 | | | | | |
| d12 | | | | | |
| D | | | | | |

| E | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| e1 | | | | | |
| e2 | | | | | |
| e3 | | | | | |
| e4 | | | | | |
| e5 | | | | | |
| e6 | | | | | |
| e7 | | | | | |
| e8 | | | | | |
| e9 | | | | | |
| e10 | | | | | |
| e11 | | | | | |
| e12 | | | | | |
| e13 | | | | | |
| e14 | | | | | |
| E | | | | | |

| F | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| f1 | | | | | |
| f2 | | | | | |
| f3 | | | | | |
| f4 | | | | | |
| f5 | | | | | |
| f6 | | | | | |
| f7 | | | | | |
| f8 | | | | | |
| f9 | | | | | |
| f10 | | | | | |
| f11 | | | | | |
| f12 | | | | | |
| F | | | | | |

| G | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| g1 | | | | | |
| g2 | | | | | |
| g3 | | | | | |
| g4 | | | | | |
| g5 | | | | | |
| g6 | | | | | |
| g7 | | | | | |
| g8 | | | | | |
| g9 | | | | | |
| G | | | | | |

| H | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| h1 | | | | | |
| h2 | | | | | |
| h3 | | | | | |
| h4 | | | | | |
| h5 | | | | | |
| h6 | | | | | |
| h7 | | | | | |
| h8 | | | | | |
| h9 | | | | | |
| h10 | | | | | |
| H | | | | | |

| I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| i1 | | | | | |
| i2 | | | | | |
| i3 | | | | | |
| i4 | | | | | |
| i5 | | | | | |
| i6 | | | | | |
| i7 | | | | | |
| i8 | | | | | |
| i9 | | | | | |
| i10 | | | | | |
| I | | | | | |

| J | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| j1 | | | | | |
| j2 | | | | | |
| j3 | | | | | |
| j4 | | | | | |
| j5 | | | | | |
| j6 | | | | | |
| j7 | | | | | |
| j8 | | | | | |
| J | | | | | |

| K | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| k1 | | | | | |
| k2 | | | | | |
| k3 | | | | | |
| k4 | | | | | |
| k5 | | | | | |
| k6 | | | | | |
| k7 | | | | | |
| K | | | | | |

| L | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| l1 | | | | | |
| l2 | | | | | |
| l3 | | | | | |
| l4 | | | | | |
| l5 | | | | | |
| L | | | | | |

**Erantzunen orria 1**

Helburu orokorrak kontuan hartuz:
A
B
C
D
E
F
G
H
I
J
K
L

1. Ahalmen curricularra.
2. Hartu beharreko neurriak ikasle honengan izan dezakeen eragina:
   - Autokontzeptuan: ____________________
   - Autoestimuan: ____________________
   - Autonomian:
     - Pertsonala: ____________________
     - Eskolarra: ____________________
   - Moldaera:
     - Ikasgelan: ____________________
     - Ikastetxean: ____________________
3. Ikastetxeak eginen duena:
   - Taldeak antolatzerakoan: ____________________
   - Baliabide materialak: ____________________
   - Baliabide pertsonalak: ____________________
   - Taldeen arteko oreka. Kurtsoen arteko oreka: ____________________
   - Ikaskideen arteko harremana: ____________________
4. Gurasoen iritzia: ____________________
5. Nire proposamena edo botoa.
6. Erabakia: Irakasle-taldean erabakitzen bada

## Helburu orokorrak kontuan hartzeko adierazle-zerrenda.

A. Gazteleraz, Euskaraz –hala badagokio– eta, atzerriko hizkuntza batean bederen, taxuz, autonomiaz eta sormenaz baliatuz mintzatu eta idaztea, eta gaitasun horiek elkarren artean komunikatzeko, norberaren pentsamoldea antolatzeko eta hizkuntzaren erabileran inplikatutako prozesuei buruz hausnartzeko erabiltzea.

*A. Comprender y producir mensajes orales y escritos con propiedad autonomía y creatividad en castellano –en vascuence en su caso–, y, al menos, en una lengua extranjera, utilizándolos para comunicarse, organizar el pensamiento propio y reflexionar sobre los procesos implicados en el uso del lenguaje.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| a1. Irakasleak ematen dituen azalpenak ulertzen ditu | | | | | | Ez ditu inoiz ulertzen |
| a2. Adierazpenak ematen ditu edo emateko gai da | | | | | | Ez ditu ematen edo ez da adierazpenak emateko gai |
| a3. 20 lerroko irakurketa batean ez ditu akatsik | | | | | | Akats asko izaten ditu |
| a4. 20 lerroko irakurketa egin eta gero laburpena egiteko gauza da | | | | | | Ez daki laburpenak egiten |
| a5. Proposatutako diktaketan ez du akatsik egiten | | | | | | Akats asko egiten du |
| a6. Gai ezagun baten gainean hitz egiteko gauza da minutu batean | | | | | | Ez da hitz egiteko gauza |
| a7. Testu desordenatu batean zatiak ordenan jartzeko gauza da | | | | | | Ez da gai |
| a8. Euskal aditza menperatzen du. Indikatibo | | | | | | Ez du indikatiboa menperatzen |
| a9. Euskal aditza menperatzen du. Baldintza | | | | | | Ez du baldintza menperatzen |
| a10. Euskal aditza menperatzen du. Ahalezkoa | | | | | | Ez du ahalezkoa menperatzen |
| a11. Euskararekiko jarrera baikorra du | | | | | | Euskarekiko jarrera ezkorra du |
| a12. Euskara erabiltzen du | | | | | | Ez du Euskara tutik ere erabiltzen |
| a13. Oinarrizko ideiak testu batean aurkitzen ditu | | | | | | Ez daki zein den ideia nagusia |
| a14. Klasean ahoz lan egiten dugunean, besteen txanda errespetatzen du | | | | | | Ez du errespetatzen |
| a15. Idazlanak modu egokian aurkezten ditu | | | | | | Ez ditu ongi aurkezten |
| a16. Gai bati buruzko testua idazten badaki | | | | | | Ez daki |

B. Kode artistiko, zientifiko eta teknikoak erabiltzen dituzten mezuak taxuz, autonomiaz eta sormenaz baliatuz interpretatu eta sortzea, komunikazio bideak aberasteko eta haiek erabiltzean inplikatzen diren prozesuei buruz hausnartzeko.

*B. Interpretar y producir con propiedad, autonomía y creatividad mensajes que utilicen códigos artísticos, científicos y técnicos, con el fin de enriquecer sus posibilidades de comunicación y reflexionar sobre los procesos implicados en su uso.*

| | *5* | *4* | *3* | *2* | *1* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| b1. Erakutsitako kontzeptuen izenen esanahiak nahiko ongi ulertzen ditu | | | | | | Ez ditu inoiz ulertzen |
| b2. Material eta baliabide plastikoak ongi erabiltzen ditu | | | | | | Ez ditu ongi erabiltzen |
| b3. Ideiak plastikoki adierazteko gaitasuna du | | | | | | Ez du |
| b4. Besteen lanak interpretatzen saiatzen da | | | | | | Ez da saiatzen |
| b5. Besteen lanak errespetatzen ditu | | | | | | Ez ditu errespetatzen |
| b6. Lanen txukuntasuna, ardura eta interesa eta horretarako jarrera egokia | | | | | | Ez du. Bere jarrera ez da egokia |
| b7. Ikusitako gaietan erabiltzen den hiztegia ulertzen du | | | | | | Ez du ulertzen |
| b8. Aurreikusitako gai bati buruz azalpen bat egiterakoan aldez aurretik landutako kontzeptuen izenak ongi erabiltzen ditu | | | | | | Ez ditu erabiltzen |
| b9. Aldez aurretik landutako grafiko, taula eta beste irudi-tresnak ulertzen eta interpretatzen ditu | | | | | | Ez ditu ulertzen<br>Ez ditu interpretatzen |
| b10. Behaketa baten datuak grafiko, taula edota beste tresna batekin ongi adierazten ditu. Ongi adierazteko gai da | | | | | | Ez du egiten. Ez da egiteko gauza |

C. Ohizko iturriak erabiliz, informazioa bildu eta hustuketa egitea eta, helburua aurretik paraturik, modu autonomo eta kritikoan landu eta besteei modu antolatu eta ulergarrian transmititzea.

C. *Obtener y seleccionar información utilizando las fuentes en que habitualmente se encuentra disponible, tratarla de forma autónoma y crítica, con una finalidad previamente establecida, y transmitirla a las demás personas de forma organizada e inteligible.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| c1. Telebistako programazioa telebista piztu baino lehen erabiltzen du. Gai da egiteko | | | | | | Ez du inoiz egiten. Ez da egiteko gai |
| c2. Informazioa non aurkitzen den badaki | | | | | | Ez daki. |
| c3. Informazioa aurkitzen du | | | | | | Ez du aurkitzen |
| c4. Landutako kartografia irakurtzen eta interpretatzen badaki | | | | | | Ez daki |
| c5. Aldez aurretik landutako tokiak eta lekuak kokatzen badaki | | | | | | Ez daki |
| c6. Denbora-lerroak gauzatzen badaki | | | | | | Ez daki |
| c7. Komunikazio elementuak ezagutzen ditu. Kontzeptuak: igorle, hartzaile, kodea, mezua | | | | | | Ez daki |
| c8. Testu baten atalak identifikatzen ditu. Kontzeptuak: hasiera, korapiloa, bukaera | | | | | | Ez ditu identifikatzen |
| c9. Testu baten laburpena egiten badaki | | | | | | Ez daki egiten |
| c10. Bereizten ditu ideia nagusiak eta ideia osagarriak | | | | | | Ez ditu bereizten |
| c11. Azalpenezko testu baten gidoia egiten badaki | | | | | | Ez daki egiten |
| c12. Gai bati buruzko testuaren gidoiaren edo eskemaren garapena ahoz eta idatziz egiten du | | | | | | Ez daki egiten |
| c13. Informazio-bideo edo informatika-programaren ideia nagusiak bereizten ditu | | | | | | Ez ditu bereizten |
| c14. Gai bati buruzko informazioa eskuratzeko eta transmititzeko baliabideak ezagutzen eta erabiltzen ditu | | | | | | Ez daki informazioa eskuratzen |

D. Intuizio eta arrazonamendu logikozko prozedurak erabiliz, ezagutza eta esperientziaren alorretako arazoak identifikatu eta aterabidea bilatzeko estrategiak sortu, kontrastatu eta gertatutako prozesuari buruz hausnartzea.

*D. Elaborar estrategias de identificación y resolución de problemas en los diversos campos del conocimiento y la experiencia mediante procedimientos intuitivos y de razonamiento lógico, contrastándolas y reflexionando sobre el proceso seguido.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| d1. Ariketa bat egin behar duenean, egiten hasi baino lehen, nola egingo duen pentsatzen hasten da | | | | | | Ez du inoiz egiten |
| d2. Edozein ariketaren aurrean saiatu egiten da lana ongi egiten | | | | | | Ez da saiatzen |
| d3. Ikaskideekin elkarlanean hasten da | | | | | | Ez da aritzen. Ez da taldean lan egiteko gauza |
| d4. Ikasterakoan autonomoa da | | | | | | Ez da autonomoa |
| d5. Txukunak dira bere lanak | | | | | | Zikinak dira bere lanak |
| d6. Funtsezko datuak bereizten ditu | | | | | | Ez ditu bereizten |
| d7. Lan zuzenduak eta ongi bideratuak egiten ditu | | | | | | Ez ditu egiten |
| d8. Bere lanen emaitza zehatzak ateratzen saiatzen da | | | | | | Ez da saiatzen |
| d9. Lan berrien aurrean estrategiak bilatzen saiatzen da | | | | | | Ez daki egiten |
| d10. Problema errazen erantzunak estimazioaz asmatzen ditu (gutxi gorabeherakoak) | | | | | | Ez du asmatzen |

E. Norberak bere buruaren, ezaugarrien eta gaitasunen irudi zehatza eduki, jarduerak modu autonomo eta orekatsuan egin, eginahalak eta zailtasuna gainditzea baloratuz.

*E. Formarse una imagen ajustada de la propia persona, de sus características y posibilidades, y desarrollar actividades de forma autónoma y equilibrada, valorando el esfuerzo y la superación de las dificultades.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| e1. Zailtasun baten aurrean saiatu behar duela erraten du | | | | | | Ez da saiatzen eta “ezin duela” erraten du |
| e2. Lan arrunta bere kasa antolatzen daki | | | | | | Ez daki antolatzen |
| e3. Badaki informazioa bilatzen | | | | | | Ez daki |
| e4. Informazioa bilatzen du | | | | | | Ez du bilatzen |
| e5. Bere buruarekin pozik eta zoriontsu saiatzen da eskolako lanak egiterakoan | | | | | | Ez dago batere pozik |
| e6. Badaki noiz ez duen ulertzen eta laguntza eskatzen du | | | | | | Ez daki zer den ulertzen ez duena. Ez du laguntza eskatzen |
| e7. Ulertzen ez duenean, badaki irtenbidea bilatzen eta egiten du | | | | | | Ez daki eta ez du egiten |
| e8. Edozein motatako aurrerapenak bere burua baloratzeko balio dio | | | | | | Aurrerapenaren aitzinean zorte ona izan duela erraten du. Ez da sentitzen arrakastaren protagonista |
| e9. Erabakiak hartzen badaki | | | | | | Ez daki |
| e10. Bere erabakiak hartzen ditu | | | | | | Ez ditu hartzen |
| e11. Problemei irtenbidea ematen die | | | | | | Ez die ematen |
| e12. Maite du bere burua | | | | | | Ez |
| e13. Porrot baten aurrean berehala saiatzen da beste bideak aurkitzen | | | | | | Desanimatu egiten da eta ez da saiatzen |
| e14. Ikas-prozesuaren kontrola eramaten du | | | | | | Ez du inolaz ere eramaten |

F. Beste pertsona batzuekin harremanetan sartu eta, elkartasun eta tolerantziazko jarrerak erakutsiz, talde jardueretan parte hartzea, inhibizio eta aurreiritziak gaindituz, gizarte mailako ezberdintasunez ohartu eta kritikoki baloratuz, eta arraza, sexu, gizarte maila, sinesmen eta norberaren bestelako ezaugarrietan diren ezberdintasunekiko zeinahi diskriminazio saihestuz.

*F. Relacionarse con otras personas y participar en actividades de grupo con actitudes solidarias y tolerantes, superando inhibiciones y prejuicios, reconociendo y valorando críticamente las diferencias de tipo social y rechazando cualquier discriminación basada en diferencias de raza, sexo, clase social creencias u otras características individuales y sociales.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| F1. Taldeko lanetan parte hartzen du | | | | | | Taldeko lanetan ez du parte hartu nahi |
| F2.Besteen iritziak onartzen ditu | | | | | | Ez ditu besteen iritziak onartzen |
| F3. Besteen iritziak entzuten ditu | | | | | | Ez ditu entzuten |
| F4. Taldeko lanetan taldekideen ezberdintasunak kontuan hartzen ditu | | | | | | Ez ditu kontuan hartzen |
| F5. Lan taldeak egiterakoan bere lagunekin bakarrik egon nahi du | | | | | | Edozein lankide onartzen du lan egiteko |
| F6. Taldeko lanetan bere iritziak planteatzen ditu | | | | | | Bere iritziak ematera ez da ausartzen<br>Besteen iritziak onartzen ditu beti<br>Besteen iritziak izan arte ez du ezer egiten |
| F7. Gobernuz kanpoko erakundeak ezagutzen ditu | | | | | | Ez ditu ezagutzen |
| F8. GKE batean parte hartzen du | | | | | | Ez du hartzen |
| F9. Hitz egiten du besteen aurrean | | | | | | Ez du besteen aurrean hitzik egiten, lotsatzen da-eta |
| F10. Bere nortasuna besteei erakusten die, klaseko giroan parte hartuz | | | | | | Gerizpean, itzalean egoten da, lotsa, inhibizio eta aurreiritziak gainditu ezinik |
| F11. Taldeko lanetan eta klasetik kanpo ere ez du eragozpenik klaseko lagunekin harremanetan sartzeko | | | | | | Zailtasun nabarmenak ditu lagunekin erlazionatzerakoan (bakartia da edo bere adiskideen babesa behar du) |
| F12. Arraza, sexu eta gizarte mailan dituen sinesmenak ez dituzte lagunekiko harremanak oztopatzen | | | | | | Oso itxia da eta bere gustuko ez diren iritziak edota pertsonak ez ditu errespetatzen |

G. Gizarteen funtzionamendua arautzen duten bitartekoak eta baloreak analizatu, hiritarren eskubide eta betebeharrei dagozkienak bereziki, eta haiekiko irizpide eta jarrera propioak hartzea.

*G. Analizar los mecanismos y valores que rigen el funcionamiento de las sociedades, en especial los relativos a los derechos y deberes de los ciudadanos y adoptar criterios y actitudes personales con respecto a ellos.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| G1. Ulertu egiten ditu institutuko arau orokorrak | | | | | | Ez ditu ulertzen, ez ditu ezagutzen |
| G2. Institutuko arau orokorrak betetzen ditu | | | | | | Ez ditu betetzen |
| G3. Legeen beharraz ohartzen da | | | | | | Ez da ohartzen |
| G4. Legeekiko errespetua adierazten du | | | | | | Ez du adierazten |
| G5. Trafikoko erregelak errespetatzen ditu | | | | | | Ez ditu errespetatzen |
| G6. Normalki gelako erregelak errespetatzen ditu | | | | | | Ez ditu errespetatzen |
| G7. Legea adierazpen idatzian eta pertsonen arteko errespetuan egituratuta dagoela ulertzen du | | | | | | Ez du ulertzen |
| G8. Legea denok errespetatu behar dugula ulertzen du | | | | | | Legea edo araua bere kontra egindako zerbait bezala ulertzen du |
| G9. Klasean denon artean osatutako legeak ezagutu, bete eta errespetarazten ditu | | | | | | Ez ditu ezagutzen kurtso bukaeran |

H. Gure ohitura zaharren eta kultur ondarearen sinesmenak, jarrerak eta oinarrizko baloreak ezagutu, kritikoki baloratu eta pertsonaren osotasunerako mesedegarri izan daitezkeen aukerak hautatzea.

*H. Conocer las creencias, actitudes y valores básicos de nuestra tradición y patrimonio cultural, valorarlos críticamente y elegir aquellas opciones que mejor favorezcan su desarrollo integral como personas.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| H1. Ezagutu egiten ditu zenbait sinesmen | | | | | | Ez ditu ezagutzen |
| H2. Besteen sinesmenak errespetatzen ditu | | | | | | Ez ditu errespetatzen |
| H3. Gizarte-ondareak errespetatzen ditu | | | | | | Ez ditu errespetatzen |
| H4. Ondare artistikoarekin interesaturik dago | | | | | | Ez dago interesaturik |
| H5. Beste kulturekin interesaturik dago | | | | | | Ez zaio interesatzen |
| H6. Besteen iritziak aditzen ditu berea osatzeko | | | | | | Ez ditu aditzen<br>Ez ditu bere iritziak osatzen |
| H7. Notizia irakurtzerakoan iritzi kritikoak adierazten ditu | | | | | | Ez ditu adierazten |
| H8. Iraganeko hondakin eta aztarnak baloratu eta zaintzeko jarrera agertzen du | | | | | | Ez du agertzen |
| H9. Nafarroako gizartean dauden talde gutxituen berri dauka | | | | | | Ez dauka |
| H10. Nafarroako historiako kultur | | | | | | Ez ditu ezagutzen |

I. Ingurugiroaren funtzionamendua arautzen duten oinarrizko bitartekoak analizatu, giza jarduerek hartan sortzen dituzten ondorioak baloratu eta, ahal den neurrian, bizi mailan eragin handiko elementua delakoz, haren defentsan eta kontserbazioaren alde aritzea.

*I. Analizar los mecanismos básicos que rigen el funcionamiento del medio físico, valorar las repercusiones que sobre él tienen las actividades humanas y contribuir en la medida de lo posible a su defensa, conservación y mejora como elemento determinante de la calidad de vida.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| i1. Badaki tenperaturaren grafikoa egiten edo egiteko gauza da | | | | | | Ez daki |
| i2. Bere materiala zaintzen du | | | | | | Ez du zaintzen |
| i3. Ikastetxea zaintzen du | | | | | | Ez du zaintzen |
| i4. Sentsibilitatea adierazten du ingurugiroa kaltetzen duten ekintzen aurrean | | | | | | Ez du adierazten |
| i5. Proposamenak egiten ditu ingurugiroaren egoera hobetzeko | | | | | | Ez ditu egiten |
| i6. Ingurunea osatzen duten osagarriak, eragile, eta abar ezagutzen ditu | | | | | | Ez ditu ezagutzen |
| i7. Ekosistema kontzeptua ezagutzen du | | | | | | Ez du ezagutzen |
| i8. Biziaren zikloak ezagutzen ditu | | | | | | Ez ditu ezagutzen |
| i9. Ingurune hurbila errespetatu eta zaindu egiten du | | | | | | Ez du errespetatzen |
| i10. Ingurune hurbila babestu eta hobetzeko ekintzak antolatzen ditu | | | | | | Ez da batere arduratzen |

M

J. Aurrerapen zientifiko eta teknologikoak eta eremu fisiko eta sozialean gertatzen diren aplikazio eta eraginak ezagutu eta baloratzea.

*J. Conocer y valorar el desarrollo científico y tecnológico, sus aplicaciones e incidencia en su medio físico y social.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| j1. Zientzien aurrerapena ezagutzeko gogoa adierazten du | | | | | | Berdin zaio |
| j2. Edozein objekturen funtzionamenduaren azterketa egiteko gai da | | | | | | Ez da gai |
| j3. Hainbat material erabiltzerakoan sortuko dituen zaborrak eta sortuko duen kutsadura kontuan hartzen du | | | | | | Ez du kontuan hartzen |
| j4. Objektu baten atal desberdinak aztertuz, balorazio ekonomiko bat egiteko gai da | | | | | | Ez da gai |
| j5. Badaki gaurko tresneriak erabiltzen (bideo, TB, ordenagailua...) | | | | | | Ez daki |
| j6. Zientzia, teknologia eta horien ondorioen lotura egiten badaki | | | | | | Ez daki |
| j7. Informazioaren boterea badaki baloratzen | | | | | | Ez daki |
| j8. Etxeko oinarrizko konponketak egiten badaki | | | | | | Ez daki |

K. Kultur ondarea ezagutu eta aintzat hartu eta kontserbatu eta hobetzeko eginahalak egitea; hizkuntza eta kultur aniztasuna herri eta pertsonen eskubide eta betebehar gisara ulertu, eta eskubide hori erabili ahal izateko interes eta errespetuzko jarrerak agertzea.

*K. Conocer y apreciar el patrimonio cultural y contribuir activamente a su conservación y mejora, entender la diversidad ligüística y cultural como un derecho y un deber de los pueblos y de los individuos y desarrollar una actitud de interés y respeto hacia el ejercicio de este derecho.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| k1. Normalki Euskaraz egiten du | | | | | | Ez du Euskaraz hitz egiten |
| k2. Ikaskideekin euskaraz elkarrizketa arrunta egiteko gai da | | | | | | Ez da gai |
| k3. Euskaraz jarraitzen du Euskaraz egiten diotenean | | | | | | Ez du jarraitzen. Gazteliaz erantzuten du Euskaraz hitz egiten diotenean |
| k4. Euskaraz egokiro egiteko sentsibilitatea agertzen du. Ahalegina azaltzen du | | | | | | Ez du azaltzen |
| k5. Kultura ezberdinetako agerpideak errespetatzen ditu | | | | | | Ez ditu errespetatzen |
| k6. Iritzi ezberdinak errespetatzen ditu | | | | | | Ez ditu errespetatzen |
| k7. Beste kulturak eta bizitzaren ikusmoldeak | | | | | | Ez du agertzen |
| ezagutzeko irrika agertzen du | | | | | | |

L. Norberak duen gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko alderdiak, erabaki eta egintza pertsonalek norberaren zein kolektibitatearen osasunean sortzen dituzten ondorioak, eta osasuna, portaera eta ingurugiroaren arteko elkar eragina ezagutu eta ulertu, eta soinketa, higienea, elikadura orekatua eta, oro har, bizitza osasungarria eramateak dakartzan onurak baloratzea.

*L. Conocer y comprender los aspectos básicos del funcionamiento del propio cuerpo, las consecuencias para la salud individual y colectiva de los actos y decisiones personales, la interrelación existente entre la salud, los comportamientos y las condiciones ambientales y valorar los beneficios que suponen los hábitos del ejercicio físico, la higiene, una alimentación equilibrada y, en general, de una vida sana.*

| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1l. Bere gorputza zaintzen du | | | | | | Bere gorputza eta osasuna deskuidatzen ditu |
| 2l. Bere osasunerako kaltegarriak diren produktuak ezagutzen ditu | | | | | | Ez ditu ezagutzen |
| 3l. Bere itxura zaintzen du | | | | | | Ez du zaintzen |
| 4l. Eskolara garbi etortzen da | | | | | | Zikin etortzen da |
| 5l. Osasungarriak diren alderdiak ezagutzen ditu | | | | | | Ez ditu ezagutzen |

# N. Orientazio-plana aurkezteko ideiak

## Zera lantzen dugu

Ikasleei ikasketa eta lanbide-orientazioko programa aurkezteko materiala.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| N1 | Ikasketen orientazioa aurkezteko ideiak. | DBH3, 4 | Tutoretzan | Tutorearentzat |

## N1. Ikasketen orientazioa aurkezteko materiala

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasketen orientazio-programa aurkezteko.

*Prozedura*. Aurkezpena klasean.

### Oharrak

Komenigarria da ikasleekin orientazio-ariketak egiten hasi baino lehen nondik nora joan behar duten aurkeztea. hona hemen ideia batzuk. Tutore bakoitzak ikusiko du nola bideratuko duen. Orientatzailea ere joan daiteke.

Hemen dagoen materiala gardenki bihur daiteke.

ERABAKIA — NIREA da

Har dezadan

PERTSONEK/AK — IRAKASLEAK dira / GURASOAK dira / LAGUNAK dira

Ematen didate

LAGUNTZA

PROGRAMA:

Martxora arte
- Tutoretzan
- Gurasoekin

Irakasleek:
- Ikusten dute:
  - Garapen curricularra
  - Garapen pertsonala
- Eramaten dute: Prozesua.
- Ematen di(zki)date:
  - Notak
  - Kontseilua
- Beraiekin elkarrizketak izaten ditut

## Erabakiak hartzeko laguntza

NI(k) — NOLAKOA NAIZEN

Nola erabakitzen dudan. Nola erabaki behar dudan.
Testa: nire Gaitasunak.
Hausnarketak: nire emaitzak.
nire motibazioak.
Testa: nire interesak.
Hausnarketa: nire autokontzeptua.
Hausnarketa: nola ikusten nauten maite nautenek: gurasoek
lagunek
nola ikusten nauten akademikoki ezagutzen nautenek: irakasleek
Hausnarketa: nire Helburuak eta proiektuak.
Hausnarketa: nire lan-baloreak.

EGILEA — Naiz

Hartzen dut — ERABAKIA

Kontuan hartuz — INGURUA — INFORMAZIOA

### Zer eskatzen dizu programa honek

- Zure partaidetza.
- Notarik gabeko gauza da.
- Azterketa garrantzitsua: maiatzean.
- Emaitzak: etorkizunean.
- Zure adorea.
- Ez da erraza izanen.
- Arretaz hartzen baduzu, polita izanen da.

Orientatzailearengana noiz joan (honetaz hitz egiteko):

- Jasotako informazioa nahikoa ez denean.
- Tutorearekin izaten dituzuen elkarrizketetan komentatu.
- Nahikoa ez denean edo blokeoa gertatzen denean.
- Galdera prestatu joan baino lehen.
- Tutoreak erranen dizu joan behar duzun ala ez.

### 4. Mailan gauza hauen artean erabaki behar duzu.

a) Batxilergoarekin jarraitu.

b) Lanbide-heziketa: Erdi Mailako Heziketa Zikloak.

c) Lanbide heziketa: Gizarte Garantiako Programak.

d) Lan Mundua.

e) 4. maila errepikatu.

### Koadernotxoek daukaten materiala

| 3. *Maila* | 4. *Maila* |
|---|---|
| a) Zer da erabakiak hartzea. | a) Zer da erabakiak hartzea. |
| b) Informazioa: lan mundua (mundua ezagutzen ez badut, ezin izanen dut ongi erabaki).<br>– Norberaren ezagutza.<br>Interesak.<br>– kasteko ohiturak.<br>Ikasteko teknikak.<br>– Zintzotasuna ikasle bezala. Jakintzagai gogokoenak.<br>– Espedientearen azterketa. | b) Informazioa: lan mundua (mundua ezagutzen ez badut, ezin izanen dut ongi erabaki).<br>c) Norberaren ezagutza.<br>– Gaitasunak (zer ikas dezaket? Zertan naiz trebea?).<br>– Baloreak.<br>– Autokontzeptua.<br>– Interesak (zer gustatuko litzaidake ikastea?).<br>Ikasketetarako dudan jarrera eta motibazioa (zenbaterainoko gogoa daukat ikasteko? ikasketa luzea ala motza?...). |
| d) Informazioa: Hezkuntza Sistema (Hezkuntza Sistemak eskaintzen dizkidan alternatibak ezagutzen ez baditut, ezin izanen dut zuzen erabaki). | d) Informazioa: Hezkuntza Sistema (Hezkuntza Sistemak eskaintzen dizkidan alternatibak ezagutzen ez baditut, ezin izanen dut zuzen erabaki). |
| e) Erabakiak hartzea. | e) Erabakiak hartzea. |

### Pentsa ezazu pixka bat

| *"Ahal dudan" lanbide batean* | *Gustukoa dudan lanbide batean* |
|---|---|
| – Soldata bat lortzen dut.<br>– Hasiera batean ez dago gaizki.<br>– Beti nekagarria da.<br>– Ezin dut aurrera egin.<br>– Umore txarra eragiten dit.<br>– Astelehena iritsi eta asteburuaren zain egoten naiz.<br>– Eskatzen didatena egiten dut.<br>– Lanaz aldatzen saiatzen naiz.<br>– Lagunei ez diet lanbide bera aholkatzen.<br>– ... | – Soldata bat lortzen dut.<br>– Beti ongi dago.<br>– Batzuetan nekagarria da.<br>– Aurrera egin dezaket.<br>– Batzuetan umore txarra eragiten dit.<br>– Astelehenetan ea zer lan egin behar dudan pentsatzen dut.<br>– Gauza berriak eta originalak egin ditzaket.<br>– Lanbidearen barruan aurrera egin dezaket.<br>– Lagunei lanbide bera aholkatzen diet.<br>– ... |

### 4. mailarako. Koadernotxoan dauzkazuen ariketak

1. Nire gaitasunak. Gure burua hobe ezagutzeko ariketa. Gure iritziz zertarako naiz trebea?
   - Ikaslearen iritzia jakiteko test bat erantzun behar duzue.
   - Gurasoen iritzia jakiteko testa beraiekin komentatu beharko duzue.
   - Irakaslearen iritzia: tutoreak komentatuko dizu ikasturtean zehar edota koadernotxoan idatziko dizu.
   - Iritzi hauek aditu eta gero, berriz ikaslearen iritzia. Ongi ateratzeko hiru gauzak hartu beharko dituzu kontuan: testaren emaitza, irakaslearen iritzia eta zure gurasoekin izandako elkarrizketa.

2. Nire interesak. Gure burua hobe ezagutzeko ariketa. Zer da interesatzen zaidana. Zer da gustatzen zaidana. Zein da orain gustukoen dudan lana. Jakiteko hiru ariketak:
   - Ikaslearen iritzia jakiteko test bat erantzun behar.
   - Gurasoen iritzia. Berriz gurasoekin komentatu behar.
   - Irakaslearen iritzia.
   - Azkenean zure iritzia berriz.

3. Nire eskolako emaitzak eta ikasteko motibazioa. Ikasgai guztiei buruz pentsatu beharko duzu. Hau lortzeko galdetegi luzea eta irekia emanen dizugu.
   - Galdetegia erantzun.
   - Gurasoekin komentatu.
   - Irakasleekin komentatu.
   - Zure iritzia.

4. Hezkuntza-sistemaren egitura orokorra. Momentuz. Gauza baten bat aldatuko baita.

5. Alternatiba guztien artean aukeratzen.

6. Nire erabakia.

Lan hauek guztiak tutoretza-saioetan landuak izango dira. Dauzkazuen zalantza guztiak tutoreari galdetu behar dizkiozue. Beste aldetik, orientatzailearengana nahi duzuenean joaten ahal zarete.

Baliteke, segun eta nola ikusten zaituztegun, beste ariketa batzuk sartzea. Helburua beti kontuan hartuz: zuek ahalik eta hobe aukera dezazuen.

Badakigu ariketa batzuk zailak izanen direla, baina denak egin ditzakezue, zuentzako prestatuak dira. Zuei laguntzeko.

Azkenean: Denon partaidetza eskatzen dugu, batez ere okerrak moldatzen joateko.


LAN MUNDUA
LAN MUNDUA
LAN MUNDUA
LAN MUNDUA
20 urte baino gehiago
Universitatea
GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK
Froga
BATXILERGOAK
Selektibitatea
Unibertsitatea
Froga
25 urte baino gehiago
18 urte baino gehiago. Familia profesional berdina
ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK
GAINDITURIK
DBHko 4.MAILA
18 urte baino gehiago
Froga
LANBIDE HASTAPENERAKO PROGRAMAK. PIP
SUSPENDITURIK
Errepikatu ez badu
Dibertsifikazioa

N

# Ñ. Ebaluaziorako dokumentuak

## Zera lantzen dugu

Ebaluazioa eta kalifikazioa ongi bideratzeko dokumentuak.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| Ñ1 | Ebaluazioko oharrak jartzeko maindiria eta argibideak. | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazioa baino lehen | Irakasleentzat |
| Ñ2 | DBHko hasierako ebaluazioa | DBH1 | Hilabete bat pasa eta gero | Irakasleentzat |
| Ñ3 | Dibertsifikazioa aholkatzen hasi baino lehen. CEU aholkatzen hasi baino lehen. | DBH2, 3, 4 | Otsailean | Irakasleentzat |
| Ñ4 | Institutura etorri behar duen ikasleari buruz irakasleen artean solas egiteko txostena. | DBH1 + LH6 | Ekainean | Irakasleentzat. LHko tutoreentzat |
| Ñ5 | Ebaluazio-prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Gelako txostena. | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio-saio guztietan | Irakasleentzat |
| Ñ6 | Ebaluazio-prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Ikaslearen ebaluazio-txostena. | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio guztietan | Irakasleentzat |
| Ñ7 | Ebaluazio-prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Aurre-ebaluazioko txostena. | DBH1, 2, 3, 4 | Aurre-ebaluazioan | Irakasleentzat |
| Ñ8 | Ebaluazio-prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Gelako txostena. | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio guztietan | Irakasleentzat |
| Ñ9 | Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Akta eredua. | DBH1, 2, 3, 4 | Ebaluazio guztietan | Tutorearentzat |

## Ñ1. Ebaluazioko oharrak jartzeko maindiria eta argibideak

DBH3 __________ Ebaluaziorako oharrak.

Data: __________ Tutorea: _____________ Ikasturtea: _____________

| *Izen-abizenak* | *Gaztelan* | *Euskara* | *Ingelesa* | *Matemat.* | *Gizartea* | *Gorp. Hez.* | *Natur Z.* | *Plastika* | *Inform. K. Klasik.* | *Musika* | *HJA* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

*Arloetako informazioa betetzeko argibideak*: Ohiturak, Jarrerak, Jokaera, Gaitasunak.

Maindirea bete behar dugunean kontuan hartu beharreko gauzak. Honetaz hitz eginen dugu bileran eta gurasok etortzen direnean tutoreak zer erran behar dien jakinen du.

*Bakarkako lana*: Ahalegina, interesa, autonomia, erritmoa.
– Etxean.
– Eskolan.

*Talde-lana*: Parte hartzen du ala ez. Onartuta dago ala ez. Lankidetza. Kritikotasuna. Iniziatiba, ekarpenak egiten ditu, besteen ekarpenak baloratzen ditu...

*Gizarte- eta eskola-integrazioa*: portaera. Harremanak (ikaskideekin, irakasleekin). Norberaren estimazioa, norberaren kontzeptua. Eragina taldean.

*Helburu orokorrak* kontuan hartuz...

*Arloko helburuak* kontuan hartuz...

*Arloko curriculumeko* edukiak kontuan hartuz...

*Gaitasunak*:

1. *Informazioa jasotzerakoan:*

– Pertzepzio garbia eta zehatza.
– Jokaera sistematikoa.
– Hiztegia. Kontzeptuak badakizki.
– Hiztegia. Kontzeptuak bereganatuak dauzka...
– Denbora- eta espazio-orientazioa.
– Kontzeptuen iraunkortasuna.
– Zehaztasuna datuak hartzerakoan.
– Bi informazio iturri baino gehiago erabiltzeko gauza da.
– Arreta irakurtzen duenean.
– Arreta aditzen duenean.

...2. *Informazioa lantzerakoan*

– Egin beharreko lana zehatz ikusi eta definitu.
– Datu garrantzitsuak eta ez garrantzitsuak bereizi.
– Konparaketak egiten ditu.
– Gogamen zabaltasuna.
– Errealitatea osotasunez jaso.
– Arrazonamendu logikoa erabili.

– Metakognizioa. Bere jokaera propioa ezagutu.
– Pentsamendu hipotetikoa.
– Hipotesiak egiaztatzeko estrategiak izan.
– Bere jokaera planifikatzeko ahalmena.

3. *Erantzunak ematerakoan edota informazioa ematerakoan*

– Komunikazio deszentralizatua edota egozentrikoa.
– Blokeorik gabe erantzunak eman.
– Erantzun zehatzak eta justifikatuak.
– Hiztegi zuzena erabili.
– Erantzuterakoan zehaztasuna.
– Jokaera kontrolatua.

## Ñ2. DBH. Hasierako ebaluazioa

Ikaslearen izena: ____________________________ Arloa ______________________
Gaurko eguna ____________________________________________________________

A. *Adierazpenerako gaitasuna*

| Nolakoa du aho hizkuntza? | Gaizki hitz egiten du | Ez du sobera ongi hitz egiten | Nahiko ongi egiten du | Ongi egiten du |
|---|---|---|---|---|
| Euskaraz hitz egiten du? | Inoiz ez | Batzuetan | Normalki | Beti |
| Nola aurkezten ditu bere lanak? | Zikin eta desordenatuta | Batzuetan zikin | Normalki garbi eta ulergarri | Beti garbi eta ulergarri |
| Irakurtzerakoan ulertzen al zaio? | Ez | | | Bai |
| Nolakoa da bere ortografia? | Ez du ortografia naturala menperatzen | | | Oso ona |
| Idazten duenean, lortzen al du bere ideiak adieraztea? | Ez, inoiz | | | Bai, oso ongi |

Arlo honetan helburu hauek lortu behar dituela ikusten dugu: ____________________________
__________________________________________________________________________
__________________________________________________________________________

## B. *Ulermenerako gaitasuna*

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ulertzen al ditu ahozko mezu arruntak? | Inoiz | | | Beti |
| Jarduerei buruzko adierazpenak ulertzen al ditu? | Inoiz | | | Beti |
| Testu baten informazioa laburbiltzeko gai al da? | Inoiz | | | Beti |
| Aurrez dituen eza-gutzekin loturak egiten ditu? | Inoiz | | | Beti |

Arlo honetan helburu hauek lortu behar dituela ikusten dugu: ______________________________

______________________________________________________________________________

______________________________________________________________________________

## C. *Arrazonamendurako gaitasuna*

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Funtsezko datuak bereizten al ditu? | Inoiz | | | Beti |
| Konparaketak, sailka-penak... egiteko gai da? | Inoiz | | | Beti |
| Zergatiak aurki-tzeko gai al da? | Inoiz | | | Beti |
| Ondorioak atera-tzeko gai al da? | Inoiz | | | Beti |

Arlo honetan helburu hauek lortu behar dituela ikusten dugu: ______________________________

______________________________________________________________________________

______________________________________________________________________________

### D. *Ikasteko norberaren estiloa*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Zailtasun handiak ditu arreta eta kontzentrazioa mantentzeko | | | | | Betebeharrak eskatzen baldin badu, arreta handiz aritzen da |
| Lan zuzenduak eta ongi bideratuk burutzen ditu | | | | | Bere kabuz egiten ditu lanak |
| Zailtasunen aurrean dagoenean, amore ematen du bidez aritzen da. Aldakorra da | | | | | Berak hartutako bidea funtzionatzen ez denean, aldatzeko gauza da. |
| Pentsatu gabe lanari ekiten dio. Saialdi-erroreen | | | | | Lanean hasi baino lehenago planifikatu egiten du. Gogoetatsua da. |
| Lan berrien aurrean ez dakiela erraten du. Ez da saiatu ere egiten | | | | | Lan berrien aurrean irtenbide emateko estrategiak bilatzen ditu edota galdetzen du |

Arlo honetan helburu hauek lortu behar dituela ikusten dugu: ______________________________

_______________________________________________________________________________

_______________________________________________________________________________

### E. *Lan-azturak*

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ikasgaiaz interesatzen al da? | Ezer ez | | | Asko |
| Lan-tresnak ekartzen al ditu klasera? | Inoiz ez | | | Beti |
| Bere koadernoak eguneratuta dauzka? | Inoiz ez | Gai batzuetan | Gai gehienetan | Beti eta gai guztietan |
| Bere lanetan ordenatu eta garbia al da? | Ez, batere | | | Bai, hagitz garbia |
| Libururik, hiztegirik... erabiltzen al du? | Ez | | | Bai |
| Bere lanen emaitzak | Ez | | | Bai |
| hobetzen saiatzen da? | | | | |
| Etxerako eskatutako lanez arduratzen da? | Inoiz ez | Batzuetan | Gehienetan | Beti |

Arlo honetan helburu hauek lortu behar dituela ikusten dugu: ______________________________

_______________________________________________________________________________

_______________________________________________________________________________

## F. *Gizarte eta Eskola-integrazioa*

| *Portaera* | *Deskribapena* |
|---|---|
| Arauen errespetua | |
| Ikaskideekiko harremana | |
| Irakasleekiko harremana | |
| Norberaren estimazioa | |
| Norberaren kontzeptua | |
| Taldearengan duen eragina | |

Arlo honetan helburu hauek lortu behar dituela ikusten dugu: ______________________________

________________________________________________________________________

________________________________________________________________________

## G. *Taldean jarduteko gaitasuna*

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Lanaren inguruan, ikaskideen iritziak onartzen ditu? | Inoiz ez | Batzuetan | Maiz | Beti |
| Talde-lanerako ideiarik ematen al du? | Inoiz ez | Batzuetan | Maiz | Beti |
| Taldean onartzen al dute lanerako? | Inoiz ez | Batzuetan | Maiz | Beti |

Arlo honetan helburu hauek lortu behar dituela ikusten dugu: ______________________________

________________________________________________________________________

________________________________________________________________________

## H. *Aipagarria den beste zerbait*

## Ñ3. Dibertsifikazioa aholkatzen hasi baino lehen
CEU aholkatzen hasi baino lehen (begiratu Aniztasun Plana)

**Baliteke ikasle batzuei dibertsifikazio programa aholkatu behar izatea.**
**Fitxa honek lan horretan lagundu nahi du**

Ikaslearen izena: ______________________________

Irakaslearen izena: ______________________________

Data: ______________________________

Tutorearen izena: ______________________________

***Dibertsifikazioa***

| | | **Ezaugarri hauetakoren bat** | *Bai* | *Ez* |
|---|---|---|---|---|
| 1. | | Lehen zikloa bukatu du | | |
| | 1a | Helburuak globalki beteak eta/edo aniztasuna dela-eta, neurriak izan dituzte | | |
| 2. | | 3. mailan dago/egon da urte honetan | | |
| 3. | | 4. mailan dago/egon da urte honetan | | |
| 4. | | CEUn dago/egon da urte honetan eta Dibertsifikazioan sartzeko prest dago | | |
| | | **Orokorrean ondoko ezaugarriak betetzen ditu** | | |
| 5. | | Bide arruntetik zailtasun nabariak ditu eskola-graduatu titulua eskuratzeko | | |
| 6. | | Interes akademikorik ez | | |
| 7. | | Batxilergo egiteko itxaropenik ez du | | |
| 8. | | Sistema praktikoak nahiago ditu | | |
| 9. | | Ikasteko motibazio eza agertzen du | | |
| 10. | | Etekin handiagoa aterako dio neurri honi besteei baino | | |
| 11. | | 16 urte | | |

## Baliteke ikasle batzuei CEU programa aholkatu behar izatea.
## Fitxa ale honek lan horretan laguntzea du helburu.

Ikaslearen izena: ______________________________

Irakaslearen izena: ______________________________

Data: ______________________________

Tutorearen izena: ______________________________

***CEU***

| | | **Ezaugarri hauetakoren bat** | *Bai* | *Ez* |
|---|---|---|---|---|
| 1. | | Lehen zikloan egon da + | | |
| | 1a | Ez ditu helburuak lortu. Lehen hezkuntzan urte bat gehiago egon zen. | | |
| | 1b | Jokaera-arazo serioak agertzen ditu. | | |
| 2. | | 3. mailara pasa da helburuak lortu gabe. | | |
| | 2b | Irakasle-taldeak pentsatu du errepikatzeak ez duela merezi. | | |
| | 2c | Jokaera-arazo serioak agertzen ditu. | | |
| 3. | | 3. maila errepikatu du. | | |
| 4. | | Jokaera-arazo serioak agertzen ditu. | | |
| | | **Orokorrean ondoko ezaugarriak betetzen ditu** | | |
| 5. | | Eskola ezkorki baloratzen du. | | |
| 6. | | Laketzeko zailtasun serioak agertzen ditu. | | |
| 7. | | Bat-bateko emaitzak bilatzen ditu. Emaitza aplikagarriak bilatzen ditu. | | |
| 8. | | Eskolan atzerapena. Atzerapen horrek bere ikaskideekin egoteko zailtasunak ekartzen dizkio. | | |
| 9. | | Etorkizunerako lanbide bat ikastea ongi baloratzen du. Lehenbailehen joan nahi du lan-mundura. | | |
| 10. | | Elkarbizitzarako zailtasunak agertzen ditu. Jokaera-arazo serioak eskolan. | | |
| 11. | | 15 urte. | | |

## Ñ4. Institutura etorri behar duen ikasleari buruz irakasleen artean hitz egiteko txostena

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasleen trantsizioaz hitz egiteko erabil daiteke tresna hau. DBHn hasten direnean edota lehen ziklotik bigarren ziklora pasatzen direnean.

Ikaslea: ______________________________ Adina: _______________________

Elkarrizketan dauden irakasleen izenak: ______________________________

Institutukoak: __________, __________, __________, __________, ________

Beste ikastetxeetakoak: __________, __________, __________, __________

1. Familiaren datuak. Zerbait berezia?

2. Gurasoek ikastetxearekin duten harremana:
   a) Txarra.
   b) Egokia.
   c) Ona.

3. Eskolaratze historia. Nondik pasatu da ikaslea? Ikasturteren bat galdu al du? Zergatik?

4. Gizarte- eta eskola-integrazioa:
   4.1. Autonomia pertsonala.
   4.2. Autonomia lan egiterakoan.
   4.3. Arautegiak errespetatzen ditu?
   4.4. Ikaskideekiko harremana.
   4.5. Irakasleekiko harremana.
   4.6. Autoestimua.

5. Gaitasun curricularrak
   5.1. Euskara.
   5.2. Gaztelania.
   5.3. Matematika.
   5.4. Ingurunea (lehen maila)
   5.5. Ingelesa
   5.6. (3. maila). Natur.
   5.7. (3. maila) Gizarte.

| 5.8. Ikasteko norberaren estiloa.<br>Norbanakoaren ikasteko ezaugarriak | | | | | | | | *Oharrak* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zailtasun handiak ditu arreta eta<br><br>kontzentrazioa mantendu<br>ahal izateko | | | | | | | Betebeharrak<br>eskatzen<br>badizkiogu,<br>arreta handiz hartzen<br>ditu | |
| Lan zuzenduak eta ongi bideratuak<br>burutzen ditu | | | | | | | Bere kabuz egiten<br>ditu lanak | |
| Zailtasunaren aurrean dagoenean,<br>amore ematen du | | | | | | | Zailtasun handiak<br>izan arren, ez du<br>amorerik ematen | |
| Nahiz eta ez funtzionatu bide<br>beretik segitzen du | | | | | | | Bere bideak<br>funtzionatzen ez<br>duenean, aldatzeko<br>gauza da | |
| Pentsatu gabe lanari ekiten dio.<br>Gehienetan entsegu-erroreen bidez<br>aritzen da. Oldarkorra da | | | | | | | Lanean hasi baino<br>lehenago<br>planifikatu egiten du.<br>Gogoetatsua da. | |
| Ahalegin guztiak egiten ditu<br>buruz ikasten | | | | | | | Konprenitzen<br>saiatzen da. | |
| Gehienetan ez ditu lanak<br>errepasatzen | | | | | | | Egiten duena<br>egiaztatzen du. | |
| Lan berrien aurrean ez dakiela<br>esaten du, ez du egiten,<br>ezta saiatzen ere | | | | | | | Lan berrien<br>aurrean irtenbide<br>emateko estrategiak<br>bilatzen ditu edota<br>galdetzen du. | |

5.9. Errefortzuak
  5.9.1. Zer da gehien gustatzen zaiona?
  5.9.2. Zeri erantzuten dio hobekien?
  5.9.3. Gehien motibatzen duen errefortzua zein da?
  5.9.4. Nola nahiago du lan egin?

6. Zailtasun bereziak?
  6.1. Adimena?
  6.2. Hizkuntz eragozpenak?
  6.3. Motrizitatea?
  6.4. Entzumena? Ikusmena?
  6.5. Nortasun arazoak?
7. Osasun datu aipagarriak.
8. Bada beste zerbait?

## Ñ5. Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Gelako txostena (Biurdana, 99)

### Zertarako erabil daiteke?

Dokumentu hau zera egiteko erabiliko da: aurre-ebaluazio edota ebaluazio-saioa izan baino lehen irakasle bakoitzak betetzen du, bertan bere iritzia agertzen delarik. Ikastaldean beharrezkoak diren neurriak hartzeko dokumentu hauetan oinarritzen da irakasle-taldeak.

Ñ5 dokumentu guztiak aktarekin betera gordetzen dira (bi orrialde).

## Gelako txostena

Dokumentu hau zera egiteko erabiltzen dugu: aurre-ebaluazio edota ebaluazio-saioa izan baino lehen irakasleok beteko dugu, bertan gure iritzia agertuko delarik. Neurriak modu bateratuan hartuko ditugu; hau egin ahal izateko, irakasle guztiok bete dugun dokumentu honetan oinarrituko gara.

Ikasturtea: ___________ Ebaluazioa: ______ Taldea: _____ Jakintzagaia: _____
Irakaslea: ____________ Tutorea: ________________________________________

1. Taldearen egoera orokorra

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Puntualtasuna. | OG | G | N | O | OO |
| Diziplina. | OG | G | N | O | OO |
| Interesa. | OG | G | N | O | OO |
| Etxeko lanak. | OG | G | N | O | OO |
| Ikasketak. | OG | G | N | O | OO |
| Errendimendua. | OG | G | N | O | OO |
| Inguruaren zainketa. | OG | G | N | O | OO |
| Lagun-giroa, orokorrean | OG | G | N | O | OO |
| Lan-giroa, orokorrean | OG | G | N | O | OO |

2. Ikasleen egoera bereziak.
   2.1. Ikasgelan arreta arazoak izan dituzten ikasleak:
   ________________________________________
   2.2. Lan eskas egin duten ikasleak:
   ________________________________________
   2.3. Errendimendu akademiko eskasa izan duten ikasleak:
   ________________________________________
   2.4. Portaera txarreko ikasleak:
   ________________________________________
   2.5. Taldean integratzeko arazoak izan dituzten ikasleak:
   ________________________________________
   2.6. Positiboki nabarmendu diren ikasleak:
   ________________________________________

3. Programa bereziak izan dituzten ikasleak

| *Ikaslea* | *Arazoak* | *Zergatia* | *Soluziobidea* |
|---|---|---|---|
| | | | |

4. Testuinguruaren balorazioa (ez bete hasierako ebaluazioan)
   4.1. Ikasgaiaren programazioaren ebaluazioa: aniztasunaren trataera.
   ________________________________________
   4.2. Programazioaren erritmoa.
   ________________________________________
   4.3. Emaitzen balorazioa helburuak kontuan hartuz.
   ________________________________________

*Oharrak*

________________________________________

________________________________________

## Ñ6. Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Ikaslearen ebaluazio-txostena

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasle bati buruzko ebaluazio-txostena egiteko. Irakasle guztiok beteko dugu ikasle batek errefortzu edota egokitzapena egitea proposatzen dugunean. Atzealdean mintegi bakoitzak duen behaketa-orria fotokopiatuko da eta irakasle bakoitzak beteko du.

### Ikaslearen ebaluazio-txostena

Zera egiteko erabiliko da: ikasle bati buruzko arloko ebaluazio-txostena egiteko. Irakasle guztiok beteko dugu ikasle batek errefortzu edo egokitzapena egitea proposatzen dugunean.

Izen abizenak: ______________________

Taldea: __________ Ikasturtea: __________ Tutorea: ______________

Jakintzagaia: __________ Irakaslea: ____________ Kalifikazioa: __________

| *Gaitasun orokorrak* | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | |
| Ahozkoaren ulermena. Gelan ematen ditudan azalpenak ez ditu inoiz ulertu | | | | | | Ahozkoaren ulermena. Gelan ematen ditudan azalpenak beti ulertu ditu |
| Ahozko adierazpena. Ez du ongi hitz egiten. Ez du modu antolatuan hitz egiten | | | | | | Ahozko adierazpena. Modu antolatuan hitz egiten du. Ongi hitz egiten du |
| Idatzizkoaren ulermena. Ez du irakurri duena inoiz ere ulertu | | | | | | Idatzizkoaren ulermena. Irakurri duena beti ulertu du |
| Idatzizko adierazpena. Ez da ideiak era antolatuan idazteko gauza izan (zikin, zehaztasunik gabe, ortografia akatsak...) | | | | | | Idatzizko adierazpena. Ideiak era antolatuan eta zuzen idatzi ditu beti (txukun, zehatz, ortografia...) |
| *Ikaskuntza prozesua* | | | | | | |
| Autonomiarik ez du erakutsi | | | | | | Bere lanak egiterakoan, erabat autonomoa izan da |
| Ez ditu lan teknikak erabili | | | | | | Lan teknikak ezagutu eta ongi erabili ditu |
| Laguntza gehiegi eskatu dit | | | | | | Laguntza era egokian eskatu dit |
| Laguntza gehiegi eskatu die ikaskideei | | | | | | Laguntza era egokian eskatu die ikaskideei |
| Lanak ez ditu dagokien epean entregatu | | | | | | Lanak bere epean entregatu ditu |
| Lanak ez ditu planifikatu | | | | | | Lanak ongi planifikatu ditu |
| Lanak egiterakoan ez du arreta jarri | | | | | | Arreta handiz egin du lan |
| Materiala erabat desordenatua izan du | | | | | | Ongi erabili du materiala |
| Etxeko ikasketetan ez du lanik egin | | | | | | Etxeko ikasketatan ahalegindu da |
| Etxean ez ditu ariketak egin | | | | | | Etxean ongi egin ditu ariketak |
| Gelan ez du lanik egin | | | | | | Gelan ongi egin du lan |
| *Garapen pertsonala* | | | | | | |
| Ez du interesik adierazi | | | | | | Interesa eta motibazioa nabari zaio |
| Bere buruarengan konfiantza txikia erakutsi du | | | | | | Bere buruarengan konfiantza erakutsi du |
| Ikaskideekiko jarrera, bai harreman pertsonaletan, bai gelako lanetan, txarra izan da | | | | | | Ikaskideekiko jarrera, bai harreman pertsonaletan, bai gelako lanetan, ona izan da |
| Gelako lan giroa ez du errespetatu | | | | | | Gelako lan giroa errespetatu du |
| Ez du ingurugiroa errespetatu | | | | | | Ingurugiroa errespetatu du |

Beste gauza esanguratsuak: ______________________

Proposatzen diodan neurria: ______________________

## Ñ7. Ebaluazio-prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Aurre-ebaluazioaren txostena (Biurdana)

### Zertarako erabil daiteke?

Ikasle bakoitzari hau bezalako dokumentua beteko zaio aurre-ebaluazioAn. CE hiru arloan edo gehiagotan proposatzen bazaio, tutoreak kopia emanen dio Orientazio Departamentuari. Paper honen atzetik grapatuko ditugu Ñ6 dokumentu guztiak

### Aurre-ebaluazioren txostena

Ikasle bakoitzari hau bezalako txosten bat beteko zaio aurre-ebaluazioan. CE hiru arloan edo gehiagotan proposatzen badiogu, tutoreak kopia emanen dio Orientazio Departamentuari. Paper honen atzetik grapatuko ditugu arloen aurre-ebaluazio dokumentuak.

Ikaslearen: __________________ Izena: __________________

Tutorea:_____________ Ikasturtea: _____________ Taldea: _____________

☐ Ikasle honi ez zaio aurre-ebaluazioan arazorik antzeman.

☐ Ikasle honi aurre-ebaluazioan arazoak antzeman zaizkio, ondokoetan:

| *Arloak* | *Balorapenak Gutxi* | *Proposatzen diren E* | *Hezkuntza-neurriak CE* |
|---|---|---|---|
| Euskara | | | |
| Gaztelania | | | |
| Ingelesa | | | |
| Gizarte | | | |
| Natur Zientziak | | | |
| Matematika | | | |
| HJA / Erligioa | | | |
| Gorputz Heziketa | | | |
| Musika | | | |
| Teknologia | | | |
| Ipuin Langela | | | |
| Pentsatzen ikastea | | | |
| Frantsesa | | | |
| Plastika | | | |

*Balorazio orokorra*:

___

___

*Oharrak* (motibazioa, ikasteko ohiturak edota estrategiak, jarrera, integrazioa...)

___

___

## Ñ8. Ebaluazio prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Gelako txostena (Biurdana)

### Zertarako erabil daiteke?

Zera egiteko erabiliko da dokumentu hau: hasierako ebaluazioa bertan idatziko da zailtasunak dauzkaten ikasleen izenaren ondoan irakasleak zer-nolako neurria proposatzen dion.

## Gelako txostena

Zera egiteko erabiliko da dokumentu hau: hasierako ebaluazioa bertan idatziko da zailtasunak dauzkaten ikasleen izenaren ondoan irakasleak zer-nolako neurria proposatzen dion.

| *Ikasleen izenak* | A Jakintzagaia | | B Jakintzagaia | | C Jakintzagaia | | D Jakintzagaia | | E Jakintzagaia | | F Jakintzagaia | | G J. | | H J. | | I J | | J J. | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

Honela idatzi behar da:

– "R" Ikasle honentzat Errefortzua proposatzen dut. Laguntza-mota da baina ez ditugu gutxienezko helburu edota edukiak ukitzen. "CE": Ikasle honentzat Curriculumaren egokitzapena proposatzen dut. Curriculumaren egokitzapenak zera suposatzen du: laguntza-mota berezia da. Gutxienezko edukiak edota helburuak aldatuko dizkiot.

## Ñ9. Ebaluazio-prozesuan erabiltzen ahal ditugun dokumentuak. Akta-eredua (Biurdana 99)

### Zertarako erabil daiteke?

Ebaluazio saioan izandako akordioak idazteko.

## Akta-eredua

Ikasturtea:

__________ Ebaluazioko akta.

Tutorea: ___________________ Taldea: _______________ Data: _______________

*Ebaluazio aldian elkartutako irakasleak*

| *Jakintzagaia* | *Izena* | *Sinadura* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| *Etorri ez diren irakasleak* | | |
| *Jakintzagaia* | *Izena* | *Arrazoia* |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

*Taldearen azterketa*

Errendimenduaren balorapena.

______________________________________________

Jarreraren balorapena

______________________________________________

*Akordioak. Ikasleentzat*

| *Ikaslea* | *Jarrera eta motibazioa* | *Jokaera* | *Jakintzagaietan dituen zailtasun zehatzak.* | *Proposamenak edota akordioak* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

Talderako akordioak

# O. Orotarik

## Zera lantzen dugu

Ariketa asko sailkatu dugu orain arte. Hauek zipriztinak dira. Atal batean sartzea zaila denez, hona hemen zati berezi hau.

| *Klabea* | *Titulua* | *Ikasturteak* | *Egoerak* | *Norentzat* |
|---|---|---|---|---|
| O1 | Askatasuna eta errespetua. | DBH3 | | Tutorearentzat |
| O2 | Erlaxazioa egiteko ariketa. (Osasun-gida. Nafarroako Gobernua. 232. Orrialdea). | DBH1, 2, 3, 4 | Tutoretza saioan | Tutorearentzat |
| O3 | Presioen gaineko hausnarketa. | DBH1, 2, 3, 4 | Tutoretza saioan | Tutorearentzat |
| O4 | Neure kontsumoaz kontzientzia hartzen dut. | DBH1, 2, 3, 4 | Tutoretza saioan | Tutorearentzat |
| O5 | Eztabaidarako esaldiak. | DBH1, 2, 3, 4 | Gelarako eztabaidagaia | Irakaslearentzat |
| O 6 | Irakasleengandik tutorearengana | DBH1, 2, 3, 4 BATX1, 2 | Tutoreak informazioa behar duenean | Tutore eta irakasleentzat |
| O7 | Adimen anitzak | DBH1, 2, 3 | Ikasketen orientazioa | Tutorearentzat |

## O1. Askatasuna eta errespetua lantzeko ariketa batzuk

### Zertarako erabil daiteke?

Baloreak lantzeko sistema erraza dugu hau.

### Prozedura

Testu-iruzkinak.

### Oharrak

Edozein irakaslek har dezake edozein abesti edota ipuin eta balore batzuk landu.

### Xoriñoa kaiolan

Xoriñoak kaiolan trixterik du kantatzen (bis)
duelarikan zer jan zer edan
kanpua du desiratzen
zeren... zeren...
libertatea zoinen eder den.

Hi kanpoko txoria so egiok kaiolari (bis)
ahal baldin baledi, hartaz begira hadi
zeren... zeren...
libertatea zoinen eder den.

Bart amets egin dut maitia ikusirik (bis)
ikusi eta ezin mintza ez al da pena handia
eta... ezin bestian... desiratu nuke hiltzia.

Amaia Zubiria eta Pascal Gagne. *Egun argi hartan*
(Herri abestia. Moldaketak: P. Gaigne)

– Abesti honetaz hitz eginen dugu orain. Boskoteak osatuko ditugu. Boskote bakoitzak moderatzailea eta bozeramailea izanen ditu. Moderatzaileak hitza emanen du eta bozeramaileak taldeak erabakitzen duena idatzi eta besteei kontatu beharko die.

________________________________________________________

– Zeintzuk izan daitezke gizakiok dauzkagun kaiolak?

________________________________________________________

– Batzuetan guk geuk jartzen ditugu kaiolak. Zeintzuk dira geure buruari jartzen dizkiogun kaiolak?

________________________________________________________

– Bizitzak muga arrunta batzuk dauzka. Zer-nolako desberdintasuna dago kaiola eta mugaren artean?

________________________________________________________

– Zer da askatasuna? Zeintzuk dira Askatasunak dauzkan mugak?

________________________________________________________

*Ariketa: Txoriak txori*

Testu-iruzkina dugu ariketa hau.

Ondoko pertsonez osatutako taldea:

**Txoriak Txori**

Hegoak ebaki banizkion
nerea izango zen,
ez zuen alde egingo.
Bainan horrela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik txoria nuen maite.

Mikel Laboa

Hona hemen galdera batzuk olerki honek dakarren mezuaz, taldeka gogoeta egin dezazuen. Garrantzitsuena olerkariak eman nahi digun esanahiaren eta mezuaren muinari heltzea da.

1. Zuen iritziz zer ote da “Hegoak ebaki” hitzek esan nahi dutena?
2. Zuen iritziz zein unetan ebakitzen dizkigute hegoak?
3. Noiz ebaki dizkiezue hegoak beste pertsona batzuei?
4. Topatu al dituzue hego ebakiak zuen artean?
5. Zuen iritziz nolakoa izan behar du hego ebakirik gabeko pertsonen arteko harremanak?
6. Zenbaitetan, guk, pertsonok, hegoak ebakitzen dizkiogu geure buruari. Inoiz gertatu al zaizue zuei horrelakorik?
7. Nola erantzun duzue baten batek hegoak ebakitzen zizkizuela sumatu duzuenean?
8. Beste pertsona baten hegoak ebakitzen ikusi duzuenean, nola jokatu duzue?

*Ariketa: Zilbor-hesteak.*

Ondoko pertsonez osatutako taldea

**Zilbor-hesteak**

Bi kate,
biak ebaki beharrezkoak,
bat gorputzaren bizitzeko
bestea gogoaren askatzeko.

Adizu, ama, badakizu
sortze berean
zuri gorputzez
lotzen ninduen zilbor-hesteak
sendagileak nola ebaki zuen.

Lehenengo eten beharra izan zen,
bizitzaren bizitzeko lehen legea.
Haurtzaroan titia eman zenidan.

Mutilzaroan
eskoletara bidali
bizitzarako arma hartze arren.

Dena eskertzen dizut,
duen balore guztian,
nik ahal dudan neurrian.

Bainan, gaztaroan
amatxo maite!
ohar zaitez,
benetan maite nauzun ama
izan nahi baduzu
eta nik zu maitatzea,
ni naizena
nik izatea nahi dudana izatera,
ez utzi bakarrik,
bultza behar nauzula.

Hau baita bide bakarra
biok elkar sanoki maitatzeko,
biok elkar osoki eta betikoz maitatzeko,
zuk zure nortasunaz, nik nereaz. (bi)

Ama. eten dezagun,
lehen gorputzarena bezala,
orain gogoaren zilbor-hestea.

Hona hemen galdera batzuk olerki honek dakarren mezuaz, taldeka gogoeta egin dezazuen. Garrantzitsuena olerkariak eman nahi digun esanahiaren eta mezuaren muinari heltzea da.

1. Argi dago zer den zilbor-hestea. Jaiotzerakoan amarekin bat izatetik bi pertsona izatera pasatzen gara. Nola ebakitzen da gogoaren (izpirituaren) zilbor-hestea?
2. Zilbor-hestea lotura bat izan daiteke. Dena den, bizitzan beste loturak izaten ditugu. Batzuetan kontzienteki moztu behar ditugu? Izan duzue halakorik?
3. Nerabezaroan (adoleszentzian) zein alderdi ebakitzen ditugu? Nola ebakitzen dituzue taldekideek? Zuen iritziz ebakitze honek traumatikoa behar du izan ala lasai ebakitzen dugu?
4. Gure artean badugu batzuetan askatu nahi ditugun loturak? Zeintzuk dira zuen kasuan? Nola egin dezakezue?

## O2. Erlaxazioa

### Zertarako erabil daiteke?

Erlaxazio ariketa egiteko. Estresa sortzen denerako ikasleek erlaxatzen ikasi badute, hobeto moldatuko dira.

Antsietatea egoera ezberdinetan gidatzeko eta kontrolatzeko.

### Oharrak

*Marko teorikoa*: Osasun-gidan 170. orrialdetik aurrera

## Erlaxazioa

Gai hau ikuspuntu eta hezkuntza-teknika ezberdinekin landu daiteke. Hona hemen batzuk:

*Urduritasuna eta erlaxazioa.* Ikasleei, urduri jartzen direnean gorputzean zer sentitzen duten galdetuko diegu (arnasa hartzea kostatzen zait, eskuek dar-dar egiten didate, bihotzeko taupadek abiadura handia hartzen dute, tripako mina,...). Bakoitzak adieraziko du zer sentitzen duen gehien.

Irakasleak erlaxazioa antsietatea kontrolatzeko bitartekoa dela azalduko du (ikus Gaiari helduz). Ondoko ideia hauek azpimarratuko ditu: a/ urduri jartzen garenean, gure gorputzeko muskuluak tenkatu egiten dira. Konturatu ere egin gabe indar handia egiten dugu beraiekin; b/ tenkatzearen kontrakoa erlaxazioa da. Tenkatzeak urduritasuna sorrarazten du. Erlaxazioak lasaitasuna dakar; c/ erlaxatzea gure muskuluekin indarrik ez egitea eta hauek lasaitzen ikastea da.

*Erlaxatzen ikasiko dugu.* Erlaxazioan trebatzeko ariketei hasiera emango diegu. Beharrezkoa da aretoan arreta galaraz dezakeen zaratarik ez egotea. Jarrera erosoan esertzea eskatuko zaie: sorbalda aulkiaren bizkarraldearen kontra jarrita eta eskuak izterretan jarrita.

12. fitxan dagoen prozeduraren urratsak beteko dira. Irakasleak ezagutzen dituen edo eskura dituen materialak eta prozedurak erabil daitezke ("*Una forma de aprender a relajarse*" liburuxka. Osasun Saila. Nafarroako Gobernua. Osasun Publikorako Institutuan eskura daiteke).

*Imajina dezagun...* Azaldu arnasketa ariketak eta erlaxatzen ikasteko tenkatze eta erlaxatze metodoa. Ariketak aplikatzeko imajinaziozko azken ariketa planteatu:

> "Begiak itxita ditugula, gustuko dugun eta inoiz bereziki gustura sentitu izan garen lekuaren irudia hautatuko dugu: hondartza, mendi gaina, ibaiertza, etxean musika entzunez... Arnasa hartu eta gustuko dugun eszenako xehetasunak zeharkatuko ditugu: uraren hotsa, haize leuna, itsasoaren urdina... lasaitasun sentsazio atsegin bati geure gorputza hartzen utziko diogu eta minutu batzuez han egongo bagina bezala gozatuko dugu".

Ariketa pixkanaka bukatuko da (begiak zabalduko ditugu, hankak astiro luzatuko ditugu...).

Erronda bat egin bakoitzak nola sentitu izan den, erlaxatu ote den, zein eszena hautatu duen,... adieraz dezan.

Garrantzitsua da argi uztea lehenengo egunean agian ez dugula erabat erlaxatzea lortuko. Teknika ongi ikasi arte eta emaitza onak lortu arte taldean edo etxean praktikatzen jarrai dezakegu.

## Erlaxatzen ikasiko dugu

(Iturria: Antonio Vallés: *Programa de Refuerzo de las Habilidades Sociales*, II, EOS Argitaletxea)

### *Ikas ezazu erlaxatzen*

- ❑ Eseri eroso aulkian (edo besaulkian, sofan edo koltxonetan) eta egin itzazu arnasketa ariketak.
- ❑ Itxi itzazu begiak ariketa guztiak bukatu arte.
- ❑ Arnasa hartu, sudurretik, astiro.
- ❑ Arnasa bota ahotik, astiro.
- ❑ Errepika ezazu ariketa hau bospasei aldiz.
- ❑ Lasaitu zure gorputzeko muskulu guztiak.
- ❑ Begiratu zure eskuineko eskuari.
- ❑ Estutu ukabila eta sentitu nola tenkatzen diren muskuluak.
- ❑ Lasaitu ukabila. Erlaxa ezazu eskua.
- ❑ Ez al da atseginagoa eskua erlaxatuta izatea?
- ❑ Eduki begiak minutu batzuez itxita eta begiratu lasai eta erlaxatuta dagoen zure eskuineko eskuari.
- ❑ Zure ezkerreko eskuari so egin orain.
- ❑ Ukabila estutu eta senti ezazu muskuluak nola tenkatzen diren.
- ❑ Lasaitu ukabila. Erlaxatu eskua.
- ❑ Eduki begiak itxita minutu batzuez eta begiratu lasai eta erlaxatuta dagoen zure ezkerreko eskuari.
- ❑ Egin berriro ere arnasketa ariketa batzuk.
- ❑ Imajina ezazu zure eskuineko eskuak asko pisatzen duela, oso erlaxaturik dagoela.
- ❑ Eskuineko besoa ere oso erlaxatuta dago. Lasaitu eskuineko besoko muskuluak.
- ❑ Besoa sentitu ere ez duzu egiten.
- ❑ Pentsa, une batez, erlaxatuta dagoen zure eskuineko besoan.
- ❑ Imajina ezazu zure ezkerreko eskuak asko pisatzen duela, oso erlaxaturik dagoela.
- ❑ Ezkerreko besoa ere oso erlaxatuta dago. Lasaitu ezkerreko besoko muskuluak.
- ❑ Besoa sentitu ere ez duzu egiten.
- ❑ Pentsatu, une batez, erlaxatuta dagoen zure ezkerreko besoan.
- ❑ Beso eta esku erlaxatuetako ariketa hau errepika ezazu minutu batzuez.
- ❑ Orain hankak erlaxatzen ikasiko duzu.
- ❑ Tenkatu eskuineko hankako muskuluak... ezeroso sentitu zara?
- ❑ Muskuluak tenkatuta daudenean, ezeroso sentitzen gara.
- ❑ Lasaitu eskuineko hanka osorik: oina, berna, izterra.
- ❑ Kontzentra zaitez minutu batzuez gero eta lasaiago daukazun eskuineko hankan.
- ❑ Hanka sentitu ere ez duzu egiten.
- ❑ Tenkatu ezkerreko hankako muskuluak... ezeroso sentitu zara?
- ❑ Lasaitu ezkerreko hanka osorik; oina, berna eta izterra.
- ❑ Kontzentra zaitez minutu batzuez gero eta lasaiago daukazun ezkerreko hankan.
- ❑ Pentsa ezazu... Hankak oso erlaxatuta dauzkazula, sentitu ere ez dituzula egiten, oso lasai zaudela
- ❑ Gomazko panpina banintz bezala sentitzen naiz.

- ❑ Orain aurpegia erlaxatzen ikasiko duzu.
- ❑ Zimurtu bekokia apur bat.
- ❑ Horrela jarraituz gero, ezeroso sentituko zinateke?
- ❑ Lasaitu bekokia, erlaxatu. Orain hobeto zaude. Zure bekokia freskoago dago.
- ❑ Pentsa minutu batzuez erlaxatutako bekokian.
- ❑ Estutu begiak gogor. Begiak estututa dituzula, sentitu zein ezeroso zauden.
- ❑ Lasaitu begietako muskuluak. Astiro-astiro.
- ❑ Pentsa ezazu minutu batzuez erlaxaturiko begietan.
- ❑ Estutu ezpainak bata bestearen kontra eta sentitu horren ezatsegina. Tenkatuta zaude.
- ❑ Lasaitu pixkanaka. Banandu apur bat, ez ukitzeko eran. Erlaxatu itzazu.
- ❑ Zure ezpainak lasai eta erlaxatuta daude. Atseginagoa da.
- ❑ Pentsatu ezazu...
- ❑ Aurpegi guztia oso erlaxatuta daukazula: bekokia, begiak, ezpainak. Aurpegia freskoa eta erlaxatua sentitzen duzu. Gustura sentitzen zara.
- ❑ Eta azkenik...
- ❑ Egin itzazu berriz arnasketa ariketak
- ❑ Hartu arnasa sudurretik, astiro.
- ❑ Bota arnasa ahotik, astiro.
- ❑ Pentsatu ezazu...
- ❑ Oso erlaxatuta eta lasai zaude. Zure eskuak, zure bernak, zure aurpegia...
- ❑ Gorputz osoa daukazu erlaxatuta. Ongi sentitzen zara. Oso lasai zaude.
- ❑ Horretarako bost arte kontatuko duzu astiro: 1, 2, 3, 4, 5, eta begiak pixkanaka zabalduko dituzu eta... altxatu egingo zara.

❑ Hobeto sentitzen zara?

________________________________________

❑ Nola zaude?

________________________________________

Lasaiago al zaude?

________________________________________

## O3. Presioen gaineko hausnarketa

### Zertarako erabil daiteke?

Talde-presioaren aurrean erantzun egokiak ematen ikasteko.

Beharrezkoa denean, kanpoko presioei ezetz erran diezaieten.

### Prozedura

*Pausuak:*

1. Irakasleak aurkezpena egiten du eta bertan zera erraten du:
   – Presioa zer den.
   – Zer-nolako presioak gerta daitezkeen: psikologikoak, fisikoak...

Irakasleak berak erabaki behar du anonimoa egin ala ez.

Garrantzitsuena zera da:

a) Irakasle tutoreak gauzak nola gertatzen ari diren jakitea.
b) Beraiek moldatzeko daukaten ahalmenaz jabetzea.
c) Moldatzen hastea.

Gauza zailak direnean, zeharka tratatu beharreko gaia dugu hau.

2. Zer-nolako presioak jasaten dituzten azter dezaten.
   a) Bakarka erantzunen dute inkesta.
   b) Taldeka komentatuko dute idatzitakoa.
   c) Elkarrekin idatziko dute kezka handienak arbelean (talde bakoitzeko bat).
   d) Mural batean presiorik handienak zeintzuk diren idatziko dituzte.
3. Erabakitako presioen aurrean zer-nolako soluzioak proposatzen dituzten pentsatuko dute, sistema berbera eramanez.
4. Arbelean nola gustatuko litzaiekeen gelan egotea idatziko dute. Kontuan hartu behar da helburuak ezin direla zalantzan jarri.

### Oharrak

Batzuetan egin behar ez duguna egitera behartuta gaude. Gazte garenean presioak jaso behar izaten ditugu. Baita helduak garenean ere. Aipatu presioa gogorra denean eta bortxakeria fisikoa edota psikologikoa erabiltzen denean, "*estortsioa*" deitzen zaio.

Saio hauek egin baino lehen ikasleen parte hartzea lortzea garrantzitsua da, hagitz. Ikasleek irakaslea etsai bezala ikusten badute, saioak ez du arrakastarik izanen.

Aldez aurretik, heldutasuna lor dezaten lagundu nahi diegula erranen diegu.

Nire izena: ______________________________________________

## Jasan behar izaten ditudan presioak

| Nire gurasoen aldetik | |
|---|---|
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |
| **Nire ikaskideen aldetik (ikastetxean, oro har)** | |
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |
| **Nire irakasleen aldetik** | |
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |
| **Nire lagunen aldetik** | |
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |
| **Bestelakorik** | |
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |

Nire izena: ________________________________________________

## Jasan behar izaten ditugun presioak

| Nire gurasoen aldetik | |
|---|---|
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |
| Nire ikaskideen aldetik (ikastetxean, oro har) | |
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |
| Nire irakasleen aldetik. | |
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |
| Nire lagunen aldetik | |
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |
| Bestelakorik | |
| *Presioak* | *Ematen ditudan irtenbideak* |
| | |

## O4. Kontzientzia hartzen dut neure kontsumoaz

### Zertarako erabil daiteke?

Baloreak lantzeko (adibidea).

### Prozedura

1. Astelehenean ikasleei eskatuko zaie astean zehar erabili edo kontsumituko dituen produktu guztiak idatziz jasotzeko orri batean (gai hau lantzen duen irakasleak beste denbora tarte bat har dezake erreferentzia gisa, adibidez, egun bat, hilabete bat, astegun bat, txango bat…).

2. Ondoko astelehenean kontsumitu denaren balioaren zenbatekoa neurtuko da eta dagokion zutabean apuntatuko da.

3. Ondoren, ikasleek paperak elkarri eman eta ikaskideek kontsumitutako produktu bakoitzari 0 eta 3 puntuen arteko puntuaketa eman beharko diote, kontuan hartuta produktu hori beharrezkoa ote den bizitzeko. Irizpidea hauxe izanen da:

   3: Bizitzeko, ezinbestekoa zen produktu hori kontsumitzea.

   2: Bizitzeko, oso beharrezkoa zen produktu hori.

   1: Beharrezkoa zen.

   0: Ez zen inola ere beharrezkoa.

   Oharren atalean bestelako balorazioak egin daitezke produktu horren kontsumoaz:

   – Salneurria baloratu (garestia, merkea...); izan ere, beharra ase daiteke oso prezio ezberdinak dituzten beste produktu batzuekin (ez dugu esan nahi prezio merkeago bat beti prezio zuzenagoa denik).

- Produktua eta ingurugiroa (berrerabilpena, birziklapena...)
- Baloratu produktuak merkataritza zuzena izan ote duen.

4. Paperak berriz ere euren jabeei emanen zaizkie. Arbelean ondoko galderak eginen dira: ("Bizitzeko beharrezkoa" irizpidea kontuan hartu behar dute)
   a) Zenbat gauza egin edo kontsumitu dituzu beharrezkoak ez zirenak?
   b) Gutxi gorabehera, zenbatekoa izan da beharrezkoa ez izanik, kontsumitu duzunaren prezio osoa?
   c) Gutxi gorabehera, zenbatekoa izan da kontsumitu dituzun beharrezko produktuen prezio osoa?
   d) Gutxi gorabehera zenbatekoa izan da beharrezkoa ez izanik, taldean kontsumitu denaren prezio osoa?
   e) Gutxi gorabehera, zenbatekoa izan da taldeak kontsumitu dituen beharrezko produktuen prezio osoa?
   f) Zein ondorio atera ditzakegu?
   g) Zein ondorio atera ditzakegu oharretan bildutakoak ikusita?
   h) Gauza batzuk kenduta ere, ongi bizitzen segi dezakegu? Zeintzuk dira gauza horiek?
   i) Uste duzu giza garapena lortzeko beharrezkoa dela zuk egindako kontsumoa?
   j) Non jartzen duzu zure kontsumoaren maila?

**Astean kontsumitu dudana**

| *Kontsumogaia* | *Prezioa* | *Beharrezkoa?* | *Oharrak* |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

O

## O5. Eztabaidarako esaldiak

### Zertarako erabil daiteke?

*Edozein gai uki daiteke sistema honekin*. Hemen munduan gertatzen diren justiziarik gabeko egoerak aztertzeko bildu ditugu.

### Prozedura

1. Esaldi hauek fotokopiatu eta moztu.
2. Eman ikasle bakoitzari bat. Irakasleak ematen dien bitartean bertan agertzen denaz ez dutela elkarrekin hitz egiten ahal erran behar die.
3. Esaldiaz gogoeta egiteko eskatuko zaie. Zer iradokitzen die? Zein iritzi dute esaldiari buruz?
4. Ikaskide bakoitzak egokitu zaion esaldia irakurriko du. Bere hitzekin azaldu eta taldeari komentatuko dio esaldiak iradoki diona. Iruzkin bakoitzaren ondotik eztabaida saio txikia egin daiteke.

Ez du ezertarako balio herrialde bati laguntzeko mobilizatzeak nazioarteko harreman ekonomikoak horren injustuak baldin badira. (Jose Mari Mendiluze. *El Sur*. 96ko ekaina).

Politika-moldeek gerrak eta miseriak prebenitu eta geldiarazi behar dituzte, eta ez diete tiritarik jarri behar bizirik irauten duten pertsonei. (Jose Mari Mendiluze. *El Sur*. 96ko ekaina).

Goseak, gerrak eta pobrezia gorriak bultzatzen dituzte. Egunero, milioika gizon-emakumek mugak, errekak, itsasoak zeharkatzen dituzte, eta ez dira hiltzearen beldur. Errefuxiatuak dira. Horiexek dira biderik ibilienak, jendetsuenak.

Gizonak, emakumeak, haurrak, abereak, hantxe zebiltzan garraiatu zezaketena, asko edo gutxi, arrastaka eramaten. Giza miseriako ibai bat osatzen zuten, heriotzatik ihesi. (Carmelo Machin. *El Sur*. 96ko ekaina).

1970ean, errefuxiatuak bi milioi t'erdi ziren mundu osoan. 26 urte pasatuta, hots, gizateriaren historian denbora tarte hutsala, deserriratuen kopuru hori izugarri handitu da, 20 aldiz gehiago dira zehazki. (*El Sur*. 96ko ekaina).

Gaur errefuxiatuak dira. Bihar judutarrak edo homosexualak izan daitezke. (Daniel Cohn-Bendit. 1992. urtean Alemanian gertatutako eraso xenofoboen gainean).

Garapen bidean dagoen munduak dauka:
– Munduko populazioaren % 75.
– Energia kontsumoaren % 15.
– Munduko NPG (Nazio produktu gordina) % 17.
– Munduko osasun gastuaren % 6.
– Munduko elikadura-aleen % 30.
– Munduko inportazio-irabazien % 18.
– Munduko industriaren % 8.
– Munduko zientzia eta teknologiaren % 5.
(*"El estado de la población mundial, recogido en '15 juegos de educación en el Desarrollo para Scouts'"*)

Batzuek ihes egiten dute gerrek, indarkeriak edota beldurrak eraginda. Beste batzuek goseak eraginda. Beste askok, besterik gabe, euren sustraiak atzean uzten dituzte bizitza hobea topatuko dutelakoan, lehen munduko aberastasunak itsuturik. (R. Lobo).

Telebista pobreziaren zokoetan sartu da eta zoko horietan bizi direnei euren desgraziaren kontzientzia zehatza eman die. (Ramon Lobo).

Arraza zuriak baditu ezaugarri intelektual bereziak eta beste arraza batzuetakoak baino garatuagoak. Behar bada, horrexegatik, Afrikan ez dira Europak lortu dituen garapen mailetara iritsi.

Desberdintasunari, goseari eta gerrari aurre egiteko epe luzera ematen den laguntzak oztopo handia topatzen du bidean. Izan ere, gobernu diktatorial batzuek laguntza hori erabiltzen dute gerra-tresna gisa edota dirua irabazteko iturri gisa.

1975ean mundu guztiak esaten zuen NPGren (Nazio produktu gordina) % 0.7 baliatu behar zela garapenari laguntzeko. Gaur egun, % 0.3ra jaitsi gara. Bitartean, herrien arteko elkartasuna lortzeko eta gure mundua hobeki kudeatzeko atalasea %1,5ekoa da gaur egun.

| | |
|---|---|
| TB kolorean, ur beroa, bideoa. Gure ongizate atsegin hori presidentetza-hauteskunde batzuen menpean egon daiteke edo arma kimikoez edo nuklearrez josita dagoen ero baten menpean. | Afrikan gertatzen dira HIESaren kasuen %70. Eritasun hori pobreziaren eta ezjakintasunaren eskutik helduta doa. (Milagros Perez Oliva, “Beldurra Zainetan”, *El País Semanal* 1023). |
| Atzerritarrak sortzen ditu berak bere baitan duen adinako beldurra. (Elie Wiesel). | Telebista oso hezigarria da: Baten batek pizten duen aldi oro, ni banoa beste gela batera eta liburu bat irakurtzen dut. (Groucho Marx). |
| Erbesteratu bakoitzak errekonozitu beharko du bera Historiako biktima dela. (Gabriel y Galán). | Erbestea ez da hitz bat edo estatistika bat. Ariman egindako ebakia baizik. (Daniel Sueiro). |
| Elkartasunak eta duintasunak ez dute salbuespenik. (Faustino Lastra). | Zergatik du nahiago pertsona batek Madrilen pobre izan Fezen baino? (R. Lobo). |
| Etorkin aberatsa beti ongi etorria izaten da. | Europa gotorlekuan Gibraltar itsasartea da gazteluko lubanarroa. |
| Pertsona bat bizitza galtzeko prest dagoenean, itsasartea pateretan gurutzatzen duten marokoarrak bezala, hilezkorra da. | Jende saldoak heriotzatik heriotzarantz aurrera doaz, soilik une batekoa izanen den asiloaren bila. (Breyten Breytenbach). |
| Miseriatik pobrezia duinera pasatu nahi dugu. (J.B. Aristide). | Beharrik gabe jaten dena lapurtu egiten zaio pobreen urdailari. (Gandhi). |
| Giza eskubideak ez daitezke kultura ezberdinetara egokitu. (Sabater). | Elikagaiak igorri dituzte. Horrela, Europak hesia eraiki du bere kontzientzia libratuz. (Sélim Nassib). |
| Atzerritarrarekiko beldurra ez du ezberdintasunak sortzen, antzekotasunak baizik. (Tahar Ben Jellom). | Askatasunak badu bere baitan zerbait, eta, gauza horren bidez berehala ohitzen gara askatasunera. (Salman Rusdhie). |

## O6. Irakasleengandik tutorearengana

Ikasle baten gaineko informazioa behar dugunean. Gurasoekin hitz egiteko adibidez.

## Tutoreari irakasleek ikasle zehatz bati buruz ematen dioten informazio txostena

Tutoreak behar duenean eska diezaieke irakasle guztiei. Irakasleok lehenbailehen erantzun behar dugu. Garrantzitsua da tutoreak ikasleen gurasoekin hitz egin behar duenean. Informazio hau azkeneko ebaluaketatik hilabete bat baino gehiago pasatu bada eskatzen da.

Ikaslea: ________________________________ Maila: __________________________

Arloa: __________________________ Irakaslea: ______________________________

Tutorea: ________________________________ Data: __________________________

1. Gelan.
   1.1. Alderdi akademikoak.
      1.1.1. Landutako azken gaiak.
      ____________________________________________________________
      1.1.2. Gai hauetan izan dituen emaitzak.
      ____________________________________________________________
   1.2. Jarrera.
      1.2.1. Lana. Ahalegina eta antolaketa.
      ____________________________________________________________
      1.2.2. Arreta.
      ____________________________________________________________
      1.2.3. Motibazioa eta interesa.
      ____________________________________________________________
      1.2.4. Parte hartzea.
      ____________________________________________________________
      1.2.5. Integrazioa.
      ____________________________________________________________
2. Etxean.
   2.1. Agindutako lanak.
   ____________________________________________________________
   2.2. Ikastea.
   ____________________________________________________________
3. Orokorrean.
   3.1. Ikaslearen garapena aurreko ebaluazio edo ikasturtearekin alderatuz.
   ____________________________________________________________
   3.2. Hobetu behar dituen alderdiak.
   ____________________________________________________________
   3.3. Kanpoko laguntzaren gaineko aholkuak.
   ____________________________________________________________
4. Kontuan hartzekoa.

## O7. Adimen anitzak

### Zertarako erabil daiteke?

Autoezagutzarako ariketa bat da.

### Prozedura

Ariketan agertzen da.

Izena: ___________________________________________________________

Ikasturtea eta atala: _______ Gaurko data: ____ Adina: ____ Tutorea: _______

**Galdetegia: nire pentsatzeko modua.**

Leblanc, Raymond. Faculté d'Education. Université d'Ottawa.

Lehen pausua

**Zure iritziarekin bat datorren zenbakia borobil ezazu.**
**Lerro bakoitzean zenbaki bakar bat borobildu behar duzu.**

1. Istorioak idaztea atsegin dut.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

2. Musika instrumentu bat jotzen dut edota jotzea gustatuko litzaidake.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

3. Nire aisialdiaren zati handi bat marrazten ematen dut.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

4. Lagun asko eta onak dauzkat.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

5. Tresnen funtzionamenduaz askotan galdetzen dut.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

6. Kalkulu mental ona dut.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

7. Kiroletan trebea naiz.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

8. Abestien melodiaz oroitu egiten naiz.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

9. Zerbaitetan pentsatzen dudanean, irudiak imajinatzen ditut.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

10. Matematika atsegin dut.

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

11. Ohartzen naiz musika nota gaizki noiz jo duten (noiz desafinatu duten).

| Ez nago batere ados. Ez da nire kasua. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | Erabat ados. Nire kasua da. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

12. Nire ideiak defendatzeko independentea naiz.

